



AVD·ZEA

Academia
Vasca de
Derecho

Zuzenbidearen
Euskal
Akademia

ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA

ALDIZKARIA

V. urtea - 13. zk. - Bilbo - 2007ko iraila
ISSN: 1888-0525 - LG: BI 1677-03

Aurkibidea

In Memoriam: Xabier Aurrekoetxea

Tatiana G. San Sebastián 5

Artikuluak

1. ***KONTABILITATE ESPARRU BERRIA.
16/2007LEGEA ETA HORREN ONDOREAK
SOZIJETATEEN ZUZENBIDEAN***, Eba Gaminde 9
2. ***LANGABEZIA KOOPERATIBA-SOZIJETATEAN***,
Jabier Arrieta 27
3. ***ESKUBIDE HISTORIKOEN ATARIAN:
FORUTASUNA ETA SISTEMA JURIDIKO
LIBERALA XIX. MENDEAN***, Aitziber Irigoras 51
4. ***EUSKARAREN BALIO GABEKO ESKUBIDEAK
JUSTIZIA ARLOAN***, Kepa Sanpedro 71
5. ***ONOMASIOLOGIA ETA TERMINOLOGIA:
www.iev.deusto.es BIBLIOTEKA
JURIDIKO ELEBIDUNAREN
HUSTUKETARAKO IRIZPIDEAK***,
Andres Urrutia / Esther Urrutia 91

6. **EUSKARAREN ARRASTOAK NAFARROAKO FORU OROKORREAN**, Estebe Gonzalez 153

7. **“LANGILLIENTZAT ZARTZARO-LEGEA” ETA BESTE. GREGORIO MUJIKAREN LANAK GIZARTE LAGUNTZAZ**, Cesar Gallastegi 161

Liburuak

8. **LARRAMENDIREN HIZTEGIGINTZA JURIDIKOA** 203

9. **KODE ZIBILAREN BIGARREN ARGITARALDIA** 207

10. **LEGE ZIBILAK: ONDASUN HIGIEZINAK. BIGARREN ARGITARALDIA** 209

11. **ZUZENBIDE POLITIKOAREN LEGERIA** 211

12. **HIZKUNTZA-ZUZENBIDEA. TESTU-BILDUMA EUSKARAZ** 213

Albisteak

13. **KONGRESUEN BERRI LABURRA**, Cesar Gallastegi 215

14. **AKADEMIAREN ALBISTEAK**, Xabier Oleaga 223



www.bbkk.es

Zorroen Kudeaketa Zure ondarearentzako balio berria

BBKren helburua da zure ondarearen kudeaketari balio erantsia ematea; horretarako, profesionaltasunez aholkatzeaz gain, merkatuko produkturik onenak eskainiko dizkizugu, eta finantza- eta zerga-arloan errentagarritasunik onena lortuko duzu.

BBK Banka Pertsonaleko bezero gisa, konfiantzako profesionala izango duzu zure eskura, eta hark bideratuko ditu BBK-ko talde adituen sinergia guztiak; horrela, une bakoitzean, zure beharrera eta zure ondarearen ezaugarrietara guztiz egokitzen den finantza- eta zerga-plangintza eskainiko dizugu.

Banka Pertsonala

bbk⁺

IN MEMORIAM: XABIER AURREKOETXEA



Maiz-sarri hitzak eurak ere ez dira aski izaten barruan ditugunak adierazteko, batik bat, adiskide maite-maitea ustekabeen hiltzen zaigunean. Izan ere, oraingo hau gertaera mingarri horietatik bat da. Xabier Aurrekoetxea Aurrekoetxea (Bilbo, 1965. urteko uztailaren 7an / Gorniz, 2007. urteko irailaren 13an), Euskal Zuzenbidearen Akademiako kide eragilea eta laguntzailea

berrikitan zendu da. Hura zen euskal foru zuzenbidearekin konpromiso handiko jurista; hura zen arlo horretan aditua eta zale-tua, hala erakutsita hamaikatxo biltzar, bilera, jardunaldi, kongre-su eta gainerakoetan, nola, hur-hurrekoa genuenen artean, txoko bateko mahainguru atseginean.

Gure zuzenbidearen inguruko lanak Akademiara ez ezik, Deustuko Unibertsitatera eta Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkune Ohoretsuaren barruko foru-zuzenbidea aztertzeko talde-
ra ere eraman zituen, lerro hauen egilearekin batera sortu zuela delako talde hori.

1995. urtean ezagutu nuen Xabier, Deustuko Unibertsitateak antolaturiko Euskal Herriko Foru Zuzenbide eta Zuzenbide Autonomikoaren Masterraren lehen promozioan. Xabier zen masterreko koordinatzailea, eta biok foru-zuzenbide-arekin genuen jakin-min berberak ekarri zuen, gerora ere, gure bizitzak batera ibiltzea, akademia-gaietan zein adiskidantza-kon-tuetan.

Deustuko Unibertsitatean parte hartu zuen, Itziar Monasterio Azpiri doktorearen zuzendaritzapean, "Jurisprudentzia Zibil Foralaren Bilduma" delakoaren liburuki batzuetan. Halaber, Abokatuen Bazkunean lan ikaragarria egin zuen foru-zuzenbide zibila aztertzeko taldean, jardunaldi ugarietan parte hartuz.

Bide beretik, beste autonomia-erkidego batzuetan antola-turiko kongresuetan ere parte hartu zuen, gure zuzenbide zibila-ren ezaugarriak zabal eta luze azalduz. Bestalde, Euskal Zuzenbidearen Akademian, Zuzenbide Pribatuaren Ataleko idaz-karia izan zen.

Lan horren emaitza sendoak dira bere artikulua, txosten, komunikazioak eta abarrekoak, egunen batean bildu beharko direnak. Horixe da gure lankideari egin diezaiokegun omenaldi-rik zintzoena, berak ere horixe nahiko zuelako, hain zuzen ere, berak jorratutakoa oinarri izatea bihar-etziko gogoeta eta asmo-e-tarako.

Goian bego Xabier Aurrekoetxea adixkide mina. Ezagutu zintugunok zeure hutsunea nabarituko dugu gure artean. Hutsune zabalagoa, zalantzarik gabe, euskal foru-zuzenbidearen arloan sumatuko dena. Hori betetzen saiatuko gara, Xabier, zeure eta geure herriaren izenean.

Egun handia arte, Xabier!

Tatiana G. San Sebastián

KONTABILITATE-ESPARRU BERRIA. 16/2007 LEGEA ETA HORREN ONDOREAK SOZIJETATEEN ZUZENBIDEAN

1. AURREKARIAK

2007ko uztailaren 5ean 16/2007 Legea argitaratu da EAOn, alegia, Merkataritzako Kontabilitate-arauak Eraldatu eta Arautegi Europarrari Egokitzeko Legea (laburrean, Kontabilitatea Eraldatzeko Legea), 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean jarriko dena.

Lege hori dela bide, merkataritzako antolamenduaren oinarriko hainbat lege eraldatu behar izan dira, eta, horrez landara, azken xedapenetan Gobernuari eskuespena eman zaio Errege Dekretuaren bidez Kontabilitate Plan Orokor berri bat onets dezan, baita, aldi berean eta plan horren osagarri moduan, PYMEentzako Kontabilitate Plan Orokorra onets dezan, halakoen oroitidazkian sartu beharreko datuak sinplifikatuz. Eskuespenok direla bide, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretua dugu (azaroaren 20ko EAOn argitaratu dena), eta esan daiteke aspaldi hasitako harmonizazio-prozesua biribildu ez ezik, une gogoangarria ere gauzatu dela Kontabilitate Plan berri horiek onestean.

Baina, noiz hasi zen prozesu hori? Eta, are gehiago, zeintzuk izango dira azken urrats honen ondoreak, merkataritzako jarduleei begira?

16/2007 Legearen zioen azalpenak dioen bezala, kontabilitate-arauak Europar Batasunaren esparruan harmonizatzeko proze-

su orokorra kokatu behar da sozietate-zuzenbidea harmonizatzeko prozesuaren barruan. Ibilbide luze horren lehenengo harria izan zen merkataritzako legeria sozietateen inguruko zuzentarauei egokitzeko 19/1989 Legea, horrek ekarri zuelako Merkataritza Kodea eraldatzea eta Sozietate Anonimoei buruzko testu bategina zein 1990eko Kontabilitate Plan Orokorra onestea.

Orduz geroztik zinezko oinarria eta edukia dituen kontabilitate-zuzenbidea eratu da merkataritzako zuzenbidearen barne, beste xedapen batzuekin osatuz joan dena. Aipatzeko modukoak dira, besteak beste, Erantzukizun Mugatuko Sozietateen Legea (1995), Merkataritzako Erregelamendua (1996), edota, beste maila batean, Kontabilitate eta Kontu-Auditoretzaren Institutuak (ICAC delakoak) emandako ebazpenak.

Denboran aurrera eginda, eta erakunde europarrek finkatutako kontabilitate-arauei hurbiltzeko estrategia horri ekinez, ezin ahanzt daiteke Europako Kontseiluak 2002ko uztailaren 19an emandako 1606/2002 (EB) Erregelamendua, Nazioarteko Kontabilitate-arauek (gaztelaniaz "Normas Internacionales de Contabilidad-NIC eta Normas Internacionales de Información Financiera-NIIF izenekoak) aplikatzeari buruzkoa. Erregelamendu horren ariora, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera kontu bateratuak egin behar zituzten sozietateek edozein estatukidetako merkatu arauturen batean kotizatzen bazuten balantzea ixterakoan, NICen arabera egin behar zituzten euren kontuak. Gainerako kasuetan, ordea, ez zen derrigorrekoa arauok aplikatzea, eta halako merkatuetan kotizatzen ez zuten sozietateen kontu bateratuak zein banakako kontuak estatukide bakoitzeko barne-arautegia kontuan izanda egin zitezkeen.

Testuinguru horretan, bada, Espainiako legegileak hiru aukera zituen: a) aurreko kontabilitate-arauei ekitea; b) zuzenean aplikatzea Europako erregelamenduak; edota d) Espainiako kontabilitate-legeria eraldatzea, NIC izenekoari hurbiltzeko.

Aukerako hiru irtenbide horietatik, legegileak azkenekoa hartu du, eta merkataritzako kontabilitate-legeria eraldatzeko prozesuaren azken urratsa 16/2007 Lege honekin gauzatu da. Are

gehiago, legea garatzearen ondorioz, Kontabilitate Plan Orokor berria dugu, 2008an aplikatuko dena.

Azter ditzagun, bada, lege berria eta horren ondoreak.

2. UZTAILAREN 4KO 16/2007 LEGEA, MERKATARITZA-KO KONTABILITATE-ARAUAK ERALDATU ETA ARAUTEGI EUROPARRARI EGOKITZEKO

2.1. Sarrera

Kontabilitatea Eraldatzeko Legea aztertu baino lehen, horren aurrekaririk hurbilena ekarri behar dugu hizpidera, abenduaren 20ko 62/2003 Legea, hain zuzen, bertan aipatu baitziren lehenengoz lege honek jasotako aldaketarik batzuk: zentzuzko balioaren kontzeptua eta berori aplikatzeko kasuak, talde hitzaren eta kontuak bateratzeko betebeharraren esangura berriak (talde horizontalaren ideia sartu zen, kontseilari berdinak dituen taldea aipatzeko)...; lege horren azken xedapenen bidez, orobat, NIC ize-nekoak sartu ziren Espainiako antolamenduan, goian aipatu bezala 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera urteko kontuak NIC horien arabera aurkeztu ahal izateko.

Jorragai dugun legeak aldaketa horiei eutsi ez ezik (balioespen-irizpideen alorrean, *eskuraketa-prezioa* bazter utzi eta *zentzuzko balioa* aipatzen du), beste hainbat berrikuntza ere ekarri ditu, zehatzago aztertuko ditugunak, denak kontuzkoak baitira: urteko kontuetan agiri berriak sartu dira; orain arte arautu gabeko eragiketara batzuk arautu dira; etekinen gaineko zergaren kontabilitatea aldatu da; elkarri lotutako alderdien arteko transakzioetan informazio gehiago eskatzen da; *sozietate-talde* eta *kontu bateratuen* kontzeptuak berriro definitu dira...

Aldaketa horiek direla eta, Merkataritza Kodea, Sozietate Anonimoen Legea, Erantzukizun Mugatuko Sozietateena, Kooperatibena eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legea eraldatu behar izan dira. Ikus ditzagun lege-testuok banan-banan, azpimarra Sozietate Anonimoen Legean eta Erantzukizun Mugatukoan jarrita, horiek osatzen baitute sozietate-zuzenbidearen muina.

2.2. Merkataritza Kodea

Hauexek dira testu horren aldaketarik aipagarrienak:

a) Urteko kontuetan ohiko balantze, galera-irabazien kontu eta oroitidazkiaz landara, beste bi agiri sartu dira: *ondare garbiaren aldaketak erakusteko orria* eta *kutxa-fluxuen orria*. Lehenengoa arrunta zein laburtua izan daiteke eta derrigor agertu behar da; kutxa-fluxuen orria, ordea, lehengo finantzaketa-laukiaren parekoa izango litzateke, eta horrekin gertatzen zen bezala, ez da derrigorrekoa, sozietateak balantze laburtua aurkezteko betekizunak betetzen dituenean. Oroitidazkian, halaber, lehen baino datu gehiago jaso behar dira. Horrez gain, kontuen osagaiak argiro definitu dira: *aktiboa*, *pasiboa*, *sarrera* eta *gastua*.

b) Osagaiok baloratzeko irizpideen aldetik ere badira berrikuntzak, esan bezala *zentzuzko balioa* edo *fair value* delakoa sartu baita, honela definituz: “zentzuzko balioa da, transakzio batean aktiboa eskuratzeko edo pasiboa likidatzeko zenbatekoa, interesa eta informazioa duten alderdiek elkarrengandik modu lokabeen egin dutenean transakzio hori. Ezin da zentzuzko balio tzat hartu, ordea, derrigorreko edo presako transakzio baten ondoriozko zenbatekoa, edota borondatezkoa ez den likidazioaren emaitza”.

c) *Sozietate-talde*en kontzeptua eta kontu bateratuen zenbait alde ukitu dira. Gorago aipatu 62/2003 Legeak sozietate-taldek definitzean, *talde horizontala* ekarri zuen hizpidera, zuzendaritza bakarraren betekizuna ezarrita. Lege honek, berriz, aspaldiko irizpideari ekin dio berriro, *taldearen* kontzeptua nagusitasun-menpekotasun harremanetan oinarrituz.

2.3. Sozietate Anonimoen Legea

Lege-testu honen kasuan, aldaketen nondik-norakoak azalzteaz bestalde, artikuluen hitzez-hitzezko idazkera berria ere eman nahi izan dugu, gure uste apalean artikuluoak maiz-sarri erabiliko direlako praktikan.

a) Aurrekoaren ildotik, urteko kontuetara bi agiri berri horiek biltzeaz gain, indarrrik gabe utzi dira kontuon edukiari eta garapenari buruzko xedapenak (VII. Kapituluaren 2, 3, 4 eta 5. atalak), horiek Kontabilitate Plan Orokor berrian zehaztu baitira. Horrenbestez, urteko kontuei dagokienez, hauek dira aldatutako artikulua:

171. artikulua. *Egitea*

1. Sozietatearen ekitaldia itxi eta gehienez hurrengo hiru hilabeteetan, sozietatearen administratzaileek egin behar dituzte urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta emaitzak aplikatzeko proposamena, baita, hala denean, kontu eta kudeaketa-txosten bateratuak ere.

2. Administratzaile guztiek sinatu behar dituzte urteko kontuak eta kudeaketa-txostena. Horietako batek sinatu ezean, zehaztuko da zein agiri ez den sinatu, horren arrazoia esan-bidez azalduta.

172. artikulua. *Urteko kontuak*

1. Urteko kontuetan sartzen dira balantzea, galera-irabazien kontua, ekitaldiko ondare garbiaren aldaketak erakusteko orria, kutxa-fluxuen orria eta oroitidazkia. Kutxa-fluxuen orria ez da beharrezkoa, lege honetako 175. artikulua 4. paragrafoak aipatu kasuetan.

2. Agiri horiek batasun bat osatzen dute, argiro idatzi behar dira, eta ondarearen, finantzen nahiz sozietate-emaitzen benetako egoera agerrarazi behar dute, lege honetan eta Merkataritza Kodean ezarritakoaren arabera.

3. Urteko kontuak osatzen dituzten agirien egitura eta edukia izan behar dira erregelamendu bidez onetsitako ereduen arabera.

173. artikulua. *Partidak banantzea*

1. Urteko kontuak osatzen dituzten agirietan, bananduta agertu behar dira erregelamendu bidez onetsitako ereduak partidak, beraietan zehaztutako hurrenkeraren arabera.

2. Partida horietan, azpizatiketa zehatzagoa ere egin daiteke, baldin eta ezarritako eskemen egitura betetzen bada.

Halaber, partida berriak sar daitezke, euren edukia ez badago jasota eskema horietako partidetan.

174. artikulua. *Partidak elkartzea*

Urteko kontuak osatzen dituzten agirien zenbait partida elkar daitezke, partida horiek ez direnean esanguratsuak, ondarearen, finantzen edo sozietate-

emaitzen benetako egoera agerrarazteko, edota horretara argitasunaren alde egi-
ten denean; betiere, elkartutako partidak bereizita agertu behar dira oroitidazkian.

b) Urteko kontu laburtuak aurkeztu ahal izateko zenbateko-
ak igo dira:

175. artikulua. *Balantze laburtua eta ondare garbiaren aldaketak era-
kusteko orri laburtua*

1. Balantze eta ondare garbiaren aldaketak erakusteko orri laburtuak egin
ahal izateko, sozietateek, ekitaldia ixteko datan, honako betekizunetarik bi gutxie-
nez bete behar dituzte, ondoz ondoko bi ekitaldietan zehar:

a) Aktiboaren partiden guztizkoa ez izatea bi milioi zortziehun eta berro-
geita hamar mila eurotik gorakoa.

b) Negozioen urteko zenbateko garbia ez izatea bost milioi eta zazpiehun
mila eurotik gorakoa.

c) Ekitaldiko langileen batez besteko kopurua ez izatea berrogeita hama-
retik gorakoa.

Sozietateek ahalmen hori galduko dute, ondoz ondoko bi ekitaldietan
zehar betetzen ez badituzte aurreko paragrafoan aipatzen diren betekizunetarik bi.

2. Sozietatearen eraketa, transformazioa edo bat-egitea gertatu osteko
lehenengo ekitaldian zehar, sozietateek egin dezakete balantze laburtua eta onda-
re garbiaren aldaketak erakusteko orri laburtua, baldin eta eurek aurreko paragra-
foan aipatu hiru inguruabarretarik bi gutxienez betetzen badituzte, ekitaldia ixten
denean.

3. Sozietate-baloreen negoziazioa onartuta badago Europar Batasuneko
edozein estatukideren merkatu arautuan, sozietate horrek ezin izango du erabili arti-
kulu honen 1. paragrafoan ezarri ahalmena.

4. Balantze eta ondare garbiaren aldaketak erakusteko orri laburtuak egin
daitezkeenean, kutxa-fluxuen orria ez da beharrezkoa izango.

176. artikulua. *Galera-irabazien kontu laburtua*

1. Sozietateek galera-irabazien kontu laburtua egin dezakete, baldin eta
ekitaldia ixteko datan hurrengo inguruabarretarik bi gutxienez betetzen badituzte,
ondoz ondoko bi ekitaldietan zehar:

a) Aktiboaren partiden guztizkoa ez izatea hamaika milioi eta laurehun
mila eurotik gorakoa.

b) Negozioen urteko zenbateko garbia ez izatea hogeita bi milioi eta zor-
tziehun mila eurotik gorakoa.

c) Ekitaldiko langileen batez besteko kopurua ez izatea berrehun eta berrogeita hamarretik gorakoa.

Sozietateek ahalmena galduko dute galera-irabazien kontu laburtua egiteko, ondoz ondoko bi ekitaldietan zehar betetzen ez badituzte aurreko paragrafoan aipatzen diren betekizunetarik bi.

2. Eraketa, transformazio edo bat-egitearen osteko lehenengo ekitaldian, sozietateek galera-irabazien kontu laburtua egin dezakete, baldin eta, ekitaldi hori ixteko datan, aurreko paragrafoan aipatu hiru inguruabarretarik bi betetzen badituzte gutxienez.

3. Sozietate-baloreen negoziazioa onartuta badago Europar Batasuneko edozein estatukideren merkatu arautuan, sozietate horrek ezin izango du erabili artikuluko honen 1. paragrafoan ezarri ahalmena.

c) Oroitidazkiaren edukia zabaldu da:

199. artikulua. *Oroitidazkiaren helburua*

Oroitidazkiak osatu, zabaldu nahiz azaldu egiten ditu urteko kontuak eratzten dituzten beste agiriak.

200. artikulua. *Edukia*

Merkataritza Kodeak, lege honek eta horiek garatzeko erregelamenduek zehaztutako aipamenak ez ezik, oroitidazkiak hurrengoak ere jaso behar ditu:

Lehenengoa. Urteko kontuen partidei aplikatu beharreko balioespen-irizpideak eta balio-zuzenketak kalkulatzeko metodoak.

Urteko kontuetako osagai batzuk adierazi badira orain edo jatorrian euroa ez den monetan, zenbatekoa eurotan kalkulatzeko truke-tasaren zehaztapen-prozedura jasoko da.

Bigarrena. Sozietate bat beste baten bazkide kolektiboa denean, sozietate horrek zuzenean nahiz zeharka bestearen kapitalean ehuneko 20tik beherakoa ez duenean, edota portzentaje hain handia izan ez arren eragin esanguratsua duenean beste sozietate horretan, sozietatearen izendazioa, egoitza eta forma juridikoa.

Kapitalean izandako partaidetza, boto-eskubideen portzentajea eta azken sozietate-ekitaldiko ondare garbiaren zenbatekoa adierazi behar da.

Hirugarrena. Akzio-mota desberdinak izanez gero, mota bakoitzeko akzioen zenbakia eta balio izendatua.

Laugarrena. Lupertze-bonuak, akzio bihur daitezkeen obligazioak eta antzeko titulu nahiz eskubideak izan badirela, horien zenbakia zehaztuz, baita emandako eskubideen norainokoa ere.

Bosgarrena. Osorik ezereztu ahal izateko bost urtetik gorako iraupena duten sozietate-zorrak eta, era berean, berme erreala duten beste guztiak, horien forma eta izaera zehaztuz.

Zehaztapen horiek bananduta agertu behar dira zorrei buruzko partida bakoitzean.

Seigarrena.

a) Hirugarrenekin hitzarturiko bermeen zenbateko osoa, horiek balantzearen pasiboan aintzatetsi arren, aurreikusten denean berme horiek betebeharraren betepena ondorioztatuko dutela.

Pentsioen inguruko konpromisoak edota taldeko enpresei buruzkoak aipatu behar dira modu argian eta bananduta.

b) Balantzean ageri ez diren enpresa-akordioen izaera eta negozio-helburua, baita horien finantza-eragina ere, baldin eta informazio hori esanguratsua eta beharrezkoa bada, enpresaren finantza-egoera zehaztu ahal izateko.

c) Enpresaren eta horri lotutako hirugarrenen arteko transakzio garrantzitsuak, lotura horren izaera, transakzioaren zenbatekoa eta horri buruzko beste edozein informazio, baldin eta beharrezkoa bada, enpresaren finantza-egoera zehazteko.

Zazpigarrena. Sozietatearen jarduera arruntei dagokien negozio-zifren zenbateko garbiaren banaketa, betiere jarduera-kategoriak eta merkatu geografikoak bereiziz, baldin eta kategoria edo merkatu horiek elkarrengandik desberdinak badira modu nabarian, ekoizpenen salmenta antolatu eta sozietatearen jarduera arrunteko zerbitzuak ematerakoan. Galera-irabazien kontu laburtua egin dezaketen sozietateek ez dute aipamen horiek zertan jaso.

Zortzigarrena. Ekitaldian zehar enplegatutako pertsonen batez besteko zenbatekoa, kategoriatan adierazita, baita ekitaldiko langile-gastuak ere, soldata nahiz lansariak eta lan-zamak bereiziz, eta pentsioak estaltzekoak bananduta aipatu, gastuok ez direnean horrela agerrarazi galera-irabazien kontuan.

Ekitaldia amaitzean, sozietate-langileen sexuaren araberako banaketa, kategoriak eta mailak behar beste bereiziz; kategoria nahiz maila horien artean goizuzendariak eta kontseilariak agertuko dira.

Bederatzigarrena. Ekitaldian zehar sozietatearen goi-zuzendaritzako langileei eta administrazio-organoen kideei emandako orotariko soldata, dieta zein ordainketen zenbatekoak, halakoak emateko arrazoia edozein izanda ere; horrez gain, administrazio-organoko eta goi-zuzendaritzako lehengo eta egungo kideei begira, pentsioen esparruan zein bizitza-aseguruetakoko primen ordainketa moduan hartutako betebeharrak. Administrazio-organotako kideak pertsona juridikoak izanez gero, horiek ordezkatzeko dituzten pertsona fisikoei buruzkoak izango dira aurreko betekizun horiek.

Informazio hori batera eman daiteke, ordainketa moduan.

Hamargarrena. Goi-zuzendaritzako langileei eta administrazio-organoko kideei emandako aurrerakin eta kredituen zenbatekoa, ondokoa zehaztuz: korritu-tasa, oinarriko ezaugarriak, itzultitako zenbatekoak eta eurek berme moduan hartutako betebeharrak. Administrazio-organotako kideak pertsona juridikoak izanez gero, horiek ordezkatzeko dituzten pertsona fisikoei buruzkoak izango dira aurreko betekizun horiek.

Informazio hori batera eman daiteke, kategoria bakoitzeko.

Hamaikagarrena. Sozietateak baloreak jaulki dituenetan eta balore horien kotizazioa onartu denean Europar Batasuneko edozein estatukidetakoko merkatu arautuan, indarreko arautegia kontuan hartuta sozietate horrek urteko kontu banakakoak bakarrik argitaratzen baditu, oroitidazkian zehaztu beharko ditu bere funtsetan eta galera-irabazien kontuan gertatutako ziratekeen aldaketa nagusiak, Europar Batasuneko erregelamenduek onetsitako nazioarteko finantza-informazioaren arauak aplikatu izan balira; betiere, aplikatutako balioespen-irizpideak zehaztuko dira.

Hamabigarrena. Kontu-auditoretzaren eta kontu-auditoreek emandako beste zerbitzuen ondoriozko sariak, kontzeptu desberdinak bereizita, baita Kontu Auditoretzari buruzko uztailaren 12ko 19/1988 Legean xedatutakoaren arabera auditoreari lotutako pertsona zein erakundeei dagozkienak ere.

Hamahirugarrena. Hala denean, sozietatea zein taldetan izan eta talde hori, edota urteko kontu bateratuak Merkataritzako zein Erregistrotan gordailutu eta Erregistro hori, eta, bidezkoa izanez gero, kontu bateratuak egiteko betebeharratik askatzeko inguruabarrak.

Hamalagarrena. Egoitza Espainian duten sozietate batzuk erabakizentzotako bakarraren mende daudenean, kontu bateratuak egiteko betebeharrak

gabeko pertsona fisiko nahiz juridikoei batera jardunda eta edozein bide erabilita kontrolatzen dituztelako sozietateok, edota zuzendaritza bakarraren mende daudenean akordioen edo estatutuetakoa klausulen ondorioz, sozietate horien artean aktiborik handiena duenak besteen deskripzioa jaso behar du, erabaki-zentro bakarraren mende izatearen arrazoia zehaztuz; horrez gain, sozietate horrek ondoko informazioa emango du: aktiboan, pasiboan, ondare garbiaren, negozio-zifraren eta sozietatean baterako emaitzen zenbateko gehitua.

Ulertzen da aktiborik handieneko sozietatea dela, erabaki-zentro bakarrean sartzeko unean balantze-ereduaren aktibo osoan zenbatekorik handiena duen sozietatea.

Erabaki-zentro bakarraren mendeko beste sozietateek urteko kontuen oroitidazkian zehaztuko dute zein erabaki-zentroren mende dauden eta Merkataritzako zein Erregistrotan gordailutu diren zehaztapen honen lehenengo lerrokadako informazioa duen sozietatearen kontuak.

201. artikulua. *Oroitidazki laburtua*

Balantze eta ondare garbiaren aldaketak erakusteko orri laburtuak egin ditzaketen sozietateek oroitidazkitik ken ditzakete erregelamendu bidez zehaztutako aipamenak. Edozein kasutan ere, aurreko artikuluen lehenengo, bigarren, hirugarren, bederatzigarren eta hamargarren adierazpenek zehaztutako informazioa eman behar da.

Horrez gain, oroitidazkian oso-osorik azaldu behar dira artikuluen horren bosgarren adierazpenak aipatzen dituen datuak.

d) Ondare, ondare garbi, kontabilitate-ondare, sozietatearen hartzeko eta pareko esamoldeak jasotzen zituzten artikuluen ukitu dira, kontzeptu guzti horien ordean, ondare garbiaren adierazmoldea hartuta. Halakoak ditugu hurrengo artikuluen:

84. artikulua

Urripena egiteko betebeharra duen sozietateak erreserba bat eratu behar du balantzearen ondare garbian, aktiboan zenbatutako kapitalaren ehuneko 10etik gorakoak diren elkarrekiko partaidetzen balioarekin.

164.4. artikulua.

Urripenaren helburua bada galeren ondorioz urritu den ondare garbiaren eta kapitalaren arteko oreka berrezartzea, urripen horrek akzio guztiak ukitu behar ditu horien balio izendatuaren arabera; edonola ere, errespetatu behar dira legeak edo estatutuek akzio-mota bakoitzari eman ahal dizkieten pribilegioak

260.1.4. artikulua

Ondare garbia sozietate-kapitalaren erdia baino txikiagoa den zenbateko-
ra gutxitu bada galerak izateagatik, salbu eta kapital hori behar beste gehitu edo
urritzen denean, eta, betiere, uztailearen 9ko 22/2003 Konkurtso Legean xedatuta-
koaren arabera ez bada bidezkoa konkurtso-adierazpena eskatzea

e) Emaitzen aplikazioari buruzko 213. artikulua ere bereziki
aipatu behar da, horrek aldaketa adigarriak izan dituelako: batetik,
ezin izango da etekinik banatu, xedatzeko moduko erreserben zen-
batekoa ez bada, gutxienez, balantzearen aktiboan ageri diren iker-
keta- eta garapen-gastuak bestekoa; bestetik, merkataritza-funtsa-
ren pareko erreserba xedaezina zuzkitu behar da.

213. artikulua. *Emaitzak aplikatzea*

1. Balantze onetsiak adierazten duen emaitzaren erabilera erabaki behar
du batza orokorrak.

2. Legeak edo estatutuek agindutakoa bete eta gero, ekitaldiko etekinen
pentzudan nahiz askatasunez xedatzeko moduko erreserben pentzudan dibiden-
duak banatu ahal izateko, beharrezkoa da ondare garbiaren balioa ez izatea sozie-
tate-kapitaletik beherakoa edo, banaketaren ondorioz, ondare hori kapitala baino
txikiago ez bihurtzea. Ondore horietarako, ondare garbiari zuzenean egotzitako
etekinak ezin dira banatu, ez zuzenean ez zeharka.

Aurreko ekitaldietako galerak direla eta, ondare garbiaren zenbatekoa
sozietate-kapitala baino txikiagoa bada, etekina erabili behar da galera horiek kon-
pentsatzeko.

3. Ildo bertsutik, etekinak banatu ahal izateko, xedatzeko moduko erreser-
ben zenbatekoa izan behar da, gutxienez, balantzearen aktiboan ageri diren iker-
keta- eta garapen-gastuak bestekoa.

4. Edozein kasutan ere, erreserba xedaezina zuzkitu behar da, balantzea-
ren aktiboan ageri den merkataritza-funtsaren baliokidea, eta, horretarako, gutxie-
nez merkataritza-funts horren ehuneko 5 ordezkatzeko duen etekin-zifra erabiliko
da. Etekinik izan ezean, edo etekinok nahiko ez badira, askatasunez xeda daitez-
keen erreserbak erabiliko dira.

2.4. Erantzukizun Mugatuko Sozietateen Legea

Lege-testu honetan gertatutako aldaketen helburu nagusiak
izan dira, hala balantzearen barruan erreserba batzuk lekuz aldatzea,
pasiboan sartu beharrean, ondare garbian jasota, nola ondare edo

kontabilitate-ondare adierazmoldeen ordez, *ondare garbiaren* aipamena erabiltzea. Sozietate Anonimoen Legearen kasuan egin dugun bezala, oraingoan ere artikuluen idazkera berria emango dugu:

40 bis b) artikulua

b) Sozietate eskuratzailerearen balantzearen ondare garbian xedaezineko erreserba eratuko da, eskuratutako eta aktiboan zenbatutako partaidetzen baliokidea; erreserba horrek iraun behar du, partaidetzak besterendu edo amortizatzen ez diren artean.

79.1. artikulua

1. Kapital-urripenaren helburuak izan daitezke ekarpenak itzultzea edota galeren ondorioz urritu den ondare garbiaren eta kapitalaren arteko oreka berrezartzea.

82.1. artikulua

1. Ezin izango da kapitala urritu kapital horren eta galeren ondorioz urritutako ondare garbiaren arteko oreka berrezartzeko, sozietateak edozein motatako erreserbak dituenean.

104.1. e) artikulua

e) Ondare garbia sozietate-kapitalaren erdia baino txikiagoa den zenbatekora gutxitzeko galerak izateagatik, salbu eta kapital hori behar beste gehitu edo urritzen denean, eta, betiere, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera ez bada bidezkoa konkurtso-adierazpena eskatzea.

142.1. a) artikulua

a) Ondare garbia sozietate-kapitalaren erdia baino txikiagoa den zenbatekora gutxitu bada galerak izateagatik gutxienez sei hilabetetan, salbu eta epe horretan kontabilitate-ondarea berriro igotzen denean.

2.5. Sozietateen gaineko zergari buruzko Legea

Esangabe doa kontabilitate-araua aldatzen denean, arau fiskala ere aldatu behar dela, kontabilitatearen aldaketak arlo fiskalean eragin neutroa izatea erdietsi nahi bada, bederen.

Lege berriak sozietateen gaineko zergaren oinarritzko eskemari eutsi dio, alegia, abiaburua ekitaldiaren emaitza edo

kontabilitate-emaizta izango da, zergaren kuota zehazteko. Aldaketak etorri dira, berriz, emaitza hori zenbatu edo neurtzerakoan: merkataritza-funtsa, berbarako, ezin da amortizatu kontabilitate-ondoreetarako, baina bai ondore fiskalei begira (beste hitz batzuekin esanda, kontabilitate-gasturik erregistratu ez arren, eskuraketa-prezioaren kenkari fiskala egin daiteke, baldintza batzuk betetzen badira).

Horrez gain, bestelako atalak ere ukitu dira: balio-zuzenketak, zuzkidurak, kenkariak edota patentea lagatzearen ondoriozko sarrerei aplikatu beharreko arauak.

2.6. Kooperatiben Legea

Aldaketarik aipagarriena hauxe izango litzateke: bazkideek egindako ekarpenen kategoria berri bat sortu da, borondatezkoen eta derrigorrekoen tartean sailka daitekeena: bazkideen baxa-kasuetan Kontseilu Artekariak baldintzarik gabe erabil ditzakeen ekarpenak.

Egin-eginean ere, kooperatibetako bazkideek kapitala berreskuratzeko eskubidea dute, baxa-kasuetan; kooperatiba-sozietateei, beraz, ex lege kendu ahal zaie euren kapitala. Hori saihesteko, *kontseilu artekariak erabil ditzakeen ekarpenen* kategoria sortu da, eta halakoak ondare garbiaren barruan sartzen dira kooperatibaren balantzean.

Horiek guztiak izan dira lege berriak sozietateen zuzenbidean eragindako aldaketak, baina aldaketen muina finkatu eta gero, legegileak azken xedapenetan eskuespena eman dio Gobernuari horien edukia erregelamendu bidez garatzeko. Zehatzago esanda, azken xedapenetatik lehenengoan:

Eskuespena eman zaio Gobernuari, Kontabilitate Plan Orokorra eta PYMEentzako Kontabilitate Plana onesteko Errege Dekretu baten bidez.

Eskuespena eman zaio ekonomia eta ogasun ministroari, Kontabilitate Plan Orokor horren sektore-egokitzapenak egin ditzan, ICAC delakoaren proposamenez

Eskuespena eman zaio ICAC erakundeari, Kontabilitate Plan Orokorra garatzean bete beharreko arauak onets ditzan.

Hortaz, Kontabilitate Plan Orokorraren lehenengo zirriborroa 2007ko otsailaren 19an argitaratu zen ICACen web-orrialdean, eta azkenik azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsi da plan horren testu berria (okerren zuzenketa, 2007ko abenduaren 29ko EAO, 312. zenbakian).

3. KONTABILITATE PLAN OROKOR BERRIA (KPO)

Irizpide zuzenari ekinez, ahal izan den neurrian 1990eko Planaren egiturari eutsi zaio, hainbeste urteetan aplikatzearen ondorioz plan hori zeharo errotuta baitzegoen. Taula honen bitartez ikus daiteke bat-etortze hori:

1990eko KPO	2008ko KPO
1. Kontabilitate-printzipioak	1. Kontabilitatearen kontzeptu-esparrua (= printzipioak)
2. Kontuen laukia	2. Erregistro- eta balioespen-arauak (= 5)
3. Kontabilitate-definizioak	3. Urteko kontuak (= 4) - Horiek egiteko arauak - Eredu arruntak - Eredu laburtuak
4. Urteko kontuak - Horiek egiteko arauak - Eredu arruntak - Eredu laburtuak	4. Kontuen laukia (= 2)
5. Balioespen-arauak	5. Kontabilitate-definizioak (= 3)

Jarraian planaren atalok azalduko ditugu, laburrean eta zehaztapen teknikoak bazter utzita, halakoak beste artikuluko berezi batean jorratu beharko direlako:

a) Kontabilitatearen kontzeptu-esparrua

Atal honetan, finantza-egoeretan eman beharreko informazioa prestatzeko kontzeptuak zehazten dira: urteko kontuak (sozietatearen benetako egoera erakutsi behar dute eta argiro idatzi behar dira, erabiltzaileek informazioa ulertu ahal izateko); urteko kontuetan sartu beharreko informazioaren betekizunak (datuak garrantzitsuak eta fidagarriak izan behar dira); kontabilitate-printzipioak (jardunean ari den enpresa, sortzapena, erabereketasuna, zuhurtzia, konpentsazio-eza edota garrantzi erlatiboak; aurreko planean zuhurtziaren printzipioa nagusitzen bazen, oraingoan ondarearen benetako egoera hobeto erakusten duen printzipioa gailenduko da); urteko kontuen osagaiak aintzat hartzeko irizpideak; balioespen-irizpideak (hots, urteko kontuen osagaiak moneta-balioan adierazteko irizpideak); eta, azkenik, orokorrean onartutako kontabilitate-arauak (Merkataritza Kodean nahiz merkataritzako legerian jasotakoak; Kontabilitate Plan Orokorra eta sektore-egokitzapenak; ICAC delakoak emandako garapen-arauak, eta Espainiako bestelako legeria, aplikatzeko modukoa denean).

b) Erregistro- eta balioespen-arauak

Bigarren atal honetan, lehenengoan jasotako kontzeptuak garatzeko arauak ematen dira, derrigor bete beharrekoak.

Horien bitartez, transakzioei eta ondare-osagaiei aplikatu beharreko erregelak azaltzen dira, besteak beste: errentamenduetan finantza-errentamenduak eta errentamendu operartiboak bereizi dira; talde bereko enpresen arteko eragiketak arautu dira; ekitaldia itxi osteko egitateak hartu dira kontuan...

c) Urteko kontuak

Taulan zehaztu bezala eta 1990eko Planaren egiturari ekinenez, hirugarren atalean, batetik, urteko kontuak egiteko modua finkatu da, eta, bestetik, kontuon eredu arruntak nahiz laburrak eskaini dira.

d) Kontuen laukia

Oraingoan ere aurreko planaren egiturari eutsi zaio, honako sailkapena agertuz: *taldea*, *azpitaldea*, *kontuak* eta *azpikontuak*. Taldeak bederatzi dira, eta azken biak ez ziren agertzen 1990eko plan horretan: 1. oinarrizko finantzaketa; 2. ibilgetua; 3. izakinak; 4. merkataritzako eragiketen ondoriozko hartzekodun eta zordunak; 5. finantzaketa-kontuak; 6. erosketak eta gastuak; 7. salmentak eta sarrerak; 8. ondare garbiari egotzitako gastuak; 9. ondare garbiari egotzitako sarrerak.

e) Kontabilitate-definizioak

Kontabilitate Plan Berriaren bosgarren atal honetan kontuak definitzeaz gain, zenbait kontu-mugimendu azaltzen dira. Edozein kasutan ere, zati hori ez da derrigorrekoa, eta bertan ez dira jaso kontuen mugimendu guztiak, esanguratsuenak baino.

4. LABUR-ZURREAN

Merkatuak globalizatzeko egungo joera geldiezina gogoan izanda, ezinbestekoa izan da kontabilitatea bateratzeko arauketa berri hau, batik bat modu erraz eta arin batean irakurri ahal izateko edozein enpresaren finantza-egoera, enpresa horrek sukurtsalak dituenen herri desberdinetan, edota kontuak Espainiako legeriaren arabera egiten zituzten enpresek, berriro egiteko bete-beharrik ez izateko, nazioarteko finantza-merkatuan parte hartzen zutenean.

Hitz gutxitan esanda, kontabilitatearen alorreko filosofia aldatu da: lehen enpresen finantza-egoera azaldu eta kontabilitate-informazioa emateko oinarria zuhurtzia bazen, aurrerantzean datuen fidagarritasuna eta garrantzia izango dira gakoak, betiere, ondarearen benetako egoera erakusteko. Planei dago-kienez ere, aurrekoak batik bat plan juridikoak baziren, esan ohi da oraingoetan ikuspegi *ekonomikoa* gailendu dela, hots, plan berriek ondasun eta eskubideen sailkapen ekonomikoa erakusten dutela.

Guztiarekin, prozesua ez da amaitu Kontabilitate Plan Orokor berria onetsi denean, legeak ekarritako aldaketak hain dira sakonak eta esanguratsuak, hemendik aitzina lan gogorra bete beharko delako, plan horren atal zehatzei buruzko ebazpenak emanda, sektoreko planak egokituz, aldaketen inguruko kontsultak erantzunda...

5. BIBLIOGRAFIA

BARRANTES BARRANTES, A., RUIZ FONTICIELLA, T.: «Estudio de la Ley 16/2007, de 4 de julio, de reforma y adaptación de la legislación mercantil en materia contable», in *Técnica Contable*, iraila 2007, 700. zk.

CARBAJO VASCO, D.: «Incidencia de la reforma mercantil y contable en el impuesto sobre sociedades», in *Partida doble*, iraila 2007, 191. zk.

GONZÁLEZ BETANCORT, B.: «El nuevo proyecto de Ley de Reforma Contable», in *Técnica Contable*, ekaina 2006, 687. zk.

MILLÁN AGUILAR, A.: «Principales cambios en la reforma contable», in *Partida doble*, iraila 2007, 191. zk.

MONZÓN SÁNCHEZ, A.: «Situación actual de las NIIF en la Unión Europea», in *Técnica Contable*, ekaina 2006, 687. zk.

ORTEGA CARBALLO, E.: «Las cuentas anuales. Un enfoque práctico», in *Técnica Contable*, uztaila 2007, 699. zk.

ZAMORA RAMÍREZ, C. (koord.): «Todas las claves del borrador del nuevo Plan General Contable», in *Partida doble*, 2007 apirila, 187. zk.

Web-orriak:

<http://www.circe.es>

<http://www.ipyme.org>

<http://www.icac.meh.es>

Eba Gaminde

LANGABEZIA

KOOPERATIBA-SOZIETATEAN

1. SARRERA

Langabeziak berezitasun garrantzitsuak ditu kooperatiba-sozietateen esparruan, Gizarte Segurantzaren Sistemak babestutako gertakizun gisa.

Horren arrazoi dira, batik bat, bazkide langileek eta laneko bazkideek lan-arloan kooperatibari begira dituzten harreman juridiko korapilatsuak. Hurrean ere, arazo horrek baldintzatu du bazkide langileek eta laneko bazkideek duten kokapena Gizarte Segurantzako Sistem¹.

¹ LUJÁN ALCARAZek hiru multzo nagusitan sailkatu ditu arazo horren inguruko korronte nagusiak, lan elkartuko kooperatiben esparruan. Horrela, lehenengo korrontearen arabera, bereizi ezinak dira lan elkartuko kooperatibetako bazkide langilea eta alokairupeko langilea, bazkide langileak ere inorentzat eta kooperatibaren mende ematen baititu lan-zerbitzuak. Aitzitik, bigarren korrontearen arabera, eta jurisprudentziaren adierazpen gehientsuenak kontuan hartuta, lan elkartuko kooperatibetako bazkide langilea sozietate-harremanen bidez bakarrik lotzen zaio kooperatibari, eta sozietate-harremanok bateraezinak dira lan-kontratuaren ezaugarri diren inorentasunarekin eta mendekotasunarekin. Amaitzeko, hirugarren korrontea rentzat bazkide langilearen lan-harremanek *tertium genus* bat eratzen dute. Bestela esanda, korronte horren defendatzaileek uste dute lan-harreman horiek izaera mistoa dutela. Hain justu ere, izaera misto hori dela eta, ikuspuntu juridikotik, bazkidea sozietate-harremanen bidez lotzen zaio kooperatiba-sozietateari; baina, aldi berean, bazkideak bere gain hartzen du kooperatibarentzako lan-prestazioa gauzatzeko betebeharra. Hartara,

Halaber, kooperatibetako bazkide langileen eta laneko bazkideen kokapena funtsezkoa da langabeziaren ondoriozko babesaren norainokoa ezartzeko. Bada, kontuan hartu behar da, kokapen horren inguruko ezbaia gizarte-aseguruen garaian hasi zela; gainera, gaur egungo Gizarte Segurantzaren Sistema eratu da aseguruok oinarri hartuta.

Horrenbestez, gaur egungo Gizarte Segurantzaren Sistemak kooperatibetako langabezia-egoerari ematen dion babesaren norainokoa, hein handi batean, sistema horren bilakaera historikoaren ondorio da.

Egia esan, bilakaera historikoa aztertzea zeharo komenigarria da, kooperatibetako langabeziaren inguruan legegileak izan duen jarrera ikusteko, bai eta arautegi aplikagarria zehazteko ere. Azken buruan, azterketa horrek ahalbidetzen du kooperatiben esparruan langabeziaren ondoriozko babesaren deskripzioa egitea.

Hortaz, hori guztiori izango da gure abiapuntu nagusia. Alabaina, ezin ahantz daiteke gaur egun kooperatibei enplegua sortzeko aitortzen zaien erabilgarritasuna kontu handiz balioetsi behar dela; egin-eginean ere, erabilgarritasun horrek alde ilunak izan ditzake.

Esangura horretan, enplegu-politiken harira, estatuko nahiz nazioarteko xedapen batzuek ekin diote kooperatiba-sozietateak

ezin bereiz daitezke bazkideak gauzatu beharreko lan-prestazio hori eta alokairupeko langileek, *stricto sensu*, gauzatzen dutena, bi-bien ezaugarri baitira mendekotasuna eta inorentasuna (LUJÁN ALCARAZ, J. "El socio trabajador de las cooperativas de trabajo asociado en la Ley 27/1999, de 16 de julio, de Cooperativas". In *AS*, 1999, V. bolumena, 129-130. or).

Azken korrante horren aurka, LÓPEZ GANDIAREN arabera «bazkide langileek ezin dute izaera mistorik izan, eta ezin onar daiteke negozio juridiko konplexurik, halakoak deskripzio ondoretarako baliagarriak izan arren, ez direlako bazkide langileen ezaugarri; beraz, bazkide langileak bazkideak ala langileak dira, eta ez dago beste aukerarik» (LÓPEZ GANDIA, J. *Las cooperativas de trabajo asociado y la aplicación del Derecho del Trabajo*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2006, 35. or).

sustatzeko konstituzio askotan (esaterako, Espainian, Konstituzioaren 129.2 artikuluan) ezarri agindua betetzeari². Aitzitik, behar den beste-ko orekari eutsi behar zaio, kooperatibek enplegua sortzeko tresna gisa duten baliagarritasunaren eta kooperatiben nortasun edo izate propioaren artean.

Arean ere, kooperatiben izate propioak, gizarte-ekonomiako enpresa gisa, berarekin dakar lan-arloko baldintzak, esangura zaba-lean ulertuta, hobetzea. Baldintza horien artean dago, hain zuzen, Gizarte Segurantzaren Sistemak eskainitako babesa, esaterako, lan-gabeziaren kontra.

Gaur egun, duda-mudarik gabe, kooperatibek merkataritza-ko enpresen eredia bereganatu dute, eta, ondorenez, irizpide eko-nomizista eta efizientzia-irizpideen mende jarduten dute³. Horrenbestez, «munduan lehia geroz eta handiagoa eta merkatuko erregelak geroz eta zorrotzagoak izanik, kooperatibentzat lehiakor-tasuna nahitaezko balio bihurtu da, beraien izate propioarekin bat egin arte; izan ere, kooperatiben gizarte-balioek irauteko nahitaez eutsi behar zaie kooperatibek enpresa gisa izan behar dituzten efi-zientziari eta errentagarritasunari»⁴.

Hala eta guztiz ere, «izan badira desberdintasun garrantzi-tsuak gizarte-ekonomiako erakunde juridiko gisa eratzten diren enpresen eta enpresa tradizionalen artean. Bada, desberdintasun nagusia argiro atzematen da. Enpresa tradizioaletan lana eta kapi-tala bananduta egon ohi dira, bazkideek kapitala ekarri eta bazkide

² Europar Batasunean, berbarako, oso interesgarria da kooperatiben gaineko irizpideak zer-nola aldatu diren ikustea. Bada, 1983. urtera arte nolabaiteko mesfidantza zen nagusi. Urte horretatik aurrera, ordea, kooperatibak sortu eta hedatzearen alde egin da, kooperatibak enplegua sortu, enpleguari eutsi eta erregioak garatzeko egokiak izan daitezkeela kontuan hartuta (ALONSO SOTO, F. "Nueva Política Comunitaria sobre cooperativas". In *RT*, 1988, 91. zk., 95-116. or.). Nazioartean, Europar Batasunean eta estatuan kooperatiba-enpresak sus-pertzeari dagokionez, modu sakonagoan kontsulta daiteke DE NIEVES NIETO, N. *Cooperativas de trabajo asociado: aspectos jurídico-laborales*. Madril: CES, 2005, 167-179. or.

³ Horren inguruan, ikusi VALDÉS DAL-RÉ, F. "Notas sobre el nuevo régimen jurídico de las cooperativas de trabajo asociado". In *REDT*, 1980, 1. zk., 71-76. or.

⁴ Kooperatibei buruzko uztailaren 16ko 27/1999 Legearen (1999ko uztailaren 17ko EAO, 170. zk.) Zioen Azalpena.

ez diren pertsonak kontratatzen baitituzte lan-zerbitzuak emateko. Gizarte-ekonomiako enpresetan, berriz, lana da bazkideen ekarpen nagusia, eta kapitalak bigarren mailako garrantzia dauka»⁵.

Hori guztia dela eta, kooperatibak «enpresa tradizionalen agerpen desberdinen alternatiba bihurtu dira»⁶, langabeziaren eta ekonomia-krisien aurkako borrokan. Halatan, kooperatibak «enplegu haztegitzat ere hartu dira».

Hurrean ere, kooperatibak sustatzeko xedearekin, Kooperatibei buruzko uztailaren 16ko 27/1999 Legeaz geroztik, «lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileei eta gainerako kooperatibetako laneko bazkideei aplikatzen zaizkie, lanpostu egonkorrak sendotu eta sortzeko helburuarekin, inorentzat lan egiten duten langileentzako arau eta pizgarri guztiak, Gizarte Segurantzakoak nahiz kontratazio-modalitateei buruzkoak» (hamabigarren xedapen gehigarria).

Hain zuzen ere, gaur egun, abenduaren 29ko 43/2006 Legeak, hazkundera eta enplegua hobetzekoak⁷, lehenengo kapituluko lehenengo atalean Enplegua Sustatzeko Programa arautu du, eta bertan ezarritako pizgarrien onuraduntzat jo ditu langile gisa bazkide langileak edo laneko bazkideak hartzen dituzten kooperatiba-sozietateak, betiere halako kooperatibek Gizarte Segurantzaz aukeratu badute inorentzat lan egiten duten langileentzako araubideren bat (1.3 artikulua). Modu horretara, Enplegua Sustatzeko Programak enplegua sortzeko apustua egin du, gizartean egoera makurrenean dauden sektoreen artean: emakumeak, 45 urtetik gorakoak, gazteak, langabetuak, gizartean baztertuta dauden langileak, desgaitasuna duten pertsonak.

Baina, enplegu-politiken xede goragarriak oinarri hartuta, botere publikoek kooperatibei pizgarriak ematen badizkiete ere, beharrezkoa da kooperatibetako bazkide langileen eta laneko bazkideen estatus paralaborala indartzea. Bestela esanda, kooperatibei pizgarriak ematen bazaizkie, horretarako kooperatibetako bazkide-

⁵ MORGADO PANADERO, P. "Las empresas de Economía Social y el Derecho del Trabajo". In *RL*, 2002, II. bolumena, 345. or.

⁶ *Ibidem*.

⁷ 2006ko abenduaren 30eko EAO, 312. zk.

ak inorentzat lan egiten duten langileekin berdinetara, beste horrenbeste egin behar da gizarte-babesaren esparruan ere. Modu horretara, kooperatibetako bazkideei hedatu behar zaie inorentzat lan egiten duten langileen gizarte-babesa, hori ahalbidetuko duten bitarteko guztiak jarri eta kasuan kasuko egokitzapenak eginda.

Horrela jardun ezean, enplegu-politikek eratorritako pizgarriekin batera, kooperatiben esparruan ematen diren malgutasun, autoesplotazio eta desarauketa mailak erakargarriegi bihur daitezke, lan-zuzenbideak eskaintzen duen babesetik ihes egin eta sasi-kooperatibismoaren prozesuak bultzatzeko. Azken buruan, halako prozesuek eurekin ekar dezakete «sektoreari ospea kentzea ez ezik, esku-hartze publikoetz baliatzeko aukera sustatzea ere, xede eta balio jakin batzuen zerbitzupuan, erabat aldenduta Konstituzioak ondorioztatutako Gizarte Ekonomiaren xede eta balioetatik»⁸.

Labur-zurrean esanda, oso garrantzitsua da, gehienbat azken urteotan, batetik, langileek enpresako jabetzan eta kudeaketan izan beharreko partaidetza (kooperatibei datzekien balioa), eta, bestetik, krisialdian enpleguari eusteko edota enplegua sortzeko xedea (kooperatibek eratorritako balioa) uztartzea. Zernahi gisaz, gogorarazi behar da bi dimentsio izan behar direla enplegu-politika egoki ororen iparra: enplegua sustatzea eta langabeziaren ondoriozko babesaren⁹.

Horrenbestez, kooperatiba-sozietatean langabezia-gertakizuna azaltzeko orduan, nahitaezkoa da ikuspegi kritikoa izatea, hain zuzen, izan daitezkeen desberdintasunak aintzat hartuta, kooperatibetako bazkideen babesaren eta inorentzat lan egiten duten langileen babesaren artean. Horrezaz landa, ordainketa bakarraren era-

⁸ LÓPEZ GANDIA, J. *op. cit.*, 16. or. Autore horrek kooperatibek gauzatutako kontraten arazoak ere aztertu ditu. Arazo horien artean daude, hala nola, ekoizpenaren deszentralizazioa, eta Langileen Estatutuaren 42 eta 43. artikuluei iruzurra eginez lan-kontratuetatik ihes egitea (LÓPEZ GANDIA, J. “Descentralización productiva y cooperativas de trabajo”. In *RDS*, 2002, 20. zk., 53-70 or.).

⁹ GONZÁLEZ DEL REY RODRÍGUEZ, I. “Fomento del empleo y protección por desempleo de los trabajadores”. In *Desempleo. XIV Congreso Nacional de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social*. Madril: Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioa, 2004, 313-314. or.

kundearekin gertatu antzera, kasu batzuetan, beharrizan-egoerei aurre egiteko prestazioak baliagarri dira enplegua sustatzeko ere¹⁰.

2. GAUR EGUNGO GIZARTE SEGURANTZAREN SISTEMAREN AURREKARIAK KOOPERATIBETAKO BAZKIDE LANGILEEI DAGOKIENEZ

Gizarte Segurantzaren Sistemaren aurrekariak, kooperatibetako bazkide langileei dagokienez, gizarte-aseguruetan eta abenduaren 28ko 193/1963 Legean, Gizarte Segurantzaren Oinarri buruzkoan,¹¹ daude.

2.1. Gizarte-aseguruen garaia

Zinez, Gizarte Segurantzaren Sistemaren aurreko egoera, hots, gizarte-aseguruen garaia, erabat kaotikoa izan zen kooperatibetako bazkide langileen gizarte-babesari dagokionez; izan ere, 1947. urtetik aurrera, bata bestearen atzetik, gai horren inguruko

¹⁰ Zehatz-mehatz, ordainketa bakarraren erakundea edo langabeziaren ondoriozko prestazioaren kapitalizazioa ekainaren 19ko 1.044/1985 Errege Dekretuak arautu zuen (1985eko uztailaren 2ko EAO, 157. zk.); errege-dekretu horrek, halaber, kontuan hartu zuen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzazko Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onestekoak (1994ko ekainaren 29ko EAO, 154. zk.), 228.3 artikuluan xedatutakoa. Bada, erakunde horren arabera, langabeziaren ondoriozko prestazioa oso-osoan ordain daiteke prestazioa aitortzeko unean bertan, bai eta gerogarrenean ere, onuradunak jasotzeke dituen zentzekoei dagokienez. Baina, horretarako, kasuan kasuko langabetua nahitaez hasi behar da lanean, modu egonkorrean, eta bazkide langile edo laneko bazkide gisa, aldeztatik lanik egin ez duen kooperatibetan. Era berean, ordainketa bakarra egin daiteke, langabetuak erabakitzen duenean kooperatiba *ex novo* eratzea. Horren inguruan, ikusi LÓPEZ GANDIA, J. *Las cooperativas de trabajo asociado y la aplicación del Derecho del Trabajo*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2006, 149-154 or. Orobat, interesgarriak dira GONZÁLEZ DEL REY RODRÍGUEZ-en nabardurak (GONZÁLEZ DEL REY RODRÍGUEZ, I. *op. cit.*, 328.333. or. Azkenik, aipamen berezia merezi dute gai horren inguruan VIQUEIRA PÉREZek eta BALLESTER LAGUNAK egindako gogoetek (VIQUEIRA PÉREZ, C. eta BALLESTER LAGUNA F. "El pago único de la prestación por desempleo. Puntos críticos". In *RDS*, 1999, 8. zk., 61-69. or).

¹¹ 1963ko abenduaren 30eko EAO, 312. zk. Akatsen zuzenketa, 1964ko urtarrilaren 28ko EAO, 21. zk.

ministerio-agindu ugari eman zen, sendotasun gutxirekin, kontraesan garrantzitsuekin eta arautegi-hierarkia nabarmen hautsiz¹².

Gai hori jorratzen duten ministerio-aginduen artean, lehen-dabizi, 1947ko ekainaren 17ko Agindua¹³ nabarmendu behar da. Agindu horrek ezarritakoaren arabera, «kooperatiba-sozietate baten mende lan egiten dutenak edo obra bat egin nahiz zerbitzu bat ematen dutenak, ordainsari batzuegatik, kooperatibako bazkide izan ala ez, inorentzat lan egiten duten langileztat joko dira, eta horiek izango dituzte gizarte-legeriak kasuan kasuko lanbide-jarduerei begira ezarritako edo ezarriko dituen onurak» (1. artikulua)¹⁴.

Edu horretan, agindu horrek argitu egin zituen gai horren inguruko zalantzak. Egia esan, aurretiaz, Aurreikuspeneko Institutu Nazionalaren 1940ko ekainaren 20ko Zirkularrak jaso zituen zalantza horiek, kooperatibetako bazkide langileak babesteko¹⁵.

Haatik, 1948ko urtarrilaren 10eko Aginduz geroztik¹⁶, egoera zeharo korapilatu zen. Egin-eginean ere, agindu horrek salbuespen bat ezarri zion aurreko aginduari.

Salbuespen horren ondorioz, honako egoera hau sortu zen¹⁷: a) ekoizpen-kooperatiba ez ziren kooperatiba guztiei 1947ko Agindua aplikatu behar zitzaie, kooperatiba horietan inorentzat lan egiten zuten langileen izaera edozein izanda ere (bazkideak ala ez); b) ekoizpen-kooperatibei 1947ko Agindua aplikatu behar zi-

¹² SAGARDOY BENGOCHEA, J.A. "Un Régimen Especial de Seguridad Social: el de los socios trabajadores de cooperativa de producción". In *RPS*, 1964, 61. zk., 369. or.

¹³ 1947ko uztailaren 4ko Madrilgo Gazeta, 174. zk. Garai hartako doktrinak ere kooperatibetako bazkide langileak inorentzat lan egiten duten langileztat hartu eta hori justifikatzeari ekin zion. Denen artetik, MORÓN ALBAR, G. "Los trabajadores de las cooperativas ante los seguros sociales". In *RT*, 1952, 2. zk., 126. or. eta h.

¹⁴ Agindu hori modu sakonagoan aztertzeko, ikusi DE LA VILLA GIL, L.E. "La previsión social de los socios de cooperativas industriales". In *Estudios en homenaje a Jordana de Pozas. Estudios de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social*, III. liburukia, III. bolumena. Madril: Centro de Estudios Constitucionales, 1961, 320-325. or.

¹⁵ MORÓN ALBAR, G. op. cit., 127-128. or.

¹⁶ 1948ko urtarrilaren 18ko Madrilgo Gazeta, 18. zk.

¹⁷ DE LA VILLA GIL, L.E. op. cit., 326. or.

tzaien, baldin eta euren enplegatu guztiak, bazkide izan gabe, inorentzat lan egiten zuten langileak baziren, edo euren enplegatuen artean bazkideak eta bazkideak ez zirenak baldin bazeuden; c) 1948ko Agindua ekoizpen-kooperatibei bakarrik aplikatu behar zitzaien, baldin eta euren enplegatu guztiak kooperatibako bazkideak baziren, eta, baita ere, kooperatibako bazkide guztiak kooperatibako langileak baziren.

Agindu horren koherentziarik eza gogor kritikatu zuen doktrinak¹⁸, eta, ondorenez, 1952ko ekainaren 11ko Aginduak¹⁹ 1948ko urtarrilaren 10eko Agindua indargabetu eta 1947ko ekainaren 17ko Agindua berrezarri zuen. Horren adibide da 1. artikuluan xedatutakoa, kooperatibako bazkideei Aurreikuspeneko gizarte-legeriak ezarritako edo aurrerantzean ezarri behar zituen onurak aplikatzeko.

Beraz, 1948ko urtarrilaren 10eko Aginduaren aurreko egoera nagusitu zen berriro ere, baina kooperatibako bazkideek izan beharreko onurak Aurreikuspenaren onurei estu lotu zitzaien, alegia, horietara mugatu ziren, eta lan-legeriaren onura orokorrak ez zitzaien hedatu bazkide horiei. Hain justu ere, 1952ko ekainaren 11ko Aginduaren 2. artikulua aipatu zuen kooperatibako bazkideak nahitaezko sorospen eta gizarte-aseguruetakoa araubideetan eta lan-mutualitateetan afiliatzeko hasierako data. Hala ere, Aurreikuspeneko Zuzendaritza Nagusiaren 1952ko urriaren 24ko Ebazpenak atzeratu egin zuen data hori²⁰.

Orobat, kooperatibetako bazkide langileen Aurreikuspeneko onurei erreparatu, 1954ko irailaren 10eko Aginduak, Mutualismoaren Erregelamendu Orokorra onestekoak²¹, 8. artikuluan ezarri zuen kooperatibako bazkideak mutualista kontzeptura biltzen zirela. Modu horretara, nahitaezko gizarte-aseguruen babesa nahitaez osatzea ahalbidetu zen kooperatiben esparruan ere, lan-mutualismoaren erakundearen bidez.

¹⁸ Denen artetik, SAGARDOY BENGOCHEA, J.A. *op. cit.*, 380-384. or.

¹⁹ 1952ko ekainaren 22ko Madrilgo Gazeta, 174. zk.

²⁰ DE LA VILLA GIL, L.E. *op. cit.*, 328. or.

²¹ 1954ko irailaren 17ko Madrilgo Gazeta, 250. zk.

Dena den, kasu horretan ere afiliazio-data atzeratu egin zen, kooperatibako bazkideak nahitaezko sorospen eta gizarte-aseguru-
ruetako araubideetan eta lan-mutualitateetan afiliatzeko hasierako
datarekin gertatu antzera²².

Bestalde, 1959ko ekainaren 30eko Agindua eman zen²³.
Agindu horrek uztartu egin zituen gizarte-aseguru bateratuei buruz-
ko arauak eta lan-mutualismoa, eta arautu egin zuen enpresek izan
beharreko partaidetzaren norainokoa gizarte-aseguruen adminis-
trazio eskuordetuan.

Agindu horren 6. artikulua arabera, gizarte-aseguru bate-
ratuetatik kanpo geratu ziren, besteak beste, kooperatibako bazkide
izaerarekin industria-kooperatibetan zerbitzuak ematen zituzten baz-
kideak. Edonondik begira dakiola ere, bazkide horiei bete-betean
errespetatu zitzaizkien aseguru horien arabera eskuratuak zituzten
eskubideak, horiek erator zitzaizkien onuren ondoretarako. Halaber,
sendotu egin ziren bazkide horiek, gizarte-aseguru bateratuetan afi-
liatuta izategatik, dagoeneko jasoak zituzten prestazioak.

Hartara, Agindu hori eman ondoren, hiru ziren bereizi beha-
rreko egoerak²⁴:

a) Hasteko, industria-kooperatiben zerbitzupeko bazkideak
gizarte-aseguru bateratuetatik kanpo zeuden, baina ez osterantzeko
gizarte-aseguruetatik.

b) Jarraitzeko, beste edozein kooperatiba-modalitatearen zer-
bitzupeko bazkideei begira aplikagarri zen 1952ko ekainaren 11ko
Aginduan ezarritakoa.

c) Amaitzeko, edozein motatako kooperatibetan bazkide ez
ziren langileei dagokienez, 1947ko ekainaren 17ko Agindua aplika-
tu behar zen, 1952ko ekainaren 11ko Aginduak kooperatibako baz-

²² DE LA VILLA GIL, L.E. *op. cit.*, 330. or.

²³ 1959ko uztailaren 16ko Madrilgo Gazeta, 169. or.

²⁴ DE LA VILLA GIL, L.E. *op. cit.*, 343. or.

kideak bakarrik aipatu baitzuten. Horrek berarekin zekarren langile horiei lan-legeriaren onurak hedatzea.

Egoera hori abiapuntu, langabeziaren ondoriozko babesari helduz, gizarte-aseguru bateratuek hasieran zahartzaro eta baliaezintasun, gaixotasun eta familia-sorospenak bakarrik arautu bazituzten ere²⁵, 1961eko uztailaren 22ko Legeak, Langabeziaren Aseguru Nazionala sortzekoak²⁶, bere aplikazio-esparrua inorentzat lan egiten zuten langileei hedatu zien, baldin eta langile horiek gizarte-aseguru bateratuetan afiliatuta bazeuden (4. artikulua).

²⁵ Ikusi 1948ko abenduaren 29ko Dekretua (1949ko urtarrilaren 18ko Madrilgo Gazeta, 18. zk.). Dekretu horrek nahitaezko gizarte-aseguruen afiliazio- eta kotizazio-prozedurak sinplifikatu eta bateratu zituen.

²⁶ 1961eko uztailaren 24ko EAO, 175. zk.

Langabeziaren aseguru hain berandu zergatik sortu zen ulertzeko lege horren Azalpena hartu behar da kontuan: «langabezia-arriskua mehatxurik larrienetakoa da langilearentzat. Aitzitik, horri aurre egin behar dion aseguruak bilakaera-prozesu motela izan du Gizarte Segurantzako araubideetan. Horren arrazoi dira, aseguru horrek dituen zailtasun tekniko eta ekonomikoak eta, batez ere, aseguru hori herrialde bateko lanpostu eskasiari aurre egiteko zuzeneko lanabes gisa hartzea, modu erratu batean».

Zailtasun horiek gorabehera, 1961eko uztailaren 22ko Legearen aurrekariak legegilearen kezka agertzen dute, gizarte-arrisku horri aurre egiteko. Horrela, 1954ko ekainaren 16ko Dekretuak (1954ko uztailaren 25eko EAO, 206. zk.) Langabezia Teknologikoari buruzko Aseguruaren Kutxa Nazionala sortu zuen, aldi batean langile finkoei sorospenak emateko xedearrekin, betiere langile horiek nekazaritzakoak ez ziren enpresetan lan egiteari utzi bazioten, eta uzte hori modu ofizialean baimenduta bazegoen, enpresa horretan izaera teknikoko hobekuntzak egiteagatik edo lanean ekoizpena gehitzeko metodo berriak sartzeagatik.

Apur bat geroago, 1959ko azaroaren 26ko Dekretuak (1959ko azaroaren 28ko EAO, 285. zk.) langileen langabeziaren sorospena ezarri zuen, finkoak edo plantillakoak izan eta gutxienez sei hilabeteko aurrerapenarekin gizarte-aseguru bateratuetan afiliatuta zeuden langileentzat, noiz eta enpresa bati baimena ematen zitzaionean, jarduerak murriztu, eten edo bertan behera uzteko, ekonomia-arrazoietan oinarrituta.

Langileen langabeziaren sorospenari estu loturik, geroago beste arau batzuk eman ziren. 1960ko martxoaren 3ko Dekretuak (1960ko martxoaren 7ko EAO, 57. zk.) langabezia-sorospenaren aplikazio-esparrua hedatu zuen kasu jakin batzuetan: egun bakoitzeko edo asteko lanaldia gutxitzen zen kasuetan, eta aste barruan lanik egin gabeko txandak edo egunak ezartzen ziren kasuetan, plantilla guztia edo horren zati bat ukituz, plantilla osoari eutsiz edo plantilla murriztuta aldi baterako zein behin betiko baimenarekin. 1960ko abenduaren 15eko Dekretuak (1961eko urtarrilaren 17ko EAO, 14. zk.) langabeziaren sorospenak hobetu zituen eta lehenespeneko eskubidea aitortu zien langileen langabeziaren onuradunei euren enpresetan berriro lanean hasteko.

Horren ondorioz, lege hori ezin zitzaien aplikatu industria-kooperatibetako bazkide langileei. Edonola ere, lege horrek xedatutakoaren arabera, salbuetsitako langileak araubide berezi batzuetan aseguratu behar ziren; araubide berezi horiek Gobernuak onetsi behar zituen, baina, aldez aurretik, Lan Ministerioak presaz aurkeztu behar zizkion Gobernuari (4. artikulua).

Amaitzeko, egoera gehiago nahastu zen 1963ko martxoaren 25eko²⁷ eta urriaren 7ko²⁸ Aginduekin. Une horretan, «garai berri bat hasi zen, eta garai horren ezaugarri bazkideak kokatzeko aukera ahalbidetzea izan zen»²⁹. Bada, agindu horien arabera, industria-kooperatibetako bazkideei, ordura arte lan-mutualitatean afiliatuta egon arren, aitortu zitzaien araubide horretan irauteko edo kasuan kasuko langile autonomoen lan-mutualitatean kokatzeko aukera.

Baina ordura arte lan-mutualitatean afiliatutakoei aitortutako eskubide hori gorabehera, 1963ko martxoaren 25eko Aginduaz geroztik, industria-kooperatibetan lanbidea eta ogibidea zuen bazkide bakoitza langile independentetzat hartu zen, langile autonomoen mutualitateetara biltzeko ondoreetarako (7. artikulua).

Horretarako arazo larria zegoen, ordea. Bada, Lan Istripuen legeriaren testu bategina, 1956ko ekainaren 22ko Dekretuak onetsia³⁰, aplikatzeko Erregelamenduaren 9. artikulua arabera, bazkide horiek inorentzat lan egiten zuten langile ziren.

2.2. Abenduaren 28ko 193/1963 Legea, Gizarte Segurantzaren Oinarriei buruzkoa, eta horren ondoreak kooperatibetako bazkideentzat

Arestian aipatu aurrekariak zirela bide, abenduaren 28ko 193/1963 Legeak, Gizarte Segurantzaren Oinarriei buruzkoak, etorkizunean ezarri beharreko araubide berezien artean ekoizpen-

²⁷ 1963ko apirilaren 11ko Madrilgo Gazeta, 87. zk.

²⁸ 1963ko azaroaren 18ko Madrilgo Gazeta, 276. zk.

²⁹ ORTIZ LALLANA, M.C. *La prestación laboral de los socios en las cooperativas de trabajo asociado*. Bartzelona: Bosch, 1989, 107. or.

³⁰ 1956ko uztailearen 15eko Madrilgo Gazeta, 197. zk.

kooperatibetako bazkide langileena jaso zuen (hirugarren Oinarria). Ondorenez, bazirudien araubide berezi horrek industria-kooperatibetako bazkide langileen izaera bikoitzarekin amaituko zuela.

Joera horri eutsi zioten, hala Gizarte Segurantzaren Oinarriari buruzko Legearen lehenengo testu artikuluduna onetsi zuen Dekretuak, 1966ko apirilaren 21ekoak³¹, 10. artikuluan, nola Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onetsi zuen 2.065/1974 Dekretuak, maiatzaren 30ekoak³², 10. artikuluan. Alabaina, ez zen sortu horrenbeste alditan aipatu araubide berezia, ekoizpen-kooperatibetako bazkide langileak bildu behar zituen.

Araubide berezirik ez zegoenez, abuztuaren 13ko 2.566/1971 Dekretuak, ekoizpen-kooperatibetako bazkide langileen Gizarte Segurantzari buruzkoak³³, behin-behineko izaerarekin, araubide uniformeaz ezarri zuen, industria-kooperatibetako bazkide langileen izaera bikoitzak sortzen zituen eragozpen eta arazoak saihesteko. Araubide horrekin bat etorritik, ekoizpen-kooperatibetako bazkide langileak, Gizarte Segurantzaren eretzearan, inorentzat lan egiten zuten langileekin berdinetik ziren (1. artikulua).

Aitzitik, lan elkartuko kooperatibetako (edo industria- eta ekoizpen-kooperatibetako) bazkide langileek Gizarte Segurantzaren Sistemari izan beharreko kokapena berriro ere korapilatu zen, Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 52/1974 Lege Orokorrak³⁴ bazkide horiei Gizarte Segurantzaren onuradun izateko eskubidea aitortu zienean, kooperatibei ahalbidetuz euren estatutuetan hurrengo modalitateen artean aukeratzea³⁵:

³¹ 1966ko apirilaren 22ko EAO, 96. zk.

³² 1974ko uztailaren 20 eta 22ko EAO, 173 eta 174 zk.

³³ 1971ko urriaren 27ko EAO, 257. zk.

³⁴ 1974ko abenduaren 21eko EAO, 305. zk.

³⁵ Doktrinak kritikatu egin zuen aukera hori ahalbidetzea. Horrela, besteak beste, ÁLVAREZ ALCOLEAK arauketa berri hori «kontraesan bez betetakotzat» jo eta nabarmendu zuen «inorentzat lan egiten duen langile baten ala langile autonomo baten aurrean gaudela eta, ondorenez, kokapena Araubide Orokorrean ala Langile Autonomoen Araubide Berezian egiteko, lehenetan, ekoizpen-kooperatibetako bazkide langilearen kalifikazio juridikoa argitu behar dela» (ÁLVAREZ ALCOLEA, M. "La condición jurídico-laboral de los socios de las cooperativas de producción". In *RPS*, 1975, 107. zk., 120. or.).

a) Gizarte Segurantzaren Sisteman kokatzea, inorentzat lan egiten zuten langileekin berdinetan, dekretu bidez finkatu beharreko egoera eta baldintzetan; dekretu hori Lan Ministerioak proposatu behar zuen, aurretiaz Sindikatu Antolakundeak txostena eman da. Halakoetan, kooperatibak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean edo araubide bereziren batera bildu behar ziren, gauzatutako jarduera aintzat hartuta.

b) Gizarte Segurantzaren Sisteman kokatzea, langile autonomo gisa, kasuan kasuko araubide berezian.

Ilido bertsutik, azaroaren 16ko 2.710/1978 Errege Dekretuak, Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 52/1974 Lege Orokorrean Erregelamendua onestekoak³⁶, 111. artikuluan berretsi egin zuen Kooperatibei buruzko Lege Orokorrean ezarritakoa.

Horri katerik egin gabe, lehenengo aukera egikaritu ahal izateko errege-dekretu bidezko arau-garatzeari behar zen; errege-dekretu horrek zehaztu behar zituen aukera hori egikaritzeko egoerak eta baldintzak. Baina garapenik eza gehiegi luzatzen ari zen.

Horregatik, inguruabar hori gorabehera, kooperatiba askok estatutuetan bazkide langileei Araubide Orokorra aplikatzearen alde egin zuten. Horrez gain, bazkide horien alta onartu zen Araubide Orokorrean.

Hurrean ere, Araubide Orokorrean altan egoteagatik, bazkideek igurikimena zuten, zenbait prestazio jasotzeko, baldin eta kasuan kasuko betekizunak betetzen bazituzten, beharizan-egoera bakoitza gauzatzean, eta horien artean langabezia-gertakizunak eratorritakoak.

Gainera, 1967ko maiatzaren 5eko Aginduak, langabeziaren ondoriozko prestazioei buruzkoak³⁷, 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, inorentzat lan egiten zuten langileekin berdinetako per-

³⁶ 1978ko azaroaren 17ko EAO, 275. zk.

³⁷ 1967ko maiatzaren 19ko EAO, 119. zk.

tsonen kasuan, langabezia-egoera adierazteko nahikoa zen hori egiaztatzea, erakunde kudeatzaileak emandako ebazpenaren bidez, interesdunek hala eskatuta. Halako langileen artean zeuden, bada, ekoizpen-kooperatibetako bazkide langileak.

Hori zela eta, hasieran, langabeziaren ondoriozko prestazioei begira sor zitezkeen arazoak saihestu ziren; izan ere, ez zegoen arau-garapenik, eta arau-garapen horrek ezarri behar zituen baldintzak, aukeratu ahal izateko ekoizpen-kooperatibetako bazkide langileak euren jardueraren arabera zein araubidetan kokatu.

Baina, azkenean, arau-garapenik ez egotearen ondoriozko arazoak nagusitu ziren langabezia-gertakizunaren kasuan³⁸. Esangura horretan, urriaren 8ko 51/1980 Enpleguaren Oinarrizko Legea³⁹, eta apirilaren 24ko 920/1981 Errege Dekretua, langabeziaren ondoriozko prestazioen Erregelamendua onestekoa⁴⁰, onetsi zirenean, «atzeranzko norabide aldaketa bortitza» eman zen, lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak langabeziaren ondoriozko babesik gabe geratu zirelako⁴¹.

Bazterketa hori gauzatu zen, batetik, 1967ko maiatzaren 5eko Agindua, langabeziaren ondoriozko prestazioei buruzkoa, indargabetuta, eta, bestetik, langabeziaren ondoriozko prestazioen aplikazio-esparrua zehaztuta. Horrela, 920/1981 Errege Dekretuak indargabetu zuen 1967ko maiatzaren 5eko Agindua, eta 51/1980 Legeak eta 920/1981 Errege Dekretuak zehaztu zuten langabeziaren ondoriozko prestazioen aplikazio-esparrua; arau horien arabera,

³⁸ Egoera horren ondoriozko arazoei dagokienez, ikusi DE LAS HERAS BORREROK egindako adierazpenak (DE LAS HERAS BORRERO, F.M. "El derecho a las prestaciones por desempleo de los socios trabajadores en cooperativas de trabajo asociado". In *RT*, 1983, 70. zk., 59-62 or.). Era berean, horren inguruan, ikusi ALONSO SOTO, F. "Las relaciones en las cooperativas en España". In *REDT*, 1984, 20. zk., 551-552. or.

³⁹ 1980ko urriaren 17ko EAO, 250. zk.

⁴⁰ 1981eko maiatzaren 23ko EAO, 123. zk.

⁴¹ FERNÁNDEZ PROL, F. "La reforma del sistema de protección por desempleo de los socios trabajadores y socios de trabajo de las cooperativas". In *Desempleo. XIV Congreso Nacional de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social*. Madril: Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioa, 2004, 1197. or.

inorentzat lan egiten zuten langileek bakarrik jaso zitzaizkien prestazioak, betiere langile horiek Araubide Orokorrera zein langabezia-gertakizuna babesten duten araubide berezietara biltzen baziren.

Hortaz, bazkideek langabeziaren ondoriozko prestazioak jasotzeko igurikimen oro galdu zuten; bazkideek kooperatibarekin sozietate-harremanak zituzten, eta ez lan-harremanak, eta, ondorenez, ezin zituzten lan-harremanak eten edo azkendu, halakorik ez zegoelako.

Abuztuaren 2ko 31/1984 Legeak, langabezia babestekoak⁴², egoera hori aldatzeko aukera izan zuen; izan ere, lege horren bidez, legegileak erabaki zuen langabeziaren ondoriozko babesa pertsona jakin batzuei hedatzea. Hain zuzen, pertsona jakin horiek, esangura hertsian, ez ziren inorentzat lan egiten zuten langileak, ezpada langile horiekin berdinetakoak, gizarte-babesaren ondoretarako. Hala eta guztiz ere, hedatze horrek ez zituen bere baitara bildu lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak.

Dena dela, 31/1984 Legearen 3. artikulua Gobernuari ahalmena eman zion, langabezia-gertakizuna beste kolektibo batzuei hedatzeko. Azkenean, ahalmen hori oinarri, ekainaren 19ko 1.043/1985 Errege Dekretuak⁴³, langabeziaren ondoriozko babesa hedatu zien lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileei.

3. GAUR EGUNGO GIZARTE SEGURANTZAREN SISTEMA ETA LANGABEZIAREN ONDORIOZKO BABESA KOOPERATIBA-SOZIETATEETAN

Ekainaren 19ko 1.043/1985 Errege Dekretua indarrean jarri ondoren, langabeziaren ondoriozko babesak arauketa berezia du, lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileei begira.

Horregatik, une horretatik aurrera, arazo nagusiak izan dira, aurrena, 1.043/1985 Errege Dekretuaren eta beste arau batzuen

⁴² 1984ko abuztuaren 4ko EAO, 186. zk.

⁴³ 1985eko uztailaren 2ko EAO, 157. zk.

arteko harremanak zehaztea, kooperatibak Gizarte Segurantzaren Sisteman kokatzeari dagokionez, eta, hurrena, 1.043/1985 Errege Dekretua behar bezala aplikatzea, errege-dekretu horrek izan dituen aldarazpen guztiak hartu behar direlako kontuan. Aldarazpen horiek eragin dituzten arauak dira urtarrilaren 19ko 42/1996 Errege Dekretua, lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileei langabeziaren ondoriozko babesaren hedatu diena, kooperatiba aldi baterako uzten dutenean edo lanaldia aldi baterako murrizten zainean⁴⁴; abenduaren 12ko 45/2002 Legea, presako neurriak ezarri dituen, langabeziaren ondoriozko babesaren sistema eraldatzeko eta lanpostuak bilatzeko aukerak hobetzeko⁴⁵; ekainaren 9ko 5/2006 Errege Lege Dekretua, hazkundera eta enplegua hobetzeko⁴⁶; eta abenduaren 29ko 43/2006 Legea, hazkundera eta enplegua hobetzeko⁴⁷.

3.1. 1.043/1985 Errege Dekretuaren eta izaera orokorreko gainerako arauen arteko harremanak, kooperatibak Gizarte Segurantzaren Sisteman kokatzeari dagokionez

Hasieran, 1.043/1985 Errege Dekretuarekin batera Kooperatibei buruzko apirilaren 2ko 3/1987 Lege Orokorra⁴⁸ egon zen indarrean. Bada, Kooperatibei buruzko apirilaren 2ko 3/1987 Lege Orokorren laugarren xedapen gehigarriak ezarri zuen lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek Gizarte Segurantzarako eskubidea zutela, baina kooperatibak estatutuetan aukeratu behar zuela hurrengo modalitateen artean:

a) Gizarte Segurantzaren Sisteman kokatzea, inorentzat lan egiten zuten langileekin berdinetara. Halakoetan, kooperatibak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorra edo araubide bereziren batera bildu behar ziren, gauzatutako jarduera aintzat hartuta.

b) Gizarte Segurantzaren Sisteman kokatzea, langile autonomo gisa, kasuan kasuko araubide berezian.

⁴⁴ 1996ko otsailaren 17ko EAO, 42. zk.

⁴⁵ 2002ko abenduaren 13ko EAO, 298. zk.

⁴⁶ 2006ko ekainaren 14ko EAO, 141. zk.

⁴⁷ 2006ko abenduaren 30eko EAO, 312. zk.

⁴⁸ 1987ko apirilaren 8ko EAO, 84. zk.

Bestalde, martxoaren 3ko 225/1989 Errege Dekretuak, lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak Gizarte Segurantzaren Sistemara biltzeko baldintzei buruzkoak⁴⁹, 1. artikuluan, ostera ere jaso zuen Kooperatibei buruzko apirilaren 2ko 3/1987 Lege Orokorraren laugarren xedapen gehigarriak ezarritakoa.

Zernahi gisaz, gerogarrenean, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzazko Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onestekoak (GSLOTBk), kooperatibak Gizarte Segurantzaren behar bezala kokatzeko erregela orokorrak jaso zituen.

Erregela horiek kontuan hartuta, kooperatiba-modalitateak bereizi behar dira, horiek gauzatzen duten jardueraren arabera, eta bazkideek, pertsona fisiko gisa, kooperatibarekin, pertsona juridiko gisa, izan ditzaketen harreman desberdinen arabera: bazkide langileak lan elkartuko kooperatibetan, lurra erkidegoan ustiatzeko bazkideak eta, gainerako kooperatibetan, laneko bazkideak⁵⁰.

Ildo horretatik, lehenengo eta behin, GSLOTBren 7. artikulua lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak Gizarte Segurantzaren Sistemara daudela besterik ez dio.

Bigarrenik, GSLOTBren laugarren xedapen gehigarriak, «kooperatibetako bazkide langileak eta laneko bazkideak Gizarte Segurantzaren Sistemara biltzea» izenburupean, egoera zerbait argitzen du.

Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileei erreparatuz, GSLOTBk kooperatibei ahalbidetzen zaien aukera klasikoa jaso du; horrenbestez, kooperatibek estatutueta hurrengo modalitateen artean aukeratu ahal izango dute:

a) Gizarte Segurantzaren Sistemara kokatzea, inorentzat lan egiten duten langileekin berdinsita. Halakoetan, kooperatibak

⁴⁹ 1989ko martxoaren 8ko EAO, 57. zk.

⁵⁰ LÓPEZ GANDIA, J. "Las prestaciones de desempleo en empresas de economía social. Especial referencia al pago único". In AS, 2002, V. bolumena, 1074. or.

Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrera edo araubide bereziren batera bildu behar dira, gauzatutako jarduera aintzat hartuta.

b) Gizarte Segurantzaren Sisteman kokatzea, langile autonomo gisa, kasuan kasuko araubide berezian.

Kooperatibei buruzko 3/1987 Lege Orokorren laugarren xedapen gehigarriaren ildotik, Gizarte Segurantzaren ondoretarako, GSLOTBk inorentzat lan egiten duten langileekin berdinetan si ditu lurra erkidegoan ustiatzeko kooperatibetako bazkide langileak eta gainerako kooperatibetako laneko bazkideak. Baina langabezia babesteko, bazkide horiei ere 1.043/1985 Errege Dekretua aplikatuko zaie, lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileen baldintza berberetan (1.043/1985 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria).

Laburbilduz, edozein gertakizunen aurrean, lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek duten babes-maila zehazteko, kontuan hartu behar dira Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko araubidean ezarritakoa, kooperatibak aukeratu duen kokapenaren arabera, eta, hala denean, gertakizun bakoitzaren inguruan ezarritako erregelak bereziak, lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileei aplikatzeko.

Beraz, langabezia-gertakizunaren kasuan, langile bazkideen babes-maila zehazteko, 1.043/1985 Errege Dekretua da abiapuntua, errege-dekretu horrek izaera berezia baitu GSLOTBri begira⁵¹. Halaber, bazkideak Langile Autonomoen Araubide Berezian kokatzeko, kooperatibak egin dezakeen aukera dela eta, bazkideak langabeziaren ondoriozko babesik gabe gera daitezke; izan ere, gertakizun hori inorentzat lan egiten duten langileentzat edo langile horiekin berdinetan inorentzat bakarrik arautu da⁵².

⁵¹ Esangura horretan, ikusi 2005eko maiatzaren 16ko AGE (Ar. 5816).

⁵² Gabezia horri aurre egiteko xedearekin, Lagu-Arok bere mutualista eta kooperatiba elkartuekin izandako esperientzia nabarmendu behar da. Zehatzago esanda, Enpleguari Laguntza izeneko prestazioa, «birkokapenen» politikari estu lotutakoa, sortu izana goraiatu behar da (LARRECHI, J.M. "Lagun-Aro como respuesta a una necesidad". In *REVESCO*, 1996, 62. zk., 88-89. or.).

3.2. 1.043/1985 Errege Dekretuaren aplikazio-esparrua

Beraz, 1.043/1985 Errege Dekretuarekin langabeziaren ondoriozko babesaren hedatzen zaie lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileei. Hala ere, hedatze hori mugatua da, inorentzat lan egiten duten langileen babesaren kontuan hartuz gero. Hain zuzen, 1.043/1985 Errege Dekretuaren aldarazpenen helburu izan da, modu batera edo bestera, ahal den neurrian, babesak izan ditzakeen mugak gainditzea⁵³. Edonola ere, 1.043/1985 Errege Dekretuaren azterketak agerian uzten du gaur egun ere badirela muga batzuk.

Araubide desberdinetako lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek nahitaez bete behar dituzte GSLOTBren 207. artikuluko betekizunak. Hori gorabehera, langabeziari aurre egiteko GSLOTBk ezarri prestazioak 1.043/1985 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera eskuratzen dira.

Horrela, lehendabizi, hurrengo egoeretan dauden bazkide langileek bakarrik izan dezakete legezko langabezia-egoera (1.043/1985 Errege Dekretuaren 2. artikulua, eta 42/1996 Errege Dekretuaren 1. artikulua):

a) Honako arrazoi hauetakoren baten ondorioz kooperatibaren lan egiteari behin betiko utzi diotenak, lan egiteagatik dagozkien eskubide ekonomiko guztiak galduz: a.1) kooperatibatik bidegabe kanporatzeagatik; a.2) ekonomia-arrazoiengatik, teknologia-arrazoiengatik edo ezinbesteko kasuarengatik; a.3) iraupen jakineko sozietate-loturaren epealdia amaitzeagatik.

b) Behar bezala egiaztatutako ekonomia-arrazoiengatik, teknologia-arrazoiengatik edo ezinbesteko kasuarengatik: b.1) kooperatibaren lan egiteari aldi baterako utzi diotenak, lan egiteagatik dagozkien lan-aurrerakinak galduz; b.2) lanaldia aldi baterako

⁵³ Ikuspuntu historikotik, muga horiek «arrazoitu ezineko arau-bereizkeria» gisa kalifikatu ziren (PAZ CANALEJO, N. eta MERCADER UGUINA, J.R. *La desprotección relativa por desempleo de los socios de cooperativas de trabajo asociado: una discriminación normativa no razonable*. Vitoria-Gasteiz: Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado de Euskadi, 1993, 240. or.).

murrizten dietenei, gutxienez heren batean, betiere lanaldi horri dagozkion lan-aurrerakinak neurri berean murrizten badira, eta murriztutako lanaldia, urteko kopuruan, astean hogeita sei ordutik beherakoa bada.

c) Probaldian kooperatiban lan egiteari utzi dioten bazkidegaiak, kooperatibako artezkaritza-kontseiluak alde bakarrez hartutako erabakiarengatik.

Orobat, prestazioak jaso ahal izateko, legezko langabezia-egoerak adierazi behar dira 1.043/1985 Errege Dekretuan (3. artikuluan) eta 42/1996 Errege Dekretuan (2. artikuluan) ezarritako bideak erabilita. Bada, ondokoak dira bide horiek:

a) Bazkidea kanporatzen denean kooperatibako artezkaritza-kontseiluak kanporatze-erabakia jakinarazi behar du; jakinarazpen horren bidez zehaztu behar da kanporatzeak zein datatan sortuko dituen ondoreak. Hala denean, beharko dira epaiketa bidezko adiskidetzearen akta edo kanporatzea bidegabekoa dela esanbidez adierazten duen ebazpena, behin betikoa eta jurisdikzio eskudunak emandakoa.

b) Kooperatiban lan egiteari behin betiko uzten zaionean, ekonomia-arrazoiengatik, teknologia-arrazoiengatik edo ezinbesteko kasuarengatik, lan-agintariak behar bezala egiaztatu behar ditu arrazoi horiek.

c) Ekonomia-arrazoiengatik, teknologia-arrazoiengatik edo ezinbesteko kasuarengatik, kooperatiban lan egiteari aldi baterako utzi dioten bazkideen kasuan, lan egiteagatik dagozkien lan-aurrerakinak galduz, edo lanaldia aldi baterako, eta gutxienez heren batean, murrizten dieten bazkideen kasuan, lan-agintariak behar bezala egiaztatu behar ditu ekonomia-arrazoiak, teknologia-arrazoiak eta ezinbesteko kasua, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak nahitaezko txostena egin ondoren.

d) Probaldian kooperatiban lan egiteari uzten zaionean, kooperatibak bazkidegaia ez hartzeagatik, kooperatibako artezkaritza-kontseiluak bazkidegaiari komunikatu behar dio erabaki hori.

e) Iraupen jakineko sozietate-loturaren epealdia amaitzen denean, kooperatibako artezkaritza-kontseiluak ziurtagiria luzatu behar du, kooperatiban lan egiteari utzi izanaren arrazoia hori berori dela ziurtatuz; ziurtagirian zehaztu behar da sozietate-loturaren amaierak zein datatan sortuko dituen ondoreak.

Horrez gain, b) eta c) kasuetan, lan-agintariak hurrengo prozedurari jarraitu behar dio, legezko langabezia-egoeraren oinarri diren ekonomia-arrazoiak, teknologia-arrazoiak edo ezinbesteko kasua egiaztatzeko (1.043/1985 Errege Dekretuaren 4. artikulua eta bigarren xedapen gehigarria):

a) Printzipioz, lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileen legezko langabezia-egoera adierazteko eskumena lan-agintariak du, eta lan-agintari hori izan behar da kooperatibak zein probintzian izan egoitza eta probintzia horretako Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza. Eta kooperatibak lantoki batzuk baditu probintzia desberdinetan, Lan Zuzendaritza Nagusia izango da eskuduna, non esanbidezko eskuordetzarik ez dagoen, probintziako zuzendaritza baten mesedetan; probintziako zuzendaritza horrek tokiaren arabera izan behar du eskumena. Dena den, enplegu-erregulazioko espedienteen gaian eskumenak transferituta dituzten autonomia-erkidegoetan, lan-agintari eskuduna zehazteko, transferentziei buruzko errege-dekretuek ezarritako irizpideak hartu beharko dira kontuan.

b) Lan-agintariaren aurrean administrazio-prozedura kooperatibaren lege-ordezkariek hasi behar du, kooperatibako Biltzar Orokorrek hori erabaki ondoren.

c) Administrazio-prozedura hasteko idazkian, gutxienez, hurrengo datuak jaso behar dira: c.1) eskatzailearen izena, espediente hasteko legitimazioa eta jakinarazpenak egiteko egoitza; c.2) kooperatibaren izena eta sozietatearen egoitza, Gizarte Segurantzako inskripzio-zenbakia, lantokia edo lantokiak, eta lantoki bakoitzeko bazkide langileak eta inorentzat lan egiten duten langileak, horien lanbide-espezialitatea, -kategoria eta -taldea zehaztuz, bai eta inorentzat lan egiten duten langileen kasuan euren lan-kontratu modalitatea ere; c.3) langabezia justifikatzen duen arrazoia.

d) Administrazio-prozedura hasteko idazkiarekin batera, kooperatibak ondoko agiriak aurkeztu behar ditu:

— Biltzar Orokorrek hartu duen erabakiaren hitzez hitzeko ziurtagiria, bazkide langileek kooperatiban lan egiteari behin-behinean, erabat edo zati batean, uzteko edo lan egiteari behin betiko uzteko. Halaber, lan egiteari behin-behinean uzten zaionean, kooperatibako idazkariak luzatutako ziurtagiria aurkeztu behar da, artezkaritza-kontseiluko lehendakariak hori ontzat emanda; ziurtagiri horretan egiaztatu behar da, langabezia zein bazkide langilerentzat eskatu eta bazkide langile horien lanaldiaren iraupena eta, hala denean, lanaldiak urtean zehar duen banaketa irregularra.

— Langabezia-eskabideak bere baitara biltzen dituen bazkide langileak, nortasun-agiri nazionalaren eta Gizarte Segurantzako afiliazioaren zenbakiak zehaztuta, bazkide langile horiek kooperatiban sartu zireneko data, bazkide langile horien lanbide-espezialitate, -kategoria, eta -taldea, eta langabezia zein datatan eskatu eta data hori baino sei hilabete lehenago ukitutakoek zuten lanaldiaren iraupenaren esanbidezko adierazpena, lanaldia behin-behinean eteten denean, erabat edo zati batean. Orobat, kooperatibako alokairupeko langileen kasuan, langile horiek enplegu-erregulazioko espedientea dutenean, espediente horren berri ere eman behar da.

— Langabezia justifikatzen duen arrazoia eta beharrezkotzat jotzen diren frogak azaltzeko oroitidazkia. Langabeziaren arrazoia ekonomikoa denean, ekarri beharko dira, berebat, azken hiru urtetako balantzeak eta galera eta irabazien kontuak, organo eskudunek behar bezala onetsita. Edozein kasutan ere, kooperatibaren finantza-, ekoizpen-, merkataritza- eta antolaketa-inguruabarren inguruko txostena ekarri beharko da.

— Etetea eskatu denean, etete horren iraupenaren esanbidezko justifikazioa.

— Artezkaritza-kontseiluak egin eta Biltzar Orokorrek onetsitako behin-behineko plana, enplegua berreskuratzeko enpresa-ekintzei buruzkoa. Plan horrekin batera ekarri behar da aldian-aldian lan-agintariak horren jarraipena egiteko proposamena; lan-agintariak jarraipena egingo du Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak hala proposatuta.

Langabeziaren ondoriozko prestazioa eskatzeko epeei dagokienez, lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileetatik legezko langa-

bezia-egoeran daudenek eskatu behar diote erakunde kudeatzaile eskudunari prestazioetarako eskubidea aitortzea. Eskabidea egin beharko dute, dela kooperatibatik kanporatzeko erabakia edo, hala denean, adiskidetze-akta edo ebazpen judiziala, dela kooperatiban ez hartzeko erabakia, dela lan-agintariak kooperatibari emandako ebazpena, dela iraupen jakineko sozietate-loturaren epealdia zein datatan amaitu eta data hori jakinarazi eta hurrengo hamabost eguneko epean.

Eskabidea epe horretatik kanpo aurkeztuz gero, prestazioa aitortzeko eskubideari eusten zaio, eskabidea egiten den datatik, baina prestazio-egunak galduko dira. Galdutako prestazio-egunak kalkulatzeko, lehenengo eta behin zehaztu behar da zein datatan sortuko zen eskubidea, eskabidea garaiz eta forman aurkeztu izan bazen. Behin data hori zehaztuta, galdutako egunak izango dira data horretatik eta eskabidearen benetako dataren artean zenbat egun igaro eta horrenbeste (1.043/1985 Errege Dekretuaren 5. artikulua, eta GSLOTBren 209.2 artikulua).

Amaitzeko, Enpleguaren Zerbitzu Publikoaren ardura da langabeziaren ondoriozko prestazioak aitortu, eten, berrezarri edo azkendu direla adieraztea.

Hori guztiori aintzat hartuta, esan daiteke, gauzatutako eraldaketak gorabehera, lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek langabeziaren ondorioz duten babesas asko hobe daitekeela, inorentzat lan egiten duten langileen babesarekin alderatzen bada behinik behin. Hurrean ere, lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ez dute langabeziaren ondoriozko prestazioetarako eskubiderik, besteak beste: a) kooperatibatik banantzea bidezkoa dela adierazten denean; b) lan egiteari uzten zaionean nahitaezko baja baten ondorioz, eta baja hori justifikatu duenean estatutuetan jasotako gertatze bidezko trebetasunik ezak, moldatzerik ezak edo gaitasun-tasa handiak; c) harremanak borondatez eta justifikatuta amaitzen direnean, gertatze bidezko eginbehar edo zama oso astunak hartzeagatik; e) harremanak borondatez hutsaltzen direnean, lan-aurrerakinak ez ordaintzeagatik⁵⁴.

⁵⁴ FERNÁNDEZ FERNÁNDEZ, R. "La reforma de las prestaciones por desempleo". In *Aspectos puntuales de la Reforma Laboral de 2006. Análisis del Real Decreto-ley 5/2006*

Baina egia esan, «bazkidearen kanporaketaren aurka garaiz eta forman erreklamatzeko betekizunik ez dagoenez, zentzugabea dirudi gainerako kanporatze-arrazoiak ere ez onartzea... Izan ere, nahikoa da kooperatibak harremanak azkentzeko kanporaketak egitea, estatutuetan jasotako arrazoiren batean oinarrituta, 1.043/1985 Errege Dekretuan esanbidez jaso ez diren arrazoiak alegatu beharrik gabe⁵⁵»

Jabier Arrieta

⁵⁵ LÓPEZ GANDÍA, J. *op. cit.*, 1084-1085 or.

ESKUBIDE HISTORIKOEN ATARIAN: FORUTASUNA ETA SISTEMA JURIDIKO LIBERALA XIX. MENDEAN

1. SARRERA

“Otro sí el dicho Rey y Señor de Vizcaya cuando viniere a Vizcaya para facer el dicho juramento, á las puertas de la villa de Bilbao ha de facer prometimiento en las manos de algunos de los homes buenos de Bilbao é prometer como Rey y Señor de tener é guardar á las villas é tierras llanas de Vizcaya é durangueses é de las Encartaciones é a los moradores en ellas é en cada uno de ellos todos los sus privilegios é libertades é franquezas é fueros, é usos é costumbres é tierras é mercedes que de él han segun que los hobieron en tiempos pasados, é les fueron guardados...”

Bizkaiko Foru Zaharra, III. Kapitulu¹

Errege-erreginek horretara eskuratzen zuten Bizkaiko Jaurerriaren titulartasuna eta, bide horri jarraituz, jaun-andre izaera eureganatzen zuten, hau da, lurralde osoko eta biztanle guztien Foruak errespetatu eta gordeko zituztela zin eginez. Foru Zaharrak

¹ BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, *Bizkaiko Foru Legeria / Legislación Foral de Bizkaia*, Foru Agirien Bilduma / Colección de Textos Forales, Bilbo, 1991, 108.

zin-egite zeremoniaren zehaztasunak bere baitara biltzea oso datu garrantzitsua da, hain zuzen ere, bizkaitarrok ekintza horri ematen zioten berebiziko pisuaren adierazgarria da. Are gehiago, Foruak erritu multzo bereziaren arabera zin egin arte, hots, lurraldeko toki zehatz batzuetan ondoz ondoko ekintzak burutu arte, errege-erreginek ez zuten jaun-andre izaera lortzen eta, ondorioz, baldintzak hitzez hitz bete arte euren boterea ez zen guztiz eragingarria Bizkaian. Antzeko gertakariak aurki ditzakegu Gipuzkoa, Araba eta Nafarroan, nahiz eta Bizkaikoa kasurik eredugarriena izan.

Lurralde horien gaineko boterea eskuratzeko formulak mendeetan ahalbidetu zuen sistema juridiko-politiko berezituak mantentzea. Egin-eginean ere, sistemok, hein handi batean, biziraun zuten errege-erreginen hitz-emate baldintza horri esker. Horretara, Historian zehar, bai Erdi Aroko errege-erreginek, baita Inperioko titularrek zein monarka absolutistek ere sistema horiei eusteko zina egin zuten, egitura horiek euren botereari muga ezarri arren, hala lurralde ikuspegitik begiratuta, nola edukiari erreparatuz. Modu horretan, foru sistema juridikoek mendez mende biziraun zuten inguruabar berriei egokitzuz eta estatuaren izaera eraldatzen zuten korrante politikoen erasoak pairatuz

Esparru honetako inflexio-puntu garrantzitsua sistema liberalaren etorrera da, estatuaren gobernu-sistema goitik behera aldatu zuen egitura politiko-filosofikoa. Era horretan, absolutismoaren garai ilunetan foru sistemek, erosoago edo zailago, estatuaren oldartze zentralizatzaileak jasan, bizirik iraun zuten. Foru-egiturak, arlo publikoari dagokionez, liberalismoaren aurrean, erori egiten dira, agonia-prozesu luzearen ondoren. Askatasun eta berdintasun printzipio erkideak², bai liberalismoan, baita foru-esparruetan ere,

² Adibide gisa, 1839ko Legearen eztabaidan Sancho diputatuaren adierazpenak, oso era nabarrian islatzen baitute ideia hau: “Los fueros, señores, á mí me parece que se pueden definir diciendo que son un sistema de administracion popular, nacido en tiempos de no mucha ilustracion, y sujeto á un gobierno absoluto, que no siempre ha respetado los fueros con religiosidad, y que tenia deseos, medios y fuerzas para atropellarlos, y aun alguna vez lo ha ejecutado, porque este es el hecho. ¿Y qué es la Constitucion? La Constitucion es tambien, señores, un régimen de administracion popular, nacido en tiempos posteriores de más ilustracion, en que se ha adelantado infinito, sobre todo de medio siglo á esta parte, en las ciencias políticas y le-

maila idealan gutxienez, ez dira nahikoak izango bien arteko harmonizazioa lortzeko, bizikidetzaz erdiesteko. Prozesu horretan bazuen zeresanik errege-boterearen mugaketak, hots, konstituzio-sistema berriak errege-erreginen jarduera zedarritzeak. Errege-boterea legeria liberalaren mugetara hesitzea eta, aldi berean, forueremua arlo pribatu zein administrazio-ekonomikora (Ekonomi Itunetara) estutzea batera garatu eta XIX. mendean topo egiten duten eragin osagarriak dira: errege-erreginek ezin dute forutasuna errespetatuko dutela hitzik eman, zin-egite hori euren gaitasun politikotik kanpo dagoelako, indarreko Konstituzioaren arabera. Konstituzio-sistema liberalean printzipio horrek ez du, maila teorikoan behintzat, salbuespenik.

Edozelan ere, aurreko ideari jarraituz, azpimarratu beharra dago egitura politiko liberala bera dela ildo estrajuridikoa erabiltzen duena forutasuna eraso egin edo babesteko, egoera politiko zehatza kontuan hartuta, kontrakotasun nabaria iruditu arren. Taxu horretan, liberalismoaren bokazioa bizitza juridiko-politikoaren arlo guztiak (eta guztien gain) Legearen menpe jartzea bada ere, egiatan, ez da izango konstituzio-esparrua foru-sistemen kontrako oldartze-iturri pribilegiatua, nahiz eta konstituzio liberala antolamendu juridikoaren lerrun goreneko araua izan, bai eta lurralde osoko biztanleek dituzten eskubideen zein betebeharren katalogoa ere. Aitzitik, hemeretzigarren mendeko konstituzio-ibilbidearen zatirik handienean ez ziren konstituzioak izan Foruen biziraupen-bidea itxi zutenak, beharbada forutasun publikoa eta konstituzio-sistema era batean edo bestean maila politikoan bateratzeko akordioa ahalbidetzeko asmoz³. Zernahi gisaz, Foruen mugaketa burutzeko edo forutasun publikoa ezabatzeko ez zen konstituzio-gailurra erabili, baizik eta behe-mailako xedapenak erabilita gauzatu ziren ekintzok.

gislativas... ¿perderán los fueros algo en hermanarse con la Constitución?... Yo creo que no es posible que pierdan, ni que haya entre nosotros semejante duda... Los fueros y la Constitución son dos hijos de la libertad, permitaseme decirlo así; dos hijos de diferente edad, de tiempos diferentes, de diferente contestura, de diferente robustez; ¿y será posible que estos dos hijos no quepan á un mismo tiempo en la casa paterna? Yo no lo creo, señores”, *Diario de Sesiones de las Cortes, Congreso de los Diputados*, 1839ko legegintzaldia, I, 34. zk., 603.

³ Ikus CLAVERO, Bartolomé, *Fueros vascos. Historia en tiempo de Constitución*, Ariel, Bartzelona, 1985.

Gai honen inguruko eztabaidak izaera akademiko hutsa duen elkarrizketa antzua dirudi, egungo errealitatean inolako garrantzirik izan edo pisu eskasa duena. Alabaina, gaurko sistema juridiko politikoa, zalantzarik gabe, bilakaera historiko berezien zori-
oneko edo zoritxarreko ondorioa da, bai eta ekonomia, gizarte eta politika arloetako gorabeheren ondorea ere. Halaber, estatu forma bat edo bestearen alde egin zein lurralde deszentralizazio-formulak oinarritzen duten ideologia konprometituenean (eta ideologia horien argudioetarik gehienek ere) euren sorburua dute XIX. mendeko gertakari historikoen interpretazioetan. Horrenbestez, izugarri interesgarria da zehaztasunez eta arretaz aztertzea zeintzuk izan ziren konstituzio-estatu liberalaren behin betiko ezarpena erraztu zuten gertakari ezustekoak edo nahitakoak, uztartuak zein isolatuak, horiek izan baitziren, paraleloan, foru-egitate publikoaren desagertzea ekarri zutenak. Gertatutakoek garrantzi berezia hartzen dute ondorengo emaitza ideologikoak eta ondorio politikoak kontuan hartu eta elkarrekin lotura egiten badugu.

2. KONSTITUZIOEN MULTZOA

Aipatu izan da jada Foruen eta sistema liberalaren arteko gatazka-alorra ez zela konstituzio-eremua izan. Edozelan ere, ezinbestekoa gertatzen zaigu XIX. mendeko konstituzio-historiari erreferentzia egitea, gehienbat, bi arrazoi kontuan hartzen badiugu. Lehenengoz, Konstituzioa delako liberalismoaren tresna pribilegiatua, egitura politikoa ezartzen duen testua, antolamendua, eskubide eta askatasun sistema eta lurralde antolaketa, bai eta printzipio liberalak finkatzen dituen kode politikoa, gainerako kode guztien euskarria. Bigarren, aurreko arrazoiari helduz, oso bitxia delako sistema juridiko liberalaren gailurrak alde batera uztea, lurralde administrazioa ezartzean, Foru eraentzak.

Konstituzio-gertakarien eta foru-sistemen arteko gatazka korapilatsua aztertuta, Foruen desegite prozesu luzea (kontuan hartzen badugu 1808 eta 1876 urteen arteko tartea) eta konstituzio-liberalismoaren sustraitze-ibilbidea *alderantziz proportzio-nalak izandako garapenak* direla esan dezakegu. Pentsaera liberaleko edukiaren eta forutasuneko printzipio orokorren artean *a priori* kide-tasuna, antzekotasuna, sumatu behar zen, bereziki, berdintasun eta

askatasun printzipioei begiratuta, ñabardurak ñabardura, baina kidesun hori ez zen gauzatu, XIX. mendeko konstituzio-historiari dagokionez. Planteamendu orokorra ondokoa izango litzateke: sistema batek aurrera egin ahala, bestea gutxitu behar zen, hots, batak irabazteko besteak galdu behar zuen.

Ontzi komunikatuen sistema horretan pisuzko osagaia izan zen *errege-boterea murriztea*, adierazi izan den moduan. Horrek ez du esan nahi, ezta gutxiago ere, errege-erreginen eskumen-esparrutik oinarrizko izaeradun aginteak era sistematikoan atera zirenik. Edonondik begira dakiola ere, aurreko mendeetan zehar forutasunaren oinarri izandako ituna, Monarkiaren eta foru lurraldeen arteko akordioa, ahulduz joango da guztiz desagertu arte, errege-borondateak bere eragina konstituzio-arauen muge-tara egokitu behar izan zuen heinean. Hari horri helduta, gogoratu behar dugu konstituzio-testu horietariko batzuk, dakigunez, beste batzuk baino murriztaileagoak izan zirela, errege-botereari dagokionez. Horrezaz gain, foru sistemen gain errege-erreginek izandako eragina orokorrean ulertu ahal izateko, kontuan hartu behar dugu foru lurraldeetako ordezkariak behin eta berriro, etengabe, jo zutela errege-instantzietara, Monarkiaren bitartekotza eskatuz, Foruen biziraupena arrisku handian zegoenean, bai eta geroago ere; izan ere, horren adibiderik garbiena dugu Ekonomia Itunaren negoziazioa, prozesu horretan aurkitzen dugularik errege-erreginen eraginik nabariena foru lurraldeetako ordezkarien alde.

Bestalde, hori guztia behar bezala ulertu ahal izateko, derri-gorreetan oroitu beharra dago hemeretzigarren mendearen erdialdean *Gobernu zentralaren eta foru lurraldeetako ordezkarien artean sorturiko begikotasuna*. Egoera hori ez zen ustekabeaz azaleratu; aldiz, garai horretako gobernu liberal moderatuek era egonkorrean izan zuten foru ordezkarien onespina. Gobernu liberalen egoera ahula eta foruzale liberalen negoziazio-gaitasuna funtsezko osagaiak izan ziren “neoforalitate” deritzon fenomenoak jaio eta iraunarazteko. Ildo bertsutik, epealdi horretan aurki dezakegu foru izaera hutsezko egoera, nahiz eta egoera hori ahalbidetzeko beharrezkoa izan neurri liberal batzuek foru egituraren ardatz nagusiak (foru baimena, barne aduanak etab.) birrintzea. Edozelan

ere, egoera hori habitat eroso bihurtu zen garaiko foruzale libera-
lentzat⁴. Talde horri gehitu zitzaizkion aurreko epealdietako liberalik
amorratuenak, neurri liberal berri horiek ezarrita, sortutako aukera
ekonomiko hobezinen ondorioz liluratuak.

Ikuspegi liberaletik begiratuta, konstituzio-prozesua eta
konstituzioetariko bakoitzaren eduki zehatzak aztertuta, orokorrean
esan dezakegu konstituzioen testuak idaztean, beste helburu
batzuen artean, lurralde izaerako arazo politikoa ere kontuan hartu
zela. Horrela, arau eremu hutsean, bai eta errealitate juridiko zein
erakunde esparruan ere, erraztu nahi izan zen arlo juridiko berezi-
tuak eta sistema liberal orokorra bat etortzea, hau da, *forudun lu-
rraldean errealitatea konstituzio-sisteman barneratzea*. Nahi hori
ez zen, inolaz ere, xaloa izan; alderantziz, jakina zen foru sistemen
ezabapenak izugarritzko arazoak sorraraziko zizkiola Gobernu zen-
tralari. Horrela izanik, ez dago foru abolizioa era orokorrean eta
beren beregi ezartzen duen konstituzio-manurik⁵. Egitate horren
interpretazioa ondokoa izan daiteke: elkar ulertzeko borondatea
edo, gutxienez, Madrilgo gobernuen esku tresna baliagarriak
jartzeko asmoa, zertarako-eta foru sistemak erabat desagerraraztea
baino irtenbide hobeagorik negoziatu ahal izateko.

Edonola ere, konstituzioen eta Foruen arteko tirabira horre-
tan, komenigarria dirudi konstituzio-epealdiak bereizteak, testu guz-
tiak ez baitziren joera berekoak izan. Horretara, lehenengo garaia
liberalismoaren eta absolutismoaren arteko gatazkan kokatu

⁴ RUBIO POBES, Coro, *Liberalismo y fuerismo en el País Vasco (1808–1876)*, Cuadernos
“Sancho el Sabio”, Fundación Sancho el Sabio, Vitoria–Gasteiz, 2002.

⁵ RICO LINAGE, Raquel, *Constituciones históricas. Ediciones oficiales*, Secretariado de
Publicaciones de la Universidad de Sevilla, 3ª edición, Sevilla, 1999.

⁶ Adibide moduan, beste batzuen artean, ondoko obra hauek azter ditzakegu: ARGÜELLES,
Agustín de, *Discurso preliminar a la Constitución de 1812*, Luis Sánchez Agestaren sarrera,
Centro de Estudios Constitucionales, Madril, 1981, GARÓFANO SÁNCHEZ, Rafael/ PÁRAMO
ARGÜELLES, Juan Ramón de, *La Constitución gaditana de 1812*, 2. arg., Diputación de Cádiz,
Jerez, 1987; MARTÍNEZ SOSPEDRA, Manuel, *La Constitución española de 1812*, Cátedra
Fadrique Furio Ceriol, Valentzia, 1978; SANZ CID, Carlos, *La Constitución de Bayona*, Reus,
Madril, 1922; TIERNO GALVÁN, Enrique (dir.), *Actas de las cortes de Cádiz*, Taurus, Madril,
1964; TOMÁS VILLARROYA, Joaquín, *El sistema político del Estatuto Real (1834–1836)*,
Instituto de Estudios Políticos, Madril, 1968.

beharko genuke, hau da, *1808 eta 1834 urteen artean*⁶. Tarte horretan, liberalismoak bere biziraupena ziurtatu beharra zeukan, bai konstituzio mailan baita erakunde alorrean ere. Era berean, absolutismoak, hiltorian egonda ere, behin betiko desagertu baino lehen bere burua sutsu babestu zuen. Giro orokor horrek bidea ireki zion foruzaletasunari, estatuaren errealitate politikoari muzin eginez, bere egitura mantendu ahal izateko. Horrela, konstituzio-xedapenen eragin mugatuak, batez ere arlo kronologikoan, foru lurraldeetako arduradunei ahalbidetu zien, batzutan oso eroso gainera, konstituzio-testuak alboratzea eta, ondorioz, sistema liberala bera ere alde batera uztea, sistema horren joera estatuarena ez zen bestelako sistema guztien desagertzea lortzea izan arren.

Hurrengo epealdia *1837ko Konstituzioaren eta 1868ko Iraultza Goragarriaren artekoa*⁷ izango litzateke. Garai horretan kolokan jartzen dira sistema liberalaren irmotze prozesua eta gobernuen sendotasuna. Absolutismora itzultzeko planteamendu politikoa ez zen jada bideragarria, are gutxiago I. Gerra Karlista bukatutakoan, baina sistema liberalak oraindik ez zuen lortu behar adinako sendotasuna konstituzio-gobernuen oreka ziurtatzeko; izan ere, gobernuok maiz behar izan zuten laguntasun politikoa euren egoera finkatzeko. Testuinguru horretan foruzale liberalen eta gobernu moderatuen arteko sintonia eragingarriari buruz hitz egin dezakegu⁸. Ordurako, kontzientzia liberaletan (bai estatuaren gobernu kideen nahietan, baita foru erakundeetako boterea lortu zuten foruzale liberalen gogoetan) minberatasunik handienak sortzen zituzten osagaiez gabetu ziren Foruak (aduanak, foru baimena etab.) eta bideragarria zen akordioa. Harreman adeitsuok ere tentsio, tirabira eta istiluz josita egon

⁷ Beste batzuen artean, CÁNOVAS SÁNCHEZ, Francisco, *El moderantismo y la Constitución española de 1845*, Cátedra de Estudios Hispánicos, Fundación Santa María, Madril, 1985; CASANOVA AGUILAR, Isabel, *Aproximación a la Constitución nonnata de 1856. Presentación general y primera publicación del texto íntegro*, Universidad de Murcia, Murtzia, 1985; COLOMER VIADEL, Antonio, *El sistema político de la Constitución española de 1837*, Publicaciones del Congreso de los Diputados, Madril, 1989.

⁸ Ikus PÉREZ NÚÑEZ, Javier, *La Diputación Foral de Vizcaya. El régimen foral en la construcción del Estado liberal (1808-1868)*, Centro de Estudios Constitucionales, Universidad Autónoma de Madrid, Madril, 1996.

ziren, baina horiek guztiak konpondu edo, behintzat, gainditu ziren elkarren arteko negoziazio borondateari helduta⁹. Ezin guxtietsi dezakegu lurralde forudunen oligarkian gertaturiko aldaketa: forutasunaren anputazioak onartu zituen, Foruen iraunarazpena eta biziraupena, mugatua bederen, ziurtatzeko.

Espainiako konstituzio-historiaren unerik gogoangarrientarikoa dugu, XIX. mendeari erreparatuz gero, *1869ko Konstituzio aurrerakoia eta 1875. urtearen arteko tartea*¹⁰. Epealdi horretan era berezian pilatu ziren gizarte, ekonomia eta politika arloetako osagai anitzak desoreka eta, askotan, lurrunkortasun giroa sorrarazteko. Larritasun egoera orokor hori eragin zuten inguruabarrak asko eta oso anitzak izan ziren eta, gehienetan, batzuk besteen kausa eta ondorio dira aldi berean. Edonola ere, ondokoak azpimarratu beharra dago: garaiko gobernuen ezegonkortasuna, 1869ko Konstituzioaren inguruan sortutako erlijio-arazoa, joera desberdineko altxamenduak, Errepublika, hots, sistema berri eta aurrerakoa ezartzearen ondorioak, saiakera federalistek eta langileen mugimendu hasiberriek eragindako tentsio politikoak, herritarren egoera ekonomiko larria eta, azkenik, Gerra Karlista amaitu berriak sorturiko sufrimendu orokorra alor guztietan (gizartean, ekonomia etab.etan).

Gerraren inguruabar horiek era askotako erreakzioak sortu zituzten maila guztietan. Horretara, borrokaldi ororen berezko ondoreak izateaz gain, hain zuzen ere, hildakoak eta galera ekonomikoak sortzeaz gain, gizartean eta, logikoa denez, politikarietan ere kontzientzia orokorra hedatu zen: karlisten porrotak

⁹ Ikus RUBIO POBES, Coro, *Fueros y Constitución: la Lucha por el Control del Poder (País Vasco, 1808–1868)*, Universidad del País Vasco–Euskal Herriko Unibertsitatea, Servicio Editorial–Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 1997.

¹⁰ Besteak beste, hurrengo lan hauek kontsulta ditzakegu: BARÓN FERNÁNDEZ, José, *El movimiento cantonal de 1873 (Primera República)*, Edicios Do Castro, A Coruña, 1998; CARRO MARTÍNEZ, Antonio, *La Constitución española de 1869*, Ediciones Cultura Hispánica, Madril, 1952; COMÍN COLOMER, Eduardo, *Historia de la Primera República*, Editorial AHR, Bartzelona, 1956; FERRANDO BADÍA, Juan, *La primera República española*, Editorial Cuadernos para el Diálogo, Madril, 1973; LÓPEZ CORDÓN, M^a Victoria, *La Revolución de 1868 y la I República*, Siglo XXI de España editores, Madril, 1976; LORCA SIERO, Antonio, *Las Cortes Constituyentes de 1869–1871*, Editorial MAN, León, 1995.

ezinbestean ekarri behar zuen Foruen abolizioa, gerraren eta liskarrak sorturiko zorigaitz guztien iturburua izaki.

Edonola ere, 1875. urtera arte, estatuaren gorabeherak (gizarte zein politika arloetako inguruabarrek) berriro ere jarri zuten forutasuna nahiko egoera erosoan, konstituzio-sistema liberalaren barruan bere biziraupenari begiratuta, batez ere kontuan hartzen badugu garai horretan indarrean egondako konstituzioak (eta 1873ko konstituzio-proiektuak) XIX. mendean ezarritako konstituzio-eraentzarik aurrerakoiena (errotik liberalena) finkatu zuela. Aipaturiko eragile horiek guztiak eta beste hainbeste erabakigarriak izan ziren urte horietan foru-iraupena ziurtatzeko. Estatuko gobernuak ez zeuden, *de facto*, egoera politiko aiposean, alde batera utzita gizarte edo ekonomia inguruabarrak, Foruen abolizioari ekin ahal izateko, hain prozesu sakona izanik forutasunaren ezabapena. Aldi berean, altxamendu karlistak foru lurraldeak gobernuaren eraginetik isolatzea ekarri zuen, eta horrek nolabaiteko “autonomia” eman zien lurralde horiei. Horrek ez du esan nahi, inolaz ere, lurraldeetako egoera erraza zenik; kontrara, gerraren egoitza militarra lurraldeotan egonda, gatazka armatuaren ondorioz ankerrenak Bizkai, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako biztanleek pairatu behar izan zituzten eta, horrezaz gain, izaera militarreko gorabeherak bi zonalde sorraraztea ekarri zuen: alde batetik, karlisten mendeko zonaldea, foru apainduraz jantzitako erakundeekin; bestetik, gune liberalak, arlo geografikoari begiratuta lurraldeetako hiriburuetan eta horietako inguruetan kokatu¹¹ eta, itxuraz behintzat, Foruen araberako erakunde egitura mantendu zutenak, “neoforalitatea”ren interpretazioari jarraituz.

Hori gorabehera, beharbada hemeretzigarren mendeko urterik adierazgarriena, gai honi dagokionez, *1876. urtea* da, Errestaurazioaren sistema politikoaren une erabakigarria, oinarri kro-

¹¹ “... cae en manos carlistas toda Vizcaya menos Bilbao y Portugalete; toda Guipúzcoa menos los pasillos Tolosa–San Sebastián–Irún; toda Navarra menos Pamplona, Estella y parte de la zona ribereña; la totalidad de Álava menos Vitoria y Laguardia. Los trenes procedentes de Madrid no pasarán, hasta 1876, de Miranda de Ebro” ESTORNÉS ZUBIZARRETA, Idoia, *Carlismo y Abolición foral. En torno a un centenario (1876–1976)*, Editorial Auñamendi Argitaletxea, Donostia–San Sebastián, 1976, 166.

nologikoa eta data sinbolikoa. Une horretan topo egin zuten XIX. mendean zehar hainbat aldiz elkarren kontra egin zuten bi korronteek, hots, foruzaleak eta liberalak. Talka egite horren ondorioz sortu ziren arau-emaizta desberdin bi, hau da, 1876ko ekainaren 30eko Konstituzioa eta urte bereko uztailearen 21eko Legea (Foruen Abolizioari buruzko Legea). Bi xedapenok, euren arau-maila desberdina zelarik, osagarriak izan ziren esparru juridikoan. Konstituzio kontserbadore berriak liberalismoaren printzipioei sendotasuna eta irmotasuna eman zizkien, hemeretzigarren mendeko gorabehera izugarrien ondoren, eta horrek liberalismoa behin betiko finkatzea lortu zuen. Horri gehitzen badiogu azken Gerra Karlistaren amaiera, liberalismoak karlismoa garaituz, ondorioa oso nabaria da: Foruek oso etorkizun iluna zuten, besteak beste, gizarteak forutasuna XIX. mendeko liskar armatuen errudun gisa sumatzen zuelako eta, horrezaz gain, forutasuna sistemaren desorekatze faktore bilakatu zelako.

Taxu horretan, Errestaurazioaren lehenengo urratsek eta Konstituzio berriak sistemaren oreka ziurtatzen zuten, erakundeak eta politika sendotzen zituzten, eta horrek guztiak itxaropena eman zion bakea behar zuen gizarteari. Aldi berean, politikariek eta prentsa politikoak gizarte hori, lasaitasun eta baretasun politikoa behar zuen gizartea, era sutsuan asaldatu zuten, bake eta oreka nahiak erabilia, ezinezko bihurtzeko Foruen iraunarazpena, nahiz eta Gobernuaren hasierako joera ustez horrelakoa izan edota foru ordezkariak etsi-etsian hori lortzen saiatu. Laburbilduz, helburua gizartean forutasuna ezabatzeko nahi orokorra sorraraztea zen, gogo horrek, ondoren, arduradun politikoak behartuko baitzituen, nahiz eta halako aurreikuspenik ez izan, Foruen abolizioa ezartzera¹². Horretarako ezinbestekoa izan zen 1876ko

¹² Llobregat kondearen esanetan, “en primer lugar, debo quejarme, Sres. Diputados, de la atmósfera que nos rodea en este asunto; atmósfera falsa, atmósfera de pasión, que nos oprime y agobia á todos... Ante esta consideracion os pido encarecidamente calma, sosiego y templanza para juzgar con la alta imparcialidad que deben juzgar los hombres de Estado los asuntos de esta índole, no dejándose influir en manera alguna por atmósferas y presiones exteriores, que pueden ser más o ménos apasionadas, que no siempre son justas, y que son impropias siempre de los altos Cuerpos Legislativos”, *Diario de Sesiones de las Cortes, Congreso de los Diputados, 1876–1877ko legegintzaldia*, V, 107. zk., 2952.

Konstituzioak emandako sendotasun-etorkizuna, arrazoizko bake-
aukera berriak sortuz gizartean eta politikan.

3. LEGE-APARATUA

Aurretik azaldu den bezala, Gobernuak Legea, esangura hertsian, erabili zuen Foru sistemen esparruari ekiteko, foruak mugatzeko (1839) edo ezabatzeko (1876), baina, edozelan ere, konstituzio mailatik beheragoko arauak ezarri zuten, eremu horri dagokionez, lurralde antolamendua nolakoa izan behar zen forudun lurraldeetan.

Arlo horri begiratuta, bi dira arrazoiketarik nagusienak. Lehenengoak aurreko ataleko azken ideari jarraitzen dio, zati batean behintzat: 1839ko urriaren 25eko eta 1876ko uztailaren 21eko *legeen sorrerak, eztabaidak eta onarpenak, eta garai bakoitzaren gizarte egoerak zein foru errealitateari buruzko iritzi publiko orokorrak lotura estua dute*. Bai 1839ko Legearen unean, baita 1876ko Legearen garaian ere, foru egiturak atzemateteke saiakera egin zen ikuspegi orokorretik begiratuta, momentu bakoitzaren helburua oso desberdina zelarik. Horretara, 1839an Foruen biziraupen mugatua bilatu zen, eta, aldiz, 1876an sistema horien izate bera ezabatu nahi izan zen. Bi arauetariko bakoitzak esteka sendoa du Gerra Karlista batekin edo bestearekin. Horrek oso ondorio nabaria dakar, hau da, gertako gizarte-pairamena izugarri ga-rrantzitsua izan zen kontzientzia orokorra sortzerakoan eta, logikoa denez, kontzientzia horretan iritzi politikoez (edozein izaerakoek) eragina izateko aukeretan. Izatez, politikariek argudio gisa erabili zuten, gehienbat 1876an, “gizarte aldarria” zeritzona, lege-proposamena egiteko orduan. Hori dela bide, nabariak dira gerra bakoitzaren eta gizarte ondoreen arteko harremanak, gizartearen sentimendu orokorrari begiratuta. Edozelan ere, politikariek sentimen soziala jaso eta, aldi berean, areagotu arren, arau bakoitzari dagokion konstituzio-uneak (1837ko Konstituzioak eta 1876ko Konstituzioak, hurrenez hurren) giro politiko desberdinak ondorioztatu zituzten eta egoera horiek, dakigunez, irtenbide juridiko desberdinak sorrarazi zituen, forutasunaren sistemari dagokionez, hots, biziraupena edo desagertpena.

Bigarren arrazoiketa kontuan hartuta, irizpide juridikoa *stricto sensu* adierazi beharra dago: *Foruen iraupen mugatua, hasieran, eta, ondoren, behin betiko abolizioa, bitxia iruditu arren, Lege-tresnak erabilia egin zen, foru gatazkatik kanpo utzita garai bakoitzeko Konstituzioa*. Are gehiago, aurretik aipatu izan denez, hemeretzigarren mendeko konstituzioek ez zioten erreferentziarik egin forutasunari, hau da, ez zuten ezarri Foruen iraupena edo desagerpena. Gai hori oso interesgarria da, Konstituzioa baita, ikuspegi liberalean, herritarren oinarrizko eskubideak eta askatasunak arautu, estatu forma eta erakunderik garrantzitsuenak ezarri, eta, logikoa denez, lurralde antolaketa egiteko era eta, ondorioz, lurralde administrazio zein toki administrazioa finkatu behar duen testua.

Aldez aurretik aipatu izan da zeintzuk izan zitezkeen konstituzio bakoitzaren egileek kontuan hartutako irizpideak foru sistemak testuan saihesteko; izan ere, bide horri jarraituz, konstituzio-testuek foru-egiturak arautu, mugatu edo ezabatu izan ahal zituzten. Ez zen horretara egin. Zergatien artean beren beregi azpimarratu behar da aukeratutako bideari jarraitzeko abagune politikoa, gobernu bakoitzaren lehentasunen arabera, bai eta ildo horrek zituen abantailak ere. Aukera horrek bidea irekitzen zion lege-testua arlo politikoan eroso negoziatzeari, legea ez baitzegoen konstituzio-testuaren zurruntasunari lotuta eta, bide beretik, oso epealdi laburrean posible baitzen legearen eduki literala ere aldatzea. Edozelan ere, beharbada irizpiderik garrantzitsuena ondokoa izan daiteke: testuaren abstrakzioak ahalbidetzen zuen interpretazioa era batekoa edo bestekoa izatea, garaiaren beharrianak kontuan hartuta. Horretara gertatu zen 1839ko Legearekin. Hain handia zenik lege-tresna juridikoaren esparrua, legearen baliabidea erabili zen Foruak 1839an berresteko eta 1876an abolitzeko.

Nondik-nahi begiratuta, forutasuna arautu zuten bi arau juridikoen oinarrizko helburuak aipatu beharra dago. *1839ko urriaren 25eko Legeak arau-tresna batera jaso zuen Foruak era mugatuan iraunarazteko borondatea*¹³, *Gobernu zentralarena alegia*.

¹³ AGIRREAZKUENAGA, Joseba / URQUIJO GOITIA, José Ramón (eds.), *150 años del Convenio de Bergara y de la Ley del 25 de octubre de 1839*, Eusko Legebiltzarra / Parlamento Vasco, Vitoria-Gasteiz, 1990.

Aipatu izan da zein zen arau horren sortze-prozesua inguratu zuen egoera soziala: gizarteak, bizi izandako gerra egoerak nazkatuta, bakea eta oreka politikoa ezinbestean behar zuen. Alabaina, oraingo honetan ere aurki ditzakegu Foruen erroko abolizioa eskatzen zutenak, gizartean sentimendu hori areagotuz. Halere, Gobernuak ez zuen bere burua behartuta ikusi horrelako neurririk ezartzeko, edota ez zegoen egoera politiko erosoan lan horri ekin ahal izateko. Edozelan ere, onartutako Legea hain zabala izanik, testuaren interpretazioari begira bederen, ia berrogei urtez foru sistemak babestuta geratu ziren. Are gehiago, nahiz eta forudun lurraldeetako ordezkariak Gorteetan arau horren eduki literala mesfidantzaz (bai eta kontraktasunez ere) begiratu, egiatan, denborak aurrera egin ahala, neurri hau egitura liberalean mugaturiko Foruen lege-euskarri bihurtu zen¹⁴, Koroarekin itun historikoa ordezkatzuz, eta konstituzio-izaera emanaz forutasuna sisteman barneratzeari. Horren arrazoiak oso logika juridiko simplea dauka: Gorteen onartutakoa, behar bezalako lege-tresna erabilia, ezin zitekeen Konstituzioaren kontrakoa izan¹⁵ eta, ondorioz, “neoforalitate” zeritzona derrigorrean Konstituzioaren arabera izan behar zen¹⁶.

¹⁴ Legearen interpretazioa (foruzaleen ikuspegitik, bederen) proiektuaren eztabaidan bertan azaleratu zen, ezinbestean gorde beharreko konstituzio-printzipioak salbuetsi eta, gainerakoan, Foruen edukia irauarazi ahal zela adieraztean, hain zuzen ere, Grazia eta Justizia Ministroaren hitzetan: “... yo salvo la unidad de las cosas en los grandes vínculos, en los grandes principios, en las grandes formas, y creo que se salva la unidad constitucional habiendo un solo Rey constitucional para todas las provincias, un mismo Poder legislativo, una Representacion nacional comun. Las Constituciones, señores, son una colección de principios sancionados; su desenvolvimiento depende de las leyes secundarias, y no se opone ni á la Constitucion ni á los principios en ella consignados la forma en que se desarrollen éstos, toda vez que en su esencia se salven”, *Diario de Sesiones de las Cortes, Senado*, 1838–1839ko legegintzaldia, 17. zk., 169.

¹⁵ Vallgornerako Markesaren arabera, “... la primera vez que estos fueros van á recibir la confirmacion de unas Córtes españolas, es hoy. Concesiones hasta aquí de los Reyes, en adelante serán del Reino votada en Córtes por los representantes de la Nacion española, y el pensamiento inmutable de la ley viene á subrogar la frágil, la quebradiza, la deleznable y sobre todo versátil voluntad del hombre. Y qué, al dar, señores, á aquella legislacion de tantos siglos, venerable, pero no sancionada hasta ahora en Córtes, al darle el sello augusto que le imprime el voto y reconocimiento nacional, ¿no podremos imponerle una restriccion y salvar la unidad constitucional?”, *Diario de Sesiones de las Cortes, Senado*, 1838–1839ko legegintzaldia, 18. zk., 191.

¹⁶ VÁZQUEZ DE PRADA, Mercedes, *Negociaciones sobre los Fueros entre Vizcaya y el poder central. 1839–1877*, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbo, 1984.

Beste muturrean, 1876ko uztailearen 21eko Legeak gordintasun osoz irudikatu zuen Gobernu zentralaren borondate bateratzaile eta berdintzailea, edonolakoa izanda Madrilgo Gobernuaren hasierako nahia Foruei begira. Horretara, berriz ere azpimarratu behar da Gobernuaren gain gizarteak eta berau aztoratzen gehien aritu zirenek, hots, politikariek¹⁷ eta prentsak eduki zuten eragin sutua. Horri dagokionez, ezinbestean gogoratu behar dugu forutasunaren aldeko komunikabideak zentsuraren mende zeudela, debekatuta zutelarik Foruei inolako erreferentziarik egitea, nahiz eta aipamenok Foruen iraunarazpena Konstituzioaren mugen barruan defendatu¹⁸. Egoera horrelakoa izanik, abolizioaren aldeko komunikabideek ez zuten inolako kontrakotasunik izan Foruen aurkako erasoaren fronte guztietan zabaltzeko¹⁹. Bide hori jorratuta, prentsak Foruak eta konstituzio-

¹⁷ Beste batzuen artean, izugarritzko aurkakotasunez aritu zen Sánchez Silva senadorea. Adibide moduan, hurrengo erreferentzia: “A mí me han enviado aquí 500.000 españoles para que ayude á dar sepultura bajo estas bóvedas á los fueros de las Provincias Vascongadas”, *Diario de Sesiones de las Cortes, Senado*, 1876ko legegintzaldia, 57. zk., 827.

¹⁸ Zabala diputatuaren arabera, “desearia saber qué razon ó qué fundamento puede haber para que á los periódicos de la villa de Bilbao les esté absoluta y terminantemente prohibido el defender las intituciones de aquel país, atacadas en todos los tonos y formas, llegando á tal extremo la prohibición... que no se les permite siquiera copiar lo que otros periódicos dicen sobre los fueros... no hay allí la excitación que nuestros enemigos han querido hacer ver; lo que hay allí, y es natural, es gran pena, dolor, disgusto y el malestar consiguiente al ver el giro que toma la cuestion foral”, *Diario de Sesiones de las Cortes, Congreso de los Diputados*, 1876–1877ko legegintzaldia, III, 65. zk., 1587.

¹⁹ “La tenacidad de las provincias rebeldes del Norte no merece consideración ninguna. Nada de transacciones, nada de convenios que vengan a hacer inútiles tantos y tan inmensos sacrificios y tanta sangre derramada combatiendo la causa del absolutismo” (*El Imparcial*, 3 de febrero de 1876, 2); “Cuando un país se muestra tan belicoso, es muy justo se le gobierne militarmente” (*El Correo Militar*, 2 de marzo de 1876, 1–2); “Dice EL MERCANTIL VALENCIANO que los jóvenes de aquella ciudad, para demostrar su opinión contraria a los Fueros de las provincias Vascongadas, tratan de salir los días en que se celebren las fiestas de la paz luciendo en el ojal de la levita un pequeño lazo de seda con los colores nacionales, símbolo de la unidad de la patria” (*Boletín de Comercio*, Santander, 14 de marzo de 1876, 2); “... la sola consideración de que las provincias del Norte forman parte de la península española aconsejaría su abolición para crear la *unidad constitucional*” (*El Correo Militar*, 21 de marzo de 1876, 2). CIAURRIZ BELZUNEGUI, Alberto, *La abolición de los Fueros Vascos a través de la prensa*, Editorial Auñamendi Argitaletaria, Donostia–San Sebastián, 1976.

eraentza liberala bateraezinak zirela defendatu zuen, estatuko lurralde-unitateen arteko berezitasunak gainditzearen alde agertu zen²⁰, betiere berdintasunaren printzipio liberalaren izenean, edota Forutasuna azken Gerra Karlistaren zein 1833-1839 epealdiko gerraren sorburu eta arrazoirik larrien gisa aurkeztu zuen. Seguruenik azken argudio hori erarik sakonenean barneratu zen garai horretako politikarien gogoan. Hainbat inguruabar metatu ziren 1876ko emaitza sorrarazteko, besteak beste, gerraren garaipen liberalak piztu zuen poza, gerrak eragindako esfortzua (galera ekonomikoak zein heriotzak), Foruen eta Karlismoaren arteko lotura²¹, liberalismoak forutasunari pribilegio maila ematea²² eta nazio batasuna lortzeko irrika (gutxienez arlo juridiko publikoan lorturiko erabereketze-emaitza²³) etab. Horiek guztiek, beste batzuen artean, Gobernu zentrala behartu zuten forutasun publikoa desagere-

²⁰ “Las provincias vasco-navarras, ¿son o no españolas? En el primer caso no deben repugnar el ser regidas por las mismas leyes que las demás, no deben insistir en la conservación de privilegios siempre odiosos. En el segundo, si prefieren ser antes vascas que españolas, quédense enhorabuena con sus Fueros; pero formen estado aparte, prohibase que ningún natural de allí desempeñe cargo alguno en ningún ramo, póngase estrecho sitio a sus fronteras...” (*El Correo Militar*, 25 de marzo de 1876, 1), CIAURRIZ BELZUNEGUI, Alberto, *La abolición*, 111.

²¹ ESTORNÉS ZUBIZARRETA, Idoia, *Carlismo y Abolición foral. En torno a un centenario (1876–1976)*, Editorial Auñamendi Argitaletza, Donostia–San Sebastián, 1976.

²² Adibidez, Reinoso senadorearen hitzaldia: “He aquí por qué los que vivimos en las provincias no exentas no podemos menos de considerar la cuestion que se discute como de inmensa gravedad, pues todo cuanto sean exenciones en tributos y cargas, ya sean de hombres, ya de dinero, han de venir á pesar sobre nuestras esquilmas, esquilmadísimas provincias... ¿Y cómo nos habíamos de presentar en nuestras provincias si fuéramos tan blandos para las Vascongadas y tan fuertes para que se exigiera á las nuestras el cumplimiento de la ley general? Es una rara coincidencia, señores, el que esas provincias siempre hayan hecho uso de sus fueros en contra de la Nacion”, *Diario de Sesiones de las Cortes, Senado*, 1876ko legegintzaldia, 58. zk., 878

²³ López Dóriga senadorearen esanetan, “... ¿Se quiere, ó no se quiere la unidad constitucional? ¿Se quiere? Pues la comision nos ha dicho que sí, el Gobierno tambien nos dice que sí; entonces, ¿por qué no dar esta satisfaccion al país?... ¿Por qué descontentar al país, que no cree que sea una verdad absoluta la abolicion de los fueros? Porque, señores, es evidente que si en alguna cuestion la opinion general se ha pronunciado, es ésta; en todas partes hemos oido el grito de «abajo los fueros»...”, *Diario de Sesiones de las Cortes, Senado*, 1876ko legegintzaldia, 59. zk., 894.

rarazteko neurria hartzera, gainerako konponbideak ezartzea ezinezkoa baitzen orduko gizarte giroa aztertuz.

Ilido beretik, abolizioa eta berehala gertatutakoa ikusita, agian ez zen izan Gobernuaren hasierako helburua hain eragin handiko erabakirik hartzea, kontuan hartzen baldin badugu Ekonomia Itunen garaia 1878an, hau da, Foruak abolitu eta bi urte igarota zabaldu zela. Epealdi berri horrek bide zabala ireki zien klase foruzale liberalen interesei (foralak edo “neoforalak”) eta berehala bihurtu ziren foru lurraldeetako oligarkia; izan ere, askotan, klase horiek abolizioaren eta ondoren sortutako egoeraren onuradunik handienak izan ziren. Horratik, erabaki hori hartzeko Gobernu zentralak bere burua behartuta ikusi edo ez, 1876ko uztailaren 21eko Legea onartzeak foru lurraldeen eta estatuaren arteko harremanetan sistema berria hastea ekarri zuen, gutxienez, esparru ekonomikoan, hasieran, eta Administrazio arloan, ondoren. Bi eremu horiek, forutasun zabalean sakon errotuta, denborak aurrera egin ahala eta, batez ere, aurreko mendearen lehenengo hereneko gorabeherak kontuan hartuta, Euskal Eskubide Historikoen teoria oinarritu zuten²⁴. Ukaezinezko gaurkotasuna duen kontzeptu horrek, dakigunez, literatura juridiko-politiko zabala ondorioztatu izan du, hala XX. mendean, nola, momentuz, XXI. mendean ere.

²⁴ Ikus, beste askoren artean, HERRERO DE MIÑÓN, Miguel, *Derechos Históricos y Constitución*, Taurus, Madril, 1998; LARRAZABAL BASAÑEZ, Santiago, *Contribución a una Teoría de los Derechos Históricos Vascos*, Instituto Vasco de Administración Pública / Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Bilbo, 1997; eta TOMÁS Y VALIENTE.

4. BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA, Joseba/ URQUIJO GOITIA, José Ramón (eds.), *150 años del Convenio de Bergara y de la Ley del 25 de octubre de 1839*, Eusko Legebiltzarra/ Parlamento Vasco, Vitoria–Gasteiz, 1990.
- ARGÜELLES, Agustín de, *Discurso preliminar a la Constitución de 1812*, Luis Sánchez Agestaren sarrera, Centro de Estudios Constitucionales, Madril, 1981.
- BARÓN FERNÁNDEZ, José, *El movimiento cantonal de 1873 (Primera República)*, Edicios Do Castro, A Coruña, 1998.
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA/ DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, *Bizkaiko Foru Legeria/ Legislación Foral de Bizkaia*, Foru Agirien Bilduma/ Colección de Textos Forales, Bilbo, 1991.
- CÁNOVAS SÁNCHEZ, Francisco, *El moderantismo y la Constitución española de 1845*, Cátedra de Estudios Hispánicos, Fundación Santa María, Madril, 1985.
- CARRO MARTÍNEZ, Antonio, *La Constitución española de 1869*, Ediciones Cultura Hispánica, Madril, 1952.
- CASANOVA AGUILAR, Isabel, *Aproximación a la Constitución nonnata de 1856. Presentación general y primera publicación del texto íntegro*, Universidad de Murcia, Murtzia, 1985.
- CIAURRIZ BELZUNEGUI, Alberto, *La abolición de los Fueros Vascos a través de la prensa*, Editorial Auñamendi Argitaldaria, Donostia–San Sebastián, 1976.
- CLAVERO, Bartolomé, *Fueros vascos. Historia en tiempo de Constitución*, Ariel, Bartzelona, 1985.
- COLOMER VIADEL, Antonio, *El sistema político de la Constitución española de 1837*, Publicaciones del Congreso de los Diputados, Madril, 1989.
- COMÍN COLOMER, Eduardo, *Historia de la Primera República*, Editorial AHR, Bartzelona, 1956.

- ESTORNÉS ZUBIZARRETA, Idoia, *Carlismo y Abolición foral. En torno a un centenario (1876–1976)*, Editorial Auñamendi Argitaletza, Donostia–San Sebastián, 1976.
- FERRANDO BADÍA, Juan, *La primera República española*, Editorial Cuadernos para el Diálogo, Madrid, 1973.
- GARÓFANO SÁNCHEZ, Rafael/ PÁRAMO ARGÜELLES, Juan Ramón de, *La Constitución gaditana de 1812, 2. arg.*, Diputación de Cádiz, Jerez, 1987.
- HERRERO DE MIÑÓN, Miguel, *Derechos Históricos y Constitución*, Taurus, Madrid, 1998.
- LARRAZABAL BASAÑEZ, Santiago, *Contribución a una Teoría de los Derechos Históricos Vascos*, Instituto Vasco de Administración Pública/ Herri–Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Bilbo, 1997.
- LÓPEZ CORDÓN, M^a Victoria, *La Revolución de 1868 y la I República*, Siglo XXI de España editores, Madrid, 1976.
- LORCA SIERO, Antonio, *Las Cortes Constituyentes de 1869–1871*, Editorial MAN, León, 1995.
- MARTÍNEZ SOSPEDRA, Manuel, *La Constitución española de 1812*, Cátedra Fadrique Furio Ceriol, Valencia, 1978.
- PÉREZ NÚÑEZ, Javier, *La Diputación Foral de Vizcaya. El régimen foral en la construcción del Estado liberal (1808–1868)*, Centro de Estudios Constitucionales, Universidad Autónoma de Madrid, Madrid, 1996.
- RICO LINAGE, Raquel, *Constituciones históricas. Ediciones oficiales*, Secretariado de Publicaciones de la Universidad de Sevilla, 3^a edición, Sevilla, 1999.
- RUBIO POBES, Coro, *Fueros y Constitución: la Lucha por el Control del Poder (País Vasco, 1808–1868)*, Universidad del País Vasco–Euskal Herriko Unibertsitatea, Servicio Editorial–Argitaletza Zerbitzua, Bilbo, 1997.
- RUBIO POBES, Coro, *Liberalismo y fuerismo en el País Vasco (1808–1876)*, Cuadernos “Sancho el Sabio”, Fundación Sancho el Sabio, Vitoria–Gasteiz, 2002.

- SANZ CID, Carlos, *La Constitución de Bayona*, Reus, Madril, 1922.
- TIERNO GALVÁN, Enrique (dir.), *Actas de las cortes de Cádiz*, Taurus, Madril, 1964.
- TOMÁS VILLARROYA, Joaquín, *El sistema político del Estatuto Real (1834–1836)*, Instituto de Estudios Políticos, Madril, 1968.
- TOMÁS Y VALIENTE, Francisco, “Los «derechos históricos» de Euskadi”, *Sistema*, 31 (uztaila 1979).
- VÁZQUEZ DE PRADA, Mercedes, *Negociaciones sobre los Fueros entre Vizcaya y el poder central. 1839–1877*, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbo, 1984.

Aitziber Irigoras

EUSKARAREN BALIO GABEKO ESKUBIDEAK JUSTIZIA ARLOAN*

1. ELEANIZTASUNA ETA HIZKUNTZ POLITIKA

1.1. Eleaniztasuna

Estatu espainiarraren eleaniztasuna ukaezinezko kontua da. Estatu espainiarrean hizkuntza asko mintzatzen dira (euskara, gailegoa, katalana, bablea, fablea, aranera, Extremadurako portugesa, bereberra, arabera, romaní edo caló delakoa), eta errealitate honi legeak erantzun bat eman behar dio.

Elebitasunaren aldeko nazioarteko politika diferenteek legez edo bere Konstituzioen bitartez errotu dute bi hizkuntzaren edo gehiagoren berdintasuna. Berdintasun juridikoaz ari gara, ez egitateetan oinarrituta dagoen berdintasunaz.

* Artikulu honetan Justizia Euskaraz elkarteak 2006ko abenduaren 15ean antolatutako jardunaldian irakurri zen testua dator. Jardunaldiaren gaia eskubide lingustikoak Justizia Administrazioan izan zen. Kepa Sanpedro Justizia Euskaraz elkarteko kidea da eta artikuluan elkarte horrek gaiari buruz duen sentipena jasotzen da, ñabardurak ñabardura. Jardunaldiko beste parte-hartze batzuk aldizkari honen aurreko zenbakietan irakur daitezke, hain zuzen ere, 11. zenbakian (Edorta E. Herreraren *Epailletza euskalduna: hizkuntza eta prozesu eskubideak*) eta 12. zenbakian (Anna M. Pla irakaslearen *La aptitud lingüística del personal judicial*).

1.2. Hizkuntzei buruzko politikak. Nazioarteko ereduak

Hiru motatako eleaniztasun edo hizkuntz politika egon daiteke:

a) Mugagabeko eskubide pertsonalean edo subjektiboan (*derechos subjetivos*) oinarritzen den eleaniztasuna edo elebitasuna. Kanadako kasua. Kanadako erakunde guztiak elebidunak dira (ingeles eta frantses), frantsesa gutxiengoan hizkuntza izan arren. Kanadako biztanle guztiak aukera dezakete erabili nahi duten hizkuntza, Estatu mailan, Justizian edo Hezkuntzan. Estatuak onartu eta bideratu egin behar du hautaketa hau.

b) Lurraldean oinarritzen den hizkuntz eskubidea (*derechos territoriales*), Belgikan eta Suitzan gertatzen den antzera. Kasu hauetan lurraldeak jartzen ditu hizkuntzaren mugak. Eleaniztasuna lurraldez banatzen eta erabiltzen da: leku batean frantsesez eta bestean alemanez edo flamenkoz. Lurralde edo kantoi bakoitzak bere hizkuntza ofiziala du eta eskubide subjektiboek lurraldearen barruan bakarrik dute joko.

c) Lurraldetasunak mugatutako eskubide subjektiboa (*derechos personales territorializados*), Espainiako autonomia-erkidegoetan gertatzen dena. Estatu espainiarra, legez, elebakarra da, baina lurralde batzuetan bertako hizkuntza ere erabil daiteke. Autonomia-erkidego horiek ez dira elebidunak, baina erkidego batzuetako herritarrek badute bertako hizkuntza ahoz eta idatziz erabiltzeko eskubidea. Kasu hauetan, eskubide pertsonala lurraldearen arabera banatzen da eta eskubide hori geografikoki zatitzen da. Hizkuntza biak ofizialak bihurtzen dira autonomia-erkidegoetan.

Teorian hala dira hizkuntz politika diferenteak, baina praktikan ez, praktikan bestelakoak suertatzen dira. Espainiako auzitegi-etan, gutxienez. Eskubidea pertsonala ala lurraldean oinarritua izan, praktikan euskara beti ateratzen da galtzaile, eta batzuetan, euskara erabiltzen dutenak, gaizkile. Eta egoera horrek azterketa sakonago bat eskatzen du, kontraesanak gainditu ahal izateko. Estatu espainiarreko legedia anbigua da eta anbigutasun horrek arazoak besterik ez ditu sortzen egunero, eta gehienetan euskararen kalterako. Edo,

hobeto esanda, Espainiako gaurko legediak eta legedi hori interpretatzen duten ebazpenek, eta horretan oinarritutako hizkuntz politikek, euskararen egoera makala eta ahula areagotzeko soilik balio dute. Ezin ukatu hizkuntz politika horren azpian Estatuaren definizio jakin bat dagoela, Estatu zentral eta chauvinista bat.

2. LEGEDIA ETA JURISPRUDENTZIA HIZKUNTZA

2.1. Hizkuntzei buruzko legedia

Hauxe da hizkuntzei buruzko legedi nagusia gure inguruan:

- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna: 27. art.
- Giza eskubideak eta oinarriko askatasunak babesteari buruzko Europako Hitzarmena: 14. art.
- 1978ko Espainiako Konstituzioa: 3. art. eta Hitzaurrea.
- 1979ko EAeko Estatutua: 6. art. eta 35. art.
- Azaroaren 24ko 19/1982 Oinarriko Legea, Euskararen Erabilera Arauzkotzekoa: 4., 5., 8., eta 9. art.ak.
- Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoa: 231., 341., eta 471. art.ak.
- 2003/1986 Errege Dekretua: 5.2.f, 11.2.f, 51.6 eta 81. art.
- Eusko Jaurlaritzaren 117/2001 Dekretua, EAeko Justizia Administrazioan hizkuntzaren normalizaziorako erabili beharreko neurriei buruzkoa.
- 1608/2005 Errege Dekretua, idazkari judizialen erregelamendua onesten duena.

2.2. Espainiako estatuko jurisprudentzia

Hauxek dira hizkuntzari buruzko epai nagusiak:

- Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 26ko epaia, 82/1986 zenbakikoa.
- Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 28ko epaia, 46/1991 zenbakikoa.
- Epai Gorenaren ebazpena, 1995ko apirilaren 18koa.
- Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 13ko epaia, 105/00 zenbakikoa.
- Konstituzio Auzitegiaren irailaren 13ko epaia, 270/06 zenbakikoa.

2.3. Euskara Nafarroan

1978ko Espainiako Konstituzioaren hirugarren artikuluan ezarritakoaren arabera, gaztelaniaz bestelako hizkuntzek, Espainiako estatuan ofizialtasuna izateko, autonomia-erkidego bakoitzeko Estatutuak horrela xedatu behar du.

Nafarroaren kasuan *Forua Hobeagotzeko Legeak* arautzen du estatutua. Bederatzigarren artikuluan, honakoa esaten da:

a) Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala.

b) Euskarak ere ofizialtasuna izango du Nafarroako eremu euskaldunetan.

Foru lege batek zehaztuko ditu eremu horiek, euskararen erabilera ofiziala erregulatu, eta Estatuko legediaren barnean, hizkuntza honen irakaskuntza zuzenduko du.

Hobeagotzeko Legeak gainontzeko estatutu guztiek ez bezalako erregulazioa egiten du, hizkuntza bat ofizialkide bihurtzen baitu eremu jakin eta mugatu batzuetarako soilik.

Hau da, euskara ofiziala izango da hizkuntzaren arauketa egiten duen legeak (Euskararen 18/1986 Foru Legea) ezartzen dituen eremuetan, legearen aburuz, euskarak Nafarroako eremu horietan soilik baitu gizarte-ezarpena.

Aipatzekoa da baita ere, Hobeagotzeko Legeak, beste estatutu askok ez bezala, botere publikoei euskararen alde ez diela inongo babes ezta sustapenik agintzen.

Euskararen ofizialkidetasuna arautzen duen legea 18/1986 da, abenduaren 15eko Euskararen Foru Legea.

Lege horrek, euskararen ofizialkidetasun mugatua ezartzeaz gain, euskararen irakaskuntza eta euskararen agerpena komunikabideetan ere arautzen ditu.

Nafarroa hiru eremu administratibotan banatzen da:

a) Eremu euskalduna: (Nafarroako mendialdea)

Herriz herri zehazten da bosgarren artikuluan. Eremu honetan bizi diren herritarrak euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzendu daitezke botere publiko eta erakundeetara, edota garrantzi juridikoa duen edozer bi hizkuntzetako edozeinetan egin.

Bestalde, administrazioa behartuta dago behar duen guttia egiteko zerbitzu hori euskaraz nahiz gaztelaniaz eskaini ahal izateko.

Jakinarazpen eta egintza oro elebidun izan behar dira, betiere, interesdunek horiek hizkuntza bakarrean jasotzea aukeratzeko ez badute.

Hamalaugarren artikuluan euskararen erabilera Justizia Administrazioan arautzen du: “Herritar orok bere aukerako den edozein hizkuntza ofizialkide erabili dezake Justizi Administrazioarekiko harremanetan, indarrean dagoen legediaren arabera”. Legedi hori *Euskararen Foru Legea* da, eta beraz, euskaraz nahiz gaztelaniaz egin daiteke eremu euskaldunean Justizia Administrazioaren aurrean.

b) Eremu mistoa: (Nafarroa erdialdea)

Eremu hau ere herriz herri zehazturik dago bosgarren artikuluan. Legeak euskara mugatzeko etengabeko ahalegina egiten du eta, eginkizun horretan, legeak bere izaeraren aurka egitea ere lortu da. Izan ere, lehen aipatu bezala, euskara gizarte-erabileraren arabera arautzen da, ustez, eta eremu mistoan ez da honekin bat egiten. Euskaraz hitz egiten bada, eremu euskalduna izan beharko litzateke, eta hitz egiten ez bada, ez. Hizkuntza bat ezin da erdizka hitz egin, eta beraz, erdizka egindako araudi batek ez du zentzurik.

Azken finean, legeak euskarari jartzen dizkion mugen barruan beste muga bat besterik ez da.

Eremu honetan euskarak ez du ofizialtasunik, eremu ez-euskaldunean bezala.

Herritarrek euskaraz nahiz gaztelaniaz egin dezakete Nafarroako Administrazio Publikoaren aurrean, baina horretan bakarrik, hau da, Nafarroako Gobernuaren menpe dauden administrazio-organoetan soilik. Eta ez Estatuaren menpe daudenetan, esaterako Justizia Administrazioan.

c) Eremu ez-euskalduna: (Nafarroa hegoaldea)

Lehen aipatutako eremuetan ez dauden herriek osatzen dute. Eremu honetan euskara ez da ofiziala. Herritarrek Nafarroako Gobernuaren menpe dauden administrazio-organoetan euskaraz egin dezakete, baina guztia gaztelaniara itzultzea eskatu dezake Administrazioak.

Arautegi mugatzaile eta hertsatzaile honek argi uzten du Nafarroa Garaian, euskaldun bat non jaio, halako tratua jasotzen duela. Horrela, Nafarroa Garaiko mendialdean jaiotzen den pertsona batek eta Erriberan jaiotako beste batek ez dituzte hizkuntza-eskubideak berdin bermatuta. Izan ere, “eremu euskalduneko” nafarrak egoera kaskarrean baldin badaude, erdialdeko, eta zer esanik ez, hegoaldeko biztanleek are egoera tamalgarriagoa jasaten dute erakunde publikoetara euskaraz zuzentzeko garaian.

Bestalde, eskubide-urratze horren aitzakia ondorengoa da: “eremu ez-euskalduneko” euskaldun batek erabili nahi duen hizkuntzak ez du erabilpenik. Nahiko bitxia. Hori da euskarak Nafarroan duen sustapena.

Aipatzekoa da “eremu euskaldunean” dauden epaitegi guztiak bake-epaitegiak direla. Iruñeko eta Agoitzeko jurisdikzioetara biltzen dira herri horiek guztiak, eta beraz, eremu mistoan kokaturik dauden barrutietan.

Hori dela eta, betiko eztabaida izan da lege horrek arautzen duen euskararen erabilpena zein foru motatakoa den; ez baita berdina foru pertsonala izatea edota lurralde-forua.

Legeak ez du horren inguruko argibiderik ematen eremuak bereizteko garaian.

Foru pertsonala baldin bada, eremu euskaldunean bizi den herritar bat Iruñean edo Agoitzen dagoen bere jurisdikzioko epaitegira joaten denean, euskaraz egin ahal izango du, nahiz eta epaitegi horiek Estatuko Administrazioaren menpe egon.

Lurralde-forua baldin bada, aldiz, gaztelaniaz egin beharko du, eremu mistoan ezin baita euskaraz egin Estatuko Administrazioarekiko harremanetan, Justizia Administrazioan adibidez.

Nafarroako Foru Erkidegoko egungo Administrazioa bere ama hizkuntza zapaltzen duen administrazioa da. *Lingua navarrorum* ez da gaurko kontua, baina gaur egun erabat zapalduta dago.

2.4. Iparraldeko egoera

Labur esanda, Frantziako Konstituzioak, 2. artikuluan, elebakar hutsa soilik hartzen du aintzat, frantsesa alegia, eta ez dago besterik. Gainera, estatu frantsesak ez du Gutxiengo Hizkuntzen Europako Ituna sinatu. Horrenbestez, euskararen egoera Iparraldean oso larria da.

3. ESPAINIAKO ESTATUAREN HIZKUNTZ POLITIKA ETA EUSKARA

Estatu espainiarreko eleaniztasuna Espainiako Konstituzioan definituta dago, 3. artikuluan, eta Konstituzio Auzitegiak 1986ko ekainaren 26an emandako epaian (epai horren ondoren, geroko ebazpen guztiak, gaurkoak eta azkenekoak barnean hartuta, epai horren ildokoak izango dira). Lege eta jurisprudentzia nagusi horiek ezarritakoaren arabera, “gaztelania da Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala” (EKren 3. art.), eta –nire ustez– bakarra.

Lurraldez, beraz, ez dago Estatu espainiarrean inolako eleaniztasunik. Espainiako Estatua elebakarra da. Horregatik,

“Espainol guztiek jakin behar dute (gaztelaniaz) eta (gaztelania) erabiltzeko eskubidea dute” (EKren 3. art.). Hemendik aurrera esango dugun guztia hori baieztatzeko izango da.

Baina Espainiako Konstituzioaren 3.2 artikulua araberak, hizkuntza propioa duten autonomia-erkidegoetako mintzaerak ere ofizialak dira, eta euskaldunok euskara erabiltzeko eskubidea dugu, baina Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik. Eskubide hori lurraldeari lotuta egon arren, ez da lurraldetik eratortzen. Eskubide subjektiboa da, alderdien borondatean oinarritua; hau da, Espainiako legediak edo botere politikoak EAEn euskaraz hitz egingeko eskubidea edo gaitasuna ematen digu, lurralde baten barruan, baina lurraldetasunaren babesik gabe. Lurraldean hizkuntza bat baino ez dagoelako: gaztelania. Eta horrek ondorio latz baina argiak ditu:

- Euskararen erabilpena hitzarmen baten bidez gauzatu behar da,
- Euskarak ez du inolako eskubide objektiborik aurretiaz ezarrita.
- Lurraldeko erakunde eta agintariek eskubide hau babestu eta sustatu egin behar dute, baina gaztelaniaren erabilpena inola oztopatu gabe.

Egoera hori ez du aldatu EAEko Autonomia Estatutuaren abenduak 18ko 3/1979 Lege Organikoak, ez eta Euskararen Erabilpena Arauzkatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak ere, batez ere, azken Lege horri Konstituzio Auzitegiak 6.2 artikulua azkeneko esaldian eta 8.3 artikuluan egindako zuzenketak kontuan hartzen baditugu.

6.2. art.ak dio (edo zioen): “elkar hartzerik ez bada, espedienteak edo prozedura hasitakoak nahi dezan hizkuntza erabiliko da, bi aldetakoek argibideak bere aukerako hizkuntzan jasotzeko eskubidearen kaltetan gabe”.

Bigarren artikulua azken esaldi hau Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren kontraktat hartu zuen 1986ko ekainaren 26ko aipatu ebazpenean. Eta ebazpen hori oso argigarria da, funtsezkoa, gure lurraldean hizkuntz politika osoa ulertzeko. Ebazpen horrek oso argi uzten du zein den hizkuntza nagusia EAEn.

Zer gertatzen da edozein espediente edo prozeduratan hizkuntza biak agertzen badira, euskara eta erdara? Alderdiek, halako egoeretan, elkarrekin adostu beharko lukete (eskubide subjektiboen “hitzarmena”) zein hizkuntza erabili. Euskararen Erabilera Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.2 artikulua araberak, erakunde publikoek (epaitegiek) espediente edo prozedurari hasiera ematen zionak aukeratzen zuen hizkuntza erabili behar zuten. Beste era batera esanda, euskaldunok, euskara aukeratzen bagenuen erakunde edo auzitegiekin hitz egiterakoan, hizkuntza horretan egin ahal genuen prozedura guztia. Adostasunik lortzen ez bazen, euskarak gaztelaniak beste indar edo balio zuen. Baina aipatutako epaiak oreka hori zapuztu egiten du. Epai horrek, zuzenbideko 9. oinarrian, hori Konstituzioaren kontrakoa dela ebazten du. Ene ustez, hemen agertzen da argi eta garbi euskararen erabilpenaren menpekotasuna eta oinarri ustela.

Interesgarriak dira, gainera, Konstituzio Auzitegiak erabiltzen dituen argudioak. Alde batetik, bazirudien EAren Oinarrizko Legeak berdintasunaren printzipioa hausten zuela, eta, bestetik, Konstituzioaren 3. artikulua urratu. Berdintasunaren printzipioa aipatzeak harridura sortzen du, ez baitakigu zer nolako berdintasuna babesten den euskararen kontrako desoreka sakon baten barruan, eta zer esan nahi duen, azkenean, Espainiako Konstituzioaren 3.2 artikulua.

Botere Judizialaren Lege Organikoak 231. 1 eta 2 artikuluan dio:

1. Epailleek, magistratuek, fiskalek, idazkariak eta epaitegi-etako eta auzitegi-etako gainerako funtzionarioek gaztelania –Estatuko hizkuntza ofiziala– erabiliko dute jardun judizial guztietan.

2. Epailleek, magistratuek, fiskalek, idazkariak eta epaitegi-etako eta auzitegi-etako gainerako funtzionarioek autonomia-erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala ere erabili ahal izango dute, baldin eta alderdietako batek ere aurka egiten ez badu, hizkuntza hori ez dakiela alegatuz, modu horretan defentsa-gabezia sor dakiokenean.

Eta, antzekoa agertzen da Prozedura Zibilaren urtarrilaren 5eko 1/2000 Legearen 142. artikuluan.

Legeak eta Konstituzio Auzitegiaren ebazpen honek erakusten dute ondo euskara EAEn eskubide subjektiboa dela, eta gainera, murriztua eta babesik gabekoa. Gaztelania jakitera denok beharturik gaude, eta elkar-ulertzerik ez dagoenean, erabili behar den hizkuntza gaztelania da. Alderdi bietariko batek euskaraz ulertzen ez badu, orduan derrigorrez erabili behar da gaztelania.

Ez dago euskaraz egitea beharrezkoa den lurralderik. Euskarak bere lurraldea behar du, benetako berdintasuna edo parekotasuna lortu nahi badugu, juridikoa eta praktikoa. Hau da nazioarteko ereduak erakusten dutena.

Ene ustez, artikulua hauetan oinarritzen da euskararen...

- egoera diglosikoa
- baliogabeko eskubidea, eta
- gaztelania edo espainiar hizkuntzaren nagusitasun eta monopolioa...
- eta epaileen, magistratuen, fiskalen, idazkarien eta abarren ukiezintasuna.

Konstituzio Auzitegiaren (270/2006 KAE, 2006ko irailaren 13koa) azken ebazpenak horixe adierazten du: epaileen arazoak Estatuarenak dira, eta hor ez dago sartzetik, Estatuaren kontua eta eskumena baita.

Zoritzarrez, Gutxiengo Hizkuntzen Europako Itunaren 9. art.an ere gauza bera edo antzekoa dio:

“Jarraian zehazten diren neurriak hartzea bidezkoa egiteko beste erregio edo gutxiengoen hiztun kopurua duten zuzentza-agintaritzen barrutiei dagokienean, hizkuntza horietako bakoitzaren egoeraren arabera, eta lerroaldi honetan jasotzen diren aukerez baliatzeak epailaren ustez zuzentzaren administrazio onari oztoporik jartzen ez badio, kartagileek honako konpromisoak hartu dituzte.”

Orain, galdera hau egin dezakegu: nolako estatus juridikoa du benetan euskarak? Lurralde-eskubidea edo eskubide pertsonala da? Badirudi gure hizkuntzarekin ez dela ez bata ez bestea legeztatu (zaindu eta antolatu). Lurralde-eskubidea ez da, EAEko azpiegiturak ez baitaude gertu euskararen erabilera azkeneraino bermatzeko. Lurraldeak aukeratutako hizkuntza ofiziala lurraldeko administrazio osoan erabiltzeko modukoa izan beharko litzake. Eta hau ez da hemen gertatzen.

Geroxeago azpimarratuko dugun arren, gaurko egoeran justiziaren elebitasuna da irtenbide bakarra. Baina hori ez da lortuko EAEn euskara lurralde-eskubide osoa eta unibertsala bilakatzen ez den bitartean, gaztelaniaren pareko.

Hau dena honela izanik, beste hiru puntu aipatu behar orain arte esandakoa baieztatzeko.

4. EUSKARA JAKITEKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN IRIZPIDE DEMOLINGUISTIKOA

Dakigunez, Iparraldean biztanleen %25,7 dira elebidunak, lautik bat; EAEn %24,7, hemen ere lautik bat; eta Nafarroan, %9,4, hamarretik bat.

EAEn euskara hizkuntza ofiziala da (koofiziala). Eta hizkuntza bat ofiziala egiten da boteredunek eta agintari publikoek aintzat hartzen dutenean, gizartearen jokabideak alde batera utzita (KAren ebazpena, 1986ko ekainaren 26koa, 2. oin.).

Euskara EAEn ofiziala denez gero, Administrazio Publikoa, erdialdekoa eta bertokoa, gai izan behar da edozein une eta arlotan herritarra berak aukeratzen duen hizkuntzan kontuan hartzeko. Baina, aipatu dugunez, jokaera hau ez da aplikagarria aukeratzaileren aurrean euskaraz ez dakien beste norbait agertzen bada.

Euskaldunok eskubide osoa dugu, EAEko mugen barruan, euskara nonahi eta beti erabiltzeko. Eskubide subjektiboa izanik, norberarekin doa beti. Baina euskararen egoera soziolinguistikoa

oso makala denez, EAeko toki askotan ez da euskararik mintzatzen, eta praktikan ez da euskararen beharrik sentitzen, eta erabilera urri eta eskas horrek indar eta baliagarritasunik gabe uzten du eskubide hura, gutxienez praktikan.

Hori dela eta, euskal hiztunen kopuruak erabakitzen du euskara nola eta non erabili, hau da, kopuru horrek zehazten du eskubidearen mapa. Euskaldunik ez badago, inguru eta lurralde horretan ez da euskaraz hitz egiten, eta, beraz, ez da euskararen behar-irizana sumatzen. Eta hori da, zoritxarrez, legeak eta jurisprudentziak erabiltzen duten irizpidea, legeak ez baitio lurralderik ematen euskarari. Beraz, euskararen erabilera ez da beharrezkoa euskaraz hitz egiten ez den tokietan.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 530. artikuluan hurrengoia ezarri da: “Bereganatutako eskumenak dituen autonomia-erkidegoko berezko hizkuntzak izaera ofiziala duenean eta deialdiko lanpostua autonomia-erkidego horretarako denean, hizkuntza hori hitz egiten eta idazten jakitea merezimendutzat hartuko da. Zenbait lanpostutan, lanpostua lortzeko nahitaezko betekizun izan daiteke hizkuntza hori jakitea, bete beharreko eginkizunen izaera kontuan hartuta beharrezkoa denean eta lanpostuen zerrendetan hala ezartzen denean”.

5. MERITU EZ BAZTERTZAILEA ALA GAITASUNA?

Horrela dago legea, eta puntu batzuk azpimarratu behar dira, oso jakinak ditugunak. Legearen arabera, EAEn ari diren langileek (justizia arlokoak, epaileak barne):

a) Euskararen ahozko eta idatzizko ezagutza ez dute behar (“se valorará como mérito”).

b) Lanpostuetarako deialdietan, euskararen ezagutza meritutzat har daiteke, baina “meritu ez-baztertzailea” da, ez da “ad extra betebeharrak” euskaraz ez dakitenentzat.

c) Lanpostu batzuetarako ezagutza hori eskatzeko moduko betebeharra izan daiteke, baina bi baldintzarekin: betebeharraren

motak berak eskatzea ezagutza, eta eskatuta egotea lanposturako deian.

Baina ez da hemen dena amaitzen. Jurisprudentziak argi utzi duenez (otsailaren 28an, 46/1991 zk.ko EKE, 4. oin.), betebeharren eskagarritasuna egokitua eta araberakoa izan behar da, bestela euskararen erabilera diskriminatzailea eta legez kontrakoa bihur daitekeelako. Kurioso da irizpide hau, eta estrajuridikoa.

Hemen derrigorrez aipatu behar oraintsu atera den 2006ko irailaren 13ko KAren Ebazpena, 270/006 zk.koa. Ebazpen horrek ba-liogabetu egin ditu Eusko Jaurlaritzaren 117/2001 Dekretua, ekainaren 26koa, Justizia Administrazioako hizkuntza-normalizazioaren aldeko neurriena, 7.1 artikulua eta Hirugarren Xedapen Erantsia.

Bi arazo daude jokoan, beti bezala: batetik, eskumen-arazoa (noraino heltzen den Eusko Jaurlaritzaren eskumena euskararen erabilpena antolatzeko orduan), eta bestetik, euskararen hizkuntz eskakizuna epaitegietan.

Hori guztia kontuan hartuta, zer nolako eskubidea gelditzen zaio justiziarekin topo egiten duen euskaldunari, bere jatorrizko hizkuntza erabili nahi badu? Alde batetik, inork ez du bermatzen suertatuko zaizkigun justiziako laguntzaileak euskaraz jakingo duenik; bestetik, aurrean dugunak ez badu euskara ulertzen, gaztelania erabili beharko da. EAEn arituko diren epaileentzat, euskaraz jakitea zergatik ez da gaitasun-arazoa?

Euskal Herriko lurralde hauetan euskarak ez du inolako lurraldetasunik; euskaldunon eskubidea da, baina eskubide murriztua eta ia indarrik gabekoa. Epaiak dioenez, euskaraz jakitea meritutzat har daiteke, eta horren arabera, posible da EAEn ari diren epaileek euskararik ez jakitea eta euskara jakin barik hemen aritzea.

Orain arteko jurisprudentzia aztertuz, esan daiteke:

a) Euskara erabiltzeko eskubidea izan arren, erabilpen horrek bi baldintza ditu: auzi-jartzailearen erabakia izatea eta beste

alderdiari inolako defentsarik eza ez eragitea. Baldintza biek gauza bera dakarte: euskararen erabilpena erdaldunen esku uztea, edo euskaraz ez dakitenen menpe.

b) Euskaraz jakitea eskatu ahal zaie EAEn lan egiten dutenei, baina bakarrik lan publiko horretarako euskaraz jakitea derrigorrezkoa denean, eremu eta toki horretan euskaraz hitz egiten den heinean.

6. BEHARREZKO ETA LEGEZKO ELEBITASUNA

Hemendik ondorio argi bat atera behar da. Egungo egoera ikusita, indarrean dagoen legearen anbiguotasuna kontutan hartuta, eta euskararen ofizialtasunak ez duela askotarako balio, eta euskaraz jakitea norberaren borondatearen esku dagoela, arazo horien guztien irtenbidea egitezko elebitasuna da, bizitzako eremu eta une guztietan. Euskararen lurraldetasuna lortu behar dugu, gure eskubide subjektiboa sendotzeko.

Egia da Espainiako Konstituzioak behartu egiten gaituela gaztelaniaz jakitera, baina ez hitz egitera (nahiz eta eskubide hori izan). Hitz egiterakoan, bakoitzak aukeratu dezake nahi duen hizkuntza, Espainiako Konstituzioak eskubide hori babesten baitu. Baina aukera hori posible izateko, eleaniztasuna bideragarria izan behar da, bideragarria eta eraginkorra, bestela ez legoke hautatzerik. Elebitasunik gabe, ez dago EAEn eleaniztasunik, nahiz eta beste itxura bat eman. Are gehiago: justizia arloari dagokionez, elebitasunik gabe ez dira betetzen justiziaren eginbideek behar dituzten gutxieneoak.

Ondorio hori ez da gehiegikeria. Berehalakotasunaren printzipioa –eraikin judizialaren zutabea– ezin da bete epaileek euskaraz ez dakiten bitartean. Berdintasunaren printzipioa ere ez. Kontraesanezko epaiketetan, alde bietariko batek euskaraz ez dakienean, ezin da ahozkotasan bera ere bete. Autonomia-erkidagoetan bertako hizkuntzen erabilera azkeneraino bermatuta egon behar da. Eta hori ez da gertatzen.

7. ITZULTZAILEEN MUGAK EDO EZINTASUNAK

Ezintasuna gainditzeko eta irtenbide bat bideratzeko, orain arte bide bakarra erabili izan da: itzultzaileei beren laguntza eta trebetasuna eskatzea ekintza judizialeterako. Baina:

“Epaiketa bat, muinean, eztabaida dialektiko bat da. Hizkuntza oinarri eta komunikabide, epaile batek, alde bateko eta besteko argudioak jorratu, frogak gauzatu, eta, besteak beste, lekukoak entzun eta, horiek guztiak jaso eta ulertutakoan, erabaki bat hartu behar du.

Itzulpen sistemak bitartekari bat ezartzen du bi bidezko komunikazio beharrezko horretan, mezuak ulertu, laburtu, filtratu, interpretatu eta transmititu beharrean aurkitzen da bitartekari hori, asko eta askotan mezuaren zentzua itxuraldatuz eta, aldi oro, benetako komunikazioa eta ezinbesteko hurrentasun printzipioa oztopatuz. Eta epaitegi batean egunero eztabaidatzen diren interes eta ondorioak ez dira nolanhikoak.” (Gara, 2006ko azaroaren 13an, argitaratua).

Eta horrek nahitazeko ondorio bat dakar: epaiketa batean parte hartzen duten eragileek eta, horien gaineratik, epaileek, euskara ondo ezagutu behar dute.

Itzultzaileen bitartekaritzak ez du ezer konpontzen, bestelako itxura eman arren. Ahozko jardunetan itzultzailearen parte-hartzeak jarduera judizialaren oinarritzko printzipioak zapuzten ditu, bat-batekotasuna, ahozkotasuna, hurbiltasuna; eta, gogoan izan dezagun, oinarritzko printzipio horiek hiritarron garantia bezala ulertu behar ditugu. Itzultzailea astungarri bihurtzen da, izan ere abokatu, bezero eta lekuko euskaldunek aldika geldiuneak edo etenak egin behar dituzte, beren argudioek indarra eta hein handi batean esangura ere galtzen dituztelarik, aurretik esandakoaren itzulpenaren gainean egon behar delako, itzultzailearen esanak gainbegiraturaz.

Legearen zorabioa azpimarragarria da. Prozedura Zibilaren Legearen 143. artikuluan ezarri da itzultzailea beharrezkoa dela,

gaztelaniaz edo autonomia- erkidegoko hizkuntza ez dakien norbaiti galdetu behar zaionean edo honek adierazpenen bat eman behar duenean. Hau da, itzultzailea, legearen arabera, ez dago ikusita epaileentzat edo fiskalenzat, gaztelania edo autonomia-erkidegoko hizkuntza ezagutzen ez dutenentzat baizik. Itzultzaileak behar dira prozeduran parte hartzen dutenen lekuko, aditu eta herritarrentzat, baina ez epaimahaiarentzat ez eta idazkari edo fiskalenzat ere. Izan ere, horrela izan behar da: nola da posible Euskal Herrian epaimahaiak eta epaileek ez ezagutzea epaituko duten herritarren hizkuntza? Nola da posible epaile erdaldun bat herri honen epailea izatea? Zer esango genuke EAEko epaile guztiek frantsesak balira eta gaztelaniaz jakingo ez balute?

Normala denez, legeak ez du inolako eragozpenik jartzen idazki eta beste ekintza guztiekin: baliagarri dira osorik, itzulpenik gabe, Prozedura Zibilaren 142.4 artikulua esanetan. Hau normala da.

Itzultzaileen erabilerak adierazten du beste ezerk baino hobeto EAEn euskararekin gertatzen den absurdu juridikoa.

8. EGUNERO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN GERTATZEN DIREN IRREGULARTASUNAK ETA HORIEN ONDORIOAK

- a) Itzulpen zerbitzua sistematikoki aplikatzen da.
- b) Oso idazkari eta epaile/magistratu gutxi dira gai gaur egun euskaraz aritzeko
- c) Idazki eta dokumentu guztiak itzuli egin behar direnez, beti ematen dira atzerapenak, normalean hilabeteetakoak.
- d) Euskara erabili behar delako, jardun judizialen etenak eta geroratzak askotan ematen dira.
- e) Alderdiek, lekukoek eta adituek egiten dituzten ahozko adierazpenek askotan bat-bateko etenak jasan behar dituzte itzuli ahal izateko.
- f) Abokatuen ahozko alegazioek eta ahozko txostenek,

euskaraz eginez gero, arazo asko ematen dute, gaztelania erabiliz ematen ez direnak:

- eten bortxatuak –abokatua ez baita bere diskurtsoaren jabe izango (azalpen moduak, enfasiak, tonuak, azpimarratzeak, eten kontrolatuak, adierazpen zehatz batzuk)–,

- batzuetan esangura handiko adierazpen juridikoak ez dira itzultzen edo modu txarrean egiten dira, besteak beste.

- kontuan izanda bat-batekotasuna, ahozketasuna eta hurbiltasuna epaiketen printzipio juridiko oso funtsezkoak direla, horrek guztiak defentsa-eskubidea murrizten du, euskara ezagutzen ez duen epaileak ez baititu ulertuko abokatuak esandako zati batzuk (ondo itzulita ez daudenak), eta nahiz eta itzulpena ezin hobea izan, beti ailegatuko zaiolako modu distortsionatu eta zeharkakoan.

g) Aurreko puntuetan adierazitakoek zera suposatzen dute:

- euskara erabiltzeak diskriminazioa, tratu umiliagarri eta iraingarria suposatzen du, eta

- duintasunaren (euskal duintasun pertsonala eta/edo profesionala) kontrako eraso, tentsio jasanezina, besteak beste;

- horren ondorioz, abokatu batzuek zigor ekonomikoak jaso dituzte, epaiketa-aretoa uzteagatik.

9. ADITUEN TXOSTENA

1992ko azaroaren 15ean Espainiak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna sinatu eta berretsi zuen. Itun horren indarrez, badago halako kontrol mekanismo bat, Adituen Batzorde batek osatzen duena. Batzorde horren zeregina da, puntu guztietatik aztertu eta gero, gutxiengo hizkuntzen benetako egoera aztertzea, horren berri parte-hartzaile diren estatuen ministroei luzatzea, eta egoeraren balorazio bat egitea, eta hala denean, aholku batzuk ematea. Hala zioen Adituen Txostenak 2005ean:

“El Comité de Expertos alienta a las autoridades españolas a:

- modificar el marco jurídico para que quede claro que las autoridades judiciales penales, civiles y administrativas del País Vasco llevarán a cabo los procedimientos en vascuence, a petición de una Parte;

- garantizar formalmente al acusado el derecho a emplear el vascuence aun cuando domine el castellano;
- tomar las medidas necesarias para asegurar, cuando proceda, que se informa específicamente a las Partes en un procedimiento sobre la obligación de las autoridades judiciales del País Vasco de llevar a cabo los procedimientos en el País Vasco si una de las Partes así lo solicita, de conformidad con los compromisos contraídos por España en virtud de los párs. 1.a.i, 1.b.i y 1.c.i de la Carta;
- tomar las medidas necesarias para incrementar el porcentaje del personal de la Administración de Justicia en el País Vasco, a todos los niveles y, en particular, entre los jueces y fiscales, que puede emplear el vascuence como lengua de trabajo en los tribunales, y
- establecer programas de formación adecuados orientados al personal de la Administración de Justicia del País Vasco y a los abogados.”

Eta Adituen Txosten horretan oinarrituz, Europar Batasuneko Ministroen Batzordeak, 2005eko irailaren 21ean, gomendio batzuk eman zituen, aipatutako Ituna betearazteko asmoz. Ministroen Batzordeak Espainiako agintariei gomendatzen die Aditu Batzordearen ohar guztiak kontuan har ditzala eta, batez ere, Ituneko 9. artikuluan –Justiziar buruzko artikuluan, hain zuzen– jasotako konpromisoen aplikazioa bermatzeko behar diren neurri juridiko eta praktikoak har ditzala; hurrengoa esan zuen, hitzez hitz:

“Recomienda que las autoridades españolas tomen en consideración todas las observaciones del Comité de Expertos y que, ante todo:

1. tomen las medidas jurídicas y prácticas necesarias para asegurar la aplicación de los compromisos contenidos en el artículo 9 de la Carta, asegurando en particular que un porcentaje adecuado del personal que trabaja en este ámbito en las Comunidades Autónomas a las que afecta la aplicación del artículo 9 de la Carta tenga un conocimiento práctico de las lenguas pertinentes”.

10. DEKALOGOA

Ondorio modura, oinarrizko hamar ideia ezarriko nituzke gaiaren inguruan:

1. Administrazio Publikoaren aurrean posible da, legearen arabera, prozedura osoa euskaraz eramatea, hala nahi izanez gero. Gauza bera gertatzen da Justizia Administrazioarekin. Hemen euskararen erabilpenak ez du inolako oztoporik aurkitu behar, ez ahoz ez eta idatzietan.

2. Legearen arabera, ordea, euskaldunok ez daukagu gaur berमतuta epaitegietan prozedura bat euskaraz eramatea, hasieratik amaiera arte, alderdiren batek euskaraz ez badaki. Epaileen aginduetara gaude.

3. Legearen arabera, euskaldunok ez dugu inolako itzultzaierik behar epaitegietan, ez gaztelaniaz ezta euskaraz ere, gu elebidunak garelako.

4. Itzultzaileak euskaraz ez dakiten epaitu, lekuko, aditu eta herritarrek behar dituzte. Legeak, berriz, ez du ikusten “per se” epaileen, idazkarien, eta fiskalen euskararen ezjakintasunaren aurrean itzultzaileak erabiltzea.

5. Itzulpen lanek ez diete inolako oztopo edo gatazkarik sortu behar euskaldunei. Ez dago inolako legerik euskaraz etenka hitz egitea agintzen duenik.

6. Euskaraz esandakoak edo euskaraz aurkeztutako dokumentuak euskaraz hartu eta gorde behar dira. Erdarara itzultitakoa ez da zertan sinatu edo balioztatu behar.

7. Ahozko epaiketarako Euskal Herriko Justizia elebiduna izan behar da derrigorrez, KE eta EHko Estatutua bete gura badugu eta epaiketa zuzen edo jator bat bideratu. Euskaraz jakitea ez da meritu arazoa, gaitasuna baino.

8. Idatzizko Epaketetan ez da inolako oztoporik egon behar izapide guztiak euskaraz egiteko, euskaraz ez dakitenei behar diren neurri guztiak eskainiz (itzultzaileen zerbitzuak).

9. Igaro den denbora luzea kontutan hartuz, ordua da euskal epai-zirkuitoak antolatzeke, hau da, euskara hutsean egin daitezkeen epaiketarako baliabideak jartzeko.

10. Gaur EAEn hizkuntza eskubideak ez daude nahiko babestuta, esparru juridikoa aldatzen ez den bitartean, lurraldetasunari edo eskubide subjektiboari bere osotasuna ematen ez zaion bitartean.

Kepa Sanpedro

**ONOMASIOLOGIA ETA
TERMINOLOGIA:
www.iev.deusto.es BIBLIOTEKA
JURIDIKO ELEBIDUNAREN
HUSTUKETARAKO IRIZPIDEAK**

1. SARRERA: ZUZENBIDEA, TESTUA ETA ESPEZIALITATEKO HIZKERAK

Aspaldikoa da gure artean euskarak duen garatze-bidea, euskararen presentzia hainbat alorretan finkatzeko eta sendotzeko, besteak beste, zuzenbide-kontuetan. Urteak joan dira eta euskarazko testugintzak aurreratze-lana egin du, egile eta eragile askoren eskuz. Administrazio publikoak, unibertsitateak, lanbide-elkargoak, hizkuntzaren industriak... guztiak dira egun, inoiz ez bezalaxe, euskarazko bidegintza berriaren lekuko eta sustatzaile.

Horretan ere, zer esanik ez, euskarazko testu-masa areagotu egin da, eta, ondorenez, huts-hutsetik abiatzea baino, lehendik dagoen oinarri batetik norabidetu dira ahaleginak. Hartara, euskara juridikoaren ikuspegia aldatzen doa ezari-ezarian, eta gero eta nabariagoak dira zuzenbideko testu nagusien euskaratze-bideak.

Ezagunak dira, hala ere, zuzenbidearen hizkera horretan egon daitezkeen lau azpialorren nondik norakoak, besteak beste, lege-hizkera, epaileen hizkera, administrazioaren hizkera eta doktrina juridikoaren hizkera.

Bi hitzetan esateko, begien bistakoa da, gaur egun, euskara ari dela biltzen bere baitara espezializazio-hizkerak, horrek berez dakarren giro berriarekin.

Lege-hizkera da, oraingo honetan, aztergaia. Lege-hizkera bere horretan hartua eta aztertua, hots, hizkuntzaren barneko hizkera bereizi gisa, ezaugarri berezko eta jatorrizkoekin:

If we examine legal language as a whole, common and singular linguistic features can be identified across different legal languages. They are manifested with respect to lexicon, syntax, pragmatics and style. (CAO, 2007: 20)

Esan gabe doa, bide beretik, egun euskararen bidez ondutako lege-hizkera itzulpenaren fruitua dela, bere on-gaitz guztiekin. Halaxe hartzen da hemen ere:

For our purpose, if we follow the general, literary and specialist classification of translation, legal translation falls under the specialist category, or technical translation. It is a type of the translational activity involving special language use, that is, language for special purpose (LSP) in the content of law, or language for legal purpose(LLP). Legal translation has the characteristics of technical translation and also shares some of the features of general translation (CAO. 2007: 8)

Euskararena, bestalde, landu egin da azken hamabost urteetan Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Euskara Juridikoaren Mintegian, eta, horrekin batera ere, Euskal Gaien Institutuan. Emaitzak, batez beste, berrogeita bi lege-testuetan islatu dira, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuaren web-orrian (www.iev.deusto.es) luze-zabal jasota daudenak. Corpus horren zati baten ustiaketa oinarri hartu (ikus 4. puntua), eta, metodologia jakin batez, lege-testu multzo horretan ageriko diren hitz tekniko-juridikoen hamar adibidetan sistematizatu dira, betiere, gaztelania-euskara gurutzatze juridikoan dabilen jurista zein itzultzaileari lagundu nahian. Orobat, erabileraren hiztegi juridiko eta elebidun baterako hastapenak sumatzen dira testuetan, bihar-etzi halakoak nola eta zertarako osa daitezkeen azalduz.

2. HITZAK HITZ: ZUZENBIDETIK LINGUISTIKARA

Egile askoren ustez, ezaugarri jakinekoak dira hizkera juridikoaren hitz teknikoak, hizkera arruntetik harago baitoaz, hiz-

kera arruntean duten itxura bera gorde arren. Horren aldamenean, badira hitz juridiko berezi-bereziak, esanahi osoak modu juridikoan hartzen dituztenak.

Horri gehitu behar zaizkio, euskararen kasuan, osterantzeko kasuak, hitz eta esamolde horiek euren esanahia aurkitzen baitute sistema juridiko zehatz baten barruan eta hizkuntza baten barruan. Sistema juridiko hori Espainiakoa da, eta hizkuntza gaztelania. Hortaz, sistema juridikoa bera euskaraz emateak baldintza batzuk bete behar ditu: a) gaztelania da hizkuntza-oinarria; b) eta itzulpena, tresna eta lanabesa.

Dena dela, nabarmena da bi baldintza horiek zedarriztatzen dituztela ahalegin erkideak, hizkuntza eta zuzenbidea uztartzen, eta hizkuntzalariei eta legelariak ekinak biltzen dituztenak. Agerikoak dira, historian zehar, zuzenbidearen eta linguistikaren arteko harremanak. Zuzenbidea, alde askotatik begiratuta ere, testua da; hitzetan eta esanetan mamitzen da; eta, bere erakustaldietan, hizkera du ezin utzizko erreminta.

Zuzenbidearen eta linguistikaren arteko paralelotasuna honetara azpimarratzen du Gregorio Robles Morchón irakasleak:

En un trabajo reciente he hecho referencia precisamente a uno de esos paralelismos: el existente entre tres conceptos pertenecientes a la lingüística y otros tres propios del mundo del derecho. Los conceptos pertenecientes a la lingüística son: lenguaje, lengua y acto de habla, que corresponden respectivamente a: derecho, ordenamiento jurídico y decisión jurídica. Para nuestro propósito actual vienen a cuento tan sólo los dos primeros de cada grupo: lenguaje y lengua, por una parte, y derecho y ordenamiento jurídico, por otra (ROBLES, 2007: 35).

El mundo jurídico se parece más al mundo del lenguaje que al de la física, la química o la geometría. En efecto, lo singular en el derecho, al igual que en el lenguaje, adquiere una dimensión relevante que no posee en las ciencias naturales. Una lengua, como el español o el chino, conforma una singularidad cultural, un fenómeno lingüístico peculiar, que ha de ser investigado en sí mismo (ROBLES, 2007: 202).

Era berean, bateratsu ibiltze horretan indartzen da bien arteko lotura, autore berberaren aburuz:

Pues bien, al igual que llamamos Lengua al estudio de una lengua, la autodenominada Ciencia Jurídica en su sentido más estricto, equivalente a Dogmática jurídica, es la investigación de un ordenamiento jurídico determinado. Y el equivalente a la Lingüística, la ciencia que investiga la estructura profunda del lenguaje y, por tanto, de las lenguas, es la Teoría del derecho, cuyo objeto, a diferencia de la dogmática, no es un ordenamiento jurídico concreto, sino el derecho, esto es, todos los ordenamientos jurídicos en general, y ninguno en particular; dicho de otra forma, el derecho posible. De similar manera a como procede la Lingüística, la cual en sus investigaciones toma el material lingüístico existente en la realidad, así procede la Teoría del derecho (ROBLES, 2007: 204).

Aurrekoaren ondorioz, hizkera juridikoa eta antolamendu juridikoak desberdinak dira beraien artean, kasuan kasuko antolamendu juridiko bakoitzak bere hizkera juridiko propioa duelako, batez ere, XIX. mendean eratu ziren estatuetan:

Las diferencias semánticas esconden, en efecto, diferencias institucionales y de concepción general del derecho. Lo cual se manifiesta en el lenguaje jurídico, bien porque en unos ordenamientos se emplean palabras y conceptos jurídicos desconocidos en otros ordenamientos, bien porque las mismas palabras no designan exactamente el mismo campo semántico. Entre los ordenamientos jurídicos no existe sólo una diferencia de lengua, sino también una diferencia de instituciones, así como de los significados de vocablos idénticos o similares, lo que implica una diferenciación conceptual más o menos pronunciada. Dicho en breves palabras: cada ordenamiento jurídico se expresa en su lengua y maneja sus propios conceptos (ROBLES, 2007: 227-228).

Azkenean ere, paralelotasun hori zuzenbidearen teoria komunikatibo baten ikuspegira lerratzen da, eta bere baitan hezur-mamitzen. Izatez, testuak betetzen dituen funtzio nagusiak, nonahi dira ageriko zuzenbidean, eguneroko praktikan zein gogoetan:

Si partimos de la idea, como efectivamente hace la Teoría comunicacional del derecho, de que éste es efectivamente texto, habrá que convenir que, como sucede en la lingüística general, es posible hacer tres tipos de análisis básicos: el pragmático, el semántico y el sintáctico.

La pragmática tiene por objeto la investigación de la relación existente entre el hablante y su situación y lo hablado, entre el acto de habla y el contenido

proposicional de lo expresado. La semántica investiga los significados de las frases proferidas, así como el sentido del conjunto de las mismas en el supuesto de que tengan relación unas con otras. La semántica presupone la pragmática, pues difícilmente se puede averiguar el sentido de una expresión descuidando el aspecto situacional del hablante y la fuerza ilocucionaria de sus actos de habla. Por último, la sintaxis se centra en la indagación de las estructuras y conceptos formales implícitos en el texto de referencia.

Pues bien, estos tres planos, clásicos en la lingüística, corresponden a los tres niveles en que se divide la Teoría comunicacional del derecho: al plano de la pragmática le corresponde la teoría de las decisiones jurídicas; al de la semántica, el de la teoría de la dogmática y de las instituciones jurídicas; y al de la sintaxis, el de la teoría formal del derecho (ROBLES, 2007: 51).

Bide beretik, komeni da lan honetan bereiztea zuzenbidearen teoria orokorra eta dogmatika juridikoa, antolamendu bakar batean mamitzen dena. Hitzak argigarri dira:

Si volvemos a nuestra comparación lingüística, tenemos que la equivalente a la Teoría del derecho, que es la lingüística, se ocupa del lenguaje, independientemente de las lenguas concretas pero teniéndolas en cuenta, mientras que el estudio particularizado de una lengua supone adoptar las perspectiva de ésta, esto es, su gramática, su fonética, su vocabulario, etc. Algo parecido sucede con las disciplinas jurídicas o, para ser más concretos, con la Teoría del derecho en relación con la dogmática jurídica (ROBLES, 2007: 195).

Horrexegatik, www.iev.deusto.es corpusean Espainiako antolamendu juridikoa da abiapuntua, hain zuzen ere, antolamendu juridiko horren azpiegituran diren lege-testuak, eta, berebat, antolamendu juridiko hori aztertzen duen dogmatika juridikoa, horrek ahalbidetzen baitu, besteak beste, dogmatika juridikoaren eta doktrina-kategorien bidez, lege-testu horiek barneratzen dituzten edukien antolakuntza sistematikoa. Hainbatez, antolamendu juridikoa eta dogmatika juridikoa loturik daude, eta bi-biok darabilten hiztegia zehazteko prozesuan bitzuek aintzat hartu behar dira, nola hitzen atontzeko eta hitzen hiztegi horren makroegitura zehazteko, hala gaztelaniatik euskararako bidegintza moldatzeko. Horrek guztiorrek baldintzatzen ditu, sakonean baldintzatu ere, euskaraz eskaini ahal diren irtenbide lexikografikoak eta lexikologikoak.

Hasteko, dogmatika juridiko horren barruan kokatuta, ukazina da azterketa hori loturik egongo dela sistema juridiko zehatz bati, hain justu ere, euskaratu dugun lege-testuen corpus mugatuari:

Todo nos lleva a la conclusión de que la dogmática no es una ciencia libre, sino vinculada a una materia normativo-institucional-decisional determinada y, por ello, también a los puntos de vista que esa materia textual (ordenamiento) presupone. La dogmática no es libre, sino que está vinculada a la autoridad que emite las decisiones en el ordenamiento al que sirve; autoridad que, como sabemos, es plural ya que se extiende desde el poder constituyente hasta las que emiten las resoluciones judiciales y administrativas. Por el contrario, la Teoría del derecho es libre, no está vinculada a autoridad normativa-institucional alguna (ROBLES, 2007: 196).

Hasian hasi, corpus horren barruan dogmatika juridiko espainolak hitz juridikoak nola zedarriztatzen dituen jakitea ezinbestekoa da oraingo honetan. Hiztegia da gure helbururik behinena, hiztegi horretan hizkuntza eta antolamendu juridikoa elkarrekin gurutzatu eta bilbatzen baitira, gerokoan, zalantzarik gabe, antolamendu juridikoaren euskaratze bideak ekar ditzakeela horrek.

3. HITZ ETA HIZTEGI JURIDIKOAK ZEHAZTEKO IRIZPI-DEAK: ONOMASIOLOGIA ETA TERMINOLOGIA

Lege-corpus horren ikerketan, behar-beharrezkoa da, lehen esan bezalaxe, hitzen zertzeladak finkatzea, batez ere, euren semantika juridikoaren ikuspegitik.

Lehen so batean, onartu beharra dago Maria do Carmo Henriquez irakasleak ondu duen hitz-multzo edo familiaren irizpideak erabat onargarri izan dakiokela azterketari, argigarri delakoan. Hauxe da, haren esanetan, hitz juridikoen multzo edo familiaren gunea, Espainiako Akademiaren hiztegian horren agerraldiak azaltzen dituela:

En el presente estudio vamos a atenernos, sin embargo, para elaborar las “familias de palabras” o “series léxicas” del DACL y del DRAE01 a los siguientes principios:

(a) *Por familia de palabras entendemos un conjunto de unidades que tienen una “raíz común” o una “base común. Es normal, además, que, para una misma base nos encontremos con la alternancia “forma culta” / “forma popular”, ya que tales serie heterogéneas son las predominantes en las lenguas románicas (cf. En portugués alienado/alheado, artículo/artigo, auditor/ouvidor, filial/filho, periculosidade/perigosidade, y en español inalienable/enajenabla, legal/ley, litis/lid, probar/prueba).*

(b) *Como nos restringimos, en principio, a una perspectiva sincrónica, y tomando en consideración la definición del DRAE01, seleccionamos el conjunto de formas derivadas de una misma base que tiene, en las correspondientes acepciones de ambos Diccionarios, una clara relación semántica. En todo caso, asumimos que algunas subseries léxicas proceden directamente del latín, pero son reanlizables en sincronía como integrantes de una familia de voces relacionadas semánticamente.*

(c) *Como nos limitamos al vocabulario jurídico extraemos aquellos lemas que en las acepciones incluidas en los correspondientes artículos contienen estas marcas técnicas Dir./Jur. y Der., pero tendemos a no extraer lemas que no ofrecen relación especial con el tecnolecto jurídico” (HENRÍQUEZ, 2002: 45-46).*

Bada, hala ere, aurreko kontzeptu horri zer gehitu eta areagotu. Izan ere, gure iritziz, hitz juridikoak multzokatzeak harako ñabardura behar du, dogmatika juridikoak eskaintzen duen antolakuntzaren arabera egin beharrekoa. Besteak beste, hitz juridiko bakoitzari bere karga juridikoa erantsi. Horretara ere, bi ikuskera dira elkarren osagarriak: lehen-lehena juridikoa; bigarrena, aldiz, linguistikoa. Horrenbestez, *hitz juridikoen multzoa edo familia adierazmoldea bere osotasunean ikus daiteke, hitz horiek antolamendu juridikoaren barruan nola jokatzan duten egoki zertzeko.*

Argi dago, guretzat behinik behin, hitz juridikoek multzoa edo familia osatzen dutela, sustrai edo oinarri linguistiko erkidea izan ez arren, dogmatika juridikoaren arabera zuzenbide-kategoria berberaren barruan sar badaitezke, euren esanahi juridikoak, euren semantika juridikoak, horixe erakartzen duelako.

Adibiderik esanguratsuena gerta daiteke, Espainiako zuzenbide zibilaren barruan, kontratuen eragingabetasunari buruzko teoria. Jakina da eta doktrina juridikoak hala finkatua, Savigny legelari germaniar argituaren sistematikan badela betebeharrak eta kontratuei

buruzko arlo berezia. Kontratuaren teoria orokorrean, era berean, bada mailakatze bat, goitik behera doana, eta erabateko eragingabetasunetik iraingitze soilera iristen dena. Taxonomia elebidunera ekarrita, honetara izango litzateke kontua (OSSORIO MORALES, 1956: 290-298).

Ineficacia	Kategoria orokorra, kontratuak bere ondorioak sortzen ez dituenean.	Eragingabetasuna
Nulidad	Kontratua egin da legearen debekua urratuz.	Deuseztasuna
Anulabilidad	Kontratuak balio osoa izateko elementuak ditu, baina akatsen batek horren eragingabetasuna ekar dezake, alderdi batek hala eskatuta.	Deuseztagarritasuna
Rescisión	Kontratua eragingabea da, alderdi bakoitzarentzat sortzen duen kaltea dela eta.	Hutsaltzea/hutsalketa
Resolución	Kontratua eragingabe gertatu da, alderdiek, hori egiteko orduan, jarri duten baldintza bete ez delako.	Suntsiaraztea/suntsiarazpena
Revocación	Kontratuaren eragingabetasuna gertatu da, alderdi batek hala egitea bere borondatepean jarri duelako.	Ezeztatzea/ezeztapena
Caducidad	Denboraren poderioz, kontratuak eragina galtzea.	Iraungitzea

Izatez, honelako hiztegiak antolakuntza berezia behar du. Are zehatzago, horrek hiztegi onomasiologikoa behar du, hau da, kontzeptu juridikoen multzoaren araberkoa, eta, osagarri moduan, sailkapen alfabetiko soil.

La ordenación onomasiológica, como ya hemos expuesto, parte de los significados, los cuales se pueden clasificar, a su vez, según diferentes métodos. Es un error creer que la ordenación onomasiológica equivale, forzosamente, a una clasificación no alfabética. La idea fundamental de la agrupación onomasiológica es la de tener en cuenta las asociaciones que existen entre contenidos, tanto desde el punto de vista de la lengua como desde el de las cosas. Estas asociaciones se pueden tener en cuenta de distintas maneras; pero los sistemas de ordenación así creados nunca tendrán el mismo rigor que el del alfabeto. Por esto, es conveniente poner, al fin de los diccionarios onomasiológicos (generalmente no alfabéticos) un índice alfabético de todas las voces registradas (HAENSCH, 1982: 165-166).

Hiztegi onomasiologikoaren barruan, aldaera diastratiko baten aurrean gaudela ezin alboan utzi, hizkera juridikoa baita aztergai, eta horrek eramaten du puntua beste nonbaitera, alegia, terminologia sailera. Nolanahi ere, oraingo honetan, zeregina ez da horrenbeste izango horretan aritzea, ezpada euskarazko lexikografia juridikoari buruzko ohar eta irizpide batzuk ematea, eta, lehen esan bezalaxe, gaztelania-euskara hiztegi juridiko baten peskizan ibiltzea.

Horiek horrela, gorago jarritako aurre-baldintzak honetara osa daitezke, gaztelania-euskara hiztegirako abiapuntuan garelara:

a) Hiztegiak elebiduna izan behar du, antolamendu juridiko bakarra bi hizkuntzetan adierazten duena.

b) Hiztegiaren bi hizkuntzak oso urruti daude, egituraz nahiz osaeraz.

c) Hiztegiaren bi hizkuntzak loturik daude gizarte-harreman batzuen bidez: bata, gaztelania, gizartearen maila jasoan, hots, lege-mundu sortzailean dabilela; besteak, hau da, euskarak, zuzenbide eta administrazioan tradizioz ez duela eta itzulpena dela bere itsumutil nagusia, Hego Euskal Herriko autonomien egitura juridiko eta administratiboa euskaratzeko tenorean.

d) Hiztegiaren bi hizkuntzetan lotu behar dira kontzeptu eta nozio berdinak, elkarrekikotasunaren ikuspegitik. Lexikoaren baliokidetasuna da jokoan, horixe baita berme bakarra hiztegiaren erabilgarritasunerako. Egia esan, ez da hori izango gure helmugarik irtenena, beste baterako esperantzan uzten baita.

e) Hiztegiaren barrutik, itzulpena da helburu, betiere itzultzaileari antolamendu juridikoaren esanahia euskaraz egoki emateko, ia-ia salbuespenik gabe, prozesua norabide bakarrekoa baita:

Jatorrizko hizkuntza (gaztelania) → xede-hizkuntza (euskara)

Horrexegatik, honelako hiztegia elebiduna da, eta elkarrekikotasuna du, hizkuntzen egitura desberdinek baldintzatzen

baitute, antolamendu juridikoaren kalterako, hizkuntza batetik bestera gehiagorik gabe bihurtzea (CAMPOS, 2005 eta THIRY, 2005).

Bada, hala ere, alderatu beharreko azkeneko puntua, gaztelania eta euskara egoera desberdinetan baitaude hizkera juridikoaren ikusmiratik, historiaz, erabileraz nahiz estatusaz.

Lehendaurrez, nagusi dira gaztelaniak ondu dituen hizkera juridikoa eta sistema juridikoa, horietan ere estekatzen baitira, tradizioaren poderioz, erabilera markatu batzuk, arras bereziak. Horien erakusle, esaterako, hitz hauek, gaztelaniaren eta ingelesaren arteko erkaketa egin, eta lexiko eremuak eta hitz multzoak aurrean dituela, zuzenbidea itzultzeko prozesuan:

En segundo lugar, hemos observado la necesidad de ser capaces de relacionar términos dentro de un mismo campo de estudio. Destacan aquellos casos de términos cuyo contenido constituye por sí mismo una dificultad, ya que su definición o explicación supone la traducción de términos también de carácter marcadamente cultural. Por ejemplo, explicar el concepto caveat supone enfrentarse a términos como “Principal Registry” o “Grant of Probate”, que deben analizarse individualmente para poder entenderlos. Por lo tanto, es necesario que los traductores sean capaces de relacionar entre términos de la propia lengua origen, con el fin de determinar de forma específica el contenido expresado y facilitar la búsqueda de un equivalente en español.

En tercer lugar, hemos comprobado que realmente existe una asimetría entre el sistema jurídico inglés y el español que se manifiesta en forma de vacíos conceptuales. Hay casos en que el concepto expresado en inglés no existe en español y viceversa, generando así problemas de traducción. Estos casos que llamamos de “asimetría cultural” abarcan términos relacionados con instituciones, documentos, personas que intervienen, procedimientos, etc. que no tienen ni siquiera un equivalente funcional en español, por lo que representan el grado de mayor dificultad en lo que a términos marcados culturalmente se refiere (MARTÍNEZ MOTOS, R., 2006: 229-230).

Gaztelaniaren barruan ere, askoren aburuz, kontuak ez dira mugagabeak, mugatuak eta zedarrizatuak baino. Kode Zibilaren

araubidean, adibidez, harreman juridikoen egileen izendazioak osatzerakoan, gaztelaniaren baliabide linguistiko beregainak erabiltzen dira:

... concluyendo, eso sí, con algunas reflexiones a partir de lo que hemos encontrado a lo largo de nuestro estudio:

a) Parece que los sujetos de los negocios jurídicos del C.c. se agrupan en torno a ciertos esqueñas opositivos, que, pueden reducirse, grosso modo, a la oposición “parte fuerte” / “parte débil” del negocio, pero que, en cada caso, ha de matizarse.

b) Así, por ejemplo, el grupo opositivo con mayor rendimiento funcional es el constituido por el sufijo -nte, como parte activa, y el sufijo -ario, como parte recipendaria, tal como se observa en donante/donatario, cedente/cesionario, mutuante/mutuario, comodante/comodatario, depositante/depositario, mandante/mandatario, concedente/concesionario;

c) El segundo grupo en rendimiento opone las construcciones con -nte, en la parte activa, a las construcciones con participio de pasado, en la parte pasiva, como vemos en hipotecante/hipotecado, representante/representado, adoptante/adoptado, retrayente/retraído;

d) En tercer lugar, también oponiéndose una parte activa, en este caso habitual, a una parte pasiva, tenemos las construcciones con -dor enfrentadas a las de participio de pasado, como, por ejemplo, fiador/afianzado, tutor/tutelado, curador/curado, asegurador/asegurado.

e) En cuarto lugar, se opone -dor, en la parte activa, a -ario, como representante de la parte recipendaria, tal y como se muestra en testador frente a legatario y heredero, donador/donatario, arrendador/arrendatario, poseedor/propietario, etc.;

f) Luego viene el complicado sufijo en -ista, que se opone, de maneras diversas, a -ario, como ocurre en censalista/censatario, prestamista/prestatarario, reservista/reservatario, etc.

g) Por último, existen oposiciones en las que se enfrentan dos términos activos como comprador y vendedor, o, incluso, aparece uno solo como repre-

sentante de los dos, cual es el caso de contrayente y permutante (TABARES, 2004: 174).

Gutziz bestelakoa da, ostera, euskararen mundua, historia eta tradizioz ezak pisu nabaria baitu egungo euskararen hiztegi juridikoa moldatzeko orduan. Sarri askotan ez dira zehatz-mehatz atzematen hizkuntzaren maila orokorra eta maila bereziak nahiz hizkera teknikoak, hain justu, hizkuntzak berak eratze bidean baititu, egunotan ere, halakoak:

Es un problema general de la delimitación precisa entre la lengua general y especializada y, en particular, el estudio de las unidades terminológicas que pasan del ámbito general al especializado (se incrementa la precisión del significado), del especializado al general (el término pierde precisión o cambia su significado) o entre diferentes especialidades (cambio semántico) (UGARTEBURU, 2003: 490).

Are nabariagoa da egoera hori, kasurako, euskararen hizkera desberdinetan:

El análisis de los patrones de variación denominativa en el corpus estudiado confirman las hipótesis de partida de este trabajo; por una parte, tanto en el análisis intratextual como en el intertextual, hemos encontrado patrones de variación que se explican a partir de factores de tipo discursivo: patrones de variación que responden en el mismo texto a los diferentes requerimiento del discurso y patrones que muestran las diferencias entre las condiciones discursivas de cada tipo de texto. Estos patrones evidencian la progresiva fijación de reglas discursivas a nivel intra e intertextual.

Sin embargo, también hemos podido observar patrones de variación que no pueden ser explicados por causas discursivas y que parecen responder a causas de índole sociolingüística relacionadas con la falta de normalización de la lengua vasca. Como era de esperar, estos últimos patrones son mayormente asistemáticos. Sin embargo, debemos subrayar que también hemos encontrado variación sistemática relacionada con la falta de normalización; más concretamente, patrones de variación que tratan de compensar en el discurso la falta de fijación terminológica (ZABALA, 2006: 847).

Hitz gutxitan esateko, hizkuntza batetik besterako bidean, zuzenbidearen eta hizkuntzaren egoera desberdinak aintzat hartu

behar dira, kasuan kasuko eta aldian aldiko ezaugarriak eta inguru-mariak baztertu gabe. Horrexegatik eta puntuak errazte aldera, oraingo saio hau sinkronikoa da, alegia, indarrean dauden lege-testuen corpus batetik abiatzen da. Horietan ditu sustraia eta erroa, metodologia jakin baten bidez eskuratzeko azken helmuga, hots, hiztegi ideologiko-juridiko baten osaera.

Hiru dira, beste askoren artean, eskura izan ditugun hiztegi ideologikoen adibide aipagaiak: lehena, gaztelaniazko *Diccionario ideológico de la lengua española*. Egilea. Julio Casares, 2. argitaraldia, Editorial Gustavo Gili S.A. Barcelona, 1994. Euskaraz ere, bide beretik datoz Urrestarazu´tar Andon-Umandik egin *Asmo-Iztegia*, Lizarra, 2000, 2 liburuki, eta Justo Maria Mokoroa Mujikak apailatua: *Ortik eta Emendik/Repertorio de locuciones del habla popular vasca*, Etor/Labayru/Eusko Jaurlaritza, Donostia 1990, 2 liburukiak.

Hainbatez, hauxe da lerro hauetako proposamena: hizkera juridikoaren, teknolekto juridikoaren hiztegia egiteko orduan, onomasiologia erabiltzea, eta onomasologia horren barruan, hiztegi terminologikoaren teknikara jotzea, beti ere, hitz eta terminoen sailkatze sistematikoa egiten dela, dogmatika juridikoaren arabera taxutua. Horrek baditu, izan ere, abantaila azpimarragarriak, batik bat, erabiltzailearentzat, asko errazten baitio so batez gaiak zehatz jabetzea, eta, orobat, aparteko aukera, gaztelaniaz eta euskaraz lege-testuetan dabilen kontzeptualizazio juridiko osoa batera ikusteko, aldi berean hitz eta kontzeptu bakoitza zein lege-testutan erabili den erraz atzeman dezakeela.

Dena den, lexiokografia juridikoan eztabaidatua izan da horrelako sailkatze-lana egitea. Luze jardun du horri buruz Kanadako lexiokografia juridiko elebidunak, eta irizpide desberdinak ere gizarteratu. Adibidez, *Dictionarie de droit privé* deiturikoan hurrenkera alfabetikoa izan da nagusi, batez ere, erraztasunaren ize-nean, alfabetikotasun horrek izan ditzakeen hutsuneak ahantzi gabe:

En tous cas, il est préférable de ne fixer la politique de l'ordre alphabétique qu'après avoir eu l'expérience du genre d'entrée que l'on désire dans le dictionnaire, étant donné que tout changement vers la fin des travaux entraîne un

immense travail de vérification des renvois et un risque accru d'erreur (GROFFIER, 2007: 40).

Edozein modutan ere, ohargarria da gero eta ugariagoak direla kontzeptu juridikoen araberrako zerrendak ontzen dituzten hiztegiak, batik bat, sistema juridiko eta hizkuntza desberdinen arteko gorabeherak eta ezaugarriak ahalik eta modurik zehatzenean islatzeko asmoa dutenetan. Adibide esanguratsua izan daiteke Thiryk berrikitan argitaratu duen *Diccionario jurídico. Terminología de la responsabilidad civil (español-francés / francés-español)*. Bertan, argi dago beharrezkoa dela, datu linguistikoekin batera, datu juridikoak ere ematea, hitz bakoitza bere hizkuntza eta sistema juridikoan kokatzeko. Gurean, errazagoa da puntu hori, aintzat hartzen baitugu, soil-soilean eta lehen esan bezalaxe, Espainiako sistema juridikoa, gaztelaniatik euskarara doan itzultze-bidean.

Aipatzekoa da horren formulazioa:

Lorsqu'il s'agit d'un dictionnaire bilingue rendant le droit d'un même pays à système juridique unique – un dictionnaire français-néerlandais/ néerlandais-français du droit belge, par exemple– les problèmes sont peut-être moindres, mais dès qu'il s'agit de droits différents, le corpus est différent dans chaque langue et une simple re-traduction conduirait à des lacunes graves (GROFFIER, 2007: 78).

4. HITZ-MULTZOAK ANTOLATZEKO METODOLOGIA

Aurrekoak gorabehera, hitz juridikoen multzo edo familia horiek antolatzeke orduan, lerro hauetako metodologia, gehienbat, GÓMEZ eta TORRESEK (GÓMEZ / TORRES, 2004) eta SALGADOK (SALGADO; 2007) ondutakoetatik dator. Euren asmaturiko fitxa egokitu da, ondorengo informazioa emanek kasuan-kasuan.

[zk.] Hitz juridikoen multzoa identifikatzea

Arloa:

Iruzkina:

Eremu semantikoa:

[zk. eta letra] ES gaztelaniazko hitza

EU euskarazko ordaina

Lege-testua:

Euskaratze-bidea:

Bistan denez, lehenengo atalean zenbakia eta izenburua ageri dira, hitz-multzo zehatza identifikatzeko helburuarekin.

Bigarren atalean, hitz-multzo zehatz horri zuzenbidearen barruan zein arlo dagokion argitzen da (zuzenbide zibila, zigorzuzenbidea, prozesuko zuzenbidea, lan-zuzenbidea...). Azkenean ere, zerrendatu da zuzenbidearen arlo desberdinetan batera ager daitezkeen hitzen erreferentzia soila, hitz horiek, zuzenbidearen hizkera orokorrean esanahi berezia dutenean. Arlo horien laburdurez denaz bezainbatean, hona batez besteko zerrenda eta hurrenkera:

Administrazio-zuzenbidea	Adm. zuz.
Foru zuzenbidea	Foru zuz.
Lan-zuzenbidea	Lan zuz.
Prozesuko zuzenbidea	Proz. zuz.
Zuzenbide zibila	Zuz. zib.
Zuzenbidearen kontzeptu orokorrak	Zuz. orok.

Hirugarren atalean, hitz-multzoari buruzko iruzkin orokorra egiten da, dogmatika juridikoaren ikusmiratik, hau da, edukiaren aldetik nabarmentzeko modukoa izan daitekeena bertan jasotzeko.

Laugarren atalean, eremu semantiko-juridikoari egiten zaio erreferentzia eta, horren barruan hurrengoak bereizten dira, harreman lexiko eta paradigmaticoei men eginez: a) eremu semantiko taxonomikoa, hau da, hitzen arteko harremanak sailkapenaren bidez taxutzen dituen; eta b) eremu semantiko meronimikoa, hau da, hitzen arteko harremanak maila orokorragoko kontzeptu oso baten osagai moduan ikusten dituen, edota kontzeptu horren zati gisa neurtzen dituen (OTAOLA, 2004: 258-259).

Bosgarren atalean, multzoari dagokion zenbakia agertzeaz gain, zenbaki horri letra gehitzen zaio, multzoaren barruko hitz edo termino juridiko bakoitzaren aurretik. Atal honetan, gaztelaniazko terminoak jaso dira, ES laburdura jarrita eta letra beltzez, eta,

azpiko lerroan, termino horiei dagokien euskarazko ordaina, EU laburdura jarrita eta letra etzanez.

Seigarren atalean, lege-testua, eta, zazpigarrenean, euskaratze-bidea, jasota daude, termino bakoitzarentzat bana zehaztuta. Adibide eta ordain horiek lehen aipatutako corpus horretatik hustu dira. Hitz bakoitza non aurki daitekeen jakiteko, kasuan kasuko lege-testuaren laburdura jasotzen da, eta laburdura horri artikulua zenbakia gehitzen zaio, gaztelaniazko bertsioa edo euskarazkoa den argituta. Zenbakiaren inguruan, zentzuzko salbuespena egin behar da: Nafarroako Foru Berriaren kasuan, zenbakiak testu horretako legeei egiten diete erreferentzia, artikulurik ez baitago. Artikulu honetan zehatz-mehatz erabilitako www.iev.deusto.es corpusaren zatia lege-testuak hauek osatzen dute:

<i>1947ko otsailaren 14ko Dekretua, Hipoteka Legea betearzteko Erregelamendua onesten duena</i> (2004. urteko abenduaren 31a arte izandako eraldaketak barne)	HE
<i>Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa</i> (2007. urteko maiatzaren 31a arte izandako eraldaketak barne)	IPDBLO
<i>Erregistro Zibilaren Erregelamendua, 1958ko azaroaren 14ko Dekretuak onetsi duena</i> (2004ko martxoaren 31a arte izandako eraldaketak barne)	EZE
<i>Espainiako Konstituzioa</i> (2007. urteko maiatzaren 31a arte izandako eraldaketak barne)	EK
<i>Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Nafarroako Foru Berria</i> (2005. urteko uztailaren 1a arte izandako eraldaketak barne)	NFB
<i>Kode Zibila</i> (2007. urteko ekainaren 30 ^a arte izandako eraldaketak barne)	KZ
<i>Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzazko Errege-dekretua, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onetsi duena</i> (2006ko abenduaren 31a arte izandako eraldaketak barne)	LE

<i>Prozedura Kriminalaren Legea</i> (2006. urteko maiatzaren 31a arte izandako eraldaketak barne)	PKL
<i>Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa</i> (2007. urteko maiatzaren 31a arte izandako eraldaketak barne)	ALO
<i>Urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea, Prozedura Zibilarena</i> (2004. urteko abenduaren 31a arte izandako eraldaketak barne)	PZL
<i>Uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa</i> (2005. urteko uztailaren 1a arte izandako eraldaketak barne)	EHFZZL
<i>Uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa, Hezkuntzarako Eskubidea Arautzekoa</i> (2007. urteko maiatzaren 31a arte izandako eraldaketak barne)	HELO

Horretara betetzen dira erabileraren ardatzak, nahiz paradigmaren arloan, nahiz sintagmaren arloan:

Además, y éste es otro aspecto relevante, el análisis de los distintos términos en su contexto permite no sólo realizar una definición atendiendo al eje paradigmático (vertical y de selección, del elemento actualizado frente a aquellos que su presencia ha excluido en ese punto de la cadena hablada), sino también una descripción del empleo de ese término en el discurso (en el sintagma, con una visión horizontal y, por tanto, de contraste y de mutua delimitación del uso de las palabras en el contexto) (DORTA, 2007: 383).

5. HITZ JURIDIKOEN MULTZOAK: HAMAR ADIBIDE


5.1. Ebazpen judizialak: motak

Arloa: Proz. zuz.

Iruzkina: Epaitegi eta auzitegiek emandako ebazpen judizialak hiru motatakoak izan daitezke: probidentziak, autoak

eta epaiak. Probidentziak izapidetza hutseko ebazpenak dira. Autoek, berriz, erabakitzen dituzte auzipetuen, akusatzaile partikularren edo auzi-jartzaile zibilen gain zuzeneko eragina duten intzidenteak edo funtsezko gaiak; epaitegi edo auzitegiaren esku-mena; ezespina bidezkoa edo bidegabea izatea; probidentziaren bat birjartzea; birjartzearen ukatzea; espetxeratzea eta askatzea; froga edo doako laguntza onartzea edo ukatzea; eta, azkenik, legeen arabera oinarridunak izan behar diren ebazpenak ere autoak izaten dira. Epaiak, bukatzeko, auzia behin betiko erabakitzen dute auzialdi bakoitzean.

Eremu semantikoa: Taxonomikoa da.



[1a] ES auto

EU *auto*

Lege-testua

PKL.160es: *Los autos que resuelvan indicentes se notificarán únicamente a los Procuradores.*

Euskaratze-bidea

PKL.160eu: *Intzidenteak ebazten dituzten autoak prokuradorei bakarrik jakinaraziko zaizkie.*

[1b] ES providencia

EU *probidentzia*

Lege-testua

PKL.204es: *Las providencias se dictarán y firmarán inme-*

diatamente que resulte de las actuaciones la necesidad de dictarlas, o en el mismo día o el siguiente al en que se hayan presentado las pretensiones sobre que recaigan.

Euskaratze-bidea

PKL.204eu: *Probidentziak eman eta sinatuko dira, horiek emateko beharrezana sortu bezain laster, edo, probidentzia horiek zein uziri buruzkoak izan eta uzi horiek aurkezten diren egunaren biharamunean.*

[1c] ES sententia

EU epai

Lege-testua

EK.165es: *En las sentencias que pronuncie el Tribunal Supremo en los recursos de casación o en los de revisión no habrá discordia, quedando al efecto desechados los resultandos y considerando que no reúnan mayoría absoluta de votos.*

Euskaratze-bidea

EK.165eu: *Ez da desadostasunik egongo Auzitegi Gorenak kasazio- edo berrikuspen-errekurtsoetan ematen dituen epaien inguruan; ondore horretarako, baztertu egingo dira botoen erabateko gehiengoa lortzen ez duten ikusizkoak eta kontuan hartuzkoak.*

5.2. Egituraren osagarriak: lege-testuen zatiak


Arloa: Zuz. orok.

Iruzkina: Lege-testuen barruko antolaketari dagokionez, ezaguna da *libro, título, capítulo, sección* eta *subsección* horien arteko bereizketa, batez ere, lege-testuok luzeak direnean edo kodeak direnean. Horiek euskaraz emateko, *liburu, kapitulu, atal* eta *azpiatal* ordainak aukeratu dira. Artikuluen barne zatiketari buruz, argitu behar da beti ez dela errespetatu gaztelaniazko terminologia. Egin-eginean ere, gaztelaniaz nahierara agertzen dira *párrafo* eta *apartado* aipamenak. Euskaraz, ordea, *párrafo* aipatzeko, *paragrafo* erabili da zenbakia dutenen kasuan, eta *lerroka-*

da, zenbatu gabekoen kasuan, gaztelaniaz zein termino ageri den kontuan hartu gabe. Gaztelaniazko *letra* horren kasuan, *idatz-zati* erabili da orokorrean.

Eremu semantikoa: Meronimikoa da eta hierarkiaren araberakoa.

2. Lege-testuen zatiak



[2a] ES libro
EU *liburua*

Lege-testua:
KZ.es: Libro I. De las personas

Euskaratze-bidea:
KZ.eu: I. liburua. Pertsonak

[2b] ES título
EU *titulua*

Lege-testua:
KZ.es: Título IV. Del matrimonio

Euskaratze-bidea:
KZ.eu: IV. titulua. Ezkontza

[3c] ES capítulo

EU *kapitulua*

Lege-testua:

KZ.es: Capítulo III. De la forma de celebración del matrimonio

Euskaratze-bidea:

KZ.eu: III. kapitulua. Ezkontzeko forma

[2d] ES sección

EU *atala*

Lege-testua:

KZ.es: Sección I. Disposiciones generales

Euskaratze-bidea:

KZ.eu: I. atala. Xedapen orokorrak

[2e] ES subsección

EU *azpiatala*

Lege-testua:

EZE.es: Subsección 1^a. De la filiación materna

Euskaratze-bidea:

EZE.eu: 1. azpiatala. Amarengandiko seme-alabatasuna

[2f] ES artículo

EU *artikulua*

Lege-testua:

IPDBLO.es: Artículo 2. Ámbito de aplicación

Euskaratze-bidea:

IPDBLO.eu: 2. artikulua. Aplikazio-esparrua

[2g] ES apartado

EU *paragrafoa*

Lege-testua:

EK.34.2es: *Regirá también para las fundaciones lo dispuesto en los apartados 2 y 4 del artículo 22.*

Euskaratze-bidea:

EK.34.2eu: *Fundazioen inguruan ere, 22. artikuluko 2 eta 4. paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko da.*

[2h] ES párrafo

EU lerrokada

Lege-testua:

IPDBLO.7.6es: *También podrán ser objeto de tratamiento los datos a que se refiere el párrafo anterior cuando el tratamiento sea necesario para salvaguardar el interés vital del afectado o de otra persona, en el supuesto de que el afectado esté física o jurídicamente incapacitado para dar su consentimiento.*

Euskaratze-bidea:

IPDBLO.7.6eu: *Aurreko lerrokadak aipatzen dituen datuak tratatzeko modukoak izango dira, berebat, tratamendua beharrezkoa denean ukituaren edo beste pertsona baten berebiziko interesa babesteko, ukituak bere adostasuna emateko gaitasunik ez duenean arrazoi fisiko zein juridikoengatik*

[2i] ES letra

EU idatz-zatia

Lege-testua:

IPDBLO.5.3es: *No será necesaria la información a que se refieren las letras b), c) y d) del apartado 1 si el contenido de ella se deduce claramente de la naturaleza de los datos personales que se solicitan o de las circunstancias en que se recaban.*

Euskaratze-bidea:


IPDBLO.5.3eu: *Ez da behar izango 1. paragrafoko b), c) eta d) idatz-zatiek aipatu informazioa, kasuan-kasuan eskatzen diren datu pertsonalen izaerak edo datu horiek jasotzeko inguruabarrek ondoriozta dezaketenean informazio horren edukia.*

5.3. Harreman juridikoen subjektuak

Arloa: Zuz. orok.

Iruzkina: Gaztelaniazko *persona, individuo, ser humano* eta *particular* ere bereizi dira euskarazko testuan, hitz juridiko esklusiboak izan ez arren, lege-testuetan sarritan agertzen baitira, gehienbat giza eskubideei lotuta. Horrenbestez, euskaraz modu honetara eman dira kontzeptu horiek, hurrenez hurren: *pertsona, gizabanako, gizaki* eta *subjektu pribatu*.

Eremu semantikoa: Taxonomikoa da.



[3a] ES individuo

EU gizabanakoa

Lege-testua:

EK.16.1es: *Se garantiza la libertad ideológica, religiosa y de culto de los individuos y las comunidades sin más limitación, en sus manifestaciones, que la necesaria para el mantenimiento del orden público protegido por la ley.*

Euskaratze-bidea:

EK.16.1eu: *Gizabanakoen eta giza taldeen ideologia-, erlijio- eta kultu-askatasuna bermatzen da, eta beraien agerpenetan muga bat baino ez da izango, hau da, legeak babesten duen ordena publikoa iraunarazteko beharrezkoa dena.*

[3b] ES particular

EU subjektu pribatua

Lege-testua:

EK.106.2es: *Los particulares, en los términos establecidos por la ley, tendrán derecho a ser indemnizados por toda lesión que sufran en cualquiera de sus bienes y derechos, salvo en los casos de fuerza mayor, siempre que la lesión sea consecuencia del funcionamiento de los servicios públicos.*

Euskaratze-bidea:

EK.106.2eu: *Subjektu pribatuek, legeak ezarritakoaren araber, eskubidea izango dute, kalte-ordainak jasotzeko, beren ondasun eta eskubideetan izandako lesio guztien ondorioz, ezinbesteko kasuetan izan ezik, eta kalte horiek zerbitzu publikoen jardunbidearen ondorioz gertatu diren neurrian.*

[3c] ES persona

EU pertsona

Lege-testua:

EK.21.2es: *En los casos de reuniones en lugares de tránsito público y manifestaciones se dará comunicación previa a la autoridad, que sólo podrá prohibirlas cuando existan razones fundadas de alteración del orden público, con peligro para personas o bienes.*

Euskaratze-bidea:

EK.21.2eu: *Iraganbide publikoetan bilerak, edo kale-ageraldiak egiten direnean, agintariei aldez aurretiko komunikazioa egin behar zaie, eta haiek halakoak debekatu ahal izango dituzte, soilik, pertsona eta ondasunen aurkako arriskuaz, ordena publikoa asaldatzeko arrazoi oinarridunak daudenean.*

[3d] ES ser humano

EU gizakia

Lege-testua:

ALO.59.1es: *El extranjero que haya cruzado la frontera*

española fuera de los pasos establecidos al efecto o no haya cumplido con su obligación de declarar la entrada y se encuentre irregularmente en España o trabajando sin autorización, sin documentación o documentación irregular, por haber sido víctima, perjudicado o testigo de un acto de tráfico ilícito de seres humanos, inmigración ilegal, o de tráfico ilícito de mano de obra o de explotación en la prostitución abusando de su situación de necesidad, podrá quedar exento de responsabilidad administrativa y no será expulsado si denuncia a las autoridades competentes a los autores o cooperadores de dicho tráfico, o coopera y colabora con los funcionarios policiales competentes en materia de extranjería, proporcionando datos esenciales o testificando, en su caso, en el proceso correspondiente contra aquellos autores.

Euskaratze-bidea:

ALO.59.1eu: Atzerritarrek Espainiako muga igaro badu Espainian sartzeko ezarritako pasabideetatik kanpo, edo ez badu bete sarreraren berri emateko duen betebeharra, eta, gainera, atzerritar hori Espainian modu irregularrean badago, edo baime-nik gabe, agiririk gabe edo agiri irregularrekin lan egiten, dela gizakiak zilegi ez den moduan trafikatzearen, dela legearen aurkako immigrazioaren, dela lan-eskua zilegi ez den moduan trafikatzearen, dela beharrizan-egoeraz abusatu eta prostituzio-esplo-tazioaren biktima, kaltetuna edo lekukoa izateagatik, orduan atzerritar hori administrazio-erantzukizunetik aske geratu ahal izango da. Halaber, atzerritarra ez da kanporatuko, baldin eta horrek agintari eskudunei salatzen badie zein diren trafiko horren egile edo laguntzaileak, edo atzerritarra polizia-funtzionario eskudunekin elkarlanean eta lankidetzan aritzen bada atzerritar-tasun-arloan, oinarritzko datuak edo lekukotasuna emanaz, hala denean, egile horien aurkako kasuan kasuko prozesuan.


5.4. Legearen aplikazio-esparrua: lurralde-antolaketa

Arloa: Adm. zuz.

Iruzkina: Termino juridikoen eremu semantikoa eta antola-mendu juridikoaren barne koherentzia bermatzeko tenorean, gazte-laniazko *término municipal*, *distrito*, *partido* eta *circunscripción* fin-

katu beharreko terminoak dira. Hurrenez hurren, *udalerrri*, *distrito*, *barruti* eta *mugape* aukeratu izan dira halakoetarako.

Eremu semantikoa: Taxonomikoa da.



[4a] ES circunscripción
EU *mugapea*

Lege-testua:

EZE.243es: *Se publicarán edictos o proclamas por espacio de quince días exclusivamente en las poblaciones en cuya demarcación hubiesen residido o estado domiciliados los interesados en los dos últimos años y que tengan menos de 25.000 habitantes de derecho, según el último censo oficial, o bien que correspondan a la circunscripción de un Consulado español con menos de 25.000 personas en el Registro de Matrícula.*

Euskaratze-bidea:

EZE.243eu: *Ediktuak edo aldarriak, hamabost eguneko epean, interesdunen herrietan bakarrik argitaratuko dira, interesdunok azken bi urteetan herri horien mugapean izan badute bizilekua edo egoitza, eta herriok zuzenbideko 25.000 biztanle baino gutxiago badituzte azken errolda ofizialaren arabera, edo Matrikula Erregistroan 25.000 lagun baino gutxiagoko kontsulatu espainiar baten mugapeari badagozkio.*

[4b] ES distrito
EU *distritoa*

Lege-testua:

HE.538es: *En todas las comunicaciones y documentos que firmen los Registradores, a excepción de los asientos registrales, estamparán un sello que deberá adoptar forma circular del tamaño ordinario en los de su clase, y contener, además del escudo de España, en el centro, una inscripción en su parte superior que diga «Registro de la Propiedad», y en la inferior, el nombre del distrito hipotecario y el nombre y apellidos del Registrador.*

Euskaratze-bidea:

HE.538eu: *Erregistroko idazkunetan izan ezik, erregistraztaileek sinatutako komunikazio eta agiri guztietan zigilua jarri behar dute; zigiluak forma biribila eta mota horretako zigiluen ohiko neurriak izango ditu, eta, erdian Espainiako ezkutua izateaz gain, bi inskripzio izan behar ditu: bata, goian, «Jabetza Erregistroa» esanez, eta bestea, behean, hipoteka-distritoa eta erregistraztailearen izen-abizenak zehaztuz.*

[4c] ES partido

EU barrutia

Lege-testua:

HE.137.1es: *Sólo será Juez competente para conocer del procedimiento el de Primera Instancia del partido en que radique la finca, y si ésta radicare en más de uno se estará a lo dispuesto en la regla primera del artículo 210 de la Ley.*

Euskaratze-bidea:

HE.137.1eu: *Finken kokalekuari dagokion barrutiko lehen auzialdiko epaileak du prozeduraren gaineko eskumena, eta finka bi barruti edo gehiagotan izanez gero, legearen 210. artikulua lehenengo erregelak xedatutakoa bete behar da.*

[4d] ES término municipal

EU udalerría

Lege-testua:

PKL.422es: *Si el testigo residiere fuera del partido o término municipal del Juez que instruyese el sumario, éste se abstendrá*

de mandarle comparecer a su presencia, a no ser que lo considere absolutamente necesario para la comprobación del delito o para el reconocimiento de la persona del delincuente, ordenándolo en este caso por auto motivado.

Euskaratze-bidea:


PKL.422eu: Sumarioaren instrukzioa egin duen epailearen barruti edo udalerritik kanpo bizi bada lekukoa, epaileak ez dio aginduko bere aurrera ager tzea, salbu eta delitua egiazta tzeko edo delitugilea identifika tzeko hori erabat beharrezkoa denean; hala gertatuz gero, auto ziodunaren bidez aginduko dio hari bere aurrera agertzeko.

5.5. Prozesuaren barruko nondik norakoak: errekurtsomotak

Arloa: Proz. zuz.

Iruzkina: Dela prozedura zibilean, dela prozedura kriminalean, errekurtsomotak bereizi behar dira, epaitegi nahiz auzitegieta-ko eguneroko lanean hori ezinbesteko gertatzen baita.

Eremu semantikoa: Taxonomikoa da.



[5a] ES recurso de apelación
EU gora jotzeko errekurtsotsoa

Lege-testua:

PKL.212es: *El recurso de apelación se entablará dentro de cinco días, a contar desde el siguiente al de la última notificación de la resolución judicial que fuere su objeto hecha a los que expresa el artículo anterior.*

Euskaratze-bidea:

PKL.212eu: *Gora jotzeko errekurtsoa bost eguneko epean aurkeztuko da, errekurtsopeko ebazpen judizialari buruz azken jakinarazpena aurreko artikuluan adierazitakoei egin zaienetik zenbatuta.*

[5b] ES recurso de casación

EU kasazio-errekurtsoa

Lege-testua:

PKL.157es: *En las certificaciones o testimonios de sentencias que expidieren los Tribunales no se insertarán los votos reservados; pero se remitirán al Tribunal Supremo y se harán públicos cuando se interponga y admita el recurso de casación.*

Euskaratze-bidea:

PKL.157eu: *Auzitegiek epaiei buruz luzatutako ziurtagiri edo lekuko tzetan ez dira isilpeko botoak jasoko; hala ere, boto horiek Auzitegi Gorenari igorriko zaizkio, eta jendurrekoan azalduko dira behin kasazio-errekurtsoa jarri eta onartuta.*

[5c] ES recurso de queja

EU kexa-errekurtsoa

Lege-testua:

PKL.213es: *El recurso de queja para cuya interposición no señale término la Ley podrá interponerse en cualquier tiempo, mientras estuviese pendiente la causa.*

Euskaratze-bidea:

PKL.213eu: *Legeak kexa-errekurtsoa jartzeko epe-mugarik zehaztu ez badu, edozein unetan jarri ahal izango da, auzia bidean dagoen bitartean.*

[5d] ES recurso de reposición

EU birjartze-errekurtsoa

Lege-testua:

PZL.285.2es: *Contra esa resolución sólo cabrá recurso de reposición, que se sustanciará y resolverá en el acto, y si se desestimare, la parte podrá formular protesta al efecto de hacer valer sus derechos en la segunda instancia.*

Euskaratze-bidea:

PZL.285.2eu: *Ebazpen horren aurka, birjartze-errekurtsoa soilik jar daiteke; errekurtso hori berehala bideratu eta ebatziko da, eta, gaitziritzia ematen bazaio, alderdiak protesta aurkez dezake, bigarren auzialdian bere eskubideak baliatu ahal izateko.*

[5e] ES recurso en interés de la ley

EU legearen intereserako errekurtsoa

Lege-testua:

PZL.490.1es: *Podrá interponerse recurso en interés de la ley, para la unidad de doctrina jurisprudencial, respecto de sentencias que resuelvan recursos extraordinarios por infracción de ley procesal cuando las Salas de lo Civil y Penal de los Tribunales Superiores de Justicia sostuvieran criterios discrepantes sobre la interpretación de normas procesales.*

Euskaratze-bidea:

PZL.490.1eu: *Legearen intereserako errekurtsoa jar daiteke, jurisprudentzia-doktrinaren batasunerako, prozesuko arau-haustearen ondoriozko errekurtso bereziak ebatzi dituzten epaiei buruz, baldin eta auzitegi nagusietako arlo zibileko eta zigor-arloko salek irizpide ezberdinak badituzte, prozesuko arauen interpretazioaren inguruan.*

[5f] ES recurso extraordinario por infracción procesal

EU prozesuko arau-haustearen ondoriozko errekurtso berezia.

Lege-testua:

PZL.469.2es: *Sólo procederá el recurso extraordinario por infracción procesal cuando, de ser posible, ésta o la vulneración del artículo 24 de la Constitución se hayan denunciado en la instancia y cuando, de haberse producido en la primera, la denuncia se haya reproducido en la segunda instancia. Además, si la violación de derecho fundamental hubiere producido falta o defecto subsanable, deberá haberse pedido la subsanación en la instancia o instancias oportunas.*

Euskaratze-bidea:


PZL.469.2eu: *Prozesuko arau-haustearen ondoriozko erre-kurtso berezia bidezkoa izango da, bakarrik, arau-hauste hori edo Konstituzioaren 24. artikulua hautsi izana auzialdian salatu bada, eta, hori lehen auzialdian gertaturik, salaketa bigarren auzialdian errepikatuz gero. Halaber, oinarrizko eskubidea hausteak ongi dai-tekeen falta edo akatsa sortu badu, ongitze hori auzialdi egokian edo egokietan eskatu behar da.*

5.6. Eskubide subjektiboen paradigmak: eskubide errealak

Arloak: Zuz. Zib. eta Foru. zuz.

Iruzkina: Zibilisten artean, eskubide subjektiboen paradigmak dira eskubide errealak, eta, batik bat, jabetza. Hartara, bereizi egiten dira jabetza bera, gozatzeko eskubideak, lehenespenez esku-ratzekoak eta berme-eskubideak, zeinek bere barne-bereizketa bereziak dituela, eta, zenbait kasutan, Kode Zibileko kategoriez gain, Euskal Herriko foru-zuzenbideko eskubide errealak ere txer-tatu dira, lege maila bera dutelako..

Eremu semantikoa: Taxonomikoa da.



[6.1] Jabetza eta jabaria

Iruzkina: Eskubide errealik zabalenera soil eginez, *jabetza* hobetsi da, *jabego* eta *jabetasun* ordainen kalterako. Zuzenbide publikoaren arloan, berriz, gaztelaniazko *dominio* euskaraz emateko, *jabari* aukeratu izan da, horixe baitago zabaldua hizkera juridiko-administratiboan, Hiztegi Batuak oraindik jasota ez badauka ere.

[6.1a] ES propiedad

EU *jabetza*

Lege-testua:

KZ.348es: *La propiedad es el derecho de gozar y disponer de una cosa, sin más limitaciones que las establecidas en las leyes*

Euskaratze-bidea:

KZ.348eu: *Jabetza da gauzak gozatu eta xedatzeko eskubidea, eta legean ezarritako mugapenak baino ez ditu.*

[6.1b] ES dominio

EU *jabaria*

Lege-testua:

EK.132.1es: *La ley regulará el régimen jurídico de los bienes de dominio público y de los comunales, inspirándose en los principios de inalienabilidad, imprescriptibilidad e inembargabilidad, así como su desafeción.*

Euskaratze-bidea:

EK.132.1eu: *Legeak herri-jabariko ondasunen eta auzo-ondasunen araubidea ezarriko du, eta, horretarako, kontuan hartuko ditu horiek besterendu, preskribatu eta enbargatzeko ezintasunaren printzipioak; legeak, orobat, ondasunon jaregitea arautuko du.*

[6.2] Gozatzeko eskubide errealak

Iruzkina: Gozatzeko eskubide errealei dagokienez, horien artean nabarmentzekoak dira *usufructo*, *derecho de uso*, *derecho de habitación*, *servidumbre*, *censo* eta *derecho de superficie*.

Euskarazko ordainak, berriz, jarraikoak: gozamena, erabiltzeko eskubidea, biztantzeko eskubidea, zortasuna, zentsua eta azalera-
eskubidea. Edozein modutan ere, zortasun ordainaren kasuan, aipatzeko modukoa da salbuespena egin dela *servidumbre de paso* euskaraz emateko orduan, horrelakoan, bide-zortasun barik, bidezor erabili delako, aspalditik dokumentatutako esamoldeari men eginez.

[6.2c] ES usufructo
EU gozamena

Lege-testua:

KZ.467es: *El usufructo da derecho a disfrutar los bienes ajenos con la obligación de conservar su forma y sustancia, a no ser que el título de su constitución o la ley autoricen otra cosa.*

Euskaratze-bidea:

KZ.467eu: *Gozamenak inoren ondasunak lupertzeko eskubidea ematen du, ondasun horien forma eta izaera artatzeko betebeharrarekin batera, salbu eta gozamenaren eraketa-titulua edo legeak bestelakoa ahalbidetzen duenean.*

[6.2d] ES derecho de uso
EU erabiltzeko eskubidea

Lege-testua:

KZ.1407es: *En los casos de los números 3 y 4 del artículo anterior podrá el cónyuge pedir, a su elección, que se le atribuyan los bienes en propiedad o que se constituya sobre ellos a su favor un derecho de uso o habitación. Si el valor de los bienes o el derecho superara al del haber del cónyuge adjudicatario, deberá éste abonar la diferencia en dinero.*

Euskaratze-bidea:

KZ.1407eu: *Aurreko artikulua 3 eta 4. zenbakietako kasuetan, ezkontideak eska dezake, aukeran baitu, ondasunen jabetza berari eratzitzea, edo, horien gain eta beraren mesedera, erabiltzeko eskubidea edo biztantzeko eskubidea eratztea. Ondasunen edo eskubidearen balioak gainditzen badu ezkontide*

adjudikaziodunaren hartzekoarena, ezkontide horrek diruz ordaindu behar du gaindikina.

[6.2e] ES derecho de habitación

EU biztantzeko eskubidea

Lege-testua:

KZ.523es: *Las facultades y obligaciones del usuario y del que tiene derecho de habitación se regularán por el título constitutivo de estos derechos; y, en su defecto, por las disposiciones siguientes.*

Euskaratze-bidea:

KZ.523eu: *Erabili eta biztantzeko eskubideen eraketa-titulak arautuko ditu erabiltzaileari eta biztantzeko eskubidearen titularrari dagozkien ahalmenak eta betebeharrak; titulurik izan ezean, hurrengo xedapenek arautuko dituzte halakoak.*

[6.2f] ES servidumbre

EU zortasuna

Lege-testua:

KZ.530es: *La servidumbre es un gravamen impuesto sobre un inmueble en beneficio de otro perteneciente a distinto dueño.*

Euskaratze-bidea:

KZ.530eu: *Zortasuna da ondasun higiezin baten onurarako beste baten gain ezartzen den karga, bi ondasunon jabeak desberdinak izanik.*

[6.2g] ES servidumbre de paso

EU bide-zorra

Lege-testua:

KZ.565es: *La servidumbre de paso debe darse por el punto menos perjudicial al predio sirviente, y, en cuanto fuere conciliable con esta regla, por donde sea menor la distancia del predio dominante al camino público.*

Euskaratze-bidea:

KZ.565eu: Bide-zorra ezarri behar da zortasunpeko lurrari kalterik txikiena eragiten dion lekutik, eta, erregela horrekin bateratzeko modukoa den heinean, lur nagusitik herri-bidera dagoen tarterik txikienetik.

[6.2h] ES censo
EU zentsua

Lege-testua:

KZ.1604es: Se constituye el censo cuando se sujetan algunos bienes inmuebles al pago de un canon o rédito anual en retribución de un capital que se recibe en dinero, o del dominio pleno o menos pleno que se transmite de los mismos bienes.

Euskaratze-bidea:

KZ.1604eu: Zentsua eratzen da, zenbait ondasun higiezin urteko kanon edo korritu batzuen ordainketari lotuta geratzen direnean, diruz jasotzen den kapitala ordaintzeko, edo ondasun higiezin horien gaineko jabari osoa nahiz ez-osoa ordaintzeko.

[6.2i] ES derecho de superficie
EU azalera-eskubidea

Lege-testua:

KZ.1611es: Lo dispuesto en este artículo no será aplicable a los foros, subforos, derechos de superficie y cualesquiera otros gravámenes semejantes, en los cuales el principio de la redención de los dominios será regulado por una ley especial.

Euskaratze-bidea:

KZ.1611eu: Artikulu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatu-ko foroei, azpiforoei, azalera-eskubideei eta horien antzeko beste edozein kargari; horietan, lege bereziak arautuko du jabariak luditzeari buruzko printzipioa.

[6.3] Goatzeko eskubide errealak Nafarroako foruzuzenbidean

Iruzkina: Eskubide errealei dagokienez ere, Nafarroako foru-zuzenbidean berezkoak dira *corraliza*, *facería*, *helechal*, *dominio concellar* eta *vecindad forana*, besteak beste. Orokorrean, gozatzeko eskubide errealak dira, zenbait kasutan jabekidetasun-kasuak badira ere. Haien euskarazko ordaina batzuetan emana dator lege-testuetan bertan. Beste batzuetan, aldiz, ez da gertatzen halakorik eta tradizioari erreparatu behar izan zaio euskarazko termino egokia bilatzeko. Horrela, *bazkalekua*, *fazeria*, *iralekua*, *kontzeju-jabaria* eta *kanpoko auzotasuna* hobetsi dira, hurrenez hurren.

[6.3j] ES corraliza
EU bazkalekua

Lege-testua:

NFB.379es: *Salvo los casos en que la denominación de «corraliza» aparezca empleada exclusivamente para expresar la naturaleza o destino de una finca o de un coto de fincas, se entiende por «corraliza», bien un derecho de aprovechamiento parcial sobre la finca ajena, bien la comunidad indivisible constituida por la concurrencia de diversos titulares dominicales, con atribución, a uno o a varios, de los aprovechamientos especiales de pastos, hierbas, aguas, leñas, siembras u otros similares. Estos derechos especiales son transmisibles inter vivos o mortis causa.*

Euskaratze-bidea:

NFB.379eu: *Finka baten edo finka-multzo baten izaera nahiz xedea adierazteko, «bazkaleku» adierazmoldea erabiltzen denean izan ezik, ulertu behar da «bazkaleku» direla, dela inoren finka zatika aprobetxatzeko eskubidea, dela jabariaren titular batzuk pilatzean eraturiko erkidego zatiezina, baldin eta titular horietako bati edo batzuei eratxikitzen bazaizkie bazka, belar, ur, egur, ereintzak edo antzeko aprobetxamendu bereziak. Eskubide berezi horiek inter vivos nahiz mortis causa eskualda daitezke.*

[6.3k] ES facería
EU fazeria

Lege-testua:

NFB.384es: *La «facería» consiste en una servidumbre recíproca entre varias fincas de propiedad colectiva o privada.*

Euskaratze-bidea:

NFB.384eu: «*Fazeria*» da jabetza kolektibo edo pribatupeko finka batzuen gainean elkarrekiko eraturiko zortasuna.

[6.3l] ES helechal

EU iralekua

Lege-testua:

NFB.388es: *Bajo esta denominación de «helechal», cuando este término no aparezca empleado exclusivamente para expresar la naturaleza o destino de una finca, se entienden los derechos de aprovechamiento de las producciones espontáneas de helecho de montes comunales.*

Euskaratze-bidea:

NFB.388eu: «*Iraleku*» adierazmoldea modu eskusiboan erabiltzen ez bada finka baten izaera edo xedea adierazteko, ulertu behar da izen horretara biltzen direla herri-mendietan berez sortutako irak aprobetxatzeko eskubideak.

[6.3m] ES dominio concellar

EU kontzeju-jabaria

Lege-testua:

NFB.391es: *El patrimonio forestal y cualesquiera otras propiedades, aprovechamientos o derechos pertenecientes a las Juntas Generales de los Valles del Roncal y Salazar, y que estén destinados a satisfacer necesidades colectivas de sus vecinos, son de «dominio concellar», que se regulará por las ordenanzas, acuerdos legítimamente adoptados, convenios y costumbres locales. El «dominio concellar» es indivisible.*

Euskaratze-bidea:

NFB.391eu: *Erronkari eta Zaraitzuko haranetako Batzarreen baso-ondareak edo bestelako jabetza, aprobetxamendu edo eskubideek xede badute haran horietako auzotarren beharri-
zan kolektiboak asetzea, horiek «kontzeju-jabarikoak» dira; jabari hori arautzen dute ordenantzek, legebidez hartutako akordioek, hiztarmenek eta tokiko ohiturek. «Kontzeju-jabaria» zatiezina da.*

[6.3n] ES vecindad forana

EU kanpoko auzotasuna

Lege-testua:

NFB.392es: *La participación en el disfrute de los bienes comunales, concedida por los municipios como «vecindad forana», aun constituida por título administrativo, tiene naturaleza civil y carácter de derecho real.*

Euskaratze-bidea:

NFB.392eu: *Udalerriek «kanpoko auzotasun» gisa eman badute herri-ondasunen luperketan parte hartzeko eskubidea, parte-hartze horrek izaera zibila du nahiz eta administrazio-titulua-
ren bidez eratu, eta eskubide erreala da.*

[6.4] Lehenespenez eskuratzeko eskubide errealak

Iruzkina: Lehenespenez eskuratzeko eskubide errealen kategorian, *tanteo* eta *retracto* dira Kode Zibilaren sisteman adierazgarrienak; euskarazko ordainak, berriz, *eroslehentasuna* eta *atzera-eskuratzea*, hurrenez hurren.

[6.4ñ] ES derecho de tanteo

EU eroslehentasun-eskubidea

Lege-testua:

KZ.1636es: *Corresponden recíprocamente al dueño directo y al útil el derecho de tanteo y el de retracto, siempre que vendan o den en pago su respectivo dominio sobre la finca enfiteútica.*

Euskaratze-bidea:

KZ.1636eu: *Zuzeneko ugazabari eta jabetza erabilgarria duenari elkarrekin dagozkie eroslehentasun-eskubidea eta atzera-eskuratzeko eskubidea, baldin eta enfiteusipeko finkaren gain bakoitzak duen jabaria saldu edo ordainean ematen bada.*

[6.4o] ES derecho de retracto

EU atzera-eskuratzeko eskubidea

Lege-testua:

KZ.1523es: *También tendrán el derecho de retracto los propietarios de las tierras colindantes cuando se trate de la venta de una finca rústica cuya cabida no exceda de una hectárea.*

Euskaratze-bidea:

KZ.1523eu: *Atzera-eskuratze eskubidea izango dute, halaber, lur mugakideen jabeek, landa-finkaren salmenta izanik, horren luze-zabala hektarea batetik gorakoa denean.*

[6.5] Lehenespenez eskuratzeko eskubide errealak foru-zuzenbideetan

Iruzkina: Euskal Herriko foru-zuzenbidean bada, bestalde, lehenespenez eskuratzeko eskubide erreal berezi bat, hain zuzen ere, *saca foral* izenekoa. Horren ordaina, tradizioaren arabera, *foru-saka* da. Nafarroako foru-zuzenbidean, berriz, *retracto gracioso* eta *retracto gentilicio* aipatzeko modukoak dira, hurrenez hurren, *grazia bidezko atzera-eskuratzea* eta *atzera-eskuratze jentilizio* eman direla.

[6.5p] ES saca foral

EU saka-eskubidea

Lege-testua:

EHFZZL.116es: *Quien pretenda enajenar bienes sujetos a saca foral practicará notarialmente el llamamiento a los parientes tronqueros.*

Euskaratze-bidea:

EHFZZL.116eu: *Saka-eskubidepeko ondasunik inorendu nahi dezanak Eskribau bidezko deia egingo die tronkaleko senideei.*

[6.5q] ES retracto gracioso

EU *grazia bidezko atzera-eskuratzea*

Lege-testua:

NFB.446es: *Los retractos legales graciosos, de «vecindad forana», «corralizas» o «helechales» y el gentilicio, por este orden,*

tienen prioridad respecto a los de comuneros, colindantes, arrendatarios, enfiteutas y a cualesquiera otros derechos de adquisición preferente de carácter civil o administrativo.

Euskaratze-bidea:

NFB.446eu: Legezko eta grazia bidezko atzera-eskuratzeek, «kanpoko auzotartasun», «bazkaleku» eta «iralekuei» buruzkoek, eta atzera-eskuratze jentilizioak, hurrenkera horretan, lehentasuna dute erkide, mugakide, maizter eta enfiteusidunen atzera-eskuratzeen aurretik, bai eta lehenespenez eskuratzeko bestelako eskubideen aurretik ere, horiek zibilak nahiz administraziokoak izan.

[6.5r] ES retracto gentilicio

EU atzera-eskuratze jentilizioa

Lege-testua:

NFB.452es: El retracto gentilicio, familiar o de sangre, podrá ejercitarse para rescatar determinados bienes inmuebles o cuotas indivisas de éstos.

Euskaratze-bidea:

NFB.452eu: Atzera-eskuratze jentilizioa, ahaideen artekoa nahiz odolekoa, egikaritu ahal izanen da ondasun higiezin zehatzak edo horien gaineko kuota indibisoak berreskuratzeko.

[6.6] Berme-eskubide errealak

Iruzkina: Bukatzeko, berme-eskubide errealetan, *anticresis*, hipoteca eta prenda jaso dira, *antikresi*, hipoteka eta bahi ordainak emanda. Azken ordain hori zalantzazkoa izan daiteke, batzuetan embargo adierazteko erabili izan delako; nahasteak uxatzekotan, euskaraz ere *embargo* erabiltzea hobetsi da.

[6.6s] ES anticresis

EU *antikresia*

Lege-testua:

KZ.1881es: Por la anticresis el acreedor adquiere el derecho de percibir los frutos de un inmueble de su deudor, con la obliga-

ción de aplicarlos al pago de los intereses, si se debieren, y después al del capital de su crédito.

Euskaratze-bidea:

KZ.1881eu: *Antikresiaren bidez, hartzekodunak eskubidea eskuratzen du, bere zordunaren ondasun higiezin batek ematen dituen fruituak jasotzeko; eta betebeharra du, fruituokin korrituak ordaintzeko, halakoak zor badira, eta, ondoren, kredituaren kapitala ordaintzeko.*

[6.6t] ES prenda
EU bahia

Lege-testua:

KZ.1865es: *No surtirá efecto la prenda contra tercero si no consta por instrumento público la certeza de la fecha.*

Euskaratze-bidea:

KZ.1865eu: *Bahiak ez du ondorerik sortuko hirugarrenaren aurka, agerkari publikoan ez bada agerrarazten egiazko data.*

[6.6u] ES hipoteca
EU hipoteca

Lege-testua:

KZ.1859es: *El acreedor no puede apropiarse las cosas dadas en prenda o hipoteca, ni disponer de ellas.*

Euskaratze-bidea:

KZ.1859eu: *Hartzekoduna ezin da jabetu bahi edo hipoteka gisa jasotako gauzez, eta ezin ditu horiek xedatu.*


5.7. Jabetza Erregistroa: finen aldarazpenak

Arloa: Zuz. zib.

Iruzkina: Jabetza Erregistroaren ondorioetarako, oso garrantzitsuak dira finen artean gerta daitezkeen aldaketak, eta, zehatz-mehatz esateko, gaztelaniaz *agregación, agrupación, división*

eta *segregación* izenekin ezagutzen diren eragiketak. Zeinek bere betekizun apartekoak ditu eta, ondorenez, ezin nahas daitezke. Hizkera arruntean, lehenengo bietan *batzea* eta azken bietan *banantzea* gertatzen dela esan daiteke, baina hizkera juridikoan hori urri, erren eta zehaztugabea izango litzateke. Hori dela eta, euskarazko ordainak emateko orduan, tentuz jokatu da, hurrenez hurren, *eranste*, *elkartze*, *zatitze/zatiketa* eta *bereizte/bereizketa* terminoak honetara erabilia:

Eremu semantikoa: Taxonomikoa da.



[7a] ES agregación
EU *eranstea*

Lege-testua:

HE.48es: La agregación de una o varias fincas inscritas o de una o varias partes que se segreguen, a otra también inscrita, podrá realizarse siempre que ésta tenga una extensión que represente, por lo menos, el quíntuplo de la suma de las que se agreguen.

Euskaratze-bidea:

HE.48eu: Inskribatuta dagoen finka bat edo batzuk zein bereizitako zati bat edo batzuk beste finka inskribatuari erantsi ahal zaizkio, baina, horretarako, azken horren luze-zabala, gutxienez, eransten direnen boskoitza izan behar da.

[7b] ES agrupación
EU *elkartzea*

Lege-testua:

HE.45es: Si las fincas agrupadas no fueren colindantes, se describirán individualmente las parcelas que las constituyan y, con la mayor precisión posible, las características de la agrupación o causas que den lugar a ella.

Euskaratze-bidea:

HE.45eu: Batutako finkak mugakideak ez badira, horien barruko lurzatiak banan-banan eta ahalik eta zehatzen deskribatu behar dira, bai eta elkartzearen ezaugarriak edo arrazoiak ere.

[7c] ES división

EU zatitzea, zatiketa

Lege-testua:

HE.46es: En el caso de que la totalidad de una finca inscrita se divida en dos o más suertes o porciones, se inscribirá cada una de éstas como finca nueva y bajo número diferente, haciéndose breve mención de esta circunstancia al margen de la inscripción de propiedad de la finca que se divida. En las nuevas inscripciones se expresará la procedencia de las fincas, así como los gravámenes que tuvieran antes de la división.

Euskaratze-bidea:

HE.46eu: Inskribatutako finka osoa zati bi edo gehiagotan banantzen bada, zati bakoitza finka berri moduan eta zenbaki desberdinekin inskribatu behar da, eta zatitutako finkaren jabetza-inskripzioaren bazterrean inguruabar hori laburrean aipatuko da. Inskripzio berrietan, finken jatorria adierazi behar da, baita zatiketaren aurretik finka horiek zituzten kargak ere.

[7d] ES segregación

EU bereiztea, bereizketa

Lege-testua:

HE.47es: Siempre que se segregue parte de una finca inscrita para formar una nueva, se inscribirá la porción segregada con número diferente, expresándose esta circunstancia al margen de la inscripción de propiedad de la finca matriz, así como la descripción de la por-

ción restante, cuando esto fuere posible o, por lo menos, las modificaciones en la extensión y lindero o linderos por donde se haya efectuado la segregación. En la inscripción de la nueva finca se expresará la procedencia de ésta y los gravámenes vigentes de la finca matriz.

Euskaratze-bidea:


HE.47eu: Inskribatutako finkaren zati bat finka berria osatzeko bereizten denetan, bereizitako zatia beste zenbaki batekin inskribatuko da, eta finka nagusiari dagokion inskripzioaren bazterrean inguruabar hori adieraziko da, baita aurreko finkatik geratzen den zatiaren deskripzioa ere, hori ahalezkoa izango balitz, edota, gutxienez, bereizketa egiteko mugaren edo mugen luze-zabalak izan dituen aldaketak. Finka berriaren inskripzioan, horren jatorria eta finka nagusiaren indarreko kargak adierazi behar dira.

5.8. Erregistro Zibileko idazkun-motak

Arloa: Zuz. zib.

Iruzkina: Erregistro Zibilean, idazkunak egiten dira. Kaleko hizkeran edo esangurarik orokorrean, guztiak ere *inskripzio* direla esan daiteke. Nolanahi ere, idazkun batetik bestera doan aldea ezin ahantzizkoa da zuzenbidearen esparruan, batez ere, baztuen eta besteen ondorioei erreparatuta; horregatik, gaztelaniazko idazkunak esanguratsuenak hartu eta horien euskarazko ordaina jaso da jarraian:

Eremu semantikoa: Taxonomikoa da.



[8a] ES anotación

EU idatzoharra

Lege-testua:

EZE.272es: *Cualquiera de las partes puede solicitar la anotación de la demanda de nulidad, separación o divorcio mediante la presentación del testimonio de su admisión.*

Euskaratze-bidea:

EZE.272eu: *Alderdietatik edozeinek eska dezake deuseztasun, banantze edo dibortzioari buruzko demandaren idatzoharra egitea, hori onartzen duen lekukotza aurkeztuta.*

[8b] ES cancelación

EU ezereztea

Lege-testua:

EZE.163es: *La cancelación total o parcial de un asiento por ineficacia del acto, inexactitud del contenido u otra causa se practicará marginalmente en virtud de título adecuado con sujeción a las formalidades del asiento cancelado y con indicación especial de la causa y alcance de la cancelación.*

Euskaratze-bidea:

EZE.163eu: *Idazkuna osorik edo zati batez ezereztun bada, egintzaren eragingabetasuna, edukiaren zehaztugabetasuna edo beste arrazoi bat dela eta, ezerezte hori orri-bazterrean egingo da titulu egokiaren bidez, ezereztutako idazkunaren formalitateei lotuta, eta ezereztearen arrazoia nahiz norainokoa aipatuta.*

[8c] ES inscripción

EU inskripzioa

Lege-testua:

EZE.130es: *Las inscripciones de nacimiento, matrimonio, defunción y la primera de cada tutela o representación legal, son principales; las demás, marginales.*

Euskaratze-bidea:

EZE.130eu: *Jaiotza-, ezkontza- eta heriotza-inskripzioak, eta tutoretza edo legezko ordezkaritza bakoitzaren lehenengo inskripzioa, guztiak ere, nagusiak dira; gainerakoak, orri-bazterrekoak.*

[8d] ES mención

EU aipamena

Lege-testua:

EZE.12es: *Las menciones de identidad consisten, a ser posible, en los nombres y apellidos, nombre de los padres, número del documento nacional de identidad, naturaleza, edad, estado, domicilio y nacionalidad.*

Euskaratze-bidea:

EZE.12eu: *Nortasun-aipamenak izango dira, ahal izanez gero, izen-abizenak, gurasoen izenak, nortasun-agiriaren zenbakia, izaera, adina, egoera, egoitza eta naziotasuna.*

[8e] ES nota marginal

EU orri-bazterreko oharra

Lege-testua:

EZE.155es: *Los hechos que, como el matrimonio posterior de los padres, afecten mediatamente a una persona constarán por nota marginal de referencia a la inscripción practicada.*

Euskaratze-bidea:

EZE.155eu: *Egitateek, gurasoen geroko ezkontza bezala, pertsonaren gain zeharkako eragina badute, horiek orri-bazterreko erreferentzia-oharraren bidez jasoko dira egindako inskripzioan.*


5.9. Erregistro Zibileko liburu-motak

Arloa: Zuz. zib.

Iruzkina: Sarritan entzun ohi da erregistro bidezko publizitatea liburu bidezkoa dela, eta, izatez ere, hala da. Zernahi gisaz, liburuok askotarikoak izaten dira, zeinek bere eginkizuna betetzeko.

Atal honetan kontuan hartu direnak Erregistro Zibilari dagozko bereziki, eta honetara eman dira, betiere horiei Familia Liburua gehituta, horren izaera bestelakoa izan arren:

Eremu semantikoa: Taxonomikoa da.



[9a] ES Libro de Familia EU Familia Liburua

Lege-testua:

EZE.36es: *El Libro de Familia se abre con la certificación del matrimonio no secreto y contiene sucesivas hojas destinadas a certificar las indicaciones registrales sobre el régimen económico de la sociedad conyugal, el nacimiento de los hijos comunes y de los adoptados conjuntamente por ambos contrayentes, el fallecimiento de los cónyuges y la nulidad, divorcio o separación del matrimonio.*

Euskaratze-bidea:

EZE.36eu: *Familia Liburua isilpekoa ez den ezkontzaren ziurtagiriarekin irekitzen da, eta elkarren segidako orriak ditu, Erregistroko aipamenak ziurtatzeko, ezkontza-sozietatearen araubide ekonomikoari buruz, seme-alaba erkideen jaiotzari buruz eta bi ezkontideek batera adoptatutakoen jaiotzari buruz, ezkontideen heriotzari buruz, eta ezkontzaren deuseztasun, dibortzio edo banantzeari buruz.*

[9b] ES Libro de Inscripciones EU Inskripzio(en) Liburua

Lege-testua:

EZE.99es: Los Libros de Inscripciones del Registro Central serán: 1. Los libros formados por Secciones, con los duplicados de las inscripciones consulares. 2. Los ordinarios destinados a las demás inscripciones para las que es competente. 3. El Libro Especial de Matrimonios Secretos.

Euskaratze-bidea:

EZE.99eu: Erregistro Zentraleko inskripzio-liburuak izango dira: 1. Atalez atal osatutako liburuak, kontsulatuetao inskripzioen bikoiztuekin. 2. Gainerako inskripzioetarako liburu arruntak, Erregistro Zentraleko inskripzio horiek egiteko eskuduna den heinean. 3. Isilpeko Ezkontzei buruzko Liburu Berezia.

[9c] ES Libro de Matrimonios Secretos

EU Isilpeko Ezkontzen Liburua

Lege-testua:

EZE.19es: Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 21, las autoridades y funcionarios, cuando lo exijan los asuntos de su respectiva función y con indicación de los mismos, pueden conocer, por examen directo, certificación o nota simple informativa, el contenido de cualquier asiento o documento del Registro, salvo los correspondientes al Libro de Matrimonios Secretos.

Euskaratze-bidea:

EZE.19eu: 21. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, agintariak eta funtzionarioek, bakoitzaren eginkizunari dagozkion gaitan hori beharrezkoa denean eta gaiak aipatuz, Erregistroko edozein idazkun edo agiriren edukia jakin dezakete, zuzeneko azterketaren bidez, ziurtagiriaren bidez edo informazio-ohar soilaren bidez, Isilpeko Ezkontzen Liburuari dagozkionak izan ezik.

[9d] ES Libro de Personal y Oficina

EU Langileria eta Bulego Liburua

Lege-testua:

EZE.47es: Del resultado levantarán por duplicado acta minuciosa, uno de cuyos ejemplares entregarán al Juez de Paz; la

visita se diligenciará en el Libro de Personal y Oficina y en cada uno de los de inscripciones abiertos.

Euskaratze-bidea:

EZE.47eu: Emaitzari buruzko akta xehea bikoiztuta egingo da, eta ale bat bake epaileari emango diote; bisita eginbidearen bidez jasoko da Langileria eta Bulego Liburuan, eta irekita dagoen inskripzio-liburu bakoitzean.

[9e] ES Libro Diario

EU Liburu Egunkaria

Lege-testua:

EZE.45es: La Dirección General podrá autorizar, cuando el servicio lo requiera, la apertura de varios tomos del Libro Diario, así como los tomos que en cada una de las Secciones de un Registro pueden estar simultáneamente abiertos.

Euskaratze-bidea:

EZE.45eu: Zuzendaritza Nagusiak, zerbitzuarentzat beharri-zana denean, baimendu ahal izango du Liburu Egunkariaren zenbait liburuki irekitzea, bai eta Erregistro bereko atal bakoitzean aldi berean irekita egon daitezkeen liburukiak ere.


5.10. Pertsonaren gaitasun-egoerak

Arloa: Lan zuz.

Iruzkina:

Gaztelaniazko *discapacidad*, *minusvalía*, *incapacidad*, *invalidez*, *ineptitud* eta *disminución* kontzeptuek euren parekoak behar dituzte euskaraz ere, jakina baita lan-zuzenbidearen arloan ondorio guztiz desberdinak dituztela batzuek eta besteek. Horregatik, euskaraz modu honetara eman dira horiek: *desgaitasuna*, *minusbaliotasuna*, *ezgaitasuna*, *baliaezintasuna*, *trebetasunik eza* eta *urritasuna*.

Eremu semantikoa: Taxonomikoa da.



[10a] ES discapacidad
EU *desgaitasuna*

Lege-testua:

LE.4.2es: *Tampoco podrán ser discriminados por razón de discapacidad, siempre que se hallasen en condiciones de aptitud para desempeñar el trabajo o empleo de que se trate.*

Euskaratze-bidea:

LE.4.2.eu: *Orobat, langileek ezin izango dute bereizkeriarik izan desgaitasunarengatik, kasuan kasuko lanean edo enpleguan aritzeko trebetasuna badute.*

[10b] ES disminución
EU *urritasuna*

Lege-testua:

LE.20.3es: *El empresario podrá adoptar las medidas que estime más oportunas de vigilancia y control para verificar el cumplimiento por el trabajador de sus obligaciones y deberes laborales, guardando en su adopción y aplicación la consideración debida a su dignidad humana y teniendo en cuenta la capacidad real de los trabajadores disminuidos, en su caso.*

Euskaratze-bidea:

LE.20.3eu: *Enpresaburuak zaintza- eta kontrol-neurririk ustez egokienak har ditzake, langileak bere lan-betebehar eta -eginkizunak betetzen dituela egiaztatzeko. Neurri horiek hartu eta aplikatzean langilearen giza duintasunari zor zaion begirunea zainduko da, eta, hala denean, langile urrituen benetako gaitasuna hartuko da kontuan.*

[10c] ES incapacidad

EU ezgaitasuna

Lege-testua:

LE.49.1.g)es: *Por muerte, jubilación en los casos previstos en el régimen correspondiente de la Seguridad Social, o incapacidad del empresario, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 44, o por extinción de la personalidad jurídica del contratante.*

Euskaratze-bidea:

LE.49.1.g)eu: *Enpresaburuaren heriotzarengatik, jubilazioarengatik, Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko araubidean ezarritako kasuetan, edo ezgaitasunarengatik, 44. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, edo kontratugilearen nortasun juridikoa azkentzeagatik.*

[10d] ES ineptitud

EU trebetasunik eza

Lege-testua:

LE.39.3es: *... No cabrá invocar las causas de despido objetivo de ineptitud sobrevenida o de falta de adaptación en los supuestos de realización de funciones distintas de las habituales como consecuencia de la movilidad funcional.*

Euskaratze-bidea:

LE.39.3eu: *... Mugigarritasun funtzionalaren ondorioz ohi-koak ez diren eginkizunak gauzatzen direnean, ezin izango dira alegatu kaleratze objektiboaren arrazoi diren gertatze bidezko trebetasunik eza edo moldatzerik eza.*

[10e] ES invalidez

EU baliaezintasuna

Lege-testua:

LE.48.2es: *En el supuesto de incapacidad temporal, producida la extinción de esta situación con declaración de invalidez permanente en los grados de incapacidad permanente total para la profesión habitual, absoluta para todo trabajo o gran invalidez,*

cuando, a juicio del órgano de calificación, la situación de incapacidad del trabajador vaya a ser previsiblemente objeto de revisión por mejoría que permita su reincorporación al puesto de trabajo, subsistirá la suspensión de la relación laboral, con reserva del puesto de trabajo, durante un período de dos años a contar desde la fecha de la resolución por la que se declare la invalidez permanente.

Euskaratze-bidea:

LE.48.2eu: Aldi baterako ezgaitasun kasuetan, egoera hori baliaezintasun iraunkorra adierazita azkentzen denean, ohiko lanbiderako ezgaitasun iraunkor osoarekin, edozein lanetarako erabateko ezgaitasun iraunkorarekin edo baliaezintasun handiarekin, kalifikazio-organoak uste badu langilearen ezgaitasun-egoera hobekuntzarengatik berrikusi eta langilea lanpostuan berriro lanean hasiko dela, lan-harremanek etenda jarraituko dute, eta lanpostua bi urtean erresebatuko da, ezgaitasun iraunkorra adierazten duen ebazpena eman denetik zenbatzen hasita.

[10f] ES minusvalía

EU minusbaliotasuna

Lege-testua:

LE.11.2.c)es: ... sin que, en ningún caso, la duración mínima pueda ser inferior a seis meses ni la máxima superior a tres años, o a cuatro años cuando el contrato se concierte con una persona minusválida, teniendo en cuenta el tipo o grado de minusvalía y las características del proceso formativo a realizar.

Euskaratze-bidea:

LE.11.2.c)eu: ... Edozelan ere, kontratuaren gutxieneko iraupena ezin da izan sei hilabetetik beherakoa, eta kontratuaren gehieneko iraupena ezin da izan hiru urtetik gorakoa, edo lau urtetik gorakoa, kontratua minusbaliatu batekin egin denean, minusbaliotasun-mota edo -gradua eta gauzatu beharreko prestakuntza-prozesuaren ezaugarriak kontuan hartuta.

6. BERBATEGIA: EUSKARA-GAZTELANIA

Aipamena	<i>Mención</i>	8d
Antikresia	<i>Anticresis</i>	6.6s
Artikulua	<i>Artículo</i>	2f
Atala	<i>Sección</i>	2d
Atzera-eskuratze jentilizioaz	<i>Retracto gentilicio</i>	6.5r
Atzera-eskuratzea	<i>Retracto</i>	6.4o
Azalera-eskubidea	<i>Derecho de superficie</i>	6.2i
Azpiatala	<i>Subsección</i>	2e
Bahia	<i>Prenda</i>	6.6t
Baliaezintasuna	<i>Invalidez</i>	10e
Barrutia	<i>Partido</i>	4c
Bazkalekua	<i>Corraliza</i>	6.3j
Bereiztea	<i>Segregación</i>	7d
Bide-zorra	<i>Servidumbre de paso</i>	6.2g
Birjartze-errekurtsoa	<i>Recurso de reposición</i>	5d
Biztantzeko eskubidea	<i>Derecho de habitación</i>	6.2e
Desgaitasuna	<i>Discapacidad</i>	10a
Distritoa	<i>Distrito</i>	4b
Elkartzea	<i>Agrupación</i>	7b
Erabiltzeko eskubidea	<i>Derecho de uso</i>	6.2d
Eranstea	<i>Agregación</i>	7a
Eroslehentasuna	<i>Tanteo</i>	6.4ñ
Ezereztea	<i>Cancelación</i>	8b
Ezgaitasuna	<i>Incapacidad</i>	10c
Familia Liburua	<i>Libro de Familia</i>	9a
Fazeria	<i>Facería</i>	6.3k
Gizabanakoa	<i>Individuo</i>	3a
Gizakia	<i>Ser humano</i>	3d
Gora jotzeko errekurtsua	<i>Recurso de apelación</i>	5a
Gozamena	<i>Usufructo</i>	6.2c
Grazia bidezko atzera-eskuratzea	<i>Retracto gracioso</i>	6.5q
Hipoteka	<i>Hipoteca</i>	6.6u
Idatz-zatia	<i>Letra</i>	2i
Idatzoharra	<i>Anotación</i>	8a
Inskripzioa	<i>Inscripción</i>	8c
Inskripzio Liburua	<i>Libro de Incripciones</i>	9b
Iralekua	<i>Helechal</i>	6.3l

Isilpeko Ezkontzen Liburua	<i>Libro de Matrimonios</i>	
	<i>Secretos</i>	9c
Jabaria	<i>Dominio</i>	6.1b
Jabetza	<i>Propiedad</i>	6.1a
Kapitulua	<i>Capítulo</i>	3c
Kasazio-errekurtsoa	<i>Recurso de casación</i>	5b
Kexa-errekurtsoa	<i>Recurso de queja</i>	5c
Atzera-eskuratzea	<i>Retracto</i>	6.4o
Kanpoko auzotasuna	<i>Vecindad forana</i>	6.3n
Kontzeju-jabaria	<i>Dominio concellar</i>	6.3m
Langileria eta Bulego Liburua	<i>Libro de Personal y Oficina</i>	9d
Legearen intereserako errekurtsoa	<i>Recurso en interés de ley</i>	5e
Lerrokada	<i>Párrafo</i>	2h
Liburu Egunkaria	<i>Libro Diario</i>	9e
Liburua	<i>Libro</i>	2a
Minusbaliotasuna	<i>Minusvalía</i>	10f
Mugapea	<i>Circunscripción</i>	4a
Orri-bazterreko oharra	<i>Nota marginal</i>	8e
Paragrafoa	<i>Apartado</i>	2g
Pertsona	<i>Persona</i>	3c
Prozesuko arau-haustearen ondoriozko errekurtso berezia	<i>Recurso extraordinario por infracción procesal</i>	5f
Saka-eskubidea	<i>Saca foral</i>	6.5p
Subjektu pribatua	<i>Particular</i>	3b
Titulua	<i>Título</i>	2b
Trebetasunik eza	<i>Ineptitud</i>	10d
Udalerrria	<i>Término municipal</i>	4d
Urritasuna	<i>Disminución</i>	10b
Zatitzea	<i>División</i>	7c
Zentsua	<i>Censo</i>	6.2h
Zortasuna	<i>Servidumbre</i>	6.2f

7. BERBATEGIA: GAZTELANIA-EUSKARA

Agregación	<i>Eranstea</i>	7a
Agrupación	<i>Elkartzea</i>	7b
Anotación	<i>Idatzoharra</i>	8a
Anticresis	<i>Antikresia</i>	6.6s
Apartado	<i>Paragrafoa</i>	2g
Artículo	<i>Artikulua</i>	2f
Cancelación	<i>Ezereztea</i>	8b
Capítulo	<i>Kapitulua</i>	3c
Censo	<i>Zentsua</i>	6.2h
Circunscripción	<i>Mugapea</i>	4a
Corraliza	<i>Bazkalekua</i>	6.3j
Derecho de habitación	<i>Biztantzeko eskubidea</i>	6.2e
Derecho de superficie	<i>Azalera-eskubidea</i>	6.2i
Derecho de uso	<i>Erabiltzeko eskubidea</i>	6.2d
Discapacidad	<i>Desgaitasuna</i>	10a
Disminución	<i>Urritasuna</i>	10b
Distrito	<i>Distritoa</i>	4b
División	<i>Zatitzea</i>	7c
Dominio	<i>Jabaria</i>	6.1b
Dominio concellar	<i>Kontzeju-jabaria</i>	6.3m
Facería	<i>Fazeria</i>	6.3k
Helechal	<i>Iralekua</i>	6.3l
Hipoteca	<i>Hipoteka</i>	6.6u
Incapacidad	<i>Ezgaitasuna</i>	10c
Individuo	<i>Gizabanakoa</i>	3a
Ineptitud	<i>Trebetasunik eza</i>	10d
Inscripción	<i>Inskripzioa</i>	8c
Invalidez	<i>Baliaezintasuna</i>	10e
Letra	<i>Idatz-zatia</i>	2i
Libro	<i>Liburua</i>	2a
Libro de Familia	<i>Familia Liburua</i>	9a
Libro de Inscripciones	<i>Inskripzio Liburua</i>	9b
Libro de Matrimonios Secretos	<i>Isilpeko Ezkontzen Liburua</i>	9c
Libro de Personal y Oficina	<i>Langileria eta Bulego Liburua</i>	9d

Libro Diario	<i>Liburu Egunkaria</i>	9e
Mención	<i>Aipamena</i>	8d
Minusvalía	<i>Minusbaliotasuna</i>	10f
Nota marginal	<i>Orri-bazterreko oharra</i>	8e
Párrafo	<i>Lerrokada</i>	2h
Particular	<i>Subjektu pribatua</i>	3b
Partido	<i>Barrutia</i>	4c
Persona	<i>Pertsona</i>	3c
Prenda	<i>Bahia</i>	6.6t
Propiedad	<i>Jabetza</i>	6.1a
Recurso de apelación	<i>Gora jotzeko errekurtoa</i>	5a
Recurso de casación	<i>Kasazio-errekurtoa</i>	5b
Recurso de queja	<i>Kexa-errekurtoa</i>	5c
Recurso de reposición	<i>Birjartze-errekurtoa</i>	5d
Recurso en interés de ley	<i>Legearen intereserako errekurtoa</i>	5e
Recurso extraordinario por infracción procesal	<i>Prozesuko arau-haustearen ondoriozko errekurtoa</i>	
	<i>berezia</i>	5f
Retracto	<i>Atzera-eskuratzea</i>	6.4o
Retracto gentilicio	<i>Atzera-eskuratze jentilizioa</i>	6.5r
Retracto gracioso	<i>Grazia bidezko atzera-eskuratzea</i>	6.5q
Saca foral	<i>Saka-eskubidea</i>	6.5p
Sección	<i>Atala</i>	2d
Segregación	<i>Berezitea</i>	7d
Ser humano	<i>Gizakia</i>	3d
Servidumbre	<i>Zortasuna</i>	6.2f
Servidumbre de paso	<i>Bide-zorra</i>	6.2g
Subsección	<i>Azpiatala</i>	2e
Tanteo	<i>Eroslehentasuna</i>	6.4ñ
Término municipal	<i>Udalerría</i>	4d
Título	<i>Titulua</i>	2b
Usufructo	<i>Gozamena</i>	6.2c
Vecindad forana	<i>Kanpoko auzotasuna</i>	6.3n

8. BIBLIOGRAFIA

a) Liburuak

- AGUILAR, L. (2001). *Lexicología y terminología aplicadas a la traducción. Curso práctico de introducción*. Materials, 106. Universitat Autònoma de Barcelona. SERvei de Publicacions. Departament de Filologia Espanyola. Vigo. 396 or.
- AIERBE MENDIZABAL, A. (2007). “Las unidades fraseológicas eventivas del lenguaje administrativo español y su traducción a la lengua española”. *Interculturalidad y lenguaje 2. Identidad cultural y pluralidad lingüística*. Granada Lingvistica. Serie Collectae. Granada. 13.etik 23.erako orr.
- ALCARAZ VARÓ, E., MATEO MARTÍNEZ, J., YUS RAMOS, F. (1990). *Las lenguas profesionales y académicas*. Ariel Lenguas Modernas. IULMA. Bartzelona. 325 or.
- BORJA ALBI, A. (2007). “Los géneros jurídicos”. *Las lenguas profesionales y académicas*. Ariel Lenguas Modernas. Ariel eta Institut Interuniversitari de Llengües Modernes Aplicades de la Comunitat Valenciana. Bartzelona. 141.etik 153.erako orr.
- BRUMME, J. (2001). *La historia de los lenguajes iberrománicos de especialidad (La divulgación de la ciencia)*. Institut Universitari de Lingüística Aplicada. Universitat Pompeu Fabra. Bartzelona. 361 or.
- CAMPOS PARDILLOS, M.A. (2007). “El lenguaje de las ciencias jurídicas: nuevos retos y nuevas visiones”. *Las lenguas profesionales y académicas*. Ariel Lenguas Modernas. Ariel eta Institut Interuniversitari de Llengües Modernes Aplicades de la Comunitat Valenciana. Bartzelona. 155.etik 165.erako orr.
- CAMPOS PLAZA, N. A., CANTERA ORTIZ DE URBINA, J., ORTEGA ARJONILLA, E. (2005). *Diccionario jurídico-económico (español-francés / francés-español)*. Comares. Granada. 424 or.
- CAO, D. (2007). *Translating law*. Multilingual Matters LTD. Topics in translation, 33. Toronto. 189 or.

- DORTA, J., CORRALES, C. CORBELLA, D. (2007). *Historiografía de la lingüística en el ámbito hispánico. Fundamentos epistemológicos y metodológicos*. Arco Libros. Madril. 611 or.
- GÉMAR, J-C., HO-THUY, V. (1997). *Difficultés du langage du droit au Canada*. Les éditions Yvon Blais Inc. Quebec. 2. argitaraldia. 282 or.
- GÓMEZ GUINOVART, X., TORRES PADÍN, A. (2004). *Vocabulario xurídico-administrativo galego-castelán*. Universidade de Vigo. Vigo. 539 or.
- GONZÁLEZ-MENESES, M. (2007). *Cómo hacer dictámenes (Ensayo sobre la formación del jurista)*. Colegio Notarial de Madrid. Madril. 225 or.
- GROFFIER, E., REED, D. (2007). *La lexicographie juridique. Principes et méthodes*. Les éditions Yvon Blais Inc. Quebec. 151 or.
- HAENSCH, G., WOLF, L., ETTINGER, S., WERNER, R. (1982). *La lexicografía (De la lingüística teórica a la lexicografía práctica)*. Gredos. Madril. 563 or.
- HENRÍQUEZ SALIDO, M. do (2005). *Para una historia de la lengua de la ciencia: el vocabulario jurídico en el Tesoro de Covarrubias*. Revista Portuguesa de Humanidades. 9. liburukia. 1/2. Faculdade de Filosofia da U.C.P. Braga. 115 or.
- HERNANDO CUADRADO, L. A. (2003). *El lenguaje jurídico*. Serie español práctico. Editorial Berbum. Madril. 143 or.
- HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA. EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA SAILA (2002). *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 63 or.
- MARTÍNEZ MOTOS, R. (2006). “La traducción de términos del derecho de sucesiones: asimetría cultural y búsqueda de equivalentes”. *Terminología y derecho: complejidad de la comunicación multilingüe (V Simposio Internacional de Terminología)*. Institut Universitari de Lingüística Aplicada. Universitat Pompeu Fabra. Serie Activitats, 18. Bartzelona. 217.etik 231.erako orr.

- MOREL SANTASUSAGNA, J. (2001). “Observacions sobre la divulgació del coneixement especialitzat a propòsit del dret de família”. *La historia de los lenguajes iberorrománicos de especialidad. La divulgación de la ciencia*. Vervuert-Iberoamericana. Madril. 295.etik 307.erako orr.
- OBSERVATORI DE NEOLOGIA. INSTITUT UNIVERSITARI DE LINGÜÍSTICA APLICADA. UNIVERSITAT POMPEU FABRA (2004). *Llengua catalana i neologia (Part I. La creació lèxica en català. Part. II. Recull de neologismes)*. Meteora. Bartzelona. 399 or.
- OSSORIO MORALES, J. (1956). *Lecciones de derecho civil (Obligaciones y contratos)*. Editorial Prieto. Granada. 304 or.
- OTAOLA OLANO, C. (2004). *Lexicología y semántica léxica (Teoría y aplicación a la Lengua Española)*. Ediciones Académicas, S.A. Madril. 435 or.
- ROBLES MORCHÓN, G. (2006). *El derecho como texto (Cuatro estudios de teoría comunicacional del Derecho)*. Thomson - Civitas. Iruñea. Bigarren argitaraldia. 239 or.
- ROBLES MORCHÓN, G. (2007). *Pluralismo jurídico y relaciones intersistémicas (Ensayo de teoría comunicacional del Derecho)*. Thomson - Civitas. Iruñea. 250 or.
- SALGADO, M. B. (2007). *Lexique bilingue de termes juridiques (français-espagnol)*. Ellipses. Paris. 328 or.
- TABARES PLASENCIA, E. (2004). “Estudio de la formación de palabras en el ámbito del derecho civil español”. *Léxico especializado y comunicación interlingüística (VI Congreso Internacional de Lingüística Hispánica. Leipzig, del 8 al 12 de octubre de 2003)*. Granada Lingvistica. Serie Collectae. Granada. 159.etik 175.erako orr.
- THIRY, B. (2005). *Diccionario jurídico. Terminología de la responsabilidad civil (español-francés / francés-español)*. Comares. Granada. 424 or.
- TORRENT, J. (2006). “El lèxic en la traducció jurídica”. *III Seminari de Correcció de Textos (La terminologia i la cor-*

recció de textos). Institut d'Estudis Catalans. Bartzelona. 117.etik 125.erako orr.

UGARTEBURU GASTAÑARES, I. (2003). "Lexicografía especializada en lengua vasca". *Aproximaciones al lenguaje de la ciencia*. Instituto castellano y leonés de la lengua. Colección Beltenebros, 1. zk. Burgos. 465.etik 497.erako orr.

ZABALA, I., MARTÍNEZ, M., ELORDUI, A. (2006). "La variación terminológica en contextos sociolingüísticos minorizados: el caso de la lengua vasca". *La terminología en el siglo XXI. Contribución a al cultura de la paz, la diversidad y la sostenibilidad (Actas del IX Simposio Iberoamericano de Terminología RITERM04)*. Institut Universitari de Lingüística Aplicada. Universitat Pompeu Fabra. Serie Activitats, 17. Bartzelona. 837.etik 850.erako orr.

ZENBAIT AUTORE (2005). *Novas palabras galegas. Repertorio de creacions léxicas rexistradas na prensa e internet*. Observatorio de Neoloxía da Universidades de Vigo. Área de Normalización Lingüística da Universidades de Vigo. Bellaterra. 86 or.

b) Lege-testuak

Erregistro Zibilaren Legea eta Erregelamendua / Ley y Reglamento del Registro Civil (2004). Deustuko Unibertsitatea. Bilbo. 492 or.

Foru-lege zibilak / Leyes civiles forales (2005). Deustuko Unibertsitatea. Bigarren argitaraldia. Bilbo. 620 or.

Hipoteka-legeria / Legislación hipotecaria (2005). Deustuko Unibertsitatea. Bilbo. 880 or.

Kode Zibila / Código Civil (2007). Deustuko Unibertsitatea. Bigarren argitaraldia. Bilbo. 2281 or.

Lan-zuzenbideko legeria / Legislación de Derecho laboral (2006). Deustuko Unibertsitatea. Bilbo. 700 or.

Prozedura Kriminalaren Legea / Ley de Enjuiciamiento Criminal
(2006). Deustuko Unibertsitatea. Bilbo. 760 or.

Prozedura Zibilaren Legea / Ley de Enjuiciamiento Civil (2004).
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo. 1138 or.

Zuzenbide politikoaren legeria / Legislación de Derecho político
(2007). Deustuko Unibertsitatea. Bilbo. 657 or.

c) Internet

www.iev.deusto.es

Andres Urrutia

Esther Urrutia

EUSKARAREN ARRASTOAK

NAFARROAKO FORU

OROKORREAN

Zalantza gutxi dago Euskal Herriko Erdi Aroko nekazal mundua hein handi batean euskal hiztuna zela. Dena den, Arabako eta Nafarroako hegoaldean, Errioxan, eta Aragoi IX. mende aldera hizkuntzalariek “errioxar-nafar-aragoiera” deri-tzoten hizkera neolatinoa sortzen ari zen. Iruñeko Erresuman latinaren tokia laister hartuko zuen “nafar erromantze” berri honek, eta errege administrazioko dokumentu, tratatu eta legerietan gero eta maizago ikusiko dugu. Geroxeago, XI. gizalditik aurrera, beste mintzaira batzuk ere agertuko dira: Donejakue bidetik barrena okzitanieraren familiako hizkuntzak zabaltzen hasi ziren, eta nafar erregeek “franko” izeneko gizataldeoi kantauriar itsas portuetan finka zitezten pribilegioak eman zizkieten tokiko foruen bidez. Notario lanetan, merkataritzan eta kantzelergoetan ere aritzen ziren, aurki jatorrizko biztanleriaren artetik gailenduz, ofizio horietan euren hizkuntza latinoa nagusituz joan zelarik.

Arestian azaldu egoera sozio-linguistiko konplexuaren adibidetzat har dezakegu XIII. mendean zehar izkiriaturako Nafarroako *Foru Orokorra* (FO). Champagne etxeko konde eta Nafarroako errege Teobaldo edo Thibaut I.aren erregealdian (1234-1253) hasi zen erredaktaketa, eta nafar erromantzean dago idatzita. Hala eta guztiz ere, euskal hitz eta adierazpidez josita azaltzen zaigu testua, eta hurrengo lerroetan beroien azterketa sakonago bat eginen dugu. Horretarako, gaiari buruz dagoen bibliografia osoa erabili gabe, Manex Goyhenetche zen-

duaren *Euskal Herriko Historia Orokorra* zoragarriaz baliatuko gara¹.

Euskal hitzak “petxa” edo zergei buruz aritzean azaltzen dira gehien FON. Hona hitzen adibide batzuk aurrerapen moduan (geroago osoki transkribatuko ditugu): *azaguerrico*, *guirisellu zorr*, *illumbe zorr*, *opilarinzada*, *errivide* edo *erret bide*, *on bazendu avaria*, *ozterate*, *ones berme* eta *gaizes berme*. Hitz askoren adierak egun oso ilunak dirudite, baina orduko gizartean izan bazuten beren esangura juridikoa, iraganeko gizarte errealitatearen irudiko.

Euskarazko hitzen pasarteak erakutsi aurretik, finka dezagun XIII. mendeko gizarte testuingurua. Erdi Aroko Nafarroako gizartea hiru estamentu edo Estatutan bereizita zegoen, eta Gorteetan XIX. menderaino islatuko zen egoera hori: goi-mailako noblezia, Eliza eta ordezkariak onartua zeukaten “*villa on*”-etako burges-hiritarrak ziren estamentuok. Zatiketa sozial honek berezko ondorio juridikorik bazekarren, horien artean Justizia administrazio eta zerga trataera ezberdinak genituzke.

Piramidearen goialdeko erpinean erregearen inguruko familia boteretsuak zeuden (hala nola Rada, Aibar, Alfaro, Janiz, Leet edo Baztan familiak), baroi edo *ricosombres* ere zeritzotenak. Eliz karguek bezala pribilegio fiskal eta juridikoak profitatzen zituzten, maila behezagoko militar-zaldunek bezalaxe. Nobleziaren maila apalenean inongo kargu politiko nahiz militarrik ez zeukaten aitoren semeak ere baziren (*hidalgo* edo *infanzón* ere deituak): lur zati baten jabe, nekazari askeen moduan jarduten zuten, baina zergarik ordaindu gabe, edo eta soilik zati batez arduratu behar ziren (azken hauek *yfanzones de avarqua* izena zuten). Bukatzeko, aipatzekoa da hiribilduetako frankoek abantaila fiskal ugariz gozatzen zutela eta pribilegio nahiz frankizia aunitz zituztela: berbarako, hiri barruan zergarik ez ordaintzea edo eta hiri inguruko errota dohainik erabiltzea edota euren ekimenez beroiek erakitze baimena edukitzea.

¹ GOYHENETCHE, Manex: *Historia general del País Vasco. Prehistoria-Época Romana-Edad Media*. 1. liburukia. Donostia: Txartalo Argit., 1999; 350-355, 362, 363, 365-373, 417 eta 418. or.

Nork bada ordaintzen zituen zergak? Petxarik gehienak aitoren seme ez ziren nekazari soilek ordaintzen zituzten. Nekazari hauek dokumentuetan *pechero*, *labrador*, edo eta *villano* izenaz ere ezagutzen ziren. Lantzen zituzten lurretan maizter, urtero-urtero *pecha*, *peyta* edo *cens* izeneko tributua ordaindu behar izaten zuten dirutan ala garau-aletan. Zein lurjaberen pean egon, halako estatus juridikoa zuten: errege lurretan zihardutenek *pechero de realengokoak* ziren, jaun laiko baten menpean, aldiz, *de solariego*, eta Elizaren orden bati loturikoak baziren *de ordenekoak*. Goi Erdi Arotik Behe Erdi Arora nekazarien estatus pertsonala zertxobait hobetu egin zen: X. eta XI. mendeko *mesquino* edo *collazo* nekazari-morroiak ez bezala, XIII-XV. mendeko maizter-errentariak beren lurretatik aske geratu ziren, eta aurrerantzean beren jaunen jarautsitik kanpo zeuden.

Antso Jakintsuak hainbat erreforma burutu zuen zerga-sisteman, aipatutako *cens* edo petxa zerga nagusi bihurtuz. Nafarroako FO historikoan beste hainbat zerga mota azaltzen dira, horietariko batzuk beren euskal sinonimoarekin. FOren III. Liburua ondorengo tituluez osatuta dago: I. Titulua: *De eglesia*; II. Titulua: *De diezmas*; III. Titulua: *De los acusados por vill*; IV. Titulua: *De zenas de pechas et de los solarigos (solariegos)*; V. Titulua: *De los villanos del rey et de los monasterios*; VI. Titulua: *De yfanzones de avarqua*; VII. Titulua: *De pechas que han ciertos nombres*; VIII. Titulua: *De llos escusados de pecho*.

Segidan zerga izen batzuen esanahia argituko dugu:

On bazendu avaria (afaria) edo *zena* (gazteleraz *albergada* edo *cena del rey*): Nafarroa eta Aragoi erregearen janari-horniduretarako zerga zen.

Opilarinzada edo *salvetat* (gazt. *cena de salvedad*): aur-rekoaren antzekoa, baina erregeari beharrea *ricohombre* edo jauntxo/nagusiari ordaintzen zitzaion bere otorduen horniketarako.

Peyta de fonsadera edo **ozterate**: gudarosteetan engaiatzea eragozteko hiribilduen harresi eta hobien lanetarako ordaintzen zen zerga.

Pecha de basto, escanzianos edo *escanciana*: bidean zeuden gudarosteei hornidurak ematea.

Semana peon, labor edo *facendera*: astero behin lan zehatz bat egiteko betebeharra.

Pecha de conditura: zerbitzu batzuen derrigorrezko prestazioa.

Pecha de pierga, pecha azaguerrico: mendi-larreak erabiltzeagatik zerga (*herbazgo* edo *herbadgo* ere deitua, baso-ustiaketa ere sartzen zen).

Montazgo: mendietatik zehar artaldeak igarotzeko bidesaria.

Pecha de crisuello y de escyrayna, euskaraz **guirisellu zorr** eta **illumbe zorr**: beren esangura ez da argia, baina gaueko jarduera bategatiko petxak dirudite.

Novena: lurjabeari uztaren bederatzirena eman behar zitzaion.

Lezda y portazgo: merkatugaien zirkulazio eta salmenten-gatiko tasa.

Zerrendatutako petxez gain erret Ogasuneko beste zerga garrantzitsu batzuk ere egon bazeuden: *monedage*: erregeak moneta-haustea egiteko zerga berezia; *quarteres*: hiruhileko zerga-ordainketak; eta “ezohizko laguntzak”: Evreuxdar Karlos II. Gaiztoaren kanpaina militarretarako aitzakiarekin hasi ziren, Normandiako gerra eta Albaniako konkistaren kariaz.

Jarraian FOn euskaraz agertzen diren hitzen pasarteak transkribatiko ditugu. Jatorrizko nafar erromantzearen ortografia errespetatzeaz gain 1528an idatzitako *Foru Laburtuarekin* (FL) erkaketa eginen dugu. Jabetuko gara FLn testua nafar erromantzetik XVI. mendeko gaztelerara itzuli egiten dela eta... euskal hitzak “ahaztu” egiten direla:

*FO 1, 2, 2: «[...] et si en la villa fueren solarigos, unos et otros, cada uno deyllos quoantas **opilarinzadas** han, tantas cargas deven tair».

FL 1, 3, 2: «Y si la villa fuere de un solariego, puede el solariego cortar quando el ricohombre y el prestamero».

*FO 3, 4, 6: «tierras ha que no han vivo: o vino no han, deven dar por la **opilarinzada** XVI dineros».

FL 1, 11, 5 «el solariego debe hacer la torta de un quartal de arina y un quarton de vino sin el rey».

*FO 3, 5, 8: «Quoando algun prelado se levanta de nuevo, los villanos deven dar al primer ayngo que se levanta una zena pora en todo su tiempo, por recognoscienca de seynor. Esta zena **es clamada en los bascongados on bazendu avaria**».

FL 1, 11, 7: «quando algun perlado lebandan de nuevo, los villanos deben dar en el año primero que lo levantan, una çena para toda su vida, porque lo reconoçen por señor».

*FO 3, 7, 2: «quoando es la pecha que es clamada **aza-guerrico**. Ay una pecha que es clamada **açaguerrico en basquenz**; aqueylla pecha deve ser quoanto un omne puede levar en el ombro; et esta peita se debe dar como an acostumbrado de dar en aqueyllas comarcas o dan esta peyta en aquel tiempo, como han usado». [Pasarte hau ez dago FLn bilduta.]

*FO 3, 7, 4: «ay otra pecha que es clamada alfonsadera, **en basquenz ozterate**: en logares pechan por eylla dos rovos de trigo et dos de avena, en logares mas, y en logares menos, et estas pechas se dan en logares en hueyll de glesia, en logares en la cayll **que dize el bascongado erret bide**».

FL 1, 11, 9: «deben los villanos de rey por fonsadera, sendos cafiçes de ordio, y sendas concas de vino y seis robos de auena rasos».

*FO 3, 7, 7: «Quoal pecha es clamada de escurayna et de crisuelo. Ay otra peita que es clamada pecha de crisuelo, otra pecha descurayna; porque estos pecheros pechan de noche la pecha, son clamados **en basquenz** la una peyta **guirisellu zorr**, et la otra **illumbe zorr**, et estos pecheros atales tienense por ynfanzones et son villanos». [Pasarte hau ez dago FLn bilduta.]

*FO 3, 21, 1: «De casa deven yr á la veylla o el **echaiaun** ó ela **echandra**, et si non vinieren seyendo sano, deve calonia². Al alva, los varones pueden yr á sacar ganados, et las **echandras** deven veyllar el cuerpo». [Pasarte hau ez dago FLn bilduta.]

*FO 5, 1, 10: «Qué calonia qui fiere á villana. Villana casada de Rey ó de órden, qui la fiere, si tocas cayeren en tierra, deve LX sueldos de calonia, que es dicha **daucari**, si non se salvare, como fuero es. Si ninguno fiere á villana non casada por sayna, como dicho es de suso, si non se salvare ha V sueldos de calonia». [Pasarte hau ez dago FLn bilduta.]

*FO 5, 2, 7: «Et **por tal ferme dize el navarro gayzes berme**³. Esto feyto viengan entranbas las partidas al cimiterio. Esto feyto el qui ha á prender dreyto dé ferme ad aqueill que ha á iurar, prendiendo la iura que nunca li faga mal ni embargo, ni en su cuerpo, ni en sus cosas por esta enemiztad. Otrossi, el qui iura dé ferme al prendedor que nunca li faga mal ni embargo en el cuerpo, ni en sus cosas por esta enemiztad, **donde dize el navarro ones berme**». [Pasarte hau ez dago FLn bilduta.]

*FO 6, 2, 6-7: «Que calonia ha qui corta en mont vedado. Ay montes en Navarra que son vedados de los vecinos que ninguno non taie árbol nin rama, nin cuyllan fructo ninguno sin mandamiento de los vezinos: et si en estos montes atales alguno taylla árbol, ha por calonia II cáfices de ordio ó café de trigo et una quarta de vino, et II sueldos et meyo por el carnero. Esta calonia

² Naf. err. *calonia*, gatz. *caloña*: diruzko zigorra delitu edo falta batengatik.

³ *Ones berme* eta *gayzes berme* fidantza bat egiteko modu ezberdinak lirateke.

es clamada **gauqua aari**. Et si taia rama pague un robo de ordio: por el fruyto, la colonia que pagan los vezinos entre si.

Que colonia ha qui corta árbol por rayz en montes vedados. Si alguno taia árbol por rayz en los montes vedados, es la colonia I cafiz de trigo, una quoarta de vino, I carnero quoyal el fuero manda; esta colonia es clamada **gauca aari**.»

FL 5, 4, 7: «Que colonia tiene el que corta por rayz o por árbol en monte vedado. Si alguno corta arbol de rayz o por el pie en los montes vedados sin consentimiento de los vezinos o de señor del monte, debe pagar de colonia vn cafiz de trigo y quatro cantaros de vino, y vn carnero y por cortar rama debe pagar un robo de ordio, y por el fruto debe pagar la colonia que esta puesta por los vezinos si el monte fuere de lo vezinos, y si el monte fuere del señor particular, demas de pagar la colonia enmiende el daño al señor a tasacion de las personas».

Nafarroako Unibertsitateko Carmen Saralegui Platero irakasleak esaten duen bezala, FOn agertzen ziren euskal hitzak ez dira sekula ere FLra igarotzen. Batzuetan hori gertatzen da pasarte eta kapitulu osoak desagertzen direlako; FL FOren laburpena delako-edo normaltzat eta logikotzat har genezake gertaera hori, baina hainbat kasutan ikus dezakegu hizkuntz ordezkapena nahita burutu dela: nafar erromantzetik gaztelerara itzultzean esaldiak eta testuinguruak berriro eraikitzen dira, kontu handiarekin euskal hitzak aipatu gabe.

Tomás Urzainqui Mina historialari eta abokatuaren iritzian ondorio garbi bat atera dezakegu: hizkuntz ordezkapena egiteko moduak argiro erakusten du FLren idazleak bazekiela euskal hitzoren esanguraz, eta “euskal kutsuko” elementuok ezkutatzeke asmoa eduki zuela⁴. Testuinguru historikoan kokatzen badugu, jabetuko gara Nafarroaren konkistaz gerotiko Gorte eratuen emaitza izan

⁴ URZAINQUI MINA, Tomás: *Navarra Estado europeo*. Iruñea: Pamiela, 2003; 180, 423-425. or.

zela *Foru Laburtua*. Haatik, FLk ez zuen inoiz ere ukan Espainiako errege-erreginen onespelik, ezta ez zen inoiz ere inprimatu. Ondorioz, ez zuen sekula ere indarraldirik izan obra honek, nahiz eta Nafarroako Gorteek 1530 eta 1532. urtean eta hurrengoetan hala galdegin 1628ra arte⁵.

Eztebe Gonzalez

⁵ TOMÁS Y VALIENTE, Francisco: *Espainiako zuzenbide-historiaren eskuliburua*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2003; 321. or.

“LANGILLIENTZAT ZARTZARO- LEGEA” ETA BESTE. GREGORIO MUJIKAREN LANAK GIZARTE-LAGUNTZAZ

1. EUSKARAZKO TESTU BATZUEN AURKEZPENA

1.1. Euskarazko testuak

Lehengo egunean lagun batek esan zidan erosi berria zuen liburu batean (*Gizonak & Lanak. Bibliofiliako lanen bilduma*, 5. zk.) berrargitaratzen zela, besteak beste, *Bibliografia vasca* izeneko liburuxka, 1934koa, eta bertan –zuzenbideari buruzko atalean– berarrentzat ezezaguna zen euskarazko lan bat (bakarra) agertzen zela, hain zuzen, *Langillientzat Zartzaro-Legea* izenduna.

Hori dela eta, euskarazko testu hori Euskal Akademiaren Aldizkarira ekartzea pentsatu nuen, erraz eskuratzeko moduan egoteaz gain, testuari buruzko datu batzuk emateko (euskarazko testuaren ardura norena den azaltzeko, esaterako) eta aurrekoarekin oso lotuta dauden beste testu batzuk ere ezagutarazteko.

Beraz, hona ekarriko ditugun testuak lau dira:

a) *Langillientzat Zartzaro-Legea*¹, 1921. urteko euskara hutssezko liburuxka (artikulu honen abiaburu izan zena).

¹ Azalean hau guztia dator, Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren ikur baten azpian: *Langillientzat Zartzaro-Lege. Gipuzkoa'ko Aurrezkitegia'k argitaratutako idaztia. Utsean ematen da. 1921. Epailla. Donostia'n. Martín, Mena y Compañía'ren Etxean. Irudi batean azala ikus daiteke.*

b) *Alegra tu vejez / Zure zartzarora alaitu zazu*², bi urte ari-nagoko foileto elbiduna; liburuxka hau *Langillientzat Zartzaro-Legean* aipatu egiten da; hori dela eta, hona ekartzea ebatzi dugu; gaia ere antzekoa darabil.

c) *Zarren alde* izeneko testua; berez, orri soltea da³, herri-tarren artean banatzekoa, eta gaiaren aldetik aurrekoekin lotua dagoena; gainera, sasoi hartako euskarazko testugintzaren berri ematen du⁴.

d) *Langillientzat Zartzaro-Legea* izeneko prentsa-artikulu-a, hain zuzen, *Argia* aldizkariaren 1926ko maiatzaren 9ari dagokion alearen lehen orrialdean edo azalean argitaratua; zergatik aukeratu dugu prentsako artikulu hori? Aurreko bi liburuxken (a eta b) egilea zein den jakiteko balio duelako (aurrerago azalduko dugun moduan); gainera, euskal prentsan jorratzen ziren gai anitzak (eta horien artean, liburuxka bien gaia) ezagutzeko balio du; gai berberari buruz badira artikulu gehiago baina horixe aukeratu dugu⁵.

1.2. Nor da euskarazko testuen arduraduna?

Erantzun erreza du izenburuko galdera horrek: lau testuen (eta antzeko beste askoren) egilea Gregorio Mujika (edo Muxika; gaztelaniaz Múgica) da, idazle eta kultur gizona.

² Foiletoaren egile instituzionalak: *Instituto Nacional de Previsión* eta *Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa*; argitaratzailea, lekua eta data: ezezagunak; 17 zenbakidun orrialde ditu.

³ Orriarekin batera zihoan gutunean Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren zuzendariak honakoa zioen: «Tenemos el gusto de remitirle varios ejemplares impresos en vascuence y castellano, relativos a la concesión de pensiones a ancianos [...] Le agradeceremos que los entregue a aquellas personas que por sus condiciones estimara V. que podrían optar a las pensiones que se tratan de conceder».

⁴ Badira, orri solte modura, euskarazko testu gehiago testuan aipatzen diren erakunde horien inguruan (Gipuzkoako Aurrezki Kutxa eta Madrilgo Instituto Nacional de Previsión). Gainera, Gregorio Mujikak (testu hauen guztien itzultzailea dena) Gipuzkoako Aldundiaren testu administratiboak euskarara itzuli zituen 1918-1919 urte bitartean. Ikusi zazpigarren oin-oharra, bertan Gregorioren lan eta ekimenei buruz hitz egiten da eta.

⁵ Adibidez, Gregorio Mujikaren testuak *Argiako* ale hauetan: 1921eko uztailaren 17koan edota urte eta hil bereko 31koan.


Bi liburuxketan (*Langillientzat Zartzaro-Legea* eta *Zure zartzaroa alaitu zazu*) ez da ageri egileen izenik. Baina inolako dudarik gabe esan dezakegu euskarazko testuaren arduraduna Gregorio Mujika ospetsua dela⁶. Horretarako bi datu aipatzea nahikoa da:

a) Batetik, Mujikaren lanbidea kontuan hartu behar da; gipuzkoarra testuotan aipatzen den eremuko langilea izan zen; are gehiago, sasoi horretan *Delegado del Instituto Nacional de Previsión en la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa* kargua⁷ zuen eta hain justu *Alegra tu vejez / Zure zartzaroa alaitu zazu* izeneko foiletoan hurrengo irakur dezakegu: «Lan berri au arrotu ta astintzeko, zartzaroa nola arindu ta gozatu dezakezuten erakusteko, buru guztietara ta biotz guztietara gai onen argia ta sua eramateko, bi ordezkari izendatu ditugu: Gregorio Mujika ta Fidel M. Urbina jaunak. Biok ibiliko dira erriz-erri Gipuzkoa guzian egi alaigarri oek zabaltzen». Lan horretan, jakina, euskara erabili zuen Mujikak (ikus horren inguruan Gregorio Mujikaren hitzaldi baten iragarpena egiten duen kartelaren irudia aurrerago).

⁶ Testuan ez da aipatzen egilerik, ez erdarazko testuan ezta euskarazko itzulpenean, baina pentsatzekoa da jatorrizkoa gaztelaniazko testua dela eta euskarazkoa aurreko horren moldapena. Esan dugunez, euskarazko Gregorio Mujikak idatzi zuen; beraz, zalantza dugu erdarazkoaren egiletzan: Gregoriok berak beren-beregi prestatu zuen testua edo Espainiako argitalpen batetik hartu zuen testua? Ez dugu datu erabakigarririk aurkitu horren inguruan.

⁷ Esaterako, *Segundo Congreso de Estudios Vascos. Recopilación de los trabajos de dicho Congreso...* Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1920, 482. orr. Ikusi, baita ere, *La Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa en sus primeros cincuenta años. 1896-1946*, Industria Gráfica Valverde, Donostia, 1946; 88. orrialdean, 1917. urteari buruz: «En junio se firmó el convenio ampliado de gestión conjunta y reaseguro con el Instituto nacional de Previsión. De acuerdo con éste, se nombraron Delegados-Gestores, previo concurso, a los señores don Gregorio de Mújica y don Fidel M. Urbina, y se realizaron diversos actos de propaganda del seguro popular de vejez»; 89. orrialdean, 1918. urteari buruz: «En las actividades de la Caja se fué marcando con línea bien visible la actuación en el Seguro Social, intensificada por el convenio con el Instituto nacional de Previsión y por las consecuencias del mismo. Los Delegados-gestores hicieron una intensa labor de propaganda, oral y escrita». Azkenik, aipatzekoa da *Zurtasun gogoa* izeneko liburua; kasu honetan Gregoriok gaztelaniaz idatzi eta Nazario de Oleagak euskaratu zuen testua, haurtxoan artean aurrezkirako joera areagotzeko.

b) Bestetik, Gregorio Mujikak prentsan asko eta asko idatzi zuen. Orduko aldizkariak aztertuta, esaterako, *Argia*, *Langillientzat Zartzaro-Legea* izeneko foiletoak duen gaiari buruzko testuak topatu ahal ditugu; are gehiago, artikulua horietan foiletoaren ezaugarri linguistiko berdinak izateaz gain, foiletoaren pasarte osoak kopiatu egiten dira. Hortaz, artikulua horietako bat hona ekarriko dugu, aurretik iragarri dugun moduan (*Langillientzat Zartzaro-Legea* izeneko prentsa-artikulua, Gregorio Mujikaren *Jeme* izengoitiaz sinatua).



Gregorio Mujika

1.3. Testuen gaia

Testuen gaia zahartzaroko aseguru da⁸. Horren bidez, adin batera helduz gero, diru-kopuru bat jasotzeko aukera au-

⁸ Orduko giroa ezagutzeko Eusko Ikaskuntzaren Kongresuetan jasotakoa irakurri ahal da; lehen kongresuan Miguel Fernández Dans jaunaren “Cajas de Retiro y pensiones para la vejez” izeneko lana aurkeztu zen (*Primer Congreso de Estudios Vascos. Recopilación de los trabajos de dicha Asamblea...* Bilbaína de Artes Graficas, Bilbao, 1919, 103-143. orr.); bigarren kongresuari dagokionez, Jesús Rodríguez Villachicaren hitzaldia “Seguro de vejez e invalidez permanente. Seguro de supervivencia: viuded y orfandad” (*Segundo Congreso de Estudios Vascos. Recopilación de los trabajos de dicho Congreso...* Eusko Ikaskuntza,

AZKOITIAÑAK

Andres Deunaren egunean izango dirade itzaldiak dirua nola gorde bear dan ikasi dezazuten guziok. Etorriko da itzegitera gizon azkar, itzlari jatorra

Mugika'tar Gregorio

Gipuzkoako Mutualidadearen zuzentzailca

Berari aditzera guziok etorri.

KANTZELETARA

Goizean 11'tan ume eta gizaseme danak

Arratzaldean 5'tan ume eta emakumeak

ENTZUN ERITAÑAK, ETORI AZCOITIAÑAK ZARIAK

Izango dira umientzat zari azko, ondo portatu diranentzat astero bere dirua libretan jartzen

Gregorio Mujikaren sona eta lana adierazten duen kartela.

rreikusten da. Ideia hori Europan zabaldua bazegoen ere, Espainiako zuzenbidean ez zegoen halakorik, ez bada borondatezko aseguru baten bidez; baina 1919an zahartzaroko asegurua nahitaezkoa izateko lehen erabakia hartu zen Espainian; 1921ean, berriz, nahitaezkotasuna bete-betean ezarri zen. Lan horretan Gipuzkoako Aurrezki Kutxa lankidetzan aritu zen Estatuko erakundeekin.

Hiru testuetan zahartzaroko erretiroaren gaia jorratuta agertzen da testuei dagokien une desberdinetan:

a) 1919an derrigorrezko erretiroa asmatu zen; horretarako arau bat eman zen, 1919ko martxoaren 11ko Errege Dekretua, hain zuzen. Kontu hau aipatzen da liburuxka zaharrenean.

b) 1921ean derrigorrezko erretiroa martxan jarri zen; hori dela eta, 1921eko urtarrilaren 1eko Errege Dekretua⁹ eman zen. Errege Dekretu horren azalpena egiten da bigarren liburuxkan.

c) 1921etik aurrera sistemaren aplikazioa etorri zen; sistema apurka-apurka ezarri eta zabaldu zen; horretan Gipuzkoa oso aurreratua zegoela diote orduko testuek eta gaur egungo ikerketek; Gregorio Mujikaren euskarazko idazki eta artikuluek ziur asko lagunduko zuten.

Donostia, 1920, 422-439. orr. Kongresu horietan Gregorio Mujikak parte hartu zuen, jakina. Gaian sakontzeko, hainbat erreferentzia aipatu ahal dira, besteak beste, honakoa: Alexander Elu Teranen "Las primeras pensiones públicas de vejez en España. Un estudio del Retiro Obrero, 1909-1936", *Revista de Historia Industrial*, 32. zk., 2006, 33-68. orr.

⁹ Real decreto aprobando el Reglamento general que se inserta, para la aplicación del Real decreto de 11 de Marzo de 1919 sobre intensificación del régimen de retiros obreros; hemen argitaratu zen: *Gaceta de Madrid (orduko Estatuko Aldizkari Ofiziala)*, 2007-1-23, 23. zk., 262-270. orr.

2. TESTUEN TRANSKRIPZIOA

2.1. *Zure zartzarora alaitu zazu liburuxka (1919)*¹⁰

ALEGRA TU VEJEZ

Los seguros obreros

En momento oportuno, la Prensa diaria hizo pública la noticia de que se había firmado un importante convenio entre el *Instituto Nacional de Previsión* y la *Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa*. El hecho es realmente transcendental. Porque lo es en sí y porque puede tener muy felices consecuencias para la vida social de esta querida Provincia nuestra, desea la *Caja de Ahorros Provincial* difundirlo y agrandar todo lo posible en sus resultados, mediante éste y quizás otros llamamientos a las personas y organismos que puedan ser, que deben ser, eficaces colaboradores de nuestra obra.


Pero se hace preciso, antes que nada, destacar en breves palabras la personalidad de dicho *Instituto*, ya que nuestra *Caja de Ahorros* es por demás conocida de los guipuzcoanos.

De cuantos problemas de política social preocupan la atención de los rectores de pueblos, ninguno más hondo que el planteado por la situación de los ciudadanos que, sin otro patrimonio que el fruto de su trabajo, quedan incapacitados, por vejez o imposibilidad física, para ganarse la vida por sí mismos. Las raíces de este problema llegan no sólo a las capas más íntimas de la Economía

¹⁰ Foileto honi buruzko datuak hasieran aipatu ditugu; testuaren aurretik azal moduko bat dator eta bertan jartzen du, ikur baten azpian (Instituto Nacional de Previsión-Caja de Ahorros provincial de Guipúzcoa): *Lea. Ayúdenos usted / Irakurri.*


Foileto elebiduna da baina testuak ez datoz bat, edo, behintzat, euskarazkoa ez da erdarazkoaren erabateko itzulpena, moldaketa baino.

Transkripzioa egiteko orduan, jatorrizkoa dagoen-dagoenean jaso da salbuespen batekin: “s” marradunak aldatu dira eta “x” idatzi (adib. goxo). Testu barruko letra beltz eta etzan guztiak, bateratu eta etzanez jarri dira.



ZURE ZARTZAROA

ALAITU ZAZU



Instituto Nacional de Prevision deritzaion Bazkunak eta Gipuzkoa'ko Aurrezkitegia'k (Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa) nola alkar artu duten berai dagozkieten lanak Gipuzkoa'n aurrera eramateko, irakurri dezu onezkero nunbaitean, berri alaigarri au asko zabaldu zan eta.

Bi Bazkun, bi Elkarte oiek artu duten erabakiak, Gipuzkoa'ri ondasun ugari ekarriko dizkio, gure asmo ta naiak okertu ta alperrik galtzen ez badira beintzat. Ez degu alakorik uste: gure indar eta almen guztiz lan egingo degu Gipuzkoa'ri datorkion ondasun ikusgarri au aberastu ta ugaritzeko.

Asmo berri ta chalogarri au zuzen eta bear bezela, Gipuzkoa'ri dagokion era bikañez aurrera eramateko, ordea, guzion laguntasuna bear degu, ta laguntasun orren eske gatoz gaur, ta laguntasun orren eske ibiliko gera aspertu gabe, bear ainbat aldiz, alik eta nai degun egiteko eder au guztioen indarrez bete ta irichi arte.

¿Zein egiteko da ori? Esan bearrean gera: zuen la-

Lehenengo testuaren barruko orrialde bat.

nacional, sino que penetran también en lo más profundo de la dignidad humana. En el orden de la ética pública, nada más deprimente para un país que el abandonar a su propia suerte a los vencidos de la vida, ancianos o inválidos, dejándolos que vayan a extinguir en los asilos el dolor de su impotencia, o consintiendo que anden por las calles envueltos en sus andrajos y en sus miserias.

Del fondo de la conciencia colectiva se han elevado gritos clementes contra esa injusticia, de la cual nadie particularmente es culpable. El mal proviene de la misma organización social, que es deficiente; de la misma educación ciudadana, que es todavía muy incompleta; de la misma naturaleza del ambiente, que no permite a los individuos utilizar todos los recursos de defensa que puede ofrecerles una vida de orden, de método, de cálculo, de pensamiento constante en las incertidumbres del porvenir.

El mal que señalamos es evidente. De su propia gravedad ha surgido lo imprescindible del remedio. De cuantas naciones forman el concierto de la civilización, pocas han dejado de idear y establecer organizaciones que tienden a resolver el problema de la vejez desamparada. Con regímenes distintos, pero con un ideal único, todas ellas propenden a que el remedio se encuentre no en la protección exclusiva del desvalido cuando llegue a serlo, sino en la acción concertada del Estado, del patrono y del individuo, ayudándose éste a sí mismo mientras sus energías se lo permiten. La influencia de la Caridad, que es hermosa, pero que no hace más que aumentar las cargas nacionales, va siendo reemplazada por la eficacia de la Previsión, que nada fía a la suerte o al sentimentalismo. Con las instituciones de previsión social se persigue que *caridad, beneficencia, socorro, asilo* y demás términos similares, indicativos de pasividad resignada y doliente, dejen su lugar a otras voces más ejecutivas, más alentadoras, más en armonía con el luchar fecundo de los actuales tiempos: tales como *trabajo, perseverancia, esfuerzo propio, confianza en sí mismo, orden, economía, ahorro, seguro: Previsión social*, en una palabra.

Y esta previsión social, en su forma más típica, la de los retiros obreros, es ya una de las primeras preocupaciones del Estado

en los países progresivos. El fin que se persigue es el mismo; pero el procedimiento varía, según antes se dice. Los pueblos fuertes y de sólida organización económica, como Alemania, como Inglaterra, tienen implantado el seguro popular en forma obligatoria. Estado, patronos y obreros contribuyen, por la fuerza de la Ley, a constituir las pensiones que el proletariado ha de disfrutar en la vejez. España, nación más pobre y menos preparada, ha establecido también el régimen de pensiones obreras pero con arreglo a principios de libertad que hacen de este seguro una cosa simplemente voluntaria.

Acción práctica

Para todo cuanto se relaciona con la propaganda y la práctica del seguro social, había que crear en España el órgano adecuado. Y este órgano no es otro que el *Instituto Nacional de Previsión*, fundado en virtud de la Ley de 27 de Febrero de 1908.

En el folleto que tenemos el gusto de acompañar, se encontrarán más amplios detalles sobre la misión del *Instituto* y la forma de realizarla. Aquí solo consideramos oportuno el señalar una de las características más simpáticas entre todas las que distinguen la actuación de ese *Instituto*. Ella es la de querer llegar con su actividad bienhechora a todos los rincones de España, mediante una organización regional que no puede menos de agradar a pueblos como el guipuzcoano, encarnación permanente de los ideales autonómicos.

Para lograr esa mayor difusión de su obra, el *Instituto* delega su régimen en las Cajas de Ahorros que reúnen condiciones para ello. Y nuestra *Caja*, primera que estableció en España una sección de retiros obreros, ha merecido el honor de ser designada para representar en esta Provincia al *Instituto*, y para asumir y ejercer las funciones de éste con absoluta autonomía.

Explicado queda con esto el fundamento del convenio a que se alude al empezar las presentes líneas.

La existencia de ese convenio equivale a afirmar que el *Instituto Nacional de Previsión*, con todo su régimen, con todas las

prerrogativas de que goza, se ha trasplantado a Guipúzcoa, injer-tándose en nuestra *Caja de Ahorros* una de sus ramas, de las amplias ramas que han de extenderse por toda España.

Para que su acción sea más positiva y constante el *Instituto* nombra en cada provincia organizada uno o más Delegados, a quiénes encomienda todo lo concerniente a la propaganda y gestión del seguro. Designados para Guipúzcoa los señores D. Gregorio de Mujica y D. Fidel M. Urbina, ambos serán los que representen al *Instituto* y a esta *Caja* en cuantos trabajos se relacionen con la enseñanza y la práctica de la previsión diferida, dentro del régimen legal. Nos proponemos que ambos Gestores-Delegados recorran toda la Provincia, esparciendo entre sus habitantes una semilla que, cultivada con esmero, ha de producir copiosas cosechas de bien social.

Ayuda necesaria

Pero por grande y sostenido que sea nuestro esfuerzo, escasos serán sus resultados si no encontramos el debido apoyo en las personas y colectividades que están llamadas a prestárnoslo. Se trata de una obra popular, y popular ha de ser la acción desplegada para llevarla a cabo. Se trata de una obra humana, y por eso requiere la estrecha cooperación de los elementos sociales más diversos. Se trata de una obra patriótica, y por eso recabamos sus propagadores el concurso de todos los elementos que integran la vida latente de España.

Los obreros

Necesitamos principalmente la colaboración de los obreros. A nadie como a ellos interesa el régimen legal de seguros. Para ellos se ha creado y ellos son los únicos que aprovechan los beneficios que de él se desprenden. Una renta asegurada para la vejez le supone a un proletario mucho más que cien ansiadas reivindicaciones. No hay libertad más hermosa que la que nace de poder saborear la independencia que da lo que uno ha ganado con su propio sacrificio. Conseguir una renta resuelve un problema económico; pero resuelve también un problema de educación y de paz, porque el ahorro y la previsión dulcifican mucho el fermento colérico de los

exaltados. Aspiramos a realizar la profunda y mansa revolución de que todos, o la mayor parte, de los obreros guipuzcoanos, puedan crearse el derecho a una modesta renta para cuando sean viejos. Ellos verán si les interesa o no el ayudarnos.

Los patronos

Necesitamos la colaboración de los patronos. El seguro social les afecta tanto como a los mismos obreros. No diremos que la ayuda patronal en este terreno sirva para acallar las demandas de los asalariados; pero sí sirva para testimoniar que el capital y el trabajo pueden y deben vivir armónicamente, apoyándose el uno en el otro, favoreciéndose mutuamente, y no como factores incompatibles, condenados a luchas que degeneran en lamentables violencias. No hay, seguramente, patrono que no se formule a sí mismo esta pregunta inquietante: *¿qué hago yo con los obreros viejos que ya no me sirven?* Despreciarlos es una crueldad: ayudarlos a que tengan lo preciso para vivir, es una obra de redención y de alta política. La revolución de que hablamos anteriormente traería esta obra: aspiramos asimismo a que llegue un día en que todos, o casi todos los patronos de Guipúzcoa, establezcan como una obligación moral el que sus obreros posean una libreta de retiro para la vejez.

Los Maestros

Necesitamos la colaboración de los señores Profesores de Instrucción Primaria. La escuela es el laboratorio donde se forman los caracteres, la fragua donde se forjan los hábitos que han de perdurar inherentes a la vida del hombre. La escuela debe ser un plantel de ciudadanos ilustrados. Las Mutualidades Escolares, organizadas para que los niños adquieran las virtudes de la sociabilidad, del ahorro y del socorro mutuo, han de ser como grandes fuentes de donde fluya la riqueza económica. Apóstoles de la cultura, los señores Maestros deben trabajar también como apóstoles de la previsión social. La *Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa* los estimula de manera más ardiente para que así procedan. No escatimará recurso alguno en la obstinada sustentación de este empeño. Aunque exageradas parezcan nuestras sanas ambiciones, diremos que también aspiramos a que un día,

el viajero observador que recorra Guipúzcoa, se encuentre con el magnífico espectáculo de que todas las escuelas de la Provincia tienen organizada su Mutualidad infantil.

Los Sacerdotes

Necesitamos la colaboración de los señores Sacerdotes. Ninguna influencia como la suya puede rendir tan seguros resultados. Su contacto constante con el pueblo y la alta autoridad moral que sobre él ejercen, son factores valiosísimos para desarrollar con éxito esta labor de convencimiento. La obra que invocamos es económica, es moral, es social, es patriótica: pero es, sobre todo, eminentemente cristiana, porque desde las alturas del Poder Público descienden miradas justicieras hacia la multitud de los humildes, para procurar levantarlos de su postración cuando lleguen a viejos. Lo mismo que las Mutualidades Catequísticas han de ser a manera de células de un florecimiento económico. La que ya funciona en Vergara, con más de 800 afiliados, ofrece un soberbio ejemplo de la fuerza que puede encerrarse en estas instituciones. Confiamos en que el respetable clero de Guipúzcoa secundará con piadoso entusiasmo la acción que vamos a emprender.

La Prensa

Necesitamos la colaboración de la prensa. Por su número y la cultura que revelan, los diarios de San Sebastián honran a Guipúzcoa como otras muchas de sus instituciones. Hasta ahora nos han prestado su concurso cuantas veces los hemos necesitado para propagar la previsión diferida. Tenemos la certidumbre de que no nos lo negarán en lo sucesivo. Lo solicitamos vehementemente para que la Prensa donostiarra, muy leída dentro de España, gran libro abierto cotidianamente ante los ojos de los lectores, infiltre en éstos y propague a los cuatro vientos la bondad de las ideas de previsión. La Prensa puede ser el auxiliar más poderoso de todos los que han de secundar la actuación a que venimos refiriéndonos. A los periódicos más que a nadie dirigimos nuestras excitaciones y nuestros ruegos, seguros de que les dispensarán la favorable acogida que siempre reservan a las buenas causas.

Todos

Necesitamos la colaboración de las Autoridades de todos los órdenes, para que sean auxiliares nuestras y porque desde los puestos que ocupan pueden hacer mucho en pro de la misión que se ha impuesto la Caja de Ahorros.

Necesitamos, en suma, el concurso moral de cuantas personas tienen, por sus prestigios, por su sabiduría o su posición social, algún influjo en la masa del pueblo: los señores Médicos, las jerarquías del Ejército, los directores de Empresas, los encauzadores de la opinión obrera, no pueden, no deben negarse a apoyar y vigorizar la campaña que nos proponemos emprender. De todos estos elementos esperamos, si no una cooperación directa, por lo menos la unánime coincidencia en reconocer y proclamar que el seguro de vejez para los trabajadores es una obra digna de enaltecimiento, que honra en grado sumo a los pueblos que la practican.

El Presidente del Consejo de Administración
Ladislao de Zavala
El Presidente de la Comisión Permanente
Alberto Ugalde
Vocales
Ignacio Pérez Arregui - César Balmaseda
El Director
José Segurola

ZURE ZARTZAROA ALAITU ZAZU

Instituto Nacional de Prevision deritzaion Bazkunak eta Gipuzkoa'ko Aurrezkitegia'k (Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa) nola alkar artu duten berai dagozkioten lanak Gipuzkoa'n aurrera eramateko, irakurri dezu onezkero nunbaitean, berri alaigarri au asko zabaldu zan eta.

Bi Bazkun, bi Elkarte oiek artu duten erabakiak, Gipuzkoa'ri ondasun ugari ekarriko dizkio, gure asmo ta naiak okertu ta alperrik galtzen ez badira behintzat. Ez degu alakorik uste:

gure indar eta almen guztiz lan egingo degu Gipuzkoa ´ri datorkion ondasun ikusgarri au aberastu ta ugaritzeko.

Asmo berri ta chalogarri au zuzen eta bear bezala, Gipuzkoa ´ri dagokion era bikañez aurrera eramateko, ordea, guzion laguntasuna bear degu, ta laguntasun orren eske gatoz gaur, ta laguntasun orren eske ibilliko gera aspertu gabe, bear ainbat aldiz, alik eta nai degun egiteko eder au guztioen indarrez bete ta irichi arte.

¿Zein egiteko da ori? Esan bearrean gera: zuen laguntasuna eskatzen degun ezkerero, laguntasun ori zertarako degun esatea bearezko gauza da.

Egitekoa

Errien buru diranai, errien izaera erabilli ta zuzentzeko lana bere mende artu dutenai, beartsuak eta lanerako gauza ez diranak ez diete buru-auste guchi ematen. Gizona zartzen danean ¿nora bidaldu? Lanerako gauza ez bada, ¿nun sartu? ¿Isil isillik, otzak eta goseak il dezatela utzi? ¿Aterik-ate eskean ibiltzeko esan? ¿Urte ta urtietan bizi izan dan toki goso ta maitetik atera ta beartsu-echean sartu?

Ez orrelakorik. Bere bizi guzian lanean aritu dan gizonari etzaio zartzaroan orrelako sari lotsagarririk eman bear. Gizonak gazte dan artean beretzat lan egiten duala uste badu ere, ez du beretzat bakarrik egiten: gai guziak, gizon bakoitzaren lanaz dijoaz aurrera, ta gai oien aurrerapen ta ondasunak guzientzat dira. Ta guzientzat lan egiñaz zartu ta auldu ta ezereztu dan gizona ¿laguntasunik gabe utziko al dute guziok, ezer ezin eman dezakenean? ¿Ala artzea lotsagarri dan eraz eskeñiko al diogu laguntasuna?

Orain arte, toki askotan ala izan da. Gizonak, ordea, geroz ta argiago ikusten ditu bere eskubideak, eta bere eskubide oiek eskintzen diotena geroz ta gogorrago ta ausarditsuago eskatzen du. Gizonen biotzetatik datozen garrasi indartsu oiek, zarrai ta lanik ezin egin dezatekenai egoki lagundu bear diegula esaten digute.

Aukerako bidea

Laguntza orren bearra mundu guzian zabaldu da, ta erridi guziak dabiltz laguntza bear bezela emateko bide aukerako ta onenaren billa. Guchi gora-bera bide ori arkitu dute: bearra etorri arte geldi-geldi egoten dan laguntza ematea ez da bide ori: bearra irichi ta gero errukiak eman dezakeana ematea ere ez. Gaitz onen sendagaiaren zuztarra zelai berrigoetan arkitu dute jakindunak.

Bakoitzaren ondasunetan, norberak jarri bear du al duan indarra. Gero, betoz laguntzak, zenbat eta geigo obe, baño norberaren indarraren saritzat. Guztia eskatzeko eskubiderik ez du gizonak: al duana egiten duanak ordea, berak ezin dezakena eskatzeko eskubidea bai. Egi oetatik darioten chinparta distiatzalleak argitzen duten bidean dago aitatu degun gaitzaren sendagaia. Bere lanez aberastunik gabe bizi dan gizonak, lana uztean zer janik izango ez lukeanak, aurrez ikusi dezala gero zer gertatuko zaion, eta aurrez asi dedilla orduan izan naiko duana iristen. Orrelakoari bere nagusiak lagundu bear dio egiteko ortan, eta Gobernoa ´k ere bai, ta iruren artean, apurka-apurka bilduko dute langille bakoitzak zartzaroan bizi izateko bearko duan dirua.

Astiro-astiro, ortara dijoaz erri guzietako agintariak. Alemani, Ingalterra ta gizadiari dagozkion gai oetan buru diran errietan, nagusiak eta Gobernoa ´k nai ta nai ez lagundu bear diote langilleari zartzaroan bear izango duana iristeko, ta langillea bera ere beartua dago irabazten duanetik ainbesteko bat ortarako, uztera. España ´n ez daude oraindik ortarako, baña ortara dijoaz: bere aldetik al duana egiten duan langilleari, Gobernoa ´k laguntzen dio, ta batzuetan nagusiak ere bai. Bearrez ez ordea naiez duan langillea ez da ezertara beartzen; nagusia ere ez. Beste erri batzuetan nai ta nai ez egiten dana, nai dutenak bakarrik egiten dute emen oraindik.

Ori irichi duan langilleak ez du bada ezpadako laguntasunari begira egon bearko; kezka ta bildur gabe lan egin dezake gazte dan artean. Eta berak bezela bezte guztiok egingo dutenean, beartsu-eche, landerreche ta antzekoak alperrikakoak izango dira. Orduan iñork ez dio iñori ezer zor izango: norbera izango da bere

zartzaro atsegin eta epelaren jabe. Norberaren lana, aurrera begiratzea, etorkizuna urrutitik ikustea, bakoitza bere indarraren indar izatea, bear ez deguna, alperrik galdu gabe, gerorako aurreratzea... oiek gizona gizontzen dute, oiek dira etorkizuneko gizona goratu ta jasoko duten indar gogotarrak.

Gipuzkoa´ko Aurrezkitegia

Zartzetik eta lanik ezin eginda gelditzetik sortzen diran gai oek begiratu ta aztertu, ta gizadiari dagozkion aukerazko erabakiak artu ta bete-erazitzeko, Bazkun bat, Elkartea bat, ipiñi zan España´n, 1908´g. urteko Otsaila´ren 27´an Gobiernoa´k agertu zuan erabakiz.

Or, dei onekin batera artuko dezun liburukoan, ikusiko dezu zabal eta astiro esanda, *Instituto* orrek zein lan eta nola egingen dituan.

Or dionaz gañera, zure gogokoa, gipuzkoar guztien gogokoa, dan beste gauza bat esan bear dizugu.

Instituto Nacional de Previsión izenaz jaio-erazitako Bazkun ori, España guztirako da, ta lantegiak Madrid´en dauzka.

Ez, ordea, estutu: emen, Gipuzkoa´n, zuk ez daukazu aiekin zer ikusirik, eta Bazkun onek bere zuztarra Madrid´en daukalako ez dezu atzera egin bear.

Gipuzkoa´ko Aurrezkitegia´k, gipuzkoar guztien gogogokoa dan Aurrezkitegi onek artu du beretzat Gipuzkoa´rako, *Instituto*´ak España guztirako zeukan eskubidea. Beste erri guzietan *Institutoa*´k egingo duana, emen, *Gipuzkoa*´n, Aurrezkitegi honek egingo du.

Zuentzat, bada, gipuzkoarrak, *Instituto*´rik ez balitz bezelaxe da: zuentzat, *Aurrezkitegia* da nagusi, *Aurrezkitegia*´z izango dituzute zuen artu-emanak, eta emen eskeñitako guzia guk emango dizutegu, *Gipuzkoa´ko Aurrezkitegia*´k.

Ez uste Madrid´ko eskiñien istillua dala; ez uste urrutiko inchaurren otsa dala: emen diogun guziaren esale, emen esandako guziaren egille, *Gipuzkoa´ko Aurrezkitegia* da, ta *Gipuzkoa´ko Aurrezkitegia*´k bere esanak nola egizatzen dituan esan bearrik ere ez dago, ez dakianik ez da Gipuzkoa´n-eta.

Lan berri au arrotu ta astintzeko, zartzaroa nola arindu ta gozatu dezakezuten erakusteko, buru guztietara ta biotz guztietara gai onen argia ta sua eramateko, bi ordezkari izendatu ditugu: Gregorio Mujika ta Fidel M. Urbina jaunak. Biok ibilliko dira erriz-erri Gipuzkoa guzian egi alaigarri oek zabaltzen; azi ona daramate, ta gipuzkoarren gogoetan azi ori indartsu erneko dala uste degu. ìla ontan ere, beste gauza askotan bezela, guztion gain gabiltzen!

ìAtozte laguntzera!

Azitik ale mardula etorri dedin, azia ereitea ez da aski. Lur ona bear da, ta eguzki ta euriaren laguntasuna ere bai.

Orain asi degun lan ontan, azia ereingo degu ondo, alegiñean beintzat: euri ta eguzkiaren laguntasuna, ordea, ez dago gure esku-etan, bestien eskuetan dago, ta iristeko eskatu egin bear degu.

Eguzki ta euri oiek, gipuzkoarren laguntasuna dira, gipuzkoarren nai izatea, gure alde itzegin eta lan egin dezatekenak egin nai izatea: langille, nagusi, irakasle, apaiz, eguneroko ta agin-tariak gure lan onen alde jartzea. Guztion bear gera, ta guztiok lagundu bear digute, guztiontzat on-ona dan lan batentzat ezkatzen degu laguntasun ori-ta.

Langilleak

Batezere, langillien laguntza bear degu. Egi-egia esateko, langilleai ez genieke laguntasunik eskatu bear. Gure lanak daukan alderdi onena, langillientzat da, berak zartzaroan bizi izateko bearko dutena bildu naiean gabiltz-ta. Guk darabilgun egiteko ontan, langillientzat da saririk aundiena, zatirik ederrena: eskatzen diogun laguntasun au ¿ez ote digute, bada, emango? Ogi oso bat artzekotan ogi apur bat ez eman nai izatea bezelaxe

izango litzateke ori: ¿bai ote dago orlakorik Gipuzkoa'ko langillien artean?

Eskubidezkoa dala esanaz, nagusiai zartzarorako laguntasun eske aspaldi zabiltzate langilleak. *Eskatzen dezutena* zuen indarrez *irabazteko*, orainche daukazute aukera. Gizon dan gizonak ez du ezer eskatu bere lanez irabazi dezaken bitartean. Gure eskintza ontzat artuaz errez irabazi dezazuteke eskatzen dezuten ori: orain ikusiko degu, ba, eskatzen dezuten ori iristeko gogoia norañokoa dan.

Nagusiak

Nagusien laguntasuna ere bear degu. Lantegietan nagusiak dirua jartzen du, ta mendekoak lan egiten dute. Norbaitek dirua jarriko ezpalu, lanik ez litzake egingo, ta langillerik ezpalitz dirua ez litzake ugarituko. Dirua ta lana, dirudunak eta langilleak, alkarren bear dira-ba. Diruak lana eskatzen du; lanak dirua.

¿Ta lanik ezin egin danean? Bere bizi guzian lanean aritu ta gero, zartutakoan, lanik ezin egin dezakenean ¿zer egingo du langilleak, langille izanak? Aurrez egindako lanaz bizi: al zuanean apur bat gerorako aurreratuz, ta lanean ari zan bitartean nagusiaren eskutik gerorako zerbait artuaz bildutakoaren bitartez. Ori da bidea: burua jaso nai duanari bere nagusiak lagundu dakiola.

Bere echean zartu dan gizona nagusiak ezin echetik atera dezake goseak il dezan. Bear duan guzia nagusiak ematea ere, ez da bidezkoa. Biok alkar artuta, diruak eta lanak alkarri lagunduaz, bete bear dute egiteko ori.

Erakusleak

Erakuslien laguntasuna. Ikasteche-irakasleak (eskola-maisuk) asko egin dezateke lan ontan. Datozen urtietan gizon eta emakume izango diran neska-mutillak, ikastechietan dabiliz, eta gerogokoak ikastechietan ibilliko dira. Ikastechean ikasten danak, berriz, asko esan nai du gero umeak bide ona ala charra artu dezaten.

Ori ala bada -ta ala da- umien erakusleak zenbat eta zenbat egin dezateken gure alde, esan bearrik ere ez dago. Erakusle guztiak naiko baluteke, urte batzuen buruan gipuzkoar guziak jakingo luteke gure asmoa, ta gure lankide bikañak izango lirake. Orregatik gatoz, bada, irakaslien laguntasunaren eske.

Ukatuko digutenik ez degu uste. Ia urte batzuen epean, ikasteche bakoitzak bere Ume-bazkuna ipiñita daukan: egin ala guztian lagunduko genuke guk ortarako.

Apaizak

Apaizen laguntasunaren bear gera. Apaizak Gipuzkoa ´n deza-tekena, esan bearrik ere ez dago, guztiok dakigu-ta. Jaungoikotsuak eta elizkoiak gera gipuzkoarrak, eta apaizai begirune aundia dietegu: apaizak, iñork baño geigo egingo du lan ontan, nai badu.

¿Apaiza lan oetan sartzea on al litzake? Beartsuari laguntzea, zarrai laguntzea, lanik ezin duanari laguntzea, zer janik ez duanaren echetik gosea urrutiratzea... Jaungoikoa ´k berak agindutako gauzak dira.

2.2. Langillientzat Zartzaro-Legea liburuxka (1921)¹¹

NAGUSI TA LANGILLEAI

Bizi guzian lanean ibili diranai zartzaroan nola lagundu bear zaieten erabakitzen duan lege berri bat argitaratu zan *Gaceta*'n, aurtengo Ilbeltza'ren 23'an.

Lege orren esana, nagusi guziak bete bear dute; lege orrek zer agintzen duan jakitea, bearrezkoa da, bada, nagusientzat.

¹¹ Azala ez da ematen, artikuluko honen hasieran aipatu da eta; gainera, irudi batean ikus daiteke. Transkripzioa egiteko orduan testua dagoen-dagoenean jaso da salbuespen batekin: jatorrizko testuan datozen “y” eta “l” tilde edo marradunak aldatu dira; erroren kasuan, batzuetan erre bikotza jarri da (*berri*), beste batzuetan r bakarria nahikoa izan da (adib. *beari*); eleren kasuan, l bikoitza idatzi dugu (adib. *langillientzat*), *Zure zartzaroa alaitu zazu* liburuxkan egiten den moduan.

Langillientzat ere bai. Lege berri onek, eskubide berriak ematen dizkie langilleai. Emendik aurrera, langille bakoitzari, bere irabaziaz gañera, zartzarorako ainbesteko bat eman bearco dio nagusiak, eta Gobernoa'k ere bai. Ori nola egingo dan, ortarako zer egin bear dan jakitea, bearrezkoa da langillientzat.

Bearrezkoa dalako, ta Gipuzkoa'ko nagusi ta langilleak, lege onek diona egiteko, Gipuzkoa'ko Aurrezkitegia'rekin (Caja de Ahorros) alkar-artuta ibili bear dutelako, Aurrezkitegi onek bere mende artu du lege ori zer dan, nolako dan, eta lege orrek zer agintzen duan adierazteko ta zabaltzeko lana.

Ortara dator idaztitxo au. Emen esango degu lege orrek zer dion, eta diona nola egin bear dan.

Irakurri itzazu, bada, poliki ta astiro orri oek, eta irakurritakoa gogoan artu zazu.

Ta au irakurriaz ikasiko dezuna egiteko, atoz len-bai-len. Gipuzkoa'ko nagusi guziak gure etxean ikusi nai genituzke berealaxe. Galde dezala geigo jakin nai duanak, galde dezala bildur gabe: gogoz ta pozik erantzungo diogu ta esango diogu dakigun guzia. Baña jakin nai duan guzia jakin eta gero, asi dedila legeak esaten duana bere mendeko langillientzat egiten. Datorren Uztaila arte utzi liteke legea bete gabe, baña Gipuzkoa'ko nagusiak ez dezatela orrelakorik egin. Gero indarrez egin bearco dutena egin bezate orain bere gogoz.

Orain arte Gipuzkoa'n beste erriak baño geigo izan gera onelako gaietan. ¿Oraingoan atzera geldituko ote gera? Ez genuke nai ta ez degu uste. Beti bezela bestien aurretik jartzen badira nagusi gipuzkoarrak, bene-benetan poztuko gera. Ori nai genuke ta ala izango al da.

Aurrezkitegiko Batzarraren orde: Julian Elorza. Lendakaria.
Batar-ordearen izenean: Zesar Balmaseda. Lendakaria.
Antonio Paguaga. Batzarkidea.
Emilio Diaz Espada. Batzarkidea.
Jose Seguroa. Zuzendaria.



LANGĪIENTZAT
ZARTZARO-LEGEA

Gipuzkoa'ko Auzkitekigia'k argitaratutako idaztia

Utsean ematen da

1921. — EPAĪĪA



DONOSTIA'N
MARTIN, MENA Y COMPAÑIA'REN ETXEAN

Bigarren testuaren kanpoko azala.

LANGILLIENTZAT ZARTZARO-LEGEA

I.— Legea.—Bigarren maila.—Legeak zer agintzen duan.—¿Bearrezkoa al zan lege au?—Langile nor dan. ¿Zenbat emango zaio langileari zartuko danean?

II.—Gutxi ta berandu.—Legeak agintzen duana ematea ¿gutxi ematea al da?—Legeak agintzen duanean ematea ¿berandu ematea al da?

III.—Legea nola bete.—Legea betetzeko zenbat diru bear dan.—*Instituto Nacional de Previsión* eta Gipuzkoa'ko Aurrezkitegia.—Nagusiai eskatzen zaietena.

I Legea

Bigarren malla

Orain bi urte, langile zarren alde zer edo zer egin naiaz, Gipuzkoa'ko Aurrezkitegia'ren izenean banatu genituen dei batzuetan, itz oek jarri genituen:

«Gizona zartzen danean ¿nora bidaldu? Lanerako gauza ez bada ¿nun sartu? ¿Ixil-ixilik, otzak eta goseak il dezatela utzi? ¿Aterik-ate eskean ibiltzeko esan? ¿Urte ta urtietan bizi izan dan toki goxo ta maitetik atera ta beartsu-etxean sartu?

»Ez orrelakorik. Bere bizi guzian lanean aritu dan gizonari etzaio zartzaroan orrelako sari lotsagarririk eman bear».

Eta aurreraxego:

«Gizonen biotzetatik datozen garraxi indartsuak, zarrai ta lanik ezin egin dezatekenai egoki lagundu bear diegula esaten digute. Laguntza orren bearra mundu guzian zabaldu da, ta erri guziak dabiltz laguntza bear bezela emateko bide aukerako ta onenaren bila.»

España'n ere bide orren bila asi zirala, esan genuen gero. Ta bide ori zein zan ere esan genuen: Gobiernoak, nagusiak eta

langileak ilabetero-ilabetero zerbait emanaz, langileak zartzaroan bearko zuana biltzea.

Bide ortan poliki-poliki ibili bear zan ordea, ez guztia batean egiñaz. Orduan, ez langileak eta ez nagusiak, etzeuden ezer emateko, ta emango etzutena eskatzea alperrik eskatzea izango zan. Ez zitzaieten, bada, eskatu.

Nagusia ez zegon ezer ematera beartua; langilea ere ez. Nai bazuten, eman zezateken ordea. Ta naiz batuk, naiz besteak, naiz biak, zerbait ematen bazuten langile baten zartzarorako, Gobierno beartua zegoan langile orren zartzarorako zerbait ematera, aurrez aginduta zeukana ematera.

Iruretatik (langile, nagusi ta Gobierno) Gobierno bakarririk zegon, bada, langilien zartzaroaren alde zerbait egiteko beartua.

Bear zana irixteko, gutxitxo zan ori, ordea. Nai dana irixteko, iruren laguntasuna bear da. Asitzeko, ondo zegoan Gobierno bakarririk beartzea, baña gero nagusia ta geroago langilea bera beartzeko asmoak artuta zeuden. Irugarren mailara ondo igotzeko, lenengo lendabizikora igo bear da, ta bigarrenera gero. Gobierno beartzea lendabiziko maila zan; nagusia beartzea bigarrena, ta langilea beartzea irugarrena.

Legeak zer agintzen duan

Langilientzat zartzaro-legea izena jarri dioten lege berri bat egin eta zabaldu du España'ko Gobierno'k: Ilbeltza'ren 23'an agertu zan *Gaceta*'n.

¿Zer agintzen du lege orrek? Beren langilien zartzarorako zerbait ematea agintzen diete España'ko nagusi guziei.

Orain arte, nagusiak ez zeukan bere langilien zartzaroaz zer ikusirik Lanerako gauza zan bitartean asteroko irabazia txintxo ematen bazion, ez zeukan beste egitekorik. Zartutakoan, ezer eman gabe etxetik bidaltzen bazuan eta langilea goseak iltzen bazuan ere,

etzion nagusiari inork ezer esango. Zarra zan, lan egiteko ez zan gauza, ta etxetik bidaldu zitekean langilea.

Orain ez. Langilea zartutakoan bidaldu dezake etxetik, baña ordurako, apurka-apurka, ilero ainbeste, eman bear izango du langile ori zer janik gabe gelditu ez dedin. Emendik aurrera, nagusiak, langileari, bere lanaren irabaziaz gañera, ainbesteko bat eman bearke dio ilero-ilero, zartzarora iritxitakoan bizi-bidea izan dezan. Ortara beartzen du orain azaldu dan lege berri onek, *Langilientzat zartzaro-legea* izendatu duten lege onek.

¿Bearrezkoa al zan?

Lege au ¿bearrezkoa al zan? Orain urte batzuek dirala egin izan baziguten galdera au, lege ori ondo zegola baña Gipuzkoa'n bear-bearrezkoa ez zala, erantzungo genuen.

Oraindik urte gutxi dala ere, nagusiak eta langileak etxe batekoak bezela bizi ziran Gipuzkoa'n. Alkarren artean ez zan aserrik izaten. Adiskidetasun ederrean bizi ziran. Langileak ez zion iguirik nagusiari; nagusiak maite zuan langilea.

Orrela bizi ziranentzat, lege au alperrikakoa edo erdi-alperrikakoa izango zan. ¿Gipuzkoa'ko nagusi batek, berea izandako langile bati ateak itxiko al zizkion bada, zartu zala ta beste gabe? ¡Bai zera! Ez ditugu atona gutxi ikusi, atezai, edo lan arin eta ezerezak egiten, eta gazte ziranean bezelaxe irabazten... Aiek kalera bidaltzeko bezin nagusi biotz-gogor gutxi zan Gipuzkoa'n.

Gauza guziak aldatzen dira, ordea, ta Gipuzkoa'n ere nagusi ta langile guziak ez dira lengo adiskidetasunean bizi. Kanpoko langile asko etorri zaizkigu, ta kanpoko nagusi batzuek ere bai. Ori dala-ta, ta mundu guziko langillien iritzi ta asmo berriak gure errietara ere iritxi diralako, nagusi-langilien arteko adiskidetasun ura ausitzen asi da, ta elkarren arteko aserreak burua sarritxo azaltzen dute.

Aserrea asi ezkeru, bakoitzak gutxi egingo du bestearen alde. Langileak al duan geiena eskatuko du; nagusiak, al duan

gutxiena eman. Zikoizkerizko bide ortan jarri ezker, alkarren-ganako adiskidetasuna kendu ezker, Gipuzkoa'ko nagusai ere langilien alde egiten zutena egiteko gogoia kenduko zaiete, ta zarrai ere oraindañoko begirunea gero ez izatea gertatu liteke.

Lege onen bitartez, ordea, nai ta nai ez nagusiak bere langilien zartzaroaren ardura izan bear du. Ondo dago, bada, lege au.

Langile nor dan

Lege berri au langilientzat dala esan degu. Baña ¿zer da langile izatea lege onentzat? Geienez, indar-lanetan, beso-lanetan dabilenari bakarrik deitzen diogu langile. Buru-lanetan eta antzekoetan dabilenari, ez diogu langile esaten.

Lege onentzat ordea, lan egiten duan guzia da langile: nekazaritzan, lantegietan edo bere etxean lan egiten duan gizon eta emakume guzia da langile; beso-lanetan edo buru-lanetan nun nai eta normairentzat jardutzen dan gizon eta emakume guzia da langile. Beste baten mende ari bada, lan egiteagatik norbaitek ordaintzen badio, langile da.

Langile onentzat, besteren mende lan egiten duten langilientzat da lege au. Baña ez guzi-guzientzat: amasei urte bete ta irurogei ta bost bete ez dituztenentzat, eta lau mila pesetatik gora urtero irabazten ez dituztenentzat.

Lege-pean egoteko, lege onek eskeintzen duan zartzaro-sariaren eskubidea izateko, ara bada zer bear dan:

- 1.º Beste norbaitentzat lan egin.
- 2ºg. 16 urte beteak eta 65 bete gabe izan.
- 3ºg. Urtero, 4.000 pesetatik gora ez irabazi.

¿Zenbat emango zaiete?

Legearen barruan dauden langile oiei ¿zer emango zaiete zartuko diranean? Legeak eskeintzen duan zartzarosari ori ¿zen-

batekoa izango da?. ¿Ta noiz, langileak zenbat urte izango dituanean, emango zaio zartzaro-saria?

Amasei urtetik 65'erañoko langile guziak sartzen dira legepean. Langile oiek guziak bi saletan banatu bear dira: lenengoan, 16 urtetik 45'erañokoak sartzen dira, ta bigarreanean, 45'etik 65'erañokoak.

Orain 45 urtetik bera dauzkatena, 65 urtera irixtean egunero peseta bat artu lezateke biziko diran bitarte guzian.

Orain 45 urte edo geigo dituztenak ere, 65 urtera irixtean dirua artuko dute. Nagusiak eta Gobernoa'k beretzat urtero emango duten diruz, egunero ainbesteko bat emango zaiete bizi diran arte guzian; bestela berriz, 65 urte beteko dituztenean, bere diru guzia bat-batean emango zaiete. Artzeko ordua bakoitzari datorkionean erabakiko da ori.

Orain 45 urtetik bera dituzten guziak, eguneroko peseta bat izan dezateke, bada, 65 urtera irixtean. Orain 45 urtetik gora dituztenak, ezin esan liteke zenbait artuko duten, guziak ez dute berdin artuko-ta: guziak peseta bat baño gutxigo, ta zenbat eta zarrago, gutxigo.

Gauza bat gogoan artu bear da ordea. Ogei urte barru, orain bigarren sail ortan dauden langile guziak (45 urtetik 65'erañokoak) 65 urte beteak izango dituzte. Bigarren sail ori ezereztu egingo da. 45 urtetik gorakoak izango dira orduan ere, baño ez langile berriak: orain 45 urte baño gutxigo dituztenak sartuko dira. Oek, ordea, egunero peseta izango dute, orain 45 urte ez dituztelako. Ogei urte barru, España'ko langile guziak izan dezateke, bada, 65 urtetik asi ta il arteraño, peseta bateko egunerokoa.

Argi esateko. Lege onen bidez, oraingo langileak ona zer izan dezateken:

Oraindik 45 urte bete ez dituztenak, egunero peseta bat 65 urte izatera iritxiko diranean.

Orain 45 urte beteta ta 65 bete gabe dituztenak, egunero ainbesteko bat edo bat-batean diru mordoxka bat, 65 urte beteko dituztenean. Ainbesteko ori edo bat-batian emango zaieten ori zenbat izango dan ezin esan liteke, guziontzat ez da berdin izango-ta.

Gero, orain 44 urte dituztenak 65 urte beteko dituztenean asita, Gipuzkoa'ko langile guziak, edozein adiñetakoak, izan deza-teke egunero peseta bat 65 urtetara irixtean.

II

Gutxi ta berandu

Oraindaño idatzi (eskribitu) degun guzia irakurri duanak, legeari bi aitzaki aterako dizkio: egunero peseta bat gutxi dala, ta peseta ori artzen asitzeko, 65 urte berandu dala.

Berez, gizonak alde txarrenari begiratzen dio geienean, eta aitzaki ta akatz bila pozik ibiltzen da. Gutxitan gauza bat oso-osorik ondo iruditzen zaio, ta erdizka ondo iruditzen zaionean ere, alde on orri begiratuaz poztu bearrean, alde txarrari begiratuaz zirika ta mirika asitzen da.

Ala lege onezaz ere. Lenago ezer etzeukala ta orain zerbait baduala gogoratuaz, ez da poztuko langilea. Ematen zaiona gutxi dala ta berandu ematen zaiola esango du.

Esango duana egia dan ikusi zagun.

¿Gutxi?

65 urtetik aurrera, lanik egin bear gabe etxean patxaran gaudela egunero-egunero peseta bat artzea ¿gutxi al da? Peseta ori artzeko langileak ez du ezer eman: nagusiak eta Gobiernoa'k eman diote guzia oso-osorik, neke gabe. Al badu, lan egin deza-ke oraindik lengo lantegian, bere etxean edo nai duan tokian. Artuko duan peseta orrek ez dio ezertan ere galeraziko. Lanerako gauza bada, bere irabaziaz gañera izango du peseta ori; gauza ez bada, beste iñun irabaziko ez luken peseta ori, egunero etxera

eramango zaio. Gauzak orrela badira, ta ala dira, ¿peseta ori gutxi dala esan al liteke?

Gañera, orain asieran gaude, ta asieratik ezin guzia batean egin liteke. Beti ez dira gauzak gaur bezela izango ordea. Langileari eman bear zaion zartzaro-sari ori, diruz ordainduta erosi bear da: diru askorekin sari aundia erosi liteke; gutxirekin txikiagoa. Zartzaro-sari ori erosteko dirua, nagusiak eta Gobiernoak eman bear dute, ta lege onen aginduz emango dutenarekin, bakoitzarentzat egunero peseta bateko saria erosi liteke, geigo ez. Geroago, beste lege batez aginduta, nagusiak eta Gobiernoak geigo eman dezateke, ta orduan, peseta ori, bi, iru, lau edo geigo izan liteke.

Ez dago diru geigoren bearrik ere. Orain aña emanda ere, geroko langileak sari aundigoa izango dute. Langilea zenbat eta gaztego izan, bere zartzaro-saria diru gutxigorekin erosi liteke. Oraingo zarrak ilko diranean, bestien zartzaro-saria merkego erosiko da. Edo bestela, orain ainbat dirurekin, sari aundigoak erosiko dira. Zartzaro-saria geroz ta aundigoa izango da bada.

Gaur bertan ere, peseta bat baño aundigoa izan liteke eguneroko ori. Eguneroko orrek nai ta nai ez peseta batekoa izan bear duala, ez du esaten legeak. *Gutxienaz* peseta batekoa izango dala dio. Goian ez du mugarik jarri. Nagusiren batek geigo eman nai baldin badu, ez dio iñork galeraziko.

Langileak berak ere jarri dezake bere saria geitzeko dirua. Orain ilero, urtero, edo alduanean, zerbait ematen badu, gero, zartutakoan, peseta baten orde z bi, lau edo sei izan dezazkike. Atea irikita dauka.

Emendik urte batzuek barru, nai ta nai ez jarri bearko du langileak ere zerbait. Orain legearen bigarren mailan gaudela esan degu asieran, eta gero irugarrenera igoko gerala. Ori da irugarrena: langilea bera ere beartzea. Orduan, Gobierno, nagusi ta langilearen artean, irurak zerbait emanaz, asko geituko dute zartzaro-sari au.

¿Peseta bat gutxi dala? Beste errietan ere ez dute, bada, askoz geigo ematen. Begira, zartzaro-sariketa au jarrita daukaten beste errietan, nolako sariak ematen dituzten:

Noruega 75	peseta urtero
Rumania 150	" "
Islandia 268	" "
Alemania 275	" "
Suiza (Ginebra) 300	" "
Inglaterra 327	" "
Franzia 560	" "

Beljika'n, Itali'n, Austri'n, Suezin eta Olanda'n, 365 peseta baño geigo ematen dituzte, baño oiek artu al izateko zailtasun asko izaten dira, ta gutxitan iristen dira osorik langilien eskuetara. Beste errietakoak —ikus dezute— peseta bat baño gutxigo, oraingo lege onek España'ko langiliei agintzen dien baño gutxigo artzen dute egunero.

¿Berandu?

Irurogei urte berandu dala, adin ortara ez dirala iritxiko, esaten dute langile guziak, lege au ezagutzen dutenean.

¿Ala uste dutelako esaten al dute ori? ¡Bai zera! 65 urtera ez dala iritxiko, iñork ez du uste. Lañezaz, axanpaz, jolasean edo orrela esaten da ori. Adin ortara iritxiko gerala, guziok uste degu.

¿Zergatik ez sinistu, bada? Munduan jaiotzen diran guzi-etatik, erdiak, gutxi gora-bera, irixten dira 65 urte betetzera: ori argi ikusita dago. ¿Zer dala-ta usteko degu, bada, gu ez gerala iritxiko? Ezetz bezelaxe baietz uste genezake «Ez naiz iritxiko»—ez degu esan bear. «Iritxiko naiz noski»—esan bear degu, baietz ala ezetz berdin-berdin gertatu liteke-ta.

65 urte oiek, ez dira nolainai ta ezeri begiratu gabe jarri. Langile geienak, adin ori arte lan egin ta bear dutena irabazi deza-teke: orduan asten dira, benetan, auleria ta zartzaroa. Adin ori aurreratzea, alperkeriaren alde lan egitea izango litzake askotan. Ori

dala-ta, munduko erri geienetan adin ori edo berandugoko bat artu dute zartzaro-sari au emateko. Ona emen adin oiek:

Austria	58	urte
Dinamarka	60	"
Islandia	60	"
Franzia	65	"
Rumania	65	"
Beljika	65	"
Italia	65	"
Portugal	65	"
Suezia	67	"
Alemania	70	"
Inglaterra	70	"

España'n jarri dana, ez da, bada, atzeratuenetakoa, aurreratuenetakoa baizik.

Ala ere, geigo aurreratu nai duan nagusi edo langileari, aurreratze ori ez zaio galeraziko. Egunero peseta bat *gutxienaz* eman bear zaio langileari, legeak dionez; legeak dionez, emango zaiona *beranduenaz* emango zaio 65 urte dituenean asita. Ortarako bear dan baño diru geixego eman nai badu nagusiak edo langileak berak, 65 urte oiek 60'ra jetxi litezke ta 55'era ekarri ere bai. Diru geigoz zartzaro-sari aundigoa erosi liteken eraz, 65 urteko adin ori jetxitzea ere erosi liteke, ta askok erosi dute. Atea irikita dago emen ere: aginduta dagon baño geixego eman dezatela nagusiak ontarako, edo langileak ere bere aldetik zerbait jarri dezala, ta 65 urte oietatik 60'ra edo 55'era jetxi gindezke.

Legeak ematen diguna gutxi dala ta berandu ematen digula ta legea txarra dala, ez degu, bada, esan bear. Ematen digutena zerbait badala, ondo dagola, baño geigo izateko alegiñak egingo ditugula, esan bear da.

Esan bakarrik ez; egin ere bai.

III Legea nola bete

Zenbat diru bear dan

Zartzaro-sari au, beste gauza guziak bezela, diruz erosi bear da: esan degu len ere. 16 urtetik gorako langile bakoitzari 65 urte izango dituanerako zartzaro-saria erosi nai badiogu, ilero edo urtero ainbesteko bat eman bear degu bakoitzarengatik 65 urte oiek iritxi bitartean.

16, 20, 30, 50 urteko langileak dauzkagu, esate baterako, ta guziai, 65 urte izatean, peseta bateko zartzaro-saria eman nai diegu egunero. Ortarako, aurrez dirua bildu bear da, ta aurrez bildutako diru orrezaz ordainduko zaiete gero zartzaro-sari ori. Nagusiak eta Gobernoa'k ematen dute, ilero edo urtero, ortarako bear dan dirua.

¿Zenbat diru? Ez da guzientzat berdin. Langilea zenbat eta gaztego izan, orduan eta gutxigo eman bear da ilero edo urtero. Orain 16 urte dauzkan langile bategatik, 17 peseta eman bear dira urtero, langile onek 65 urte izango dituanean egunero peseta bat artu bear badu. Langileak orain 20 urte baditu, urtero 20 peseta eman bear dira; 40 urte baditu, 63 peseta; 136 peseta, 50 urte baditu... ta orrela, geroz ta geigo.

Artu-eman oek erreztutzeagatik, ordea, gaztiengatik gutxigo ta zarrengatik geigo eman bearrean, guzia erdira jota, batez-beste artu dira, ta guziengatik (zarra izan, gaztea izan) berdin ordaintzea erabaki da. Langile bakoitzarengatik urtero 48 peseta eman ezkeru, guziak, oraingo gazteak eta zarrak, izango dute zartzaro-sari ori artzeko esku-bidea. Orra, bada, zer bildu bear dan: urtero, langile bakoitzarengatik, 48 peseta; ilero, 4 peseta; egunero amairu zentimo.

48 peseta oiek, nagusi la Gobernoa'ren artean emango dituzte: 36 peseta nagusiak; Gobernoa'k 12. Egunero, berriz, 10 zentimo nagusiak; 5 Gobernoa'k.

Emendik aurrera, bada, Gipuzkoa'ko nagusi guziak (España guzikoak ere bai), langileari, bere eguneroko irabaziaz gañera, beste

10 zentimo eman bear dizkio egunero. Baña ez dizkio eskura eman-go bere irabazia bezela; Gobiernoak emandako 3 zentimo oiekin apurka-apurka langilearen zartzaro-saria osatu dezaten, libreta batean jarriko dizkio.

Zartzaroan egunero peseta bat izateko eman bear diran zentimo oek gauza gutxi dirudite. Langile asko dira, ordea, ta guziengatik eman bear dana, asko da. Gutxi gora-bera sei miloi (6.000.000) langile izango dira España'n. Bakoitzarengatik 36 peseta eman bear baldin badituzte nagusiak, guzientzat $6.000.000 \times 36 = 216.000.000$ peseta (berreun eta amasei miloi peseta) eman beariko dituzte urtero, ta Gobiernoak berriz $6.000.000 \times 12 = 72.000.000$ (irurogei ta amabi miloi). Bien artean 288 miloi peseta.

Dirutza izugarria bear da, bada, 65 urtetik asita langileai egunero peseta bat emateko. Bi peseta emateko, bi aldiz geigo beariko litzake, ta lau aldiz geigo egunero lau peseta emateko. Ta 65 urtetan asi bearrean, 60 urtetan asi nai izan ezkerro, bi aldiz geigo beariko litzake gutxi gora-bera.

Peseta bat gutxi dala ia 65 urte berandu dala esaten dutenak, ikusi dezatela, bada, peseta ori emateko, aurrez zenbat diru bildu bear dan. Geigo ematea ta lenago ematea, gaur ez litzake gauza errexia izango.

Gero bai, gero askoz errexago izango da. Oraingo zarrak ilko diranean, langile bakoitzarengatik askoz guixigo eman beariko da zartzaro-sari berdiña izan dezaten, eta orain ematen dan diru onekin berarekin zartzaro-sari aundigoak eman al izango dira. Orrezaz gañera, langileak bere aldetik zerbait laguntzen badu, zartzaro-sari ori askoz andigoa ta lenago artzekoa izan ditekete.

Aurrezkitegian

Langilien zartzaroari dagozkion gai oek guziak erabaki ta zuzentzeko, *Instituto Nacional de Prevision* deritzaion Bazkun edo Elkarte bat jarri zan España'n, 1908'g. urtean.

Instituto Nacional de Prevision izenaz jarri zan Bazkun ori, España guzirako da, ta lantegiak Madrid'en dauzka.

Bana Gipuzkoa'n egin bear lukean lana, berak Gipuz-koa'n zeuzkan eskubide guziak, Gipuzkoa'ko Aurrezkitegia'ri (Caja de Ahorros Provincial) utzi dizkio. Beste errietan *Institutoa*'k egingo duana, emen Aurrezkitegia'k egingo du. Alkar artuta, adiskidetasun osoan, ori bai, bana guri dagokigun eraz ta gure asmoak nai bezela beteaz, lokarri esturik gabe.

Gipuzkoa'ko nagusi ta langileak, Aurrezkitegi ontara etorri ditezke, bada, zartzaro-sari oni dagozkion gai guzietarako; ez dute beste iñora jo bearrik.

Gipuzkoa'n bizi dan langile bakoitzak, Aurrezkitegi ontan zartzarorako libreta bat izan biar du, ta libreta ortan jarriko zaio nagusiak eta Gobiernoak beretzat emango duten guzia. Langile orrek 65 urte izango dituanean, libreta ortan daukan diruz erosi liteken zartzaro-sari guzia erosiko zaio. Gipuzkoa'ko Aurrezkitegia'k emango dio txintxo-txintxo eguneroko ori, biziko dan arte guzian.

Nagusiai

Lege berri onek agintzen duan guzia ezin esan liteke emen zabal eta osorik, toki asko beariko genuke ortarakota. Ez dio ajola: bearrena esan degu, ta geigo jakin nai duana datorrela Aurrezkitegia'k Donostia'n eta beste erri as-kotan jarrita dauzkan etxietako batera, ta pozik esango diogu argi ta garbi jakin naiko duan guzia.

Zenbat eta lenago galdetuko duten, obe. Lege au agertu zanetik (Ilbelta'ren 23'an) sei ilabetera, (Uztaila'ren 23'an) berak esaten duana nai ta nai ez egin beariko dute, Gipuzkoa'ko nagusi guziak. Gero indarrez egin bear dutena orain onez egitea on izango litzake guzientzat. Gutxika gutxika orain baletoz, Uztaila'rako lan asko egingo litzake Aurrezkitegia'n, eta gero arrapaladan eta itoka, lan guzia batean egiten ibili bearrik ez genuke izango.

Nagusi asko etorri dira, ta egin bear zuten guzia egin dute. Geigo ta geigo etortzea nai genuke ordea. Ez, bada, nai ta nai ez,

indarrez egin bear izan arte egon zai: indarrari aurre artu zaiozute, ta atozte len-bai-len.

Nagusiak: zuen langilien zartzaroa alaitzeko bearke dan dirua ematen asitzeko, ez zai egon. Orain ematea, naita ematea da; gero ematea, indarrez ta nai gabe ematea.

Ta nai gabe egiten diran gauzetatik ondasun gutxi etortzen da. Naita, gogo onez egindako gauzak izaten dira onenak.

2.3. Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren agiria (1921)¹²

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPÚZCOA

HOMENAJE A LA VEJEZ

Con motivo de haberse celebrado recientemente el vigesimoquinto aniversario de la fundación de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, el Instituto Nacional de Previsión quiso asociarse de una manera práctica a la conmemoración de ese acontecimiento.

Al efecto hizo un donativo a la Caja de Ahorros Provincial, para que ésta, además de las pensiones de vejez sorteadas ya por ella con aquel motivo, pueda conceder otras varias pensiones a personas muy ancianas de Guipúzcoa.

De este modo, el Instituto Nacional de Previsión, a la vez que se identifica con la Caja Provincial en el recuerdo de la fausta fecha, rinde también un homenaje al respeto y consideración que merece la ancianidad, con la cual enaltece la obra de la previsión popular que le está encomendada.

Para dar cumplimiento a tan plausible iniciativa, la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa abre un concurso con sujeción a las siguientes condiciones:

¹² Orri solte honen transkripzioa egiteko orduan, aurreko testuan bezalaxe jokatu dugu (euskarazko zatian); ikusi 11. oin-oharra.

1.^a Las pensiones que se concedan serán, como máximo, de dos pesetas diarias, pagaderas hasta el fallecimiento de cada pensionista.

2.^a Los solicitantes deberán ser, precisamente, guipuzcoanos, residentes actualmente en Guipúzcoa, y de una edad superior a 90 años.

3.^a Entre los de edad más avanzada serán designados los de posición más modesta y los que, dentro de su pobreza, más se hayan distinguido por sus virtudes sociales, por sus sacrificios para criar a la familia o por otras razones que constituyan mérito especial.

4.^a La Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, efectuará por sí misma las informaciones que estime necesarias para comprobar las circunstancias y los méritos alegados, y será soberana para designar los ancianos acreedores al disfrute de las pensiones.

5.^a Las solicitudes deberán dirigirlas los concursantes, por sí o por segundas personas, al señor Director de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa hasta el día 10 de Septiembre próximo. Acompañarán una relación de hechos y circunstancias que aleguen, autorizada por el Alcalde de la localidad respectiva, y la fe de bautismo que justifique la edad del peticionario.

San Sebastián, 3 de Agosto de 1921
José Segurola
El Director

GIPUZKOA 'KO AURREZKITEGIA

ZARREN ALDE

Gipuzkoa 'ko Aurrezkitegia iriki zanetik XXV urte bete ziralako, oraintxe illabete dala diruzko sari ederrak banatu zituan Aurrezkitegi onek. Saritutako batzuei, oso-osorik berealaxe eman zitzaizkieten beren sariak; beste batzuei, berriz, biziko diran arte guzian egunero peseta bat emango zaiete.



GIPUZKOA'KO AUFÉZKITEGIA

ZAREN ALDE

Gipuzkoa'ko Aufezkitegia iriki zanetik XXV urte bete ziralako, oraintxe ilabete dala diruzko sari edefak banatu zituan Aufezkitegi onek. Saritutako batzuei, oso-osorik berealaxe eman zitzaizkieten beren sariak; beste batzuei, befiz, biziko diran afte guzian egunero peseta bat emango zaiete.

Orain, ofelako beste sarjketā bat egin beafean afkitzen gera. **Instituto Nacional de Previsión**'ek, Gipuzkoa'ko Aufezkitegia bere XXV'g. uftera iritxi dalako duan poza ageftu naiaz, Gipuzkoa'ko zafenen aftean bere izenean beste sari batzuek banatzea nai lukela esan digu, ta esatean, bere asmo ori betetzeko beaf dan dirua ere bidaldu digu.

Iritzi ori aufera eramateko, dei bat egiten diegu, bada, Gipuzkoa'ko gizon eta emakume zafai.

Ona sariketa au nolakoa izango dan:

1.—Izendatuko dan bakoitzari, geienaz bi peseta emango zaizkio egunero, bizi dan afte guzian.

2.—Sari oek irixteko Gipuzkoa'n jaioa izan beaf da, Gipuzkoa'n bizi beaf da, ta **90 urte beteak** izan beaf dira.

3.—Zafenen aftean beafstuenak aukeratuko dira, ta beafstuenen aftean, bere familia azitzeko neke geien aftu dituztenak eta giza-aftean zuzen eta gabienak izan diranak.

4.—Sari oek eskatuko dituztenen aftean, Gipuzkoa'ko Aufezkitegia'k berak bakafik aukeratuko ditu ondoen derizkionak, eta erabaki ofezaz gora jotzerik ez du ifiofk izango.

5.—Nofberak eskatu ditzazke sari oek, eta beste baten bitaftez ere bai. Dana dala, datofen ilaren 10'g. egunerako eskatu beaf dira. Gipuzkoa'ko Aufezkitegi'ko zuzendari jaunari egin beaf zaio eskaera, ta, eskaerarekin batera, eskatzen duana noiz jaio zan esango duan eliz-agiria ere bidaldu beaf da.

Arau oen bafuan sari oek ezezago irabazi al izateko nofbaitek zefbait egin badu ere, eskaera egitean eta nofberak esaten duana alkateak bere izenaz ontzat ematen duala, adierazi bear du.

Donosti-1921'g. urteko Dagonila'ren 2'an.

José Segurola

ZUZENDARIA

Hirugarren testuaren euskarazko atala.

Orain, orrelako beste sariketa bat egin bearrean arkitzen gera. Instituto Nacional de Previsión´ek, Gipuzkoa´ko Aurrezkitegia bere XXV´g. urtera iritxi dalako duan poza agertu naiaz, Gipuzkoa´ko zarrenen artean bere izenean beste sari batzuek banatzea nai lukela esan digu, ta esatean bere asmo ori betetzeko bear dan dirua ere bidaldu digu.

Iritzi ori aurrera eramateko, dei bat egiten diegu, bada, Gipuzkoa´ko gizon eta emakume zarrari.

Ona sariketa au nolakoa izango dan:

1.-Izendatuko dan bakoitzari, geienaz bi peseta emango zaizkio egunero, bizi dan arte guzian.

2.-Sari oek irixteko Gipuzkoa´n jaioa izan bear da, Gipuzkoa´n bizi bear da, ta 90 urte beteak izan bear dira.

3.-Zarrenen artean beartsuenak aukeratuko dira, ta beartsueneren artean, bere familia azitzeko neke geien artu dituztenak eta giza-arTEAN zuzen eta garbienak izan diranak.

4.-Sari oek eskatuko dituztenen artean, Gipuzkoa´ko Aurrezkitegia´k berak bakarrik aukeratuko ditu ondoen derizkionak, eta erabaki orrezaz gora jotzerik ez du iñork izango.

5.-Norberak eskatu ditzazke sari oek, eta beste baten bitartez ere bai. Dana dala, datorren illaren 10´g. egunerako eskatu bear dira. Gipuzkoa´ko Aurrezkitegi´ko zuzendari jaunari egin bear zaio eskaera, ta, eskaerarekin batera, eskatzen duana noiz jaio zan esango duan eliz-agiria ere bidaldu bear da.

Arau oen barruan sari oek errezago irabazi al izateko norbaitek zerbait egin badu ere, eskaera egitean eta norberak esaten duana alkateak bere izenaz ontzat ematen duala adierazi bear du.

Donosti-1921´g. urteko Dagonilla´ren 2´an.

José Segurola
Zuzendaria

2.4. Prentsa-artikuluaren adibide bat (*Argia*, 1926)¹³

LANGILIENTZAT ZARTZARO-LEGEA

Lenago ere itzegin oi izan deu lege onezaz.

Orain, ordea, berriz bizitu ta txospertu dute lege au, ta betetzen ez duten nagusiai kalte gogorrak etorriko omen zaizkiete. Ori dala-ta, Gipuzkoa ´ko Aurrezkitegia sendo lanean asi da berriz lege onen alde; guk ere alegiña egin dezagun langile euskaldunen zartzaro onaren alde, ta Euskalerriko lantegietako nagusiai kalterik etorri ez dakieten.

«Langilientzat zartzaro-legea» izena jarri diote lege oni. Aukerazko izena, beren langilien zartzarorako zerbait ematea agintzen diete España ´ko nagusi guziei-ta.

Orain arte, nagusiak ez zeukan bere langilien zartzaroaz zer ikusirik.

Orain bai. Langilea zartutakoan bidaldu dezake etxetik, baño ordurako, apurka-apurka, ilero ainbeste, eman bear izango du langile ori zer janik gabe gelditu ez dedin. Emendik aurrera, nagusiak, langileari, bere lanaren irabaziaz gañera, ainbesteko bat eman bear-ko dio ilero-ilero zartzarora iritxitakoan bizi-bidea izan dezan.

Ortara beartzen du lege onek, «Langilientzat zartzaro-legea» izendatu duten lege onek.

Langilientzat da lege au. Baña ¿zer da langile izatea lege onentzat? Geienez, indar-lanetan, beso-lanetan dabilenari bakarrik deitzen diogu langile. Buru-lanetan eta antzekoetan dabilenari, ez diogu langile esaten.

Lege onentzat ordea, lan egiten duan guzia da langile: nekazaritzan, lantegietan edo bere etxean lan egiten duan gizon eta

¹³ *Argia*, 1926-V-9, artikuluaaren hasieran esan dugun moduan.

emakume guzia da langile; beso-lanetan do buru-lanetan nun nai eta nornairentzat jardutzen dan gizon eta emakume guzia da langile. Beste baten mende ari bada, lan egiteagatik norbaitek ordaintzen badio, langile da.

Langile oentzat, besteren mende lan egiten duten langilientzat da lege au. Baña ez guzi-guzientzat: amasei urte bete ta irurogei ta bost bete ez dituztenentzat, eta lau mila pesetatik gora urtero irabazten ez dituztenentzat.

Legearen barruan dauden langile oiei ¿zer emango zaiete zartuko diranean?

Iñor ez da gizon jaiotzen; aur jaio eta gero gizontzen dira guziak. Lege oni ere gertatzen zaio: aur jaio zan, gutxi eskeñiaz, baña ari da sendotzen. Lege-pean sartzerakoan 45 urte bete dituztenai, 65era irixtean eguneroko peseta bat emango zaiete bizi diran artean; 45 urte bete dituztenai, gutxixego. Gañera, ordea, beste alde on asko ditu lege onek: aur-egiten duten emakumai 50 peseta ematen zaiete; 1923´g. urtean 65 urte bete zituzten gizon eta emakumai, bakoitzari zegokion zartzaro sariaz gañera, 350 pesetana eman zitzaizkieten; 1924´g. urtean bete zituztenai laurena peseta, ta joan dan urtean bete zituztenai ere beste ainbeste emango zaiete gutxi gora bera. Lanerako gauza ez dala gelditzen danari ere laguntzen dio, ta beste «koxka» ta alderdi on asko dauzkate lege-barruan daudenak.

Langileak: begira zuena nagusiak lege-pean jarri zaituzten, eta jarri ez bazaituzte, eskatu jartzeko, bestela gero damutuko zerate-ta.

Nagusiak: bete lege au, bestela kalte gogorrak etorriko zaizkitzute-ta.

Ortarako zer egin bear dezuten jakiteko, galdetu Gipuzkoa´ko Aurrezkitegia´k errietan banatuta dauzkan edozein etxe-ordekoetan.

Jeme

Cesar Gallastegi

LARRAMENDIREN HIZTEGIGINTZA JURIDIKOA

Badira euskararen tradizio lexikografikoan halako jarraitutasun lerroak hiztegegintzaren aldetik. Badira, orobat, hiztegiak, goitik behera eta xehetasun guztiakin euskara aztertzen duten hitz-bildumak. Gutxiago ditu euskarak, ordea, eremu lexiko jakin batetik hasi eta harenak biltzen dituztenak. Horri ekin nahi izan zaio oraingo honetan. Horretarako, esparru juridiko-administratiboa aztergai hartu eta horren barruan murgiltzeko ahalegina egin da. Eta Larramendi aukeratu dute hasikina ikerlari talde batek.

Izan ere, azken hiru mendeotan, Larramendi izan da nahitaezko zimentarria lexiko juridiko-administratiboarekin harremanetan ibili diren guztientzat. Alde edo kontra, osorik zein zatika, Larramendiren ekarria ezinbestekoa izan da gaztelaniazko testugintza juridiko-administratiboa euskaratzeko unean. Lan honetan, horregatik, Larramendiren eragina zuzenbidea gaitzat duten testuetan aztertu nahi da bereziki. Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzak* eman zuen urte luzeetan gaztelaniaz sorturiko kontzeptuak euskaratzeko bidea. Euskarak behar zituen horiek, eta lan horretan Larramendiren lana egundokoa izan zen.

Lanari buru emateko, *Hiztegi Hirikoitzaren* gainean zuzenbidearen ikuspegitik egindako hustuketa jarri da. Esan bezala, azterketarako erabili den corpusa da eta irakurleari Larramendiren lanaren nondik norakoak zuzen-zuzenean konsultatzeko aukera emango dio.

Hauxe da Cesar Gallastegi, Andres Urrutia, Esther Urrutia eta Arantza Etxebarriaren eskutik datorren liburu horren aurkibide osoa:

Larramendiren Hiztegitza Juridikoa

Zuzenbidea Derecho

Larramendiren
Hiztegitza
Juridikoa

Universidad de Deusto Deustuko Unibertsitatea

.....

Aurkibidea: Larramendiren hiztegitza juridikoa: 1. Hasierakoa.— 2. Larramendi: forua eta euskara.— 3. Larrendiren lexiko juridiko-administratiboaren osaera.— 4. *Hiztegi Hirukoitza:* lexiko juridiko-administratiboaren biladura semantikoa.— 5. *Hiztegi Hirukoitzaren* ondorengoak, lexiko juridiko-administratiboaren arloan: 5.1. Sarrera; 5.2. Amundarain, XIX. mendeko idazle liberala; 5.3. Ulibarri, XIX. mendeko idazle karlista; 5.4. Lore Jokoak; 5.5. Euskal aldundietako testugintza XX.,. mendearen hasieran.— 6. Ondorioak.— *Hiztegi hirukoitzaren* hustuketa: 1. Sarrera.— 2. Hustuketaren ondoriozko hitz-zerrenda.

Kode Zibila
Código Civil

2. argitaraldia / 2.ª Edición

Legge-testuak
Textos legales

KODE ZIBILAREN BIGARREN ARGITARALDIA

Kode Zibilaren bigarren argitaraldi elebiduna agertu zaigu. Bigarren argitaraldiaren xedea izan da Kode Zibilak azken urteetan izan dituen lege-aldaketa esanguratsuen berri ematea.

Bi dira halakoak, hain zuzen ere, uztailaren 1eko 13/2005 Legea, Kode Zibila aldaraztekoa, ezkontzeko eskubidearen arloan, eta uztailaren 8ko 15/2005 Legea, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldaraztekoa, banantze eta dibortzioaren arloan. Bi-biok dira, ezbairik gabe, esanahi handikoak familia-zuzenbidean. Bitzuok, hortaz, barneratu dira bigarren argitaraldi honetan, eurekin batera ere barruratu direla aurkibide analitikoaren sarrera berriak, beharrezko izan direnetan.

Kode Zibilaren argitalpenaren arduradun nagusiak Andres Urrutia Badiola eta Esther Urrutia Idoiaga; bigarren argitaraldi honetarako Jabier Arrietaren laguntza izan dute. Gainera, IVAP-HAEEren erabateko lankidetzara aipagarria da. Argitaletxea, aurreko edizioarena bezala, Deustuko Unibertsitatea izan da. Liburuak guztira 1.281 orrialde ditu.

**Lege zibilak:
Ondasun
higiezinak**

**Leyes civiles:
Bienes
inmuebles**

2. argitaraldia / 2.^a edición

Lege-testuak
Textos legales

LEGE ZIBILAK: ONDASUN HIGIEZINAK. BIGARREN ARGITARALDIA

Zuzenbide zibileko lege itzulpenekin jarraituz, “Lege zibilak: ondasun higiezinak” izeneko lege bildumaren bigarren argitaraldi elebiduna berriki agertu da.

Kontuan hartu behar da alor horretan 2005/26 Legeak (azaroaren 30ekoa), azaroaren 26ko 49/2003 Legea aldatu duela; hau da, Landa-errentamenduen Legea aldatu egin da. Lege horren testua bildu da liburuaren bigarren argitaraldi honetan. Haren bidez eraldatu dira, besteak beste, landa-errentamenduei buruzko hainbat alor.

Horra hor, bada, liburuaren berrargitalpen honek eskaintzen duen berrikuntza nabariena, aurkibide analitikoetan egindako egokitzapenekin batera, halako egokitzapenak egin behar izan direlako, aipatu lege-erlaldaketen ondorioz.

Bigarren argitaraldi honen egokitzailak Deustuko Unibertsitateko hiru irakasle hauek izan dira: Andres Urrutia Badiola, Esther Urrutia Idoiaga eta Jabier Arrieta Idiaketz. Gainera, IVAP-HAEEren lankidetzaz aipagarria da. Deustuko Unibertsitatea izan da 385 orrialde dituen liburu horren argitaletxea.

Zuzenbide
politikoaren
legeria

Legislación
de Derecho
político

Legge-testuak
Textos legales

ZUZENBIDE POLITIKOAREN LEGERIA

Lege-testu berri hau Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuaren Liburutegi juridiko elebidunera biltzen den hamabosgarren lana da. Bada, Euskal Gaien Institutuak, Zuzenbide Fakultateko Euskara Juridikoaren Mintegiarekin batera, egin duen lan honek Espainiako antolamendu juridikoaren oinarritzko eskubide eta askatasunen babesari buruzko lege politikoak euskaraz eta gaztelaniaz jaso ditu. Gainera, lege horien buru 1978ko Konstituzioa jaso da, euskarazko testua berrikusi eta gero.

Esan beharra dago, lege politikoak euskaraz eman baino lehenago, hausnarketa sakona egin behar izan dela, hizkera juridikoak hainbat berezitasun baititu, ezaugarri linguistikoei dagokienez. Argitaratze-unea arte egindako aldarazpen guztiak kontuan hartzeaz gain, Euskaltzaindiaren jarraibide linguistikoak oso-osoan errespetatu izan dira, lege politikoaren arloan ere euskararen erabilerak eta normalizazio linguistikoak bat egin dezaten.

Orobat, bilduma elebidun honetan aurretiaz finkatutako irizpideei eutsi zaie, eta, horren eretzean, oinarritzko norabide izan dira, oraingo honetan ere, segurtasun juridikoa, bi testuen arteko baliokidetasun funtzionala eta irakurgarritasuna.

Liburu honetan, bada, eragile juridikoak eskura ditu lege politiko nagusiak, hain zuzen ere, egunero gizarte-gaietan sekulako pisua dutenak. Lege-testu guztien itzulpen eta aurkibide analitikoaz irakasle hauek arduratu dira: F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola eta Ester Urrutia Idoiaga. Argitaletxea, au-rretik esan dugun moduan, Deustuko Unibertsitatea. Liburuak 657 orrialde ditu. Azkenik, IVAP-HAEEren parte hartzea azpimarragarria da.

EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Sustapen Batzordea

Hizkuntza- -zuzenbidea Testu-bilduma euskaraz



Jagon  *Saila*

EUSKALTZAINDIA

HIZKUNTZA-ZUZENBIDEA. TESTU-BILDUMA EUSKARAZ

Lan honetan hizkuntza-zuzenbidearen inguruko xedapen nagusiak jaso eta euskaratu dira, bai Europakoak, bai mundumailakoak. Bereziki barreratu dira Espainiako erresumako eta Frantziako errepublikako xedapenak. Horrela, lurralde euskaldunetan aplikatu beharreko legeria euskaraz laburbildu da.

Argitalpen honen bereizgarria da, hain justu ere, esparru horretako hainbat testu biltzea, irakurle interesdunak, aditua izan zein izan ez, euskarazko bilduma bakar eta erabilgarri batean halako materialak izan ditzan.

Araubide baten bildumaz denaz bezainbatean, egitura jakineko argitalpena da. Izatez, piramide baten antzera jokatu da, maila geografiko eta inoizkorik gehien duten testuetatik abiatu, eta egun Euskal Herriko herrialdeetan aginduzkoak direnak zehaztu arte. Bide horretatik eskura dezake liburu hoien erabiltzaileak halako ikuspegi orokorra, egun Euskal Herrian ez eze, mendu osoan hizkuntza-eskubideen nondik norakoak egoki barruratzen dituen.

Hizkuntza-araubidea emateko orduan arreta eta harrera bereizia eskaini zaio euskarari berari. Izan ere, testu guztiak euskaraz eman dira, uste izanik, nazioarteko testuen jatorrizko bertioari muzin egin gabe, behar ditugula euskaldunok halako testuak euskaraz eta argitalpen fidagarri baten bidez bildurik izatea.

Argitalpena Euskaltzaindiak egin du, Jagon Saila izenekoaren barruan. Liburuak 155 orrialdi ditu eta 39 testu desberdinetako pasarteak biltzen ditu. Gainera, liburuak aurkibide analitiko eta testu-iturrien zerrenda jasotzen ditu. Aurkezpena Andres Iñigok (Jagon sailburua) idatzi du eta atarikoak, Andres Urrutia Euskaltzainburuak.

KONGRESUEN BERRI LABURRA

1. JUSTIZIA ETA EUSKARARI BURUZKO KONGRESUA BILBON

Urriaren 25 eta 26an, Bilboko Euskalduna Jauregian, “Euskarak Justizia Administrazioan bizi duen egoeraren inguruko Biltzarra” ospatu zen, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak antolatuta. Orain dela hamar urte antzeko ekitaldia ospatu zen, Gasteizen, hain zuzen ere.

Joseba Azkarraga Rodero Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak zabaldu zuen Kongresua; sailburuak Justizia Administrazioarentzat lan egiten dutenen euskara ezagupenak aipatu zituen: funtzionarioen erdia herritarrak euskaraz artatzeko gai da. Gainera, Hizkuntza Normalizaziorako Plan Nagusia aipatu zuen; egitasmoa abendu aurretik onartzea espero dute. Azkenik “Justizia Administrazioaren esparruko hizkuntza eskubideen dekalagoa” eta publizitate-kanpaina berria aurkeztu zituen.

Ondoren, Inmaculada de Miguel Herránek (Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendaria) hitz egin zuen, Jaime Tapia Parreñok aurkeztu ondoren (Arabako Probintzia Auzitegiko Magistratua); “Azken urteetako ibilbidea eta abian jarritako egitasmoak” izeneko testua aurkeztu zuen Inmaculada de Miguelek.

Goizeko saioari amaitzeko, mahai-inguru bat antolatu zen, “Atzera begirako ikuspegia talde eta erakunde desberdinen eskutik”



Joseba Azkarraga, (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburua) eta Inmaculada de Miguel (Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendaria).



Joseba Azkarraga jn., jardunaldien hasiera-ekitaldian.

izenarekin. Moderatzailea Jose Angel Tamayo (Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko ikasleen, irakasleen eta euskara gaien dekanorordea) izan zen; partaideak, berriz, honako hauek: Nekane San Miguel Bergaretxe (Bizkaiko Probintzia Auzitegiko magistratua), Andrés Urrutia Badiola (Euskaltzaindikoko burua eta Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakaslea), Aitzol Asla Uribe (Bizkaiko Elkargoko abokatua eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea), Iñaki Sánchez Guiu (EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaria) eta sindikatuen ordezkari bat.

Arratsaldean Kongresuko ikusleak hiru tailerretan banatu ziren. Lehenengoa, “Europako Gutuna eta herritarraren hizkuntz eskubideak” izenekoa, Gontzal Aizpurua Ondaroren zuzendaritzapean garatu zen (Gontzal Aizpurua abokatua da, eta Bizkaiko Abokatuaren Elkargoko Gobernu Batzordeko eta Euskara Batzordeko kidea). Hizlariak lau izan ziren: Cesar Gallastegi Aranzabal (Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakaslea), Matilde Aragón Gassiot (Kataluniako Auzitegi Nagusiko Magistratua), Xabier Iriondo Arana (Barne Saileko teknikaria. Eusko Jaurlaritzak), eta Rafa Saiz de Rozas Bedialauneta (Arartekoaren bulegoko aditua).

Bigarren tailerraren gaia “Erabilera esperientziak” izan zen. Dinamizatzaile lanetan Aitor Gorostiza Morillo ibili zen, Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzako hizkuntza-normalizazioko teknikaria. Hizlariak hurrengoak izan ziren: Xabier Arauzo Uriarte (Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzako hizkuntza-normalizazioko teknikaria), Julio César Álvarez (Galiziako Xuntako hizkuntza-normalizazioko teknikaria), Joseba Lozano Santos (Eusko Jaurlaritzako herri-administrazioetako normalizazioplangintzen jarraipenerako arduraduna), Joxean Amundarain Iturrioz (Gipuzkoako Foru Aldundiko hizkuntza-normalizazioko teknikaria) eta Rosa Lizandra Crespi (Kataluniako Generalitateko arlo judizialeko hizkuntz zerbitzuaren koordinatzailea).

Hirugarren tailerraren gaia “Hizkuntzak eta teknologia berriak” izan zen. Tailerraren dinamizatzailea Ana Molina Aldareguia

izan zen, Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzako Informatika Judizialeko arduraduna. Hizlariak: Xabier Balerdi Tolosa (Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzako hizkuntza-normalizazioko teknikaria), Araceli Díaz de Lezana (Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Estandarizazio arduraduna), Juan Alberto Alonso (Translendumeko gerentea. Katalunia) eta Iñaki Irazabalbeitia (Elekakoa).

Ostiralean Kongresuko lehen autua “Justizia administrazioan elebitasunari eta eleaniztasunari emandako hainbat irtenbide” izan zen. Aurkezle gisa Jon Urrutia Mingo, IVAP-HAEEko zuzendaria, aritu zen. Hizlari bien izenak honako hauek: Michel Doucet (abokatu eta Kanadako Monctoneko Unibertsitateko irakasle titularra) eta Vesna Crnic-Grotic (Europako Kontseiluko Aditu Batzordearen 1. Lehendakariorde eta Rijekako Unibertsitateko Katedraduna. Kroazia).

Etenaldia egin ondoren, “Hizkuntza koofizialak eta konstituzio-jurizprudentzia” gaia jorratu zuen Eva Pons i Parerak (Konstituzio Zuzenbideko irakasle katedraduna Bartzelonako Unibertsitatean); irakaslearen aurkezpena Jesus Izagirre Gerrikagoitiak (Arabako Probintzia Auzitegiko Fiskalburua) egin zuen.

Ondoren, “Hizkuntza ofizialen tratamendua legebiltzarrean” deitutako gaia erabili zen. Aurkezlea Begoña Lasagabaster Olazabal izan zen, Diputatuen Kongresuan Eusko Alkartasunaren diputatua. Hizlariak honako biak: Margarita Uria Etxebarria (Euskal Talde Parlamentarioaren kidea Diputatuen Kongresua) eta Miquel Bofill Abelló (Entesa Catalana de Progres Talde Parlamentarioko senataria). Hirurek Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren aldaketa aipatu zuten; aldaketa horrek ondorioak ekarri behar zituen hizkuntz koofizialen esparruan; hala ere, erreforma hori bertan behera gelditu da, hauteskundeetan atarian gaude eta.

Azkenik, amaiera-ekitaldiari ekin zion Josu J. Sagasti Aurrekoetxeak, Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuordeak. Sailburuordeak ondorioak irakurri eta antolatzaile eta parte hartzaileak agurtu zituen.

2. NOMOGRAFIA ETA ARAU-IDAIZKETA ELEBIDUNARI BURUZKO KONGRESUA DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN

2007ko abenduaren 13 eta 14an “Nomografia eta arau-idazketa elebudunari buruzko kongresua” ospatu zen Bilbon, Deustuko Unibertsitatean. Antolatzaileak bi erakunde hauek izan ziren: batetik Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutua, eta, bestetik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE-IVAP). Horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Saila laguntzaile izan zuten.

Kongresuaren koordinatze lanez Santiago Larrazabal Basañez (Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko zuzendaria) eta Eneko Oregi Goñi (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundekoa) izan ziren.

Egitaraua abenduaren 13an, osteguna, zabaldu zen. Lehen saioaren gaia hauxe izan zen: Nomografía, arau-idazketa elebiduna, terminologia eta itzulpen juridikoak eleaniztasun, elebidun eta elebakarreko eremuetan. Arratsaldeko ekitaldi horri ekin aurretik harrera ofiziala egin zen Jon Koldobika Urrutia jn. txit argiaren eskutik (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria) eta Santiago Larrazabalen eskutik (aurretik esan den moduan, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko zuzendaria).

Lehenengo hitzaldia "Itzulpengintza juridikoa eleaniztasun eremu batean: Europako Legebiltzarra" izan zen, Iñigo Valverde Mordten jn.ren eskutik (gaztelaniazko itzulpengintza taldearen buruzagia Europako Legebiltzarrean).

Ondoren arratsaldeko bigarren hitzaldia etorri zen: “Terminologi juridiko elebiduna eta normalizazioa Goi Adigen: esperientziak eta hausnarketak”, Tanja Wissik and.aren eskutik, Komunikazio espezializatu eta eleaniztasunerako Institutuko terminologia, Bolzanoko Europar Akademiakoa (EURAC).

Atsedenaldi labur baten ostean, María do Carmo Henriques Salido irakasle dok. and. Aritu zen; Vigoko Unibertsitateko Hezkuntza Zientzien Fakultateko espainiar hizkuntzako katedradun horren gaia



Jardunaldien antolatzaileak, laguntzaileak eta parte-hartzaileak: Leire Zenarruzabeitia, Cesar Gallastegi, Jon Koldobika Urrutia, Tanja Wissik, Iñigo Valverde, Santiago Larrazabal, Gotzon Lobera, María do Carmo Henríquez, Eneko Oregi, Andrés Urrutia, Esther Urrutia, Oskar Arana eta Zelai Nikolas jaun-andreak.



Jon Koldobika Urrutia (IVAP-HAEEko zuzendaria) eta Santiago Larrazabal (Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko zuzendaria) jardunaldien hasiera ekitaldian.

honako hau izan zen: “Nomografia: lege-idazketaren artea eta lexikoa gaztelaniazko jurisprudentzia eta legerian”. Lehenengo eguneko lana bukatzeko eztabaida bat antolatu zen eta moderatzailea Gotzon Lobera Revilla jn., Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultur Sailaren Euskararen Sustapenerako zuzendaria, izan zen.

Hurrengo egunean, hau da, abenduaren 14an, ostirala, saio bi izan ziren: goizekoa eta arratsaldekoa. Horien guztien gaia: “Zenbait esperientzia erdara/euskara itzulpengintza juridikoa elebidunean”.

Goizeko ekitaldian hitzaldi hauek izan ziren: “Deustuko Unibertsitateko Euskara Juridikoaren ikerketa taldearen esperientzia” (hizlariak: Andres Urrutia Badiola eta Esther Urrutia Idoyaga); “Euskarazko tresna juridikoak, Zuzenbide Fakultateko Euskara Juridikoaren Mintegiak eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak landutakoak” (hizlaria: Cesar Gallastegi Aranzabal); eta, azkenik, “EAEko eskumenen transferentziei buruzko datu basea: euskara juridikoaren aplikazio espezializatua Zuzenbide Publiko eta Administrazio arlo batean” (hizlariak: Zelai Nikolas, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren letraduna, eta Oskar Arana, HAEE-IVAPeko itzultzailea).

Goizeko saioa bukatzeko eztabaidarako tartetxo bat antolatu zen; horren moderatzailea Josu J. Sagasti Aurrekoetxea izan zen, Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuordea.

Arratsaldeko ekitaldiko gaia “Euskarazko testu juridikoen idazkuntza itzulpengintzaren bidez” izan zen. Dinamizatzaile lanetan Eneko Oregi Goñi, HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren burua, ibili zen. Partehartzaileak, berriz, honako hauek: Javier Arrieta Idiakes (Deustuko Unibertsitatea), Patxi Petrirena Altzuguren (Euskal Herriko Unibertsitatea), Leire Zenarruzabeitia (UZEI) eta Iñigo Barrufo Lazkano jn. (HAEE-IVAP). Itxiera-ekitaldian Juan Jose Etxeberria Sagastume jn. txit argiak (Deustuko Unibertsitateko errektoreordea) parte hartu zuen.

Cesar Gallastegi

AKADEMIAREN ALBISTEAK

Albiste hauek 2007. urteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoei buruzkoak dira. Izan ere, aurreko aldizkariak, aldizkari arrunta izan eta 12. zenbakiarekin kaleratu zenak, martxoko data du. Ekainekoa, berriz, aldizkari berezia izan da, eta 4. zenbakia jarri zaio; aldizkari berezi horrek gai bakarra jorratu du, hain zuzen ere, Zuzenbide Zibileko Atalak ekainaren 29an antolatutako jardunaldia, eta, beraz, ez du Akademiaren albisteei buruzko atalik izan.

Aipatu seihileko horretan, zuzendaritza-batzak bilerak egin ditu maiatzaren 22an, uztailaren 24an eta irailaren 27an. Egiatan, batzako zenbait kidek euren aldetik ere beste bilera batzuk egin dituzte, eguneroko arazoei aurre egin ahal izateko.

Zuzenbidearen Euskal Akademiak burutu duen kultura-jardueraz denaz bezainbatean, hainbat ekitaldi antolatu dira; antolatzaileria, gehienetan, Zuzenbide Pribatuko Atala izan da. Arian ere, Eusko Legebiltzarrak agindua helarazi zigun Euskal Autonomia Erkidegoaren Foru-Zuzenbide Zibilari buruzko Legearen Aurreproiektua prestatzeko; proiektu horrek indarreko legeria eguneratu eta egokitu behar du gaur eguneko errealitatea aintzakotzat hartuta.

Eginkizun hori betetzeko, Zuzenbide Pribatuko Atalak zenbait bilera egin zituen Akademiaren egoitzan, eta, bilerotan, bazkideek egindako ekarpenak aztertu ziren. Bilera horiei guztiei buru emateko, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkuneko Ekitaldi

Aretoan, ekainaren 20an, “Hacia la primera Ley Civil vasca – Euskal Lege Zibil berria” izeneko jardunaldia egin zen.

Jardunaldi hori oso arrakastatsua izan zen, jende ugari bildu zelako bertara, hizlari, komunikaziogile eta bertaratutakoen partaidetza anitza izan zelako, eta guztiek ere goi mailako lanbide-prestakuntza erakutsi zutelako.

Jardunaldi horrek ahalbidetu zuen Zuzenbidearen Euskal Akademiak, Gasteizen, ekainaren 26an, Eusko Legebiltzarrean, eta, zehatzago, Euskal Zuzenbide Zibila Eraldatzeko Batzordean aurkeztea aurretiaz berarengandik jasotako aginduaren emaitza.

Aipatu jardunaldiaren edukia, bai eta Eusko Legebiltzarreko Batzordeari euskal zuzenbide zibila eraldatzeko aurkeztutako aurre-proiektua bera ere, aldizkari berezian daude jasota. Aldizkari horrek IV. zenbakia eta 2007. urteko ekaineko data du.

“Akademiaren albistek” izeneko atal honetan, nahitaez aipatu behar da zuzendaritza-batzako bi kide hil egin zaizkigula. Kideok, beste guztiek bezala, laguntza erabakigarria eskaini digute Akademiaren ibilbidea ona izan dadin. Hildakoen izenak: Eduardo Escribano Villán jauna, ekainaren 17an hil zena, eta Xabier Aurrekoetxea Aurrekoetxea jauna, irailaren 14an zendu zena. Goian beude, euren ontasun eta lan nekaezinarengatik.

Udazkenerako, hainbat kultura-jarduera daude prestatuta, dela ekitaldi moduan, dela argitalpen moduan.

Xabier Oleaga

PUBLICACIONES DE LA ACADEMIA VASCA DE DERECHO

BOLETÍN

- Boletín nº 0, junio de 2003, 47 págs. Contiene los Estatutos de la Academia.
- Boletín nº 1, noviembre de 2003, 72 págs.
- Boletín nº 2, junio de 2004, 88 págs.
- Boletín nº 3, septiembre de 2004, 100 págs.
- Boletín nº 4, diciembre de 2004, 110 págs.
- Boletín nº 5, marzo de 2005, 120 págs.
- Boletín nº 6, junio de 2005, 120 págs.
- Boletín nº 7, septiembre de 2005, 152 págs.
- Boletín nº 8, diciembre de 2005, 176 págs.
- Boletín nº 9, marzo de 2006, 184 págs.
- Boletín nº 10, noviembre de 2006, 188 págs.
- Boletín nº 11, diciembre de 2006, 198 págs.
- Boletín nº 12, marzo de 2007, 224 págs.
- Boletín extraordinario nº 1, diciembre de 2004. Jornada sobre el poder testatorio y el artículo 831 del Código Civil, 222 págs.
- Boletín extraordinario nº 2, junio de 2006. Jornada sobre la implantación del Estatuto de la Sociedad Cooperativa Europea, 112 págs.
- Boletín extraordinario nº 3, diciembre de 2006. Jornada sobre la Ley vasca para la igualdad de mujeres y hombres, 192 págs.
- Boletín extraordinario nº 4, junio de 2007. Jornada “Hacia la primera Ley Civil Vasca”, 254 págs.

OTRAS PUBLICACIONES

- *Señores de Bizkaia. De Don Diego López de Haro V a Isabel la Católica.* Por Adrián Celaya Ibarra. 500 págs.
- *Así nació Bizkaia. De Arrigorriaga al Fundador de Bilbao.* Por Adrián Celaya Ibarra. 344 págs.

COLECCIÓN CLÁSICOS DE DERECHO VASCO (REPRODUCCIÓN EN FACSIMIL)

1. *Derecho Civil de Vizcaya*, por Rodrigo Jado y Ventades, reproducción de la segunda edición publicada en 1923, con una introducción de Adrián Celaya Ibarra, 675 págs.
2. *Actas de las sesiones celebradas por la Comisión Especial de Codificación de Vizcaya (1899-1900)*, con una introducción de Andrés Urrutia Badiola, 280 págs.
3. *La Troncalidad en el Fuero de Vizcaya (1898)*, por Luis Chalbaud con una introducción de Javier Chalbaud, 160 págs.
4. *Estudios Jurídicos del Fuero de Vizcaya (1918)*, por José Solano y Polanco, con una introducción de José Miguel Gorostiza Vicente, 382 págs.
5. *Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya (1899)*, por Carlos de la Plaza y Salazar, dos tomos en un volumen, con una introducción de Adrián Celaya Ibarra, 580 págs.
6. *Derecho Privado de Vizcaya (1903)*, por Diego Angulo Laguna, con una introducción de José M^a Arriola Arana, 304 págs.
7. *El Derecho Civil de Bizkaia antes del Código Civil*, presentado por Adrián Celaya Ibarra, 232 págs.
8. *Fuero de las M.N. y L. Encartaciones (1916)*, por Fernando de la Quadra Salcedo, con una introducción de Adrián Celaya Ibarra, 297 págs.

OTRAS OBRAS EN LAS QUE HA COLABORADO LA ACADEMIA VASCA DE DERECHO

- *Dufau bi anaiak*, por Henri Duhau, con una introducción de Andrés Urrutia, publicado por Elkar, 356 págs.

ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIAREN ARGITALPENAK

ALDIZKARIA

- 0. zk., 2003ko ekaina, 48 or. Akademiaren barne-araudia dakar.
- 1. zk., 2003ko azaroa, 72 or.
- 2. zk., 2004ko ekaina, 88 or.
- 3. zk., 2004ko iraila, 100 or.
- 4. zk., 2004ko abendua, 110 or.
- 5. zk., 2005eko martxoa, 112 or.
- 6. zk., 2005eko ekaina, 120 or.
- 7. zk., 2005eko iraila, 152 or., euskaraz oso-osorik.
- 8. zk., 2005eko abendua, 176 or.
- 9. zk., 2006ko martxoa, 184 or.
- 10. zk., 2006ko azaroa, 188 or., euskaraz oso-osorik.
- 11. zk., 2006ko abendua, 198 or.
- 12. zk., 2007ko martxoa, 224 or.
- 1. zerbaki berezia, 2004ko abendua, 222 or. gaia: Jornadas sobre el poder testatorio y el artículo 831 del Código Civil.
- 2. zerbaki berezia, 2006ko ekaina, 112 or.; gaia: Jornadas sobre la implantación del Estatuto de la Sociedad Cooperativa Europea.
- 3. zerbaki berezia, 2006ko abendua, 192 or.; gaia: Jornadas sobre la Ley vasca para la igualdad de mujeres y hombres.
- 4. zerbaki berezia, 2007ko ekaina, 254 or.; gaia: Euskal Lege Zibil Berria jardunaldia.

BESTE ARGITALPENAK

- *Señores de Bizkaia. De Don Diego López de Haro V a Isabel la Católica.* Egilea: Adrián Celaya Ibarra, 500 or.
- *Así nació Bizkaia. De Arrigorriaga al Fundador de Bilbao.* Egilea: Adrián Celaya Ibarra, 342 or.

EUSKAL ZUZENBIDEAREN KLASIKOAK BILDUMA (FAKSIMIL ITXURAN ARGITARATUAK)

1. *Derecho Civil de Vizcaya*; egilea: Rodrigo Jado y Ventades; 1923an agertutako bigarren edizioaren berrargitalpena; sarrera: Adrián Celaya Ibarra; 678 or.
2. *Actas de las sesiones celebradas por la Comisión Especial de Codificación de Vizcaya (1899-1900)*; sarrera: Andres Urrutia Badiola, 278 or.
3. *La Troncalidad en el Fuero de Vizcaya (1898)*; egilea: Luis Chalbaud; sarrera: Javier Chalbaud, 138 or.
4. *Estudios Jurídicos del Fuero de Vizcaya (1918)*; egilea: José Solano y Polanco; sarrera: José Miguel Gorostiza Vicente, 378 or.
5. *Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya (1899)*; egilea: Carlos de la Plaza y Salazar; liburuki bi ale bakar batean; sarrera: Adrián Celaya Ibarra, 572 or.
6. *Derecho Privado de Vizcaya (1903)*; egilea: Diego Angulo Laguna; sarrera: José M^a Arriola Arana, 276 or.
7. *El Derecho Civil de Vizcaya antes del Código Civil*; aurkezpena: Adrián Celaya Ibarra, 220 or.
8. *Fuero de las M.N. y L. Encartaciones (1916)*; egilea: Fernando de la Quadra Salcedo; aurkezpena: Adrián Celaya Ibarra, 297 or..

AVD-ZEA-REN LAGUNTZAZ ARGITARATUTAKO LANAK

- *Dufau bi anaiak*; egilea: Henri Duhau; sarrera: Andres Urrutia; argitaletxea: Elkar, 356 or.

NORMAS PARA LA PRESENTACIÓN DE COLABORACIONES EN EL BOLETÍN DE LA AVD-ZEA

1) El Boletín de la AVD-ZEA está abierto a las colaboraciones que tengan por objeto el estudio y la divulgación del Derecho vasco, así como cualquier otro tema relacionado estrechamente con el mismo.

2) Los trabajos recibidos serán seleccionados, en función de su calidad científica, por la Junta Directiva de la AVD-ZEA o persona/s en quien ésta delegue. En cualquier caso, la AVD-ZEA no se hace responsable ni se identifica necesariamente con el contenido de los mismos.

3) Los trabajos deberán entregarse en soporte informático, guardando las siguientes recomendaciones de estilo: se utilizará letra tipo Times en todo el texto; se evitarán las negritas (salvo en los títulos o subtítulos) y los subrayados; se hará un uso pertinente de las cursivas, las comillas y los guiones largos o rayas; si se realizan citas o se aporta bibliografía, se deberá hacer de forma coherente y uniforme.

4) La AVD-ZEA cuidará la presentación final de los artículos. Asimismo, la AVD-ZEA se reserva el derecho a corregir los errores evidentes que aparezcan en los textos.

5) Los trabajos deberán remitirse a la dirección de la AVD-ZEA:

Academia Vasca de Derecho
Alameda Recalde, 8, 1º dcha.
48009 Bilbao

secretaria@avd-zea.com

AVD-ZEA-KO ALDIZKARIAN ARTIKULUAK AURKEZTEKO ARAUAK

1) AVD-ZEAko Aldizkaria euskal zuzenbidea aztertu eta zabaltzea xede duten lankidetzak guztientzat irekita dago, baita horrekin zerikusi estua duten beste gai guztientzat ere.

2) Jasotako lanak AVD-ZEAko Aldizkariko Zuzendaritza Batzordeak edo horrek eskuordetutako pertsonak/ek hautatuko ditu/dituzte, horien maila zientifikoa kontuan hartuta. Edonola ere, AVD-ZEAk ez du artikulua horien gaineko erantzukizunik eta nahitaez ez da bat etorriko horien edukiekin.

3) Lanak euskarri informatikoan eman behar dira, jarraibide hauek zainduz: Times motako letra erabiliko da testu osoan; testu lodiak eta letra beltzak (tituluetan eta azpitituluetan izan ezik) eta azpimarrak saihestuko dira; letra etzanak, komatxoak eta gidoi luzeak edo marrak behar den moduan erabiliko dira; aipamenak egiten badira edo bibliografia gehitzen bada, modu koherente eta bateratuan egin beharko da.

4) AVD-ZEAk artikuluen itxura zainduko du. Era berean, testuetako akats nabarmenak eta begibistakoak zuzenduko ditu.

5) Lanak AVD-ZEAren helbidera igorri behar dira:

Zuzenbidearen Euskal Akademia
Errekalde zumarkalea, 8, 1. esk.
48009 Bilbo

secretaria@avd-zea.com

BOLETIN DE INSCRIPCION
A LA ACADEMIA VASCA DE DERECHO

Don/Doña
Que ejerce la carrera de Derecho como
O, en su caso, es Licenciado o Doctor, no ejerciente,
domiciliado en (población).....(código postal).....
(calle).....nº.....(piso).....

Informado de la naturaleza y fines de la ACADEMIA VASCA DE DERECHO,
desea inscribirse como socio activo de dicha Asociación, obligándose al cumpli-
miento de los deberes sociales y al abono de la cuota anual de 50 Euros.

Firma

Derecho Público
Derecho Privado
Derecho Financiero y Tributario

..... indicar otra Sección que se considere de interés.

Al Banco / Caja de Ahorros
Muy Srs. Míos, les ruego atiendan al pago de los recibos por cuota anual de ins-
cripción en la ACADEMIA VASCA DE DERECHO, con cargo a mi cuenta (por
favor, cumplimentar los 20 dígitos):

CCC _ _ _ _ _

Firma

Remitir este Boletín a:
ACADEMIA VASCA DE DERECHO,
Alameda Recalde, 8 - 1º dcha.
Teléfono 94 425 57 15 - Fax. 94 424 64 99
e-mail: secretaria@avd-zea.com
www.avd-zea.com
48009 BILBAO

ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIAN
IZENA EMATEKO ORRIA

Ni,
jaun/andrea, zuzenbidearen arloan ari naiz,
gisa; edo, zuzenbideko lizentziaduna edo doktorea naiz.
.....(e)n bizi naiz (..... posta-kodea),
..... (kaleko) (zenbakian eta solairuan)

ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIAK dituen izaera eta helburuak ezagutzen ditut. Ondorioz, elkarte horren bazkide izan nahi dut, eta betebeharrak hauek har-tzen ditut: bazkide-eginbeharrak betetzea eta urtero-urtero 50 euroko kuota ordaintzea.

Sinadura

Zuzenbide publikoa
Zuzenbide pribatua
Finantza- eta zerga-zuzenbidea

..... beste edozein atal interesgarri aipa daiteke.

.....

.....izeneko bankuari/aurrezki kutxari
Jaun-andre horiek: ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIako bazkide egin naizenez gero, arren eskatzen dizuet izen-emate horren ondoriozko urteko kuotaren ordainagiriak ordaintzea (mesedez, 20 digituak bete):

Kontu-korrontea _ _ _ _ _

Sinadura

Orri hau helbide honetara bidali:
ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA,
Errekalde zumardia, 8 - 1. eskuina.
Telefonia: 94 425 57 15 - Faxa: 94 424 64 99
Helbide elektronikoa: secretaria@avd-zea.com
www.avd-zea.com
48009 BILBO